


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

JENDAURREKO KONTA-SAIOA: GERTAKARI SOZIO-DISKURTSIBOA ETA TESTU-GENERO BEREZITUA

Leire Diaz de Gereñu Lasaga

(leire.diaz@ehu.eus)

Doktorego tesia

**Zuzendariak: Itziar Idiazabal Gorrotxategi eta Luis Mari
Larringan Aranzabal**

**Euskal Herriko Unibertsitatea
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila**

2016

*Jakinminez josia zen aitari.
Euskararekiko ere halako lotura eta grina zenuen...
Maite zenuen euskara, oso. Horixe da jaso dudan ondare zoragarriena.
Eta gordeko dut. Eta ondorengoei eta ondokoei utziko.*

*Indarrez, adorez eta umorez betea den amari.
Baldintzarik gabeko maitasuna eman didazu. Epairik gabeko hezkuntza. Erabateko
babesa izan dut, zure magalean.
Horra nire aitortza, ama.*

*Nire seme-alabei.
Nire atzeko pentsamendu hori betetzen duzue etengabe zuek biok, bihotzok...gaitz zait
berbak aurkitzea...eta berriz, hain da maitasuna handia nire bularrean! Itsasoa bera
baino zabalagoa eta sakonagoa!
Maite zaituztet!*

*Borrokalari amorratua den Daniri.
Lagun haundia.
Aita zoragarria.
Mendiko haitzak bezain irmoa, eta basoko erreka bezain xumea.
Eta hala isuri naiz honaino, zure ur-lasterretik.*

Guztiaren gainetik lagun zaituztedanoi. Zuek gabe, jai!

*Eta nola ez,
kotalari gaitzei.
Mila eta bat esker...*

Esker ona

Lehenik, nire esker ona Itziar Idiazabali. Ezeren truke dena eman zenidan. Atea parez pare zabalik aurkitu nuen. Oraindik ulergaitza zait. Baina nire amets, borrokak eta pasioak bideratu dituzu akademikoki. Hori bai dela meritua! Ordainezina. Langile amorratua, lagun hobea.

Luis Mari Larringan: parekorik ez duzu. Nire miresmena, halakoa da, parerik gabea. Ez zaizu gustatzen hala adieraztea. Baina hala da, izan. Arnas-estuka jarraitu zaitut bide luze honetan. Zerbaitetara heldu naiz: ikasteko dudanaren aurkibidea luze luzea egin dut. Hizkuntzarekiko grina piztua nuen baina orain labe garaia da! Giltzak topatuko al ditut bidean!

Ines Garcia Azkoaga. Zurea zorroztasuna, esku zabaltasuna. Zu gabe, ez nion utsiko. Eskerrik asko zure konfiantzagatik, asko eman dit. Eta azkenaldian izan duzun pazientziagatik!

Ibon Manterola. Bizitza zure talaiatik ikusteak bizitza aldatu dit -Estik zioen bezala- eta zure ondoan hazi egin naiz! Eta gainera lankide ezin hobea...zer gehiago eska liteke?

HIJE ikertaldean urte guzti hauetan parte hartu duzuen eta jarraitzen duzuen guztioi, nire esker ona. Zuoi denoi: Marijo, Amaia, Andoni, Gontzal, Margareta, Ane, Arantxa, Eneritz, Alaitz, Larraitz, Isabel, Beñat, Jon, Argia,...zerrenda luzea da oso! Eskerrik asko den denoi! Orain, hasi berria naizela sentitzen dut. Espero dut, ibilbide luzea izango dugula aurretik. Hala bedi!

Unibertsitatea gureaz beste bizitza, baina bizitza intentsua egiten duten langileei: Doriri bereziki baina baita Isabel, Ana, Conchi, Almudena, Imanol, Teresa, Sara, Ala, Ana eta Consuelori ere. Nire esker ona. Beti hortxe zaudete, eta hainbeste urte eta gero, asko estimatzen zaituztet. Eskerrik asko Dekanotza talde guztiari ere, nire galdera eta kezka txiki guztiei harrera ona egiteagatik.

Ikasleei. Zuen da etorkizuna! Eta...ostegunak!

Vickie Olseni, eskertzen diot bihotzez, bide honetan jarri ninduen ERASMUS beka lortzen lagundu izana. Bizitza erabat aldatu zidan horrek eta ez zaitut batere ahaztu! Era berean, bereziki eskertzen dut Margarita Bon eta Felisa López Lique te ezagutu izana. Hainbeste jaso nuen!

Olivier Mantel Flahaulti nire esker ona, besteak beste, frantziar estatuko hainbat hizkuntza eta kultura gutxitu bizi eta ezagutzea bere eskutik egin nuen eta. Haren ama

Brigitte eta arreba Azilizi, besarkadarik handiena. Sekulako zortea izan da zuek ezagutzea.

Bretainian lagun izan nituen Ilka, Anne-Cécile, Ana, Barbara...berreskuratuko al ditut denak ere? Francis Favereauri ere nire esker ona egin zidan harreragatik. Galoa, bretoa eta okzitaniera irakatsi zidaten irakasle guztiei ere mila mila esker!

Bereziki eskertu nahi diet Koldo Zuazo eta Ricardo Gomezi, garai hartan emandako kontseilu on bi.

Genebako unibertsitateko GRAFE eta LAF ikertaldeko kideei. Esker ona. Langile handiak eta pertsona zoragarriak. Genebako ibaiena baina oraindik oparagoa da zuen emaria! Lanean jarraituko dugulakoan...Hura bai gozamina Geneban egin nuen egonaldia, zenbat ikusi eta ikasi!

Lankide maitagarri bi: Amaia Munarriz eta Mikel Ayerbe. Lana eta irria - negarrak ere bai- izan ditut lankide apart hauekin.

Oro har, nire unibertsitateko lankideei ere esker ona erakutsi nahi diet bakoitzak berean egiten duen lanagatik, izugarria da eta. Aipatu barik ez ditut utzi nahi ni bezala atzera eta aurrera dabilzanak: Iratxe Esparza, Ane Berro, Miren Ibarluzea, Itziar Otegi, Marina Aparicio....

Nire familiari...tesi bat idatziko nuke orain, baina zuei buruzkoa. Aitxitxe Simon eta Amama Joxepa. Zuena bai lana, maitasuna, indarra, kemena! Lur hau maitatzen erakutsi zenidaten, berori ukituz, landuz, zainduz, usainduz...Tesi lan bide honetan, galdu zaituztet. Baina hemen zaudete, inoiz baino indartsuago. Lasagatar guztiei, nire maitasun osoa....zerrenda hain da luzea! Itzelak zarete!

Alberto anaia, haren emazte Miriam eta eman dizkidaten bi perlei nire besarkadarik handienak, azkenaldian ez ditut asko eman eta...IZARO ETA MARTIN, LAZTANAK, MAITE ZAITUZTET.

Aitaren aldeko familiara, gelditzen zaidanari: Tia Isa, Arantxa, Anabel eta Unai. Maite zaituztet.

Danin etxekoei: Eva, Blas, Arantxa, Amaia, eta Maite! Eskerrik asko nire umeak hain ondo zaintzeagatik! Eta Manoliri besarkada haundi bat...

Lagunak. Horixe bai, pagotxa!

Tami, zure ardura ere bada, ni bide zoro honetan sartu izana! Halakorik ez genuen uste, ezta? Baina beti sinistu duzu, nik baino gehiago, ezbairik gabe. Camino Eugi Latasa. Zuk ere ez duzu parekorik...aún deshaces las trenzas de mi pelo.

Nire aterbea izan da Ruth. Zure adarretatik zintzilikatu naiz behin baino gehiagotan, eta baita ere kulunkatu, gozamenez. Zurekin bizi izan naiz, hondartzan, mendian,... Airez eta urez egitea falta zaigu!

Eider, Miriam. Bihotz bi. Altxor bi. Hegan egiteko hodei bi...eta orain ber bi!
Aupa Aratz eta Urko!

Aintzane eta Maier, nire pin eta nire pon. Zuen maitasuna sentitzen dut ilargi betearen argia baino indartsuago eta sarkorrago. Ez gara asko egoten, baina igual igual dio. Ez da iraungitzen gure artekoa.

Belen, gran actriz y gran concedora del lenguaje. Que te voy a contar que tú no sepas... ¡tú me has dado la beca de la confianza total!

Alaitxu, Begotxu, Maidertxu: dena bihotza zaretelako, lagun on on onak; Irantzu: MAITE ZAITUT!; Amaieti eta Xabi: baldintzarik jartzen ez duten lagunak izateagatik; Oroitz: ikaskide, lagun, lankide... xumea bezain indartsua eta bihotzbera; Arantxi, Aratz, Kepa, Euri, Ur: hori bai familia! Nire pentsamenduan zaudete beti; Laura Petrillo: beti hor egoteagatik. Ainhoa, Esti, Sonia, Susana, Irantzu,... amaigabea bezain mardula egiten zait zerrenda... ospatuko dugu!

Alizia, gogoan zaitut! Esker ona zuri, milaka eta milaka arrazoiengatik, baina batez ere, hain ulerkorra izateagatik.

Nire gorputz eta bihotza zaindu duzuei (eta nire seme-alabena), mila mila esker: Nick, Mariaje, Agustin, Argiñe, Rebeca eta Luis.

Nire bizilagun harribitxiei, Albaro, Idoia eta Oihani, eta baita Ramon Bajo eskolako Lurren gelako gurasoei ere, eskerrik asko nire alaba zaintzeagatik!

Ama, zer egingo nuke zu gabe! Azken lerro hauek idazten besterik ez datorkit burura!

Dani, eztei bidai legeren bate egin beharko dugu, ezta? Tira, egia esan, beti egin ditugu gauzak gure erara...eta hala jarraituko dugu... egunerokoaz gozatzen, gure ingurua zaintzen eta disfrutatzen! Ez dugu, zorionez, gauza handirik behar gustora egoteko!

Lurtxo maitea, laztana, bihotza. Hain zara ulerkorra! Txutxe poltsa erraldoi hori behingoz... badator! Eta garrantzitsuena...baita asteburuak elkarrekin pasatzea ere... desiatzen nago!

Ekain: *egun gain*. Halakoxea zara bai, eguzki indar zabal zabala. Izena duen guztia, badela, esaten da...

Aitaren falta somatzen dut, nola ez, tesiari amaiera emateko momentu honetan. Baina aurrera egin behar da eta, hari eskainia da bete betean, nire lan hau.

Azken azkenik, berriz ere, kontalariei nahi diet eskertu. Haietako batek saio batean esan zuen moduan, eskertu “zientzialari sudurluze bati” ateak zabal zabal ireki izana. Eskertu nahi diet egin duten ibilbidea, eta haien lana. Espero dut, izango dudala aurrerago ere zuen lana zertan den zehaztasun gehiagorekin erakusteko aukerarik. Hemen, aurkezten den hau, ezer gutxi da-eta zuen berbaldiak dakarrena ezaugarritzeko.

Tesi hau Euskal Herriko Unibertsitatearen doktorego aurreko bekako diru-laguntzarekin burutu da (PI-1999-18).

AURKIBIDEA

0. SARRERA.....	13
LEHEN ZATIA: EUSKARAZKO KONTALARITZA BERRIA: ZENBAIT ALDERDI SOZIO-KULTURAL.....	19
1. Kontalaritza berriaren testuinguru orokorra	19
2. Kontalaritza berria Europan zehar	21
3. Kontalaritza berriaren ibilbidea: sortzetik gaur egunera artekoa.....	27
3.1. Kontalaritza berriaren sorrera garaia (70-90)	28
3.2. Kontalaritza berriaren sendotze garaia (1990-2005)	31
3.3. Kontalaritza berriaren egungo egoera (2005 urteaz geroztik).....	34
4. Euskarazko kontalaritza berriaren ezaugarriak	38
5. Euskarazko egungo kontalaritzak aurrez aurre dituen eztabaidagaiak.....	47
5.1. Konta-praktika berrien aniztasuna eta mugimenduaren egituratze premia	47
5.2. <i>Ahozko narrazioaren aldeko agiria: kontaketa praktiken instituzionalizaio eta kristalizazioa.</i>	49
5.3. Egun <i>ofizio</i> nozioak duen operatibitate mugatuaz	53
5.4. Kontalaritza praktika: jakintza objektuen formalizazioa eta formakuntza	58
5.5. Errepertorioaren osaera eta sorkuntza prozesua	60
5.6. Mintzaira landua eta anitza sortzeko ahalegina	65
6. Kontalaritza eta kontalari zaharrak: berrikusi beharreko bi irudikatze.....	67
6.1. Kontalaritza zaharrea aldira utzitako komunikazio alderdiak.....	68
6.1.1. Metodologiak aldira utzitakoak	68
6.1.2. Komunikazio ekintza anitzak eta konplexuak konta-praktika zaharretan	77
6.2. Kontalari zaharra: irudikapena berreraiki beharra	80
6.2.1. Kontalari zaharrena sormenaz: egile kolektiboa kontzeptuaz.....	80
6.2.2. Kontazaharlaria/kontalari zaharra: figura itxuragabetua.....	82
7. Tarteko sintesia eta ondorioak	85
BIGAREN ZATIA: EUSKARAZKO KONTALARITZA BERRIAREN ZEDARRITZEA: MINTZAIRA ALDERDIEN EZAUGARRITZEA.....	89

8. Oinarri-teoriko metodologikoak	90
8.1. Mintzaira ekintzaren eredua	91
8.2. Testuaren arkitekturaren eredua	92
9. Lan prozedura.....	94
9.1. Corpusa	95
9.2. Hipotesiak	101
9.3. Konta-saioaren ardatz horizontala edo lineala	102
9.4. Konta-saioaren egitura bertikaleko osagaiak.....	104
9.4.1. Diskurtso egintza azter unitate gisa: definizioa.....	105
9.4.2. Diskurtso egintzen kategorizazioa	108
10. Emaitzak I: irekiera atalaren azpiegituraren ardazketa.	113
10.1. Irekiera: ezaugarri nagusiak.....	114
10.2. Irekieraren azpiatalak: saio-irekitzea eta atarikoak.....	116
10.2.1. Saio-irekitzea: egituratze bertikala.....	117
10.2.2. Atarikoak: egituratze bertikala.....	132
11. Emaitzak II: garapena atalaren azpiegituraren ardazketa.	140
11.1. Garapena atalaren ezaugarri nagusiak.....	140
11.2. Garapena: ziklo narratiboa eta artekaketa azpiatalak.....	143
11.2.1. Ziklo narratiboa: egituratze bertikala.....	144
11.2.1.1. Aurrekaria: ezaugarriak eta egituratze bertikala.	148
11.2.1.2. Muina: ezaugarriak eta egituratzea.....	160
11.2.1.3. Irtetzea: ezaugarriak eta egituratzea.....	185
11.2.2. Artekaketa: ezaugarriak eta egituratzea.....	192
12. Emaitzak III: itxiera atalaren azpiegitura ardatza	197
12.1. Itxiera azpiatala: ezaugarriak.....	198
12.2. Itxiera atalaren azpiatalak: itxitura eta saio-ixtea.....	201
12.2.1. Itxitura: egituratze bertikala.....	202
12.2.2. Saio-ixtea: egituratze bertikala.	208
13. Tarteko ondorioak eta sintesia	212
14. Konklusio orokorrak.....	216

15. Bibliografia.....	223
------------------------------	------------

ERANSKINA

1. Eranskina: corpusaren transkripziorako irizideak eta azterketarako testuen corpora.....	235
---	------------

0. SARRERA

Tesi lan honek -orok?- badu bere istorioa, ez da ausaz sortutakoa.

Euskararen irakaskuntzan aritu naiz. Izan dut kontakturik eta eskarmenturik ahozko hizkuntzaren erabileraren gainean. Kezkarik ere bai. Ohartu naiz ez dagoela ahozko bat –ahozkoa barik, ahozkoak ditugula, seguruenik; azken batean, ahozko mintzamolde ezberdinak ditugula. Izan ere, ahozko jardunak eta mintzatzeko praktikak guztiz ezberdinak izan ohi dira komunikazioaren arabera. Hitzaldia, debatea, elkarrizketa, ipuina, solasa, bertsolaritza.... ahozko ekoizpenak dira denak, baina oso bestelakoak. Horra, erabilpen guztiak ez dira teiltupe berekoak, nahiz eta denak ahozkoak izan. Gauzak horrela, ezinbestean, erabaki beharra izan dut “zein ahozkori” ekingo diodan.

Euskarazko kontalariek jendaurrean gauzatutako konta-saioen deskripzio linguistiko-diskurtsiboa egitea erabaki nuen. Urte hauetan, mintzairaren ikuspegi sozio-diskurtsiboa ezagutzeko aukera izan dut, eta ikuspegi horretatik egindako lan teoriko zein didaktiko batzuk ezagutu ditut. Zenbaitetan guk geuk ere egin dugu ildo horretako lanik. Pentsatu nuen, bada, konta-saioa azter zitekeela zer modutako mintza-praktika den, eta azter zitekeela alderdi sozio-diskurtsiboei dagokienean. Iruditu zitzaidan konta-saioak praktika aberatsak zirela eta uste baino konplexuagoak, eta mintza-praktika baten erakusgarri diren aldetik direla kontuan hartzekoak. Asmo hauek besapean hartuta, hasi nintzen nire eginbeharrean, hasi berriaren gogo eta lehiaz.

Honenbestez, aurkezpeneko lerrootan esango dut ZER aztertu nahi izan dudana, hau da, zer eduki-mota aurkitu nahi izan dudana. Esango dut, halaber, NOLA ekingo diodan nire lanari (hau da, orientabide metodologikoak eta lan-prozedura); azkenik, agertuko dut lan honen ZERTARAKOA, hots, zeintzuk diren lan honek dituen xedehelburuak.

“Zer” nahi izan dudana galderari erantzungo zaio esanez konta-saioa dela azter-objektua. Badakigu, baina, objektu hori ez dela objektu tinkoa, berezkoa, bat bera, ikusalde bestelakoetatik osatutako errealitatea baizik. Konta-saioak bariazioak izan ditu historian zehar. Horrek eraman nau tesi lan honen A atala osatzera. Bertan argituko ditut zeintzuk izan diren ikuspuntu eta bariazioak horiek. Han eta hemen idatzitako gogoetak, oharrak, datu argigarriak ekarri dira. Jendaurreko konta-saioa ez da jaiotako berria, aitzinakoak baitira haren susturriak. Nolanahi ere, Europako kontalaritza zaharraren

irudia aiton-amona arruntek ilobei kontatzen zizkieten kontakizunen multzora murriztu izan da. Eta eraiki den irudiak ez digu laguntzen batere ulertzen gaurko kontalaritza. Ez du mesederik egin garai bateko konta-praktiken aniztasuna alboratzeak, eta praktika horien konplexutasunaz ez-ezagutza handia izateak. Galerak galera, kontalaritza zaharraren zenbait ezaugarri eskaintzen zaizkio irakurleari.

Baina, zenbait arrazoi tarteko, bereziki 80. hamarkadaz geroztik, inoiz baino aldaketa handiagoa eta sakonagoa eman da konta-saioa praktikaren gauzatzean eta zedarritzean. Fenomenoa hobeto ulertzeko, egin dugu nolabaiteko arokatzea ere, beti ere irizpide sozio-historikoz baliatuz. Horregatik, deitu zaio “kontalaritza berria”. Berrikuntza horren arrazoiak dira, besteak beste, aurrerakuntza teknologikoa, idatziaren tirania eta oztopoak gainditzea,... Era berean, bada literatur egarririk gaurko kontalarien artean, erabilera jasoagoa baten atzetik jotzen da egun, izen ona edo hobea eman nahi zaio, ... “Ofizioa”, “profesio” erako terminoak erabiltzen dira kontalariei (zenbaiti, behinik behin) erreferentzia egiteko. Jokabide honetan data seinalagarria da 2008. urtekoa: orduan, *Ahozko narrazioaren aldeko agiria*¹ (2008) ezagutarazi baitzuen Euskal Herriko Kontalariak Elkarteak.

Adierazpen honek, elkartearen *IV. Kontalarien Topaketetan* eztabaidatu eta adostua izan zenak, kontalari berrien mugimenduari halako instituzionalizazioa ekarri zion. Homologazio puntua da, bermea, patentea, enuntziazio instantzia baten eraikitzea eta adieraztea, non konta-saioa praktikari diskurtso maila aitortzen zaion. Bada hor nolabaiteko optimismo puntu bat ere. Zenbait eztabaidagai ekarri ditu euskararen kultur arloan mahai gainera kontalaritza berriak: originaltasuna, euskaraz harago jotzea, formalizazio ahaleginak, erreperitorioen osaera, mintzaira landua,... Mundu zabal honetan, alor edo dimentsio berezi bat aukeratu dut: bildutako testuen alderdi sozio-diskurtsiboak eta generotasuna deskribatzea.

Jo dezagun NOLA galderari erantzutera, hau da, zein orientabide metodologiko izan ditugun eta ze lan-prozedura baliatu dugun. Corpusaren osatzeak hainbat burukomin eman digu, apustu larrienetarik izan baita. Bildutako konta-saioak kontalaritza berriaren mugimenduan edo mugimendu horretatik gertu dabilzan kontalarienak dira. 1998 eta 2004. urte bitartean egindako grabaketak dira, Euskal Herriko hainbat lekutan. Modu aleatorioan jaso dira, beti ere saiatuz helduekin,


¹ Aurrerantzean *Agiria* izena erabiliko dugu dokumentu honi erreferentzia egiteko.

gazteekin eta hurrekin egindako saioak pareko kopuruan biltzen. Guztira hamar konta-saio dira: lau, hurrekin gauzatuak; bat nerabeekin; bost, helduekin.

Egin ditugun hipotesiei dagokielarik, ondoko ideia hau defendatuko dugu: konta-saioak, bakoitzaren aletasuna ukatu gabe, genero bereko (osaera generiko bereko) produktuak direla, eta alderdi horretatik, mintza-praktika sozialak direla. Kontakizun – ipuinerako- eta konta-saiorako “bideak” erakusten dituzte, bai baitago molde edo eredu bat.

Testuen azterketari ekiteko, bi ardatz hartu dira kontuan: ardatz horizontala, non testuen planifikazio atalak eta azpiatalak irudikatzen diren. Galdetzen da ea atal horiek erregularrak diren, alegia, atal finkoak, aurreikusgarriak. Edozein modutan, urraketak eta transgresioak ere kontuan hartzen dira, ez bakarrik kontrastea egite aldera, baizik eta egungo eta etorkizunerako bide berrien adierazle gisa. Hona, aurrerapen gisa, ardatz honetan identifikatu ditugun atalak:

0. Taula. Konta-saioa ardatz horizontalean ezaugarritzen duten atal nagusiak eta azpiatalak².



Bigarren ardatzari bertikala deritzogu, eta diskurtso-egintzak irudikatzen dira bertan. Diskurtso egintzak partaideen artean egoera berri bat sortzen du (E1----> E2), diskurtso bidez sortu ere. Ko-testuan gertatzen da. Maiz berbaldirako espazio berri bat irekitzen du. Ezer baino gehiago interakzio aldaketa da, zein diren ere elementu formalak edo linguistikoak. Diskurtso egintza hauek helburuaren edota edukiaren

² Taula hau behin baino gehiagotan ekarriko dugunez, 0. Taula gisa izendatu dugu eta halako izendapenareri eutsiko diogu, nahiz eta beste zenbakien arteko taulen artean kokatuta egongo den.

(azalpena, narrazioa, deskripzioa, argudiatzea, argitzea, ko-enuntziaketa...) arabera sailkatu ohi dira normalean, baina baita mailaren (intentsitatea / hedapena) eta antolatze rolaren arabera ere.

Gure aldetik, honako hauek bereizi ditugu diskurtso egintza nagusi gisa: narraziozkoak, metanarraziozkoak, iruzkin egintzak, digresiozkoak, azalpenezkoak eta argibide egintzak. Badira azpimotak ere, eta hauen arteko urtzeak edo metaketak ere, aurrerago erakutsiko dugunez.

Ikusiko da, batetik, zein den diskurtso egintza horien presentzia, eta banaketa; eta bestetik, diskurtso egintzen artean zer-nolako asoziazioak agertzen diren atalen eta azpiatalen arabera. Zer-nolako elkartzeak diren gertagarriagoak, edo zeintzuk arraragoak. Ikusi gura da, halaber, diskurtso egintza horiek medio, estilo, jokabide indibidualak ere izan ote daitezkeen. Molde urraketak edo transgresioak, hots, ohiz bestelako erabilpenak, tradizioarekiko haustura eta berrikuntza adierazten dute, modu jasoagoan aritzeko gogoak eraginda edo.

Gatozen, azkenik, ZERTARAKO arazoari erantzutera. Bi helburu mota gogoratuko ditut, estuki lotuak, bestalde.

Lehen helburua, jendaurreko egungo ahozko euskal kontalaritzaren funtzionamenduaren azterketa sakona egitea da, konkretuki, bildutako testuen arteko izera generikoa ERAKUTSI ETA FROGATU NAHI IZAN DUT. Berau dugu, seguruenik, apustu larriena, baina baita ekarpen hobereana ere. Lan hau kriterio sozio-diskurtsiboekin egin da.

Bigarren helburua zeharbidezkoa da, erantsia, beste disziplina bati lotua baitago, hizkuntzen didaktikari. Egia esango bada, hau ez da didaktikako lana, baina didaktika kezka batek sortua da, eta kezka hori kontuan hartuz hobeto uler daitezke harturiko zenbait erabaki. Didaktika izan da gure ipar-izarra.

Lan honen banaketari dagokionez, hitzaurre hau duzu lehen kapitulua. Ondoko guztiak, bi atal nagusitan banatu dira.

Lehen zatian (1-7 kapituluak), jendaurreko kontalaritzaren gaineko errepasso bat egiten da, beti ere aztergaia ahalik eta hobekien osatzeko eta kokatzeko. Ibilbide historikoa eta sozio-kulturala agertzen da. Talde soziologikoei dagozkien datuak ez dira linguistikaren baitakoak, baina parametro determinatzaileak izan ohi dira maiz. Berrikuste honetan, esango zaigu kolokan jarri behar direla maiz eskuz esku paratutako iritziak eta gogoetak ahozko kontakizunari eta, hedapenez, ahozko kontalaritzari buruz. Kontalaritzaren dimentsio soziologiko eta diskurtsiboari hizkuntzaren ikuspegi murriztu

eta zaharkitu batetik begiratu izan zaio. Diziplina askoren langai izan den iker arlo honetan, bada zer harrotu oraindik ere, bai ikuspegi teorikotik eta bai eta metodologikotik.

Tesi lan honen bigarren zatian (7 eta 13 kapitulu artekoan) egungo kontalaritzako testuen azterketa enpirikorako oinarri teorikoak eta metodologiazkoak azaltzen dira. Hortxe dituzu, xeheago, analisirako baliatuko ditudan bi ardatzen azalpena, baita lanaren hipotesiak ere. Ondotik, testu enpirikotan oinarritutako emaitzak eta eztabaidak biltzen dira.

13. kapituluan, konklusio orokorrak eskaintzen dira. Bibliografiaren ondoren, tesi lan honen eranskina gehitzen da, azterketarako erabili den corpusaren eta hura transkribatzeko eta eraikitzeke erabili ditugun irizpideekin batera.

Ez dugu gaia agortuko, inolaz ere. Zenbaitetan planteamenduak eta galderak ugariagoak dira erantzunak baino. Batek baino gehiagok antzemango ditu hutsuneak, eta agian desorekak. Baina lan hau eskura duenak konta-saioa praktikarekiko ikuspegi eginago bat lor dezakeela uste dugu.

[Les conteurs] Ils ne contaient pas tous,
pas toujours,
même pas très souvent,
mais quelquefois.”
(Hèlias, 1990:232)

LEHEN ZATIA: EUSKARAZKO KONTALARITZA BERRIA: ZENBAIT ALDERDI SOZIO-KULTURAL

1. Kontalaritza berriaren testuinguru orokorra

Lan honen aztergaia, oro har, egungo euskarazko jendaurreko kontaketa da. Eta bereziki, kontalaritza berriak dakarren funtzio aldaketaren etena agerian jartzea. Berria esatean ez da kronologikoki berriago delako soilik, baizik eta aldaketa erakusten duelako.

Hasteko, kontalaritzari buruzko ohar sozio-kultural batzuk egingo ditugu. Euskarazko kontalaritzak berbazko praktikak biltzen ditu, eta ibilbide luzea egina du. Praktika hauek, zati handi batean behintzat, konta-saio deritzen praktika sozio-kulturalekin identifikatzen dira, eta ezinbestean, berrituz eta egokituz joan dira. Edozein kasutan, ibilbidea ez da konstantea izan, gorabeheratsua baizik. Jatorrian helburu pedagogiko eta didaktikoak eragile izan ziren arren, gerora, ekitearen ekitez bestelako helburu ludiko eta estetikoekin lotuta agertu da jendaurrean kontatzea: arte eszenikoen esparruko praktika artistikoa dela aldarrikatzeraino.

Aldaketa horrek berrikuntza sakonak eragin ditu, eta jendaurrean kontatzen trebatu diren eta bereziki profesionalizazio bidea hartu duten zenbait kontalarik *kontalaritza berria* deritzogun mugimendua eratu dute. Euren artean dauden ezberdintasun guztien gainera, kontalari hauek jendaurrean kontatzea arte gisa definitzen dute. Ondorioz, praktika artistikoen artean kokatu nahi dute jardunbide hau, arte eszenikoen artean, hain zuzen.

Kontalarien profesionaltzeko joerak kontalariaren *egiten jakitea* deskribatu eta arautzea ekarri du berekin. Maiz bestelako jarduera literario edo artistikoekin uztartu da profesionalizazioa eta esan behar da, praktika artistikoa kontsideratzen den heinean, izaera multidiziplinarra erakusten duen eremua dela (*Behinola*, 2010).

Berrikuntza honek figura ez ezik, deitura ere harrapatu du, oraindik bat bakarra finkatu gabe baitago. Hori ere, eremuaren gorabeheren lekuko da. Euskaraz ohikoenak dira *kontalari*, *ipuin kontalari*; frantsesez *conteur* da hedatuena; baina gaztelerez esate baterako, izendapen gehiago dira eta haien jatorriak ezberdinak: *cuéntista*, *cuéntacuentos*, *cuéntero/cuëntera*, *narrador oral*, *cuéntautor*, e.a. (Sanfilippo, 2007a). Terminologia eztabaidagai da kontalarien artean. Oro har, hala ere, nahiago izaten dute *kontalari* bezalako hiperonimoak (Behinola, 2010; TK, 2014) kontalaritza gauzatzeko erabiltzen diren generoen aniztasuna dela eta, besteak beste.

Kontalaritza berriak baditu bere-bereak dituen ezaugarriak, aurrekoaz bestelakoak, eta hala behar du izan, historia bera aldatuz doa eta. Edozein kasutan, berrikuntza eta aldaketa guztiak ez dira maila berekoak eta ez dute pertinentzia bera ere. Baina hori erakusteko dago. Horixe erakutsi nahi dugu. Zeren bai kontalariak eta bai arlo akademikoan egiten diren oharrak denak ez dira berriak eta hipotesipean jarri behar da zertan datzan berritzea. Edo halakorik baden ere. Tradizioarekin nahiz egungo praktika artistikoekin dituen harremanak argitzeko daude oraindik. Hala ere, kontalaritza berria komunikazio ekintzatik bertatik behatzen hasi delarik eta komunikazioaren problematikari heltzen hasi zaiolarik, kontalaritza zaharrari buruzko ikerketa berritzaileak azalduz doazkigu (Sanfilippo, 2007b; Prat Ferrer, 2014). Hein handi batean intuizioak eta hizkuntzaren gaineko irudikapen zaharkituak gidatu duen iker arlo bat izan delarik (Babcock, 1977; Apalategi, 1987; Röhrich, 1990), berariazkoa zaio arloari bide zientifikoagoak hartzea.

Euskarazko kontalaritza deiturapean kontatze berbazko praktika guztiak biltzen dira. Ibilbide horretan bi etapa nagusi bereiziko dira: batetik, *kontalaritza zaharra* edo *tradiziozkoa* ere deitua, eta, bestetik, kontalaritza berria. Bi horien artean nolabaiteko oposizioa dagoela proposatzen dugu. Oposizio ez da soilik kronologikoa, osaerari eta izateari dagokiona baizik (gogoeta, teoria, helburuak, baliatu tresnak...). Norbaitek eztabaida dezake -eta hala gertatu da- berria den, baina ezin uka daiteke tradizionalarekiko desberdina dela, aldatze sakona dagoela. Ohar bedi, berrikuntza hedatua dela oso, Europa osoan errepara baitaiteke. Pertinentea deritzogu gure lanerako. Dena den, kontalaritza eta kontalari zaharrei buruz ere propio ekingo zaio lan honetako momentu batean, egiaz, kontalaritza zaharraren alderdi pragmatikoez ez baitakigu asko.

Kontalaritza berriaren barnean hiru aldi bereizi ahal dira: a) 1970-90 arteko etapa; kontalaritza berriaren sorrera garai deituko duguna; b) 1990-2000 inguru arteko urratsa, sendotze etapa deituko diogularik; c) 2000. urteaz geroztiko etapa honi egungo

etapa edo egoera deituko zaio. Arokatzeak eta mugak ipintzeak berekin daraman nolabaiteko subjektibitatea saiheste aldera, analisi hasieran irakurleari emango zaizkio horretako baliatu ditugun irizpideak eta arrazoiak. Gehitu dezagun: hemen egin dugun arokatzeak Europarako zein gurerako balio duela, parez pareko bete-beteak ez badira ere, igualtsuak baitira.

2. Kontalaritza berria European zehar

Industria ondoko gizarteetako kontestu kultural berrietan jendaurreko konta-praktiken berragertzea gertatu da mendebalde osoan (Calamen-Griaule, 1991; Sanfilippo, 2007a; Hernandez, 2006; Garzón Cespedes, 1995; *El Aedo*, 2013). Noizbait praktika artistiko bat osatuko zuten ideiarik ez zuten kontalariak bestelako helburuekin jendaurrean kontatzeari ekin zioten eta denborarekin profesionaltzera, elkartzera eta mugimendua egituratzera jo zuten. Egituratzeko hori berehala etorri zen zenbait lekutan.

Askotariko izendapenak jaso dituzte praktika berri hauen multzoek, hala nola: *narración oral* (Sanfilippo, 2007a), *narración oral escénica* (Garzón Cespedes, 1995), *renouveau du conte* (Calame-Griaule, 1991), *néocontage* (Görod-Karady, 1990), *pop-oralité* (Gibeault, 2003), *oralité contemporaine* (De La Salle, et. al., 1987), e.a.

Jendaurreko kontalaritza berria egun praktika anitzez osatua da (Röhrich, 1990; Hernandez, 2006; Diaz de Gereñu, 2012; Heiniger, 2013) eta horien artean kontasaiak edo ikuskizunak dira deigarrienak edo multzo garrantzitsuenak osatzen dutenak (Hernandez, ibid.). Egungo jendaurreko konta praktikek garai bateko praktikekiko haustura edo jarraipena suposatzen dute, hartzen den ikuspegiaren arabera (Kvideland, 1990). Hala ere, garai batean ere uste izan dena baino anitzagoak ziren jendaurreko konta-praktikak (Alvarez-Pereyre, 1974; Vernus, 2004). Egun, kontalari trebeak dauden bezala, beti egon dira estimatuak ziren kontalariak eta saio bereziak eskaintzen zituztenak (Hélias, 1990; Ariztia, 1982; Vernus, 2004; Urkizu, 1994).

Gure ustez oraindik ondo aztertu gabea da konta-praktika berri hauek historian zehar jasan duten bilakaera. Dakiguna da, errotik aldatu den industria ondoko gizartearen ezaugarri eta beharretara egokitu eta jendaurrean jarraitzen duen kontalariaren figura edonon baieztatzen dela (Sanfilippo, 2007b, 2007c; Heiniger, 2013; Bauman, 1986).

XIX. mendetik hona euren berbazko praktikak egokitu izan dituzten kontalarien berri jakin dugu (Heiniger, 2013; Alvarez-Pereyre, 1974; Bauman, 1986; Prat Ferrer,

2013) eta horietako batzuek era askotako eszenatokiak bete dituzte. Egia esan, haustura erabatekoen orde bestelako kontalaritzaren historia bat ari da marrazten eta sinestu ahalak sinistu (Kvideland, 1990) desagertzetik urrun dagoen askoren arteko jardura da.

Europako kontalaritza berriaren hastapenei dagokienez, 70. hamarkadaren amaieran eta 80. hamarkadaren hasieran lehen belaunaldiko kontalari aintzindariak kontak praktikei ekin zieten nola kontatu ere ondo ez zekitela (Patric, 2011). Aurretik bakoitzak zekarren ofizio edo ogibidetik ondoen egokitutako baliabideekin aritzen ziren jendaurreko kontaketa testuinguru berrietan. Jasotako eskarmentuaren arabera joan ziren kontak-praktika haien behar komunikatibo bereizgarriak ezagutzen eta haietara moldatzen (Patric, 2011; Bauman, 1986, Sanfilippo, 2007c).

Kontalaritza praktika berrien aniztasuna ere handituz joan zen, bereziki Europako zenbait lekutan ikusgarri handitu ere. Profesionaltzen hasi ziren kontalari berriek berdin kontatzen zieten eskoletako haurrei zein jaialdietan biltzen ziren ehundaka pertsona helduei. Ordea, bereziki helduentzako eta maiz bestelako diziplina artistikoekin batera egindako esperimentazioaren erdian, garatuz joan ziren zenbait kontak-praktika. Horrela, beste arte eszenikoek zuten ikuskizun dimentsioa ematen hasi zitzaion kontalaritzari.

Hala ere, egun, kontak-praktiken aniztasuna amaigabea da. Ez da gure helburua kategorizazio bat egitea, baina bai kontalari mota asko dabilela gogoratzea (Heiniger, 2013). Esan beharra dago, gainera, gutxi dakigula profesionaltzera jo ez dutenen euskarazko kontak-praktikak egiten dituztenen gainean.

Kontak-praktiken aniztasunarekin, gero eta praktika sozio kultural landuagoak bihurtu diren horien izendapenak ere ugarituz joan dira: *ipuin kontaketa*, *ipuin gaua*, *ipuinaren ordua*, *kontaldia*, e.a. Gaztelaraz *sesión de cuentos*, *narración de cuentos*, *contada*, e.a. Frantsesez *séance de conte*, *la nuit du conte*, *spectacle de conte*, e.a.. Zehaztasunak zehaztasun, hala ere (ipuin) *kontak-saio* gisa identifika dezakegun praktikaren bitartez osatzen joan da kontalaritza berria. Badira, ordea, bestelako izendapen eta azpikategorizaziorik ere (AEDA, 2014; Hernandez, 2006).

Urteen buruz, Europako leku askotan kontak-praktikak lau multzotan banatu direla dio Hernandezek (2006): a) amateurren praktikak; b) kontalari formazioetako praktikak; c) haurrentzako kontak-praktikak; d) ikuskizunak. Kontak-praktika guztien artean, esan genezake ikuskizun gisa agertzen direnak direla ezagunenak kultur sistemari dagokionez, behintzat³.

³ Prat Ferrer eremu hispanikoan diharduten kontalari berrien ikerketa ari da prestatzen. Ikerketa horren aurrerapen gisa *El Aedo* (2014) aldizkariaren 3. zenbakian elkarrizketa interesgarria eskaintzen da.

Konta-praktika hauek badirudi ahozko tradiziotik jasotako kontakizunekin abiatu zirela (Bruno De La Salle et al., 1984) baina kontalaritza berriaren bilakaerak era guztietako gai eta kontakizunez osatutako erreperitorioak eman ditu (Sanfilippo, 2007a; *El Aedo*, 2013). Pépito Matéo erreferentziatzko kontalaria da bai estatu frantsesean eta bai espainiarrean, eta darabilen *egunerokotasunaren arteologia*⁴ terminoak ondo erakusten du langai dituen edukien eta haiek jorratzeko hartzen den ikuspegi artistikoaren nolakotasuna. Sormen bidetik eratua den termino horrek, batetik, egungo konta-praktiken genero aniztasuna azaleratzen du eta bestetik egunerokotasuna ikuspegi artistikotik jorratzen dela argi adierazten. Gurean Pello Añorgak ere azpimarratzen du, edozer bihur daitekeela kontagai (*Behinola*, 2010).

Kontalaritza praktika berriek, finean, mitoa, leienda eta ipuin miragarria bezalako genero kanonikoez gain askotariko genero narratiboen erabilera berreskuratu dute. Berreskuratzea diogu, kontalaritza zaharrean ere folklore lanetan jaso izan direnak baino genero gehiago eta anitzagoak zeudela erakutsi da-eta (Alvarez-Pereyre, 1976; Kvideland, 1990). Eta egun, berdin, tradiziozko kontakizunak kontagai izanda ere, edozer bihur daiteke kontagai. Italian, esate baterako, egun arruntak dira historia garaikideko gertaeren gaineko konta-saioak (Sanfilippo, 2007a), memoria historikoaren berreraiketa egiten dutenak.

Horiek horrela, euskarazko *ipuin kontalari* eta gaztelerazko *cuenta cuentos*⁵ bezalako terminoak motz gelditzea ez da harritzekoa. *Ipuin* terminoari konta-praktiken edukien -eta ondorioz ekintzaren beraren- ikuspegi murriztua ematea leporatzen zaio: *ipuin* nozioak adiera oso jakina hartu izanaren ondorio da hori (Sanfilippo, 2007a; Diaz de Gereñu, Idiazabal & Larringan, 2008; Diaz de Gereñu, 2009; Heiniger, 2013; *Behinola*, 2010) ipuin miragarriekin lotzen da-eta, batez ere. Horri gehitu behar diogu beste arrazoi bat: *ipuin kontalari* terminoak -nahiz eta baduen tradizioa- umeekin aritzen den kontalariarekin lotzen da ia erabat (Sanfilippo, 2007a) eta ondorioz kontalari batzuek uste dute jarduera merke eta kalitate gabekotzat hartzen dela⁶ (*TK*, 2014:25).

⁴ Tesiaren atal honetan bereziki erreferentzia asko sarean jasotakoak izango dira. Sanfilippok dioen moduan (2007a), oraindik ikergai gisa ondu eta egonkortu ez den honetan diharduenak, sarean aurkitzen du gaia jorratzeko material asko. Oin ohar honetan zehazki egindako kontsulta, 2015-06-25ean sarean:

<http://www.pepitomateo.fr/images/icagenda/files/Fiche_FORM_Conter%20pour%20aujourd'hui.pdf>

⁵ Badirudi frantsesezko *conteur*, euskaraz erabiltzen dugun *kontalari* terminoaren gisara, bateratzaileagoa dela. Horixe dugu erabiliena alde handiarekin eta beharbada horregatik ez dugu nozio horren gainean gazteleraz edo euskaraz adinako eztabaidarik aurkitu.

⁶ Esan beharrik ez dago, umeentzako izateak ez duela zertan kalitate txarrekoa izan behar, baina errealitatea beste bat da eta kontalari profesionalak horretaz kexu dira (*Behinola*, 2010; *TK*, 2014).

Kontalariak zer diren eta zertan diharduten ere, ez da batere garbi gizartean (Carrere, 2014). Horregatik guztiagatik, gero eta ohikoagoak dira *kontalari* edo gaztelerazko *narrador/a oral*, *cuentero/cuentera* bezalako terminoak kontalarien ahotan. Kontalariak oraindik kexu dira hala ere, antolatzaileek ikuskizunen iragarpenetan maiz *ipuin kontasai*oa jartzen dutela eta, *kontalaria* agente bezala –eta haren izenik ere ez, jakina iragartzen ez dela.

Konta-praktika gehienak kontalaritza berriaren hastapenetan haurrentzako antolatuak ziren. Egun, hala izaten jarraitzen du hein handi batean (Hernandez, 2006) - bereziki euskaraz (Diaz de Gereñu, 2012)- baina, hala ere, helduentzako konta praktikek ere dibertsifikazio handia jasan dute. Horrekin batera, kontalariak euren jarduerarekiko duten kontzientzia ere aldatzen joan da.

Historikoki izan duen lekua berreskuratze bidean dago helduentzako kontaketa. Are gehiago, garai bateko gaubeiletako kontalari trebeek helduentzako jarduten zutela batez ere, gero eta argiago geratzen ari den lanak ditugu. (Alvarez-Pereyre, 1976; Fabre & Lacroix, 1974; Fabre, Lacroix, & Lanneau, 1980; Vernus, 2004; Hélias, 1990; Kvideland, 1990; e.a.). Maiz haurrak ohera bidaltzen ziren kontalariak eurenari ekiten ziotenean⁷.

Helduen arteko jarduera honen berragertzean baldintza sozio-kulturalak oraindik mugatzaile diren arren, oinarririk aldatu da jendaurreko ahozko kontaketa errealitatea azken hamarkadetan: aldaketa horri egungo parametro sozio-kulturalek agintzen dutena gehitzen diogunean, egun praktika artistiko gisa kontsideratzera pasa da. Praktika artistikoen artean ere nekez aurkitzen duen arren aitortzea, eta ondorioz entzule heldu kopuru onargarririk ere ez, garapena handi samarra izan du European (Hernandez, 2006).

Azkenik, konta-praktika berrien bistaratze edo aitortza zabala aurkitzen ari den zailtasuna nabarmenduko dugu hurrengo lerroetan. Jendaurreko konta-praktika berriak, performantzeak diren heinean, giza komunikazioaren berbazko arte mota gisa kontsideratuak dira ahozko poetikaren eta performantzearen teorien bidetik (Bauman, 1977, 1986; Zumthor, 1991). Aldiz, arte eszenikoen artean (De La Salle, 2007; *El Aedo*, 2013), eta kultur sisteman, oro har, leku marjinala daukate oraindik ere. Horren ondorioz beharbada azterketa akademikoak ez dira oraintsu arte abiatu. Bistaratzeko zail honen arrazoiak batzuk aipatu nahi genituzke, labur bada ere.

⁷ Horrek ez du esan nahi hurrei kontaketa ez zitzaizkien egiten. Beste testuinguru batzuetan gertatzen zela baina ez dugu esan nahi. Eta testuinguruan, anitzak eta aldakorrak ziren garai batean ere (Vernus, 2004).

Esan daiteke konta-praktikak, performantze edo praktika sozio kultural markatuak diren heinean entzule/ikusleen harrerari bereziki lotuta daudela (Bauman, *ibid.*; Zumthor, *ibid.*; Prat Ferrer, 2013). Harrera hori eragile askok baldintzatzen dute. Esate baterako, antolatzaile eta entzuleek erakusten duten jarrera praktika honekiko gizartean dagoen ezagutza eta irudikapenaren isla da (Hernandez, 2006). Kontalariak kexu dira (*Behinola*, 2010; *TK*, 2014) bereziki antolatzaileen partetik aurkitzen duten utzikeria eta ezjakintasunaz, oso eskasak diren baldintzetan jartzen dituzte eta jendaurrean. Hori dela eta, ahozko konta-praktiken hedatze eta baldintza duinak lortzeko ahaleginean, antolatzaileentzako gidak sortu dituzte⁸ kontalari elkarteek (*Behinola*, 2010): antolatzaileek badute konta-saioen gauzapenean erantzunkizun zuzenik eta beraz, entzuleen jarrera bideratzeko baliabideak bermatzea eskatzen zaie.

Mundu zabalera begiratuta, hala ere, esan behar da herrialdearen arabera ez dela beti praktika sozio kultural bazterrekoa. Japonian etenik jasan ez duen –bai ordea aldaketa- eta errekonozimendu sozial handia duen jarduera kulturala izanik (Sweeny, 1979; Scot Miller, 1996) ez da halako arazorik. Bertan kontalaritza berria eta aintzinako *rakugoa*, jendaurreko kontalaritza praktika, jarraitutasunean daude eta ondo aztertua dago bilakaera modernoa (Imgran Brian, 1914).

Ertamerika eta Hegoamerikako zenbait lekutan ere zabalkunde eta onarpen handia izan dute dirudienez konta-praktika berriek (Garzón Céspedes, 1995).

Europari dagokionez Italian, adibiderako, helduen antzerkiaren arloko azpigenero edo jarduera artistikotzat jotzen delarik –eta beraz antzokietan asko programatzen da-, badirudi begi onez ikusita dagoela jendarte zabalean.

Bitartean, espainiar estatuko edo frantziar estatuko kultur sistemetan bestelakoa da egoera: XX. mendean zehar, ahozko konta-praktikak haurrentzako kontutzat jo dira (Pelegrin, 2004) eta praktika artistiko oso gisa onartua izatetik urrun dago (Hernandez, 2006), bereziki espainiar estatuan. Euskal Herria ez da salbuespena.

Konta-praktika berrien bilakaerak zerikusi handia du lekuan lekuko kultur sistemetan arte eszenikoek, eta, oro har, eliteko kulturak (Bordieu, 2003) duten egoerarekin (*El Aedo*, 2013). Hala, AEB-ak, Frantzia⁹ eta Erresuma Batua agertzen dira

⁸ ANCEF elkarteak sortutakoa espainiar estatuetan sortu direnen oinarrian dagoela uste dugu. 2016-06-23an kontsulta, sarean: <http://www.apple-paille.com/contepourenfants/GUide%20aux%20organisateurs.pdf>.

⁹ Kontraesan txiki bat dirudi honek, bi parrafotan ia kontrakoa esan da eta. Ikuspegiaren arabera maila ezberdinetan jartzen da kontalaritza berriaren egoera frantziar estatuan. Hernandezek (2006) barne ikuspegi batetik eta Europako hiru estatuetako kontalaritzak konparatzen dituenean, praktika artistiko marjinal gisa ikusten ditu denetan ere. Ordea, espainiar estatuko AEDA kontalarien aldizkariaren

garapen maila onenekin. Gauzak horrela, Espainia eta Grezia bezalako herrialdeetan kontalariek profesionaldu eta arlo artistikora hurbiltzeko behar duten babes eta baliabide juridiko, fiskal eta administratiboak hutsaren pareko dira. Egungo krisi ekonomikoak herrialde guztiei eragiten dien arren, aipatu bi herrialdeei bortitz eragiten diela salatzen dute kontalariek (*El Aedo*, 2012; 2013).

Arlo akademikoan ere oraintsu arte konta-praktika hauekiko utzikeria egon dela salatu da (Hernandez, 2006; Sanfilippo, 2007a; Caudal, 2010), oro har eta uste daitekeenaren kontra, testuinguruan egiten den ahozko narrazio ororekiko egon den bezala (Brès, 1994). Hala ere, azken urteetan bibliografia ugartuz doa, bereziki frankofonian eta herrialde anglosaxoietan. Unibertsitate batzuek ikastaroak eta masterrak ere eskaintzen dituzte dagoeneko¹⁰. Dena den, hizkuntzaren aldetiko ikerketa berritzaileak falta direla agerikoa da (Bauman, 1986; Carruthers, 2005; Carruthers & McCusker, 2010). Labov eta Waletzkyk (1967) iragarri zuten ahozko narrazioaren gaineko ikerketa egitasmoa, hots, kontalari trebeen hizkuntzaren azterketa, ezer gutxi garatu da.

Jendaurreko kontaketa berriak, literaturaren aldetik ere, jarraipen eskasa izan du. Literatura ikerketek XX. mende hasieratik ikuspegi eta eremu anitzetik heldu diote idatzizko literaturari, folkloreakaren teoria eta metodologia zaharkituetatik urrun (Finnegan, 1969; Babcock, 1977; Viana, 2007; Sanfilippo, 2007a; Hélias, 1990).

Ahozko literaturak izan du garai batean jarraipen akademikoa eta onarpena euskararen literaturaren ikasketetan, eta idazleek ere onartu izan dute haren eragina eta balioa (Atxaga, 1992). Baina kontu berriagoak ez dira aintzat hartu. Ez dugu, beraz, konta-praktika berrien arrastorik euskarazko ahozko literaturako eskuliburuetan. Ondorioz, ez da askorik aurreratu oinarritzko nozio eta kontzeptuak gainditzekoan ere: *kontalari* nahiz *ahozko literatura* terminoen egokitasuna, e.a.

Jakina da azken termino honen erabilera zein izan den eztabaidatsua (Lekuona 1923/1978; Finnegan, 1974; Mato, 1991; Zumthor, 1991; Sanfilippo, 2007a) eta bestelakoak proposatu izan direla: *orale littéraire* (Hélias, 1990), *ahozko poesia* sorkuntza adierarekin (Zumthor, ibid.), *oratura* (afrikanistak batez ere), e.a. Europako arlo akademikoan *ahozko literaturaren* alde egin da. Prat Ferreren arabera (2013), aukera horrek agerian uzten du idatziarekiko menpekotasuna.

ikuspegitik, Frantziar estatuko kontalaritzaren egoera espainiar estatukoa baino askoz hobea da, praktika marjinal izaten jarraitzen badu ere.

¹⁰ AEB-etan eskaintzen den “Master de Artes en Lectura con Atención Especial a la Narración Oral” (*El Aedo*, 2014).

Jarraipen akademiko eta sozialaren faltan kontalariak eurak izan dira, nagusiki, konta-praktiken hastapen eta ondoko bilakaeraren ondotik etorri den kontalaritza praktiken berri eman digutenak (*Behinola*, 2010; Rekalde, 2009; Amestoy, 2012; Añorga, 2012; Carrere, 2013; *El Aedo*, 2012, 2013; 2014).

Euskarazko konta-praktika berrien agerpenaren inguruko informazio asko argitara gabe dago. Kontalariak ahaleginak egiten ari dira kontalariak euren jardueraren nondik norakoak zedarritzen. Ikerlariarentzako informazioa eskuratzea ez da erraza oraindik elkartze eta elkartruke egiturak ez direlako behar bezain sendoak eta eraginkorrak, salbuespenak salbuespen. Oro har, blog eta web orriak, eskuizkribuak, eta kazetetako elkarrizketak dira maiz informazio iturri nagusi (Sanfilippo, 2007a); gainera hedapen txikiko materialak direnez, eta askotan zaharrak ere bai, eskuratzen oso zailak gertatzen dira.

Esan dezagun amaitzeko, 80. hamarkadatik hona egin diren konta-praktikak, gero eta anitzagoak eta artearen munduan onartuagoak izateagatik, ez dutela nahikoa aitorpen lortu. Ondorioz, bazterrekoak dira eta bistaratzen zailak gure kultur sisteman. Kontalaritza berriaren mugimendua, oro har, oraindik ere nahikoa ezezaguna da. Halaber, uste dugu akademikoki izan duen jarraipen eskasak ez duela egoera hori hobetzen lagundu eta, beharbada, horregatik kontalari elkarte guztiek (ANCEF¹¹, AEDA¹², *Kontalariok*, e.a.) esparru honetako ikerketa sustatzea eskatzen dute

3. Kontalaritza berriaren ibilbidea: sortzetik gaur egunera artekoa

Aroak egitea ez da gauza erraza. Beti dago subjektibismoaren arriskua. Edozein modutan, irakurleari azpiatal bakoitzaren hasieran emango zaizkio aroak egiteko jarraitu ditugun arrazoiak eta irizpideak.

Kontalaritza berriaren mugimenduaren barruan aroez baino maiz kontalari belaunaldiez hitz egiten da (Briot, 2005; *Behinola*, 2010). Gure ustez, dagoeneko bada nahikoa arrazoi eta irizpide aroak ere zedarritzen has gaitezen, eztabaidagarriak izan daitezkeela jakinda ere.

¹¹ ANCEF, *Association Nationale des Conteurs d'en France*, 1988. urtean sortua.

¹² 2010. urtean sortua. Gazteleraz *Asociación de Profesionales de la Narración Oral en España* eta euskaraz *Estatu Mailako Kontalari Profesionalen Elkartea*. Agerikoa da elkartearen eratzean lurralde eztabaida politikoak tartean direla, finean kulturalak ere izango diren arren.

3.1. Kontalaritza berriaren sorrera garaia (70-90)

Folklore bilketek nolabaiteko hastapena suposatu zuten arren, bereziki XX. mende hasieratik aurrera Eskandinaviar herrialdeetatik Europa guztira hedatu ziren eskolari lotutako konta-praktikak jotzen dira egungo kontalaritza berriaren sorburutzat. 70. hamarkadan erruz hedatu ziren Europan praktika berri hauek eta ondorioz kontalari jardungo ziren pertsonen beharra sortu zen.

Liburuzain, irakasle eta pedagogoez irakurzaletasuna sustatzeko ekimenak antolatzeari ekin zioten modu sistematikoan eta beraz, liburutegi, aisialdi eta eskoletan *ipuinaren ordua* bezalako saioak antolatzen hasi ziren (Calame-Griaule, 1991; Pelegrin, 2004; Cone-Bryant, 1991). Kontalari profesionalik ez zegoenez antzerkilariak, irakasleek, liburuzainek eta eskolarekin bestelako zerikusiren bat zeukaten zenbaitek jendaurrean kontatzeari ekin zioten. Jarduera hargatik kobratzen hasi zirelarik, gustuko izan eta gainera arrakasta izan zuten zenbaitek gogo onez jarraitu zuten jendaurrean kontatzen; beti ere, hastapeneko helburu pedagogikoak gidari zituztela.

Beste faktore garrantzitsu bat 60. hamarkadaren amaieran zegoen esperimentazio giroa izan zen. Artearen arloan esperimentazio garaiak ziren konta-praktikak berriaz hedatzen ari ziren garaian Europan (De la Salle et alii, 1984; Kortazar, 1993), eta ondorioz idatziz jasota zeuden ahozko literaturaren kontagaiak ahozkotzean dimentsio berriak bilatzeko guraria eta testuinguru berezia gertatu zen.

Jakin-minez, ahozko adierazpideari garrantzia ematen zioten giza espresabide estetikoak esperimentatu ziren. Kontaketa ekintza, bereziki helduentzako artebide gisa eta plastizitate berritzaileekin eskaini zen: musikarekin uztartuz, eszenatokiak erabiliz, e.a. Ahozko kontaketa ekintzaren alderdi performatiboak berraurkitu ziren estetika garaikidearen arabera interpretatuak beti ere. Idatziz gordetako tradizioa, berriago ziren kontestuetan erabiliz kontaketa modu berrienganako irrika sortu zen. Esandakoari, testuinguru kulturantzak asko lagundu zuela gaineratu behar zaio:

C'est ainsi que Bruno de La Salle rencontre Marie-Louise Tenèze et écoute des enregistrements au Musée National des Arts et Traditions Populaires. D'autres liront les ouvrages consacrés aux contes, des folkloristes aux ethnologues, des psychanalystes aux critiques littéraires, et les compilations de contes du monde entier seront régulièrement parcourues. Le rapport à la matière est livresque, et ces interprètes-conteurs ne se sentent pas, dans les premiers temps, tenus par des principes de « mise en scène », chacun abordant cette matière avec sa sensibilité et sa formation d'origine. Les particularités du conte comme lien social intergénérationnel ayant un langage

propre leur sont révélées par des conteurs de tradition, principalement issus des communautés immigrées, d'Afrique essentiellement, mais aussi de la communauté juive où le lien avec l'oral est toujours vivant. (Heiniger, 2013:156)

Ondoko urteetan Bruno De La Salle, kontalari berrien lehen belaunaldiko aintzindariak (Briot, 2005) esaterako, kontalaritza berriaren lehen eskola, formakuntza erregularrak eta ikerketa laborategiak eratu zituen. Berebiziko aldaketa etorri zen kontalari aintzindari multzo bat euren jarduera arte eszenikoen eremukotzat hasi zenean irudikatzen: garatze bidean ziren konta-praktikak arte eszenikoen bidetik ulertzeak zenbait eskari eta aldarrikapen egitea zekarren. Eta horretarako, beharrezkoa zen hastapenean elkarren berri handirik ez zuten kontalari berriak biltzea eta elkartzea. Hau da, mugimendua egituratzea.

Hitza langai huts izatea aurkikuntza izan zen, arte eremu ezezaguna. Jendaurrea liluratzeko hitza langai huts bilakatzeak berebiziko gaitasunak eskatzen zituen. Kontalari aintzindariak orduan pentsaezinak ziren bideak urratu zituzten eta ahozko kontaketa espresabidearen irudikapenaren antzaldatzea eragin zuten.

Berritasun hari ekiteko zituzten zailtasunak aipatzen dituzte kontalariak maiz. Adibidez, Bruno de La Sallek 80. hamarkadan epopeiak kontatzeari ekin bai baina gerora utzi ere egin zion. 90. hamarkadan heldu zion berriro genero berezi horri, eta ez dio utzi ordutik. Egun, Bruno de La Salle eta Catherine Zarcate orduak irauten dituzten epopeia zaharren kontaldiak egiten adituak dira (De La Salle et al., 1984; De La Salle, 2007).

Beraz, 70. hamarkadatik aurrera, asko zabaldu ziren konta-saioak liburutegi, aisialdi eta eskoletan, bereziki gune hiritarretan. Conta-praktika horien ezaugarriak gero eta anitzagoak ziren, eta jaialdi eta arte izaera zuten askotariko elkarretaratzeetan, konta-saioak entzule helduentzako ere antolatzen hasi ziren (Pittet-Blanchard, 1990).

Inork ez zekien oso ondo zer emango zuen, eta moda kontu hutsa izango zen kezka agertu zen (Calame-Griaule, 1980). Pelen-en arabera (1991) 1975 eta 1980 artean gertatu zen berritzearen momenturik garrantzitsuena Frantzian. Europako herrialde askotan antzeko datak aipatzen dira (Calame-Griaulek, 1991). Ondorioz, eremu akademikoaren interesa pizten hasi zen. Bereziki herri eskandinaviarretan, AEB-etan eta Quebec-en garatu dira azterlanok (Bérubé, 2002).

Kontalaritza praktiken berritzea ekarri zuten bestelako eragileak ere aipatzen ditu Calame-Griaulek (1980): *Morphologie du conte* liburuaren argitalpena, tradiziozko

ahozko literaturari begira jartzen zaion mugimendu kulturala, irrati eta telebista bidezko konta-saioak, kontalari elkarteak, irakaskuntzan erruz erabiltzen hasten den kontaketak, tradiziozko kontagintzaren bilketak areagotzea, tradiziozko kontalaritzaren ikerketak, e.a. Konta-praktiken berritzea intrigagarria zen une batean aurkitzen zen 80. hamarkadaren hastapenean.

Inon gutxi ikusi dugu aipatua eta, aurreko zerrendari gaineratu nahi genioke hizkuntza gutxituak dituzten herrialdeetan, irakurzaletasuna sustatzeko ekimenenez gain bertako kulturaren biziberritzea nahiz hizkuntzaren normalizazio ekimenak garrantzitsuak izan direla. Euskara eta okzitaniarazko kasuetan hala baieztatu dugu behintzat (Irusta, 2004; Heiniger, 2013; Pittet-Blanchard, 1990; Amestoy, 2012; Añorga, 2012; *El Aedo*, 2013).

Gogoan hartu behar da hala ere, kontalaritza berria deitzen duguna asmatzeko bidea (Briot, 2013; *Behinola*, 2010) gozamenezkoak ez ziren helburuak baldintzatuta jaiio zela: irakurzaletasuna eta bestelako helburu pedagogiko eta didaktikoek eraginda, hain zuzen. Ibilbideari modu horretan ekiteak izan ditu bere ondorioak: batetik gozamenaz beste helburuei esker sortu zen mugimendua, baina bestetik, helburu horietatik ezin askatu dabil oraindik ere. Helburu didaktiko eta pedagogikoetatik kanpo nekez irudikatzen da kontalaritza, egungo arte espresabide berariazko gisa. Bereziki, hizkuntza gutxituan egiten den kasuetan, gutxienez euskararen kasuan.

80. hamarkadan zehar, esan bezala, hasieran apenas elkarren berri zuten kontalariak elkartzen hasi ziren zituzten behar eta kezka berriei buruz eztabaidatzeko. Mugimendua egituratu, hedatu eta arautzeko asmoak agertu ziren poliki poliki (Hernandez, 2006). Konta-praktika berrien agerpena ia aldi berean izan zen arren, European zehar herrialdearen arabera mugimendua egituratzea lehenago edo beranduago gertatu da (*El Aedo*, 2012; 2013).

Esandakoaren adibide ditugu frantziar estatuan ANCEF kontalarien elkarte 1988. urtean sortu izana eta espainiar estatuko AEDA 2010. urtean. Euskal Herrian *Kontalariok* elkarte 2008an sortu zen. Bada alde nabarmena, beraz, herrialdeen artean.

Kontalariak euren jendaurreko jardueraren izaeraz eztabaidatu, praktika hedatzeko ekimenak bultzatu eta elkartruke egiturak sendotzeari ekin dioten ahal izan duten moduan. Gerora, 90. hamarkadan, kultur mugimendu bilakatu zenak aho batez egin duen aldarrikapen hau herrialde guztietara hedatu zen: kontalariena *berbazko artea* da, eta egungo arte eszeniko eta praktika artistikoen artean aitortua izan nahi du.

Ahozko konta-praktiken multzo bat kultur jarduera artistiko gisa irudikatua izatera pasa zen eta artebide gisa sendotzeko ibilbideari ekin zion.

3.2. Kontalaritza berriaren sendotze garaia (1990-2005)

Mendebalde guztian hedatu da kontalaritza berria. Frantzia eta Quebecen nahiz herrialde angloasioetan (Calame-Griaule, 1991; Bauman, 1986; Gibeault, 2003) garapen ikusgarria izan du; antzeko ezaugarriekin garatu ere bai. Frantzia eta frankofoniako datuak oro har bereziki baliotsuak dira euskarazko kontalaritzarekin duten gertutasunarengatik. Euskal Herriko kontalariek adostutako *Agiria* dokumentuan (2008) nabarmena da *La Charte de Conteurs* frantziar estatuko kontalarien dokumentuaren eragina. Eta AEDA elkartearen dokumentu eta agiri ofizialak ikusita, agerikoa da gaztelerazkoari ere eredugarri izan zaiola frantses kontalarien lana¹³.

Frantzian kontalaritza berriak izan duen garapen handiaren adibide ditugu zenbait datu. 3000 kontalaritik gora profesionalizatu dira dagoeneko (Loup & Ferdinand, 2005) eta komunikabideetan, bereziki irratian, presentzia azpimarratzekoa da. Egun kate propioa eratua da¹⁴. Era berean, kontalariek euren errepertorioa bai idatziz eta bai ikus-entzunezko formatuan eskaintzen dute¹⁵.

Kontalaritzaren inguruko jaialdi zinez ospetsuak daude dagoeneko, eta hiri eta herri askok badute dagoeneko eurena. Hor dugu, esate baterako Rennes/Roazhonen egiten den *Mythos* jaialdia. Jaialdiak 25.000 entzule biltzen ditu urtero, hastapenean ehunka eskas zituen arren. Nabarmendu beharra dago, jaialdia Britainian egiten den arren, konta-saioen programazio ia osorik frantsesez egiten dela. Bertako hizkuntzetako konta-saioak erabat bazterrekoak (bretoia eta galoa hizkuntzena) dira. Frantziako kontalaritza berriaren bilakaeraren atzean, frantsesez jarduten den kultur sistema indartsu bat dakusagu. Euskal Herrian bertan ere, hizkuntza handien indarra begi-bistakoa da. Urtez urte hegoaldean gero eta ezagunagoa egiten ari den kontalaritza berriaren *Ahoz aho* jaialdiaren programazioan gaztelerazko programazioak gain hartzen dio euskarazkoari ia modu erabatekoan.

¹³ Ikus AEDA elkarketako dokumentu markoaren erredakzio baldintzak. Kontsulta 2014-07-23, sarean: <http://narracionoral.es/index.php/es/la-asociacion/historia/16-historiadocs/19-documento-marco>. AEDA elkartearen dokumentu markoarengan (honakoa 2010ean erredaktatu zen) eragina ere agerikoa dela uste dugu.

¹⁴ Kontsulta, 2015-07-22, sarean: <https://www.youtube.com/user/LeMondeenContes/videos>.

¹⁵ Henri Gougouden bibliografia luzea da eta haren ikusentzunezko edizioa ere mardula (*Henri Gougoud raconte*:2006).

Frantziar estatuko kontalaritza berriaren aintzindarietako bat Bruno De La Salle izan dela aipatu dugu, lehenengo belaunaldi osatu zuenatarikoa¹⁶ (Briot, 2005). Haren ondotik bigarren eta hirugarren kontalarien belaunaldi berri sendoak etorri ziren 80. eta 90. hamarkadetan. De la Sallek artearen beste diziplinekin elkarlana bultzatu izan du beti (musika, dantza, e.a.) eta Frantziako kontalaritza berriaren garapenaren eragile nagusia da. Kontalaritza praktika artistiko gisa onartua izan zedin egituratzen eta formalizatzen eman du kontalari ibilbidea.

Bruno de La Sallek hain zuzen, konta-praktika berriek praktika artistikoen artean lekua lortzeak zuen zailtasuna ikusita, egoera hartaz gogaitua, 1981ean *Clio*¹⁷ –Centre de Littérature Orale- sortu zuen. Urte gutxiren buruan, *Clio*, 1987an, interes nazionalako egitura deklaratu zen. Harrez gero, mugimenduak ez dio handitu eta zabaltzeari utzi. Garapena hain ikusgarria izanik Frantziako Kultura ministerioak 2000. urtean kontalaritza garaikidearen egoeraren berri jasotzen duen txostena eskatu zuen (Touati, 2000).

Franzian, tradizioaren eta berritzearen bidegurutzean sortu diren elkarte eta eragileen artean, aipagarriak dira 2000an berbazko arteen garapenerako sortu zen *Mondoral*¹⁸ proiektua nahiz berriki sortutako *Ici-même* elkarteak. Azken hau, kontalarien aterabide profesionala laguntzeko sortutako erakundea da.

Kontalaritzaren hedatze eta sustatzaile diren bestelako eragileak dira *Dire* eta *La grande Oreille* bezalako aldizkarien argitalpen espezializatuak nahiz kontalaritzari bideratutako bilduma bereziak: Edisud argitaletxearen *L'espace du conte* saila, Syros argitaletxearen *Paroles des conteurs* bezalako edizio bereziak, e.a.

Ahozko kontalaritza berriaren suspertzeak unibertsitate mailako ikerketa ere suspertu du (Pittet-Blanchard et al., 1991; Hernandez, 2006; Carruthers & McCusker 2010) kontalari berriaren errepertorioa, entzuleriarekiko harremana, kontakizunen aldagarritasuna, kontaketa teknikak, funtzio soziala, ahozkoaren dinamika, berbaldua...aztergai direlarik. Frantziar estatuan, ohiko eskola (Touati, 2004), liburutegi eta aisialdi esparruez gain arte eszena ere osatuz joan da kontalaritza berria. Arte

¹⁶ Zerrenda oso ba ikusteko ikus Briot (2005:161).

¹⁷ Kontsulta 2015-01-03, sarean: <http://www.clio.org/-Biographie-.html>.

¹⁸ *MONDORAL* kontakizuna eta berbazko arteen inguruko ekintza programa bat da. Lau elkarte hauek biltzen ditu: Vendôme-ko *Conservatoire de Littérature Orale*, Chevilly-Larue-ko *La Maison du Conte*, Isère-ko *Centre des Arts du Récit*, eta Rennes/Roazhoneko *Paroles Traverses Festival Mythos*. Askotariko modalitateetan gauzatzen den egungo kontalariaren artea ikusgai egitea du helburu eta gizartearen ahozko ondare inmaterial narratibo eta literarioaren transmisioa eta aberastea eragitea (sarean : mondoral.org). Koldo Amestoy kide aktibo gisa agertzen da.

espresabide ezberdinen arteko elkarlana aipagarria da Frantzian eta baita helduentzako konta-praktiken kultur programazioa ere.

Frantziar estatuan, kontalaritza berriak izan duen garapenaren bidetik ulertu behar dira Koldo Amestoyren proposamen asko: ikuskizun/saio asko egin ditu kantari, dantzari eta musikariekin batera (*Biribilketa*, *Luma beltza*, *Aneta Bokaleko* ikuskizunak esate baterako).

Espainiar estatuan, ez da hain ikusgarria izan bilakaera, baina aipagarria da *Maratón de Cuentos de Guadalajara*ren lan aitzindaria kontalaritza berriaren sorrera eta hedatzean. Kontalari askok aipatzen dute jaialdiak eskaintzen duen ezagutarazteko eta elkartruckerako aukera (Sanfilippo, 2007a; *El Aedo*, 2013). *Tantángora* eta berriki AEDA elkarteak digitalki sortu duen *El Aedo* aldizkariak elkartruckerako eta kontalaritzaren errealitatearen egoera ulertzeko ezinbestekoak dira egun. Izan ere, *El Aedo* aldizkaria espainiar estatuko kontalaritzari buruzko informazio baliotsua eskaintzen ari zaigu azkenaldian. Bestelako askotariko elkarte edo eragileak ere badira: *Cuentos de La Luna* programazioaren ondotik sortzen diren adituen kritikak, Madrilen sortzen ari den kontalarien lehen eskola (*El Aedo*, 2013), AEDA elkartearen udako eskola¹⁹, e.a.

Arlo akademikoan, espainiar kontalaritza berriaren azterketan Sanfilipporen lana (2007a, 2007b, 2007c, 2007d; e.a.) aitzindaria da. Estatu Espainiarrean kontalaritza berriak izan duen bilakaera aztertu du autoreak Italian antzerkigintzaren azpi genero gisa garatu den kontalaritza berriarekin alderatu.

Frantziar eta espainiar estatuetako mailako lan akademiko horiei aparteko garrantzia ematen diegu, inoiz edo behin euskarazko kontalaritzaren inguruko datuak jasotzeaz gain, gertutasunagatik euskarazkoari eragiten dioten faktoreak ulertzen laguntzen digutelako. Hala ere, oro har, lan horietan ez dugu hizkuntza gutxituetan egiten den kontalaritzaren problematika kontutan hartuta aurkitu (Diaz de Gereñu, 2012). Kultura eta hizkuntza gutxituetako kontalariak aparteko lekuan sartzen dira inoiz (Heiniger, 2013) edo haien jardueraren berezitasunak ez dira deskribatzen.

Hizkuntza gutxituetako kontalariak zailtasunak aurki ditzakete hizkuntza nagusien egituretan sartzen, baina badaude egitura nagusi horiek bultzatzen dituztenak ere. Kontalari guztiek ere ez dituzte helburu berdinak: batzuk hizkuntza gutxituak eskaintzen duen merkatuarekin konforme aurkitzen ditugu baina beste batzuek,

¹⁹ Kontsulta, 2015-08-24, sarean: <http://narracionoral.es/index.php/es/escuela/que-es>.

hegemonikoak diren hizkuntzen kultur sareak baliatzen dituzte, hizkuntza gutxituenak ez ditu eta asebetetzen.

Mundu mailari begiratzen badiogu, Europako gainerako herrialdeetan, AEB.-etan, Ertamerika eta Hegoamerikan (Calame-Griaule 1991; Sanfilippo, 2007a; Hernandez, 2006; Garzón Cespedes, 1995) kontalaritzaren garapenean ere kronologiaren aldetik antzeko datazio eta garapena egiaztatzen dela esango dugu. Herrialde guztietako kontalarien arteko loturak eta elkarreraginak handiak direla baieztatzen da, nazioarteko elkarteak eta elkarretaratzeak sortu direlarik garapenaldi deitzen dugun horretan. European FEST elkarteak (*Federation for European StoryTelling*) eta haren *FEST-Meeting* elkarretaratzeak azpimarragarriak dira. Badirudi elkarte honen jardura erabakigarria izan dela AEDA kontalarien elkarteak osatzeko. Herrialde ezberdinetako ahozko poetika bideen arteko harremanek (Ong, 1987; Apalategi, 1987; Zumthor, 1991; Kortazar, 1997) biziak bezain konplexuak izaten jarraitzen dute kontalaritza berriaren eskutik, askotariko argitalpen eta kontalarien jaialdiek erakusten duten moduan.

Mugimendu honek guztiak, besteak beste, idatziz gorde diren bateko eta besteko ahozko literaturaren gaineko berrerabilera eta egokitze mardula suposatu du (Lavoie, 2005; Göröd-Karady, 1990). Emakumearen ikuspegia sartu izana ere azpimarratzen da, folkloreak eraiki duen kontalariaren irudiaren murrizketaren beste alderdi batzuk eztabaidatzea ekarri duelako (Lavoie, ibid.; Briot, 2005; Imaz, 2010).

Mugimenduaren egituratzeak eta arautzeak, kontalariaren izaera eta rolari nahiz formazioari buruzko problematikak eragin ditu. Aldaketa guzti hauek eztabaida oparoak eta are sutsuak ere sortu dituzte eta kontalariak hartu zituzten posizioen arabera eskola eta kontalaritza ulertzeko modu berriak garatu dira. Herrialde bakoitzeko kultur sistemen ezaugarriak eta kontalarien esku jarri diren administrazio mailako baliabideek baldintzatu dute batean eta bestean kontalaritza berriaren garapena (San Filippo, 2007a; Calame-Griaule, 1991; Garzón Cespedez, 1995; Hernandez, 2006; Touati, 2000; Diaz de Gereñu, 2012) eta beraz, hemen ildo nagusiak baino ez ditugu aipatu.

3.3. Kontalaritza berriaren egungo egoera (2005 urteaz geroztik)

Hernandezek (2006) erakutsi du herrialde guztietan ipuinaren mundua ideologia berdinen inguruan eraikitzen dela eta, denetan ere, kontalarien praktikak praktika artistiko legez onartuak izan nahi dutela. Ideal jakin batzuk (sustraiak, humanismoa,

hiritartasuna, unibertsaltasuna) eta kontalariaren estatusaren osatze administratiboa errebindikatzen dira han eta hemen. Herrialde guztietan bazkide bidezko kontalari aktiboen sarea bilatzen da (Europako eta mendebaldeko funtzionamendu modu ohikoa).

Garapenak garapen, Hernandezen hipotesia da *ipuinaren* munduaren berariazko instituzionalizazioaren hastapenetan gaudela oraindik ere Europan (Hernandez, 2006:308). Mugimenduak oro har duen egoera ahul honi gaineratu behar genioke: Europan hizkuntza eta kultur egoera gutxituetan dauden kontalaritza berriaren mugimenduak egoera makalagoa erakusten dutela.

Kontalari berriaren rola definitzea oso zaila eta konplexua da (Göröd-Karady, 1982; Heiniger, 1997; Briot, 2005). Europako tradizio(ar)ekiko hausturaren eta jarraitutasunaren artean mugak eztabaidagai mardulak dira. Besteak beste, tradizioa nola definitzen den edota kultura hiritarra nola irudikatzen den, oso modu ezberdinean ulertuko da kontalariaren rola eta haren jarduera.

Maiz, kultur eredu hiritarrak herrietako kultur eruekin kontrajarrita ikusten ditugu. Harritu izan gaitu ondoko kategorizazio eta etiketatzeak aurkitu izanak: a) Kontalari berria *urbano, mugikor eta sustrairik gabeko* bezala definitua (Göröd-Karady, 1982; Heiniger, 2013); b) Eta aurrekoari kontrajarrita *kontalari erregionalaren* kategoria (Hernandez, 2006). Bada kontraesanik mugimendu hau osatzen dutenen rolak eta ereduak ulertzerako garaian.

Edozeinek pentsatuko luke kontalaritza berria ezaugarritzen duen kulturantzatasuna herri eta kultura txikienei kontrajartzen zaiela. Hiritartasuna kulturantzatasunaren gune eskusiboa balitz bezala irudikatzen dela dirudi. Gure ustez, Europako bertako hizkuntza eta kultura gutxituak kulturantzatasun horren iturri dira, izan. Eta hala aitortu eta irudikatua ikusi nahi genituzke.

Uste dugu premiazkoa dela hizkuntza gutxituetan aritu nahi duten kontalari berrien balioa aitortzea eta hauen jarduera sustatzea, besteak beste, kontalaritza berriaren errealitate eta izaera anitzaren berri ematen digulako. Kategorizazio murrizgarriak gaitu beharko genituzke kontalariak egiten duten eskaintza kulturala bere osotasunean aintzat hartuz. Bi adibide jarriko ditugu.

Koldo Amestoy kontalariak, esate baterako, sustraiei atxikitako kontalari perfila erakutsi du²⁰ baina hori ez da eragozpen kultura askotariko materia narratiboak erabiltzeko (*In Vino Fabula* eta *Bilintx* ikuskizunetan, adibidez) eta praktika artistiko

²⁰ Kontsulta, 2015-05-10, sarean: <http://www.conteurs.fr/In-Vino-Fabula>.

honen ezaugarri multidiziplinarraren esperimentazioaren erdigunean kokatzeko bere sormen lana. Munduan zehar dabil kontalari eta inoiz ikuskizunak lehenik frantsesezko bertsioan izan ditu prest (ikus *Adour, récits de fleuve* ikuskizunaren gainean ematen dituen azalpenak²¹). Berriz, kontalari gisa irudi *hiritarragoa* ematen duen Joxemari Carrerek tradizioetik jasotako kontakizunez betea du errepertorioa. Beraz, kontalari berrien irudi hutsari lotutako murrizketak egin ordez ahalegin berezia egin beharko genuke, bereziki arlo akademikoan dihardugunok, kontalarien lanaren eta rolaen konplexutasuna irudikatzen lagundu gaitzakeen ikuspegi irekia izaten: errealitatea bere horretan deskribatu eta aurreiritziak alboratu nahi izatekotan.

Bibliografiaren azterketa, izan ere, kontradikzioz betea dago zentzu honetan. Gero eta garbiago ikusten da egun kontalari mota asko daudela, baina, kontalaritza berria mugimendua osatzera pasa nahi dutenek kezka bereziak dituztela garbi erakutsi du Heinigerrek (2013). Eta egia da, hein batean, egituratu den kontalari berrien mugimenduak oinarrian hizkuntza handietan garatzen ari dela, gure inguruan behintzat. Hala ere, autoreak mugimendua kritikatzeko ez du beste problematika hau kontutan hartzen: badira profesionalizatu diren hizkuntza gutxituetako kontalariak, egungo kontalaritza berriaren mugimenduarekin bat egiten dutenak. Onartu beharra dago: praktika artistikoa ulertzeko oso modu ezberdinak daude, eta denak ere, aberasgarri.

Hasteko, garrantzitsua litzateke konta-praktika berriak ulertzeko modu ezberdin hauek nahiz berauen inguruan formalizatzen diren mugimendu anitzak aztertzea. Esate baterako, Okzitanieraz diharduen tradizio handiko kontalari multzoa bada eta berori onartzea ezinbestekoa dirudi:

(...) une affirmation de la présence, de longue date, du conte d'expression publique tout en soulignant son activité la plus actuelle. Cette observation pourrait nous amener, mais ce n'est pas le propos de cet article, à saisir l'évolution de l'expression scénique, thématique et linguistique de cette tradition du conte public afin de comprendre l'adéquation conteur/société. (Heiniger, 1980:160)

Heinigerrek (2013) ekimen herrikoi eta komunitateko aisialdiko jarduera gisa dabilzaten kontalari hauen lekuaren aitortza eskatzen dio kontalaritza berri deritzogun mugimenduari frantziar estatuan. Izan ere, frantziar estatuarentzat kontalaritza berria kultur ondare immateriala izateko proposamenean ez da jaso okzitanieraz egindako konta-praktiken multzoa (Heiniger, 2013). Okzitaniera hizkuntza eta kulturaren aldeko

²¹ Kontsulta, 2014-10-06, sarean: <https://koldoamestoy.wordpress.com/category/berriak/>.

mugimenduarekin lotzen den jendaurreko kontalari hauen sorrera eta ibilbideak baditu ehunka urte baina badirudi bistaratzeko zailtasunak biderkatu egiten direla, Heinigerrek salatzen duen moduan, hizkuntza gutxituen kasuan.

Euskaraz ere badira kontalaritza berriarenak baino agerraldi xumeagoetan dabilzan kontalari asko. Horietako askok agian inoiz ez dute hartuko profesionalizaziorako bidea, baina konta-praktika berriak eta egokituak egiten dituzte²². Kontalaritza berriarekin ondo ezagutzen ez ditugun harremanak dituztela uste dugu. Hizkuntza gutxituen kasuan kontalaritza praktikaren bazterreko izaera eta hizkuntzaren egoera gutxitua biltzen direla agerikoa da.

Euskararen kasuan behintzat, muga ezartzea ez da hain erraza ikusita euskarazko kontalariak dituzten arazoak profesionalizazio horri ekin eta mantentzeko. Badira kontalaritza berriaren mugimenduarekin bat egiten duten kontalariak baina profesionalizazio bidea oso gaitz aurkitzen dutenak. Horregatik, bestelako bereizgarriak ere aintzat hartzea komeni da hizkuntza gutxituen kasuan; eta egia esan, denetariko problematikak ageri dira euskarazko kontalaritzan.

Kulturaniztasunari berebiziko ekarpena eginez, aipagarria den jarrerarekin eta lan egitasmo mardulekin, euskarazko kontalariak eleaniztasuna eta kulturaniztasuna gogotik maite eta lantzen dute (Diaz de Gereñu, 2012). Saioak egoera elebidunetan – diglosikoetan- gauzatzea eta garatzeak komunikazio gaitasunak areagotzea eta aparteko hizkuntzaren gaineko lana eskatzen die. Kontalariak, ikaskuntza iturri jotzen dute gertakari hau. Mereziko luke gai honek aparteko lanik.

Kontalaritza berrian oso zabalak eta etengabe zabalduz doazen kontatzeko moldeak ageri dira, praktika sozio kulturalen eta testu generoen arteko mugak ezbaian jartzen dituztenak. Kontalaritza hainbeste garatu da, non talka ere egiten duten berau ulertzeko modu anitzek, helburu eta interes ezberdinak azaleratzen direlarik jendaurrean kontalari jarduten dutenen artean.

Tradiziozko kontalariaz hedatu den irudi murriztuaren ondoan kontalaria aldaketa historikoetara eta unean uneko komunikazio egoeretara moldatzeko gaitasuna duen norbait dela azpimarratu nahi dugu. Horrela, komunitate eta sortzaile mota ezberdinek

²² Sonia Etxenausiak, esate baterako, hainbat saio egin ditu Aramaio eta inguruetako herrietan nahiz eta kontalari profesionala ez izan: San Juan jaiaren bezperako egitarauan konta saioa egitea eskatzen diotela, argitaratu berri den Aramaioko ipuinen (Ozaeta & Arriolabengoa, 2013) inguruko kontakizunen gaineko saioa egiteko eskaria egiten zaiola, e.a. Tradizioaren berrinterpretazio bete betean ari diren konta praktika berriak gauzatzen ari dela kontsidera dezakegu. Kontuan izan behar da, hala ere, Sonia Etxenausiak, formazioa jarraitzen duela Virginia Imazekin, kontalaritza berriaren sustatzaileetako batekin. Beraz, kontalaritza mota ezberdinen arteko harremanak, egon badaude, nahiz eta izaera eta helburu ezberdinak dituzten.

elkarri egiten dizkioten proposamen kultural berrietan gorpuztuz doaz konta-praktika berriak.

Berbazko molde ezberdinen beharra sortu duten kontestu publiko berriak sortu dira (Bauman, 1986). Agerpen modu berri horiei aurre egiteko, kontalariak prestakuntza eta lanketa handia behar dute (*Behinola*, 2010; *El Aedo*, 2013), bereziki profesionalizatzen direnean. Era berean, inprobisazioa nabarmentzen da kontalari berriaren gaitasun nagusietako bat bezala, kontalariaren performantzean sortzen den testuaren eta transmisio kontestuaren arteko harreman dinamikoak duen garrantzia erabatekoa izanda (Pelen, 1991; Du Berger, 2006).

Laburbilduz, kontalaritza berria berbazko arte gisa definitu eta ezaugarritzeko moduetan (Sanfilippo, 2007a; Hernandez, 2006) ezberdintasun kulturek nabarmen eragiten dute, baina baita artea ulertu eta egiteko moduek ere: kontalaritza berria deitzen dugun mugimenduak nagusiki, kontatzen jakite modu berrietan osatua, orobat kontakizunaren mundua *artearen mundu* gisa irudikatzen du egun (Hernandez, 2006). Irudikatze modu horrek zabalkunde handia izan duen dudarik ez dago, eztabaidak eztabaida. Horrez gain, giza jardura kulturek oro har sortzen dituzten eztabaidak, aldaketa eta bilaketa etengabearen ondorio izaten direla kontutan izanda, konta-praktika garaikideak osasuntsu dauden seinale direla pentsa dezakegu.

Kontalaritza berriaren mugimenduak nahiz arlo akademikoak bereziki erreparatu beharrekoa iruditzen zaigu hizkuntza gutxituetan egiten den kontalaritzaren ekarpena, ez da eta nahikoa aintzat hartua izan, gure ustez. Berauek kulturantzatasunaren erdigunean kokatu eta sustatzeko ahalegina egin beharko litzatekeela iruditzen zaigu. Beti ere, kultura gutxituan jarduten diren kontalarien interesak anitzak izan daitezkeela gogoan izan behar da. Kasu batzuetan kontalaritza berriaren mugimenduarenekin bat datozen kontalariak aurkituko ditugu eta bestetan haiengandik urruntzen direnak, nahiz eta harremanetan izan daitezkeen.

4. Euskarazko kontalaritza berriaren ezaugarriak

Mendebaldea osatzen duten herrialdeen kontestuko eta, bereziki, Espainiar eta Frantziar estatuetakoa kontalaritza berriaren mugimendua ezaugarritzen duten zenbait datu eta gertakariren berri jaso dugu orain arte. Izan ere, horiek gabe nekez ulertu daiteke gurean gertatutako bilakaera. Euskarazko kontalaritzak inguruko herrialdeetako jendaurreko konta-praktiken loratze eta bilakaera modu eta data berdintsuak jarraitu

ditu. Inguruan ditugun hizkuntza handietan baino apalago garatu bada ere, ez dugu uste orobat eskasagoa denik, bereziki euskarazko kontalari batzuen maila aitortua baita gure mugez harago.

Euskarazko kontalaritza berria sortu zeneko giroak ere garai hartan European aurkitzen zenari jarraitu zion. Konta-praktika berrien agerpena aipatzen ez duen arren, hala baieztatzen du Kortazarrek (1993): 70. hamarkadaz gero European gertatu zen tradiziozko literatura deitzen denaren berrinterpretazioa egiteko grina zuen giro kulturala hedatu zen Euskal Herrian. Europa guztiarekin batera Euskal Herrian ere, primitibismoa, alienatu gabeko denbora, eta gizakia eta izadiaren arteko armoniaren nostalgia erakutsi zuen balada eta lirikaren agerpenak etorri ziren. Bertsolaritza eta pastorgintzak, adibidez, bide horretatik lortu zuten irautea edota biziberritzea. Tartean izan ziren helburu politikoak ere aipatzen ditu Kortazarrek (ibid.).

Gure ustez, euskararen biziberritzea ere eragile nagusiekoa izan zen Euskal Herrian, gutxienez horixe aitortua du Koldo Amestoy kontalariak, kontalaritza berriaren sorreraz jardutean (Pittet-Blanchard, 1990:13). Bestalde, uste dugu sortu zen kultur mugimendu hura ez zela atzera begira jarritako nostalgia hutsez eraiki. Egia izanik ere kontalari berriek tradizioaren irauarazle eta transmisore rola oso bere egiten dutela (Hernandez, 2006; Agiria, 2008). Kontalaritzaren eraberritzea arteen esperimentazio testuinguru kulturantz batean gertatu zen, baita Euskal Herriari dagokionez ere. Artearen eta bereziki antzerkiaren eta ikuskizunaren kontzeptu klasikoaren eraberritzea izan zen gurean ere eragile nagusietako bat (Pittet-Blanchard, 1990).

Esandakoaren erakusgarri antzerkigintzatik kontalaritzara igaro zeneko ibilbidean bi gertakizun aipatzen ditu Koldo Amestoyk. Lehena, herri irratietan kontakizunak kontatzen hasteko aukerak bilakaera hartan izan zuen garrantzia (Pittet Blanchard, ibid.). Bigarrena, ahozko kontaketa jarduera bera helduentzako izan zitekeenaz jabetu izana. Honela azaltzen du Koldo Amestoyk egindako aurkikuntza:

25-26 urte nituen. 1983an, parte hartu nuen ipuin festibal batean Dordogne eskualdean. Mundu guztiko kontalariak gurutzatu nituen, Egiptokoak, Afrikakoak, ... Ikusi nuen jende helduei kondatzen zutela. Ordu arte, enetzat, ipuina haurrentzat zen.²³

Azken aipu honetan ikusten da, kontalaritza berriaren sorrera ez zela bertako nahiz kanpoko kontakizun bilduma hutsez elikatu, baizik eta kontaketa ekintza beraren

²³ Kontsulta, 2013-02-10, sarean: http://www.eke.org/kultura/lekukoak_lekuko/amestoy_koldo.

funtzioak hedatu zirela interkulturalitateari esker: generoaren funtzionamenduaren gaineko jakintzaren berreskupena ekarri zuen honek.

Behin jendaurreko konta-praktikaren esperimentazioaren sartuta, konta-praktika horiek garatuz joan ziren euskaraz ere. Gerora egindako ibilbidean emaitza gaurkotua eta aurrerakoa gertatu dela onartzeko nahikoa arrazoi badela uste dugu. Kontalaritza berriaren balioa ikusteko, ordea, komenigarria da idatzizko literaturaren irizpideetatik aldentzea, oso bestelakoak dira eta. Koldo Amestoyk urratutako bidea jarraitu zuten beste askok euskarazko kontalari belaunaldi berriak osatu zituzten 80. eta 90. hamarkadetan zehar (*Behinola*, 2010). Europako beste lekuetan bezala, antzerkilariak, irakasleak, liburuzainak ziren kontaketa ekin zioten haietako asko.

80. hamarkadaren hasieran ez zen apenas kontalari egiteko formaziorik eskaintzen, hasi berria zen-eta kontalaritza berriaren mugimendua. Zaharkituak geratu ziren zenbait eskuliburu baino ez zeukatela eskura dio Imazek (*El Aedo*, 2014). Kontestu hartan Koldo Amestoy Pello Añorgaren mentore izan zen eta Joxemari Carrerek ere Koldo Amestoy eredu bakarra izan zuela behin baino gehiagotan aitortu du. Koldo Amestoyk euskarazko kontalaritzaren sorreran izan duen rola erabakiorra izan dela zabal aitortzeko garaia dela uste dugu.

Diaz de Gereñu (2012) lanean ematen ditugun euskarazko kontalaritzaren inguruko hainbat ezaugarri gogoratuko ditugu ondoren. Izan ere, aitzindariak izan ditugun arren, besteak beste muga banaketak eraginda, euskarazko kontalaritzak ez du izan eredu argirik. Ez da egon euskarazko kontalaritza berriari gidaritza argirik eta eredurik kontalari gazteagoengan eragiteko. Hori mugimendua bera egituratzeko eragozpen handia izan da. Belaunaldi gazteenek erduei eman dieten garrantzia eskasak horixe erakusten duela uste dugu. Ikastaro eta eskuliburuak garrantzi gehiago ematen diete. Iruditzen zaigu, ezezagutza medio, beste praktika artistiko batzuetan baino garrantzi gutxiago ematen zaiela aitzindariari. Kontrara, munduan zehar ibili diren euskarazko kontalari trebatuagoek eta ondorioz beste kontalaritza berriaren mugimenduekin harreman gehiago izan dutenek erduei garrantzi handiagoa ematen dietela baieztatu dugu. Ezagutu dituzte-eta.

Hala, euskarazko kontalaritzaren sorrera eta garapenaren zati handi bat gure mugez kanpo egin da, bertan ez baita kontalarien arteko hausnarketa, kritika, eta elkartzeko egitura sendorik sortu. Amestoyren kasuan, bere aldetik dio, beste artista batzuekin batera lan egin izanak (kantu, musika, margolari, dantza,...) eragina izan duela bere

kontalari jardueraren garapenean. Izan ere, Europako kontalaritza berriaren mugimenduaren ezaugarria da diziplinartekotasuna.

Eragozpenak eragozpen, euskarazko konta-praktikak eskaintza kultural egonkor eta sendoa osatuz joan dira. Oraindik badago, jakina, zertan aurreratu praktika artistiko gisa onarpena jaso dezan.

Egun kontalari adituak badaude eta konta-praktiken aniztasuna ere handi samarra lortu da. Giza komunikazioaren ekintza esparru oso bat berreskuratu eta asmatu izanaren merezimendua dauka euskarazko kontalaritza berriak. Bai haurrei dagokionez eta bai helduei dagokionez ere. Bertakoaz gain, askotariko ahozko literaturaren ondareak eta baita literatura idatziaren kontagaiak ere lantzen dituzte kontalariak.

Gurean ere, Europa guztian bezala, kontalari gehienak antzerkigintzatik, pedagogo eta irakasle izatetik hurbildu ziren kontalaritzara. Euskarazko kontalaritzaren eraberritzean mesedegarri izan dira bi eragile: bata, orokorra, irakurzaletasuna sustatzeko ekimenak eta bestea, euskara bera sustatzekoak.

Egia esan, euskararen kontalaritzaren kasuan irakurzaletasuna eta euskara sustatzeko ekimenak biak ala biak oso lotuta egon dira (*Behinola*, 2010); bi eragileen arteko elkarrenergina bereziki handia izan da gure lurraldean. Egun ere, krisia dela eta kontalariak pairatzen duten lan faltaren aurrean, esate baterako, euskaraz egiten dituzten saioak sostengu direla dirudi hein batean (*TK*, 2014).

Mesedegarri izan arren, beraz, XX. mende hasieratik aurrera herri eskandinaviarretatik abiatuta Europa guztira eskolaren eta liburutegien bitartez hedatu ziren irakurzaletasun ekimenak, ipuinaren pedagogiazioa (Pelegrin, 2004) ekarri zuten. Horri, euskararen kasuan ipuinaren didaktizazioa gaineratu behar zaio. Izan ere, kontasiao batek berebiziko balioa hartzen du gurea bezalako hizkuntza gutxitu baten ikaskuntza prozesuan: funtzio komunikatibo osoa duen komunikazio ekintza baten burutzea dakar, mintzaira objektuen irakaspén zatikatua saihestuz. Hau, euskarazko kontalaritzari onuragarri izan zaio: euskarazko entzuleen merkatua handitu baitu. Baina, esan dugunez, praktika artistiko gisa ulertzeko gerora izan dituen zailtasunak ere bide beretik etorri zaizkio. Kontalariak kexu dira ez delako aintzat hartzen jendaurreko kontalaritzaren helburu nagusia gozamina dela (*Behinola*, 2010), eta inoiz kontalari baino irakasle lanetan ari direla sentitzera hel daitezke²⁴.

²⁴ Maite Frankoren adierazpena. Kontsulta, 2014-03-21, sarean: <http://www.revistadeteatro.com/artez/artez156/zona/gentedepalabra.htm>.

Haur literaturaren idatzizko adierazpideei didaktizazioak edota pedagogizazioak egiten dioten kaltea (Etxaniz-Erle, 1997; Lopez Gaseni, 2006) biderkatu egiten da arlo honetan. Ahozko kontaketa - uste askoren aurka- gozameneko helburuekin inoiz gutxi erabiltzen da eskolan (Diaz de Gereñu, 2005). Euskararen egoera soziolinguistikoak eta haren didaktikak nahiz literaturaren irakaskuntzak oro har dituzten ezintasunei (Tauveron, 2002) gaineratu behar zaie generoaren beraren ezezagutza pragmatikoa.

Aurreko eragileez gain gogoratzekoa da Kultur Errota bezalako ekimenek, nahiz taberna eta askotariko herri ekimenek konta-saioen eskaintza kulturala handitzen egin zuten lana (Rekalde, 2009), bereziki 90. hamarkadaren amaieratik aurrera. Berriro ere, helburu kulturalak eta euskara biziberritzekoak bereizten zaila gertatzen da.

Europa guztian bezala, konta-praktiken eskaintza dibertsifikatuz joan da euskaraz, baina programazioak ez du lortu liburutegi eta kultur etxetan programatzen denetik asko bereizten. Guk dakigula eta Diaz de Gereñu (2012) lanean esan bezala, Koldo Amestoy da salbuespena: liburutegi eta kultur etxe eta ikastetxeekin batera, antzokietan ere antzera ibiltzen baita. Saioak euskaraz eta frantsesez kopuru antzekoan egiten ditu kontalariak eta euskarazko kontalaritzaren ezaugarriak ikusita pentsatzekoa da antzokietako saio asko frantsesez burutuko dituela, horietako asko asko Euskal Herriko mugez harago ziurrenik.

Kontalariak ipuin edo kontakizunekin zerikusia duten praktika asko egiten dituzte euskaraz: hezkuntzarekin zerikusia duten saioetatik hasi eta beste arte diziplinetako eragileekin esperimentazioaren erdigunean kokatzen diren konta praktiketara. Baina egia esan, kontalaritzatik bizi diren gehienak liburutegi eta eskolek egiten duten programazioari esker bizi direla esan daiteke. Gutxien antzoki eta arte eszenikoekin lotutako lekuetan programatzen da. Helduentzako praktika artistiko aitortua izatera pasatzeko beste ez dirudi garatu denik, beraz, euskarazko kontalaritza berria. Liburutegi eta haurren saioetako programazioetatik kanpo bistartzeko zaila izan den praktika sozio kulturala dugu Europa guztian gertatu denari jarraiki.

Hala ere, aipatzekoa da, egungo euskarazko kontalaritzak aurreko hamarkadetakoak baino aniztasun handiagoa duela gauzatzen den testuinguru motei begiratzen diogunean. Hau, inola ere, aldaketa positiboa da. Hala, uste baino ugariago izan dira Euskal Herrian kontaketa berriaren inguruko festibal eta eskolak (Amestoyk 90. hamarkada amaieran antolatu zituen Iparraldean; Carrerek, Errenterian, 2007 eta 2010 bitartean), tailer eta ikastaroak (kontalari guztiek eskaintzen dituzte, oro har) ugari eta mota askotakoak izan ere (Rekalde, 2009).

Europako beste leku batzuetan gertatu den bezala, Euskal Herrikoan elkarren berri gutxi izaten zuten kontalariak hasi ziren noizbait ere bildu eta elkartu beharrez. Euskal Herriko *Kontalariak* elkarte ofizialki 2008an sortu zen, nahiz eta 2006tik hasi zen kontalaritza jaialdi eta elkarretaratzeak antolatzen. Batez ere, euskaraz jarduten zuten gazteleraz baino kontatzen ez zutenak ere baziren. Egundaino elkarteak burutu dituen lanen artean aipatzekoak dira: a) Euskarazko kontalaritzaren mugimendua egituratzeko ahalegin irmoaren emaitza nagusi kontsideratu dezakeguna: 2008an elkartearen *Agiria* izeneko adierazpen dokumentua. Dokumentu hartan, kontalaritza berriaren mugimenduan edo harengandik hurbil zebiltzatenen kontalaritza berriari buruzko irudikapen eta jarduera ezaugarritzen zituzten alderdiak azalatu ziren. Kontalaritza berria jendartean ezagutarazi eta arte eszenikoen artean kokatzeko asmoz eman zen pausua. Aurrerago aztertuko dugu dokumentua kontalaritza mugimendu bezala instituzionalizatzeko duen garrantziagatik; b) *Kontalariok* elkarteak urtero antolatu du oraintsu arte kontalarien festa (Getxon, 2006an; Aramaion, 2007; 2008an Bermeon; 2009an Erreterian; 2010ean Legution; e.a.). Jaialdien helburua bikoitza zen: kontalariak eurak elkartzea eta euren jarduera hedatzea, bistaratzea. Egun, dakigula, elkarteak bere jarduera gelditu dauka; c) Euskarazko kontalaritzaren inguruko *Behinola* aldizkari monografikoan parte hartzea.

Esan bezala, dakigula behintzat, egun elkartearen jarduera etenda dago, eta egoera kezkarri jartzen du horrek euskarazko kontalaritza berriaren garapena. Ez da eskolarik, laborategirik sortu elkarte honen eskutik, nahiz eta halakoen beharra behin eta berriz azpimarratzen duten kontalariak (Rekalde, 2009; *Behinola*, 2010; Diaz de Gereñu, 2012).

Joxemari Carrere eta Itziar Rekaldek 2013an, *Ladamasa*, kontalaritza sustatzeko elkarte sortu zuten. Azken bi urteetan kontalaritza jaialdi oparoak antolatu ditu elkarteak Erreterian, eta *Kontalariok* elkartearen bidez gauzatu ez diren euskarazko kontalaritzaren programaren jarraipena izan nahi duela dirudi, elkartearen egitasmoak ikusita:

Kontalaritzaren gainean jarduteko sortu da LADAMASA elkarte. Ipuin kontalaritza ez da bakarrik kontatze hutsa, Beste kultur jarduera asko bezala, eta bereziki arte eszenikoen alorrean, kontalaritza adar anitzak ditu, hala nola, kontatzea bera, ikerketa, prestaketa, sustapena... Adar bakoitzean hainbat jende aritzen da, kontalariengatik hasi unibertsitateko ikerlarietara, tartean irakasle, zaletu, antolatzaile, biltzaile eta beste hainbat jende, guztiak kontalaritzarekiko interesak bultzatuak.

Elkartean guzti horiek hartu nahi ditugu kontuan, dinamika ezberdinak bideratuz, bultzatuz eta proposatuz, hala nola jaialdiak, kontalaritza eskolak, ikerketa zentroak, biltze lanak, beste sektorekiko elkar lana eta abar. Guztiak Euskal Herrian kontalaritza jarduera dinamikoa eta gero eta ezaguna zein zabaldua izan dadin.”

Bestelako festak ere antolatu izan dira. Horietako batzuk aipatuko ditugu. Hasteko Donibane Lohitzuneko *Festi-Contes* eta *Munduko kontu kontalariak* jaialdia aipagarriak dira. Mundu mailako kontalari adituak eta profesionalak ikusteko aukera ezin hobea eskaintzen dute, nahiz eta euskarazko kontalarien presentzia oso eskasa dela esan behar den.

2007. urteaz gero Tolosa eta inguruko herrietan gauzatzen den *Ahoz Aho* jaialdia ere aipatu nahiko genuke. Azken honetan euskararen presentzia handia da eta ahozko kontaketa lehiaketa ere antolatzen da.

Arlo akademikoari dagokionez, eta euskarazko kontalaritza mugimenduak adierazi izan duen nahiaren kontra ez da lan askorik garatu. Hala ere, Udako Euskal Unibertsitateko, Euskal Herriko Unibertsitateko nahiz Nafarroako Unibertsitateko udako ikastarotan antolatu izan dira kontalaritza berriari buruzko jardunaldi hitzaldi edo ikastaroak. Gehinetan, ordea, kontalarien euren ekimenez antolatu dira eta ez dute jarraipenik izan.

Mintzola fundazioak antolatutako *Ahoa bete hots* urteroko jardunaldietan tarte egonkorra eskaini izan zaio kontalaritza berriari. Aipatzekoa, jardunaldien ondotik *Mintzola* fundazioak sistematikoki argitaratu dituen lanak.

Aldizkari ale bereziak ere eskaini izan zaizkio kontalaritzari. Irakurzaletasuna sustatzeko elkarte eta liburuzainen elkarrekin egin dute guk dakigula lan hori, informazio baliotsua bilduz (*Behinola*, 2010; *TK*, 2014).

Ekimenak ekimen, euskarazko kontalaritza berriaren mugimenduak ez du egitura sendo egonkorrik sortzea lortu: Euskarazko kontalaritzaren eskola eta egituren sortze prozesuak bertan behera geratu dira orain arte.

Esan izan dugun moduan (Diaz de Gereñu, 2012) han eta hemengo ikastarotan formazioa eskaintzen da baina ez kontalarien mugimendu egituratu baten barruan. Ez dago norberaren esperientzia partekatzeko modu erregular eta egonkorrik, ez eta elkartruke horren emaitzak jasotzeko modurik. Ondorioz, euskarazko kontalari adituen egiten jakiteak formalizatu eta eztabaidatu gabe gelditzen direla iruditzen zaigu.

Gauzak horrela, *Galtzagorri* elkartearen web guneak jarraitzen du izaten publikoki euskarazko kontalarien berri modu bateratu bakarra. Kontalarien web orri eta blogak dira informazio baliotsuak aurkitzeko lekua. Modu horretan Maite Franko kontalariaren kasuan, bere web orrian dio 2004 urtetik 2013ko uda bitartean 1.700 saio baino gehiago eskaini dituela²⁵. Ez da gutxi, kontutan izanda hirugarren belaunaldiko kontalaria dela berau. Badugu zer aztertu eta osatu euskarazko kontalaritza berriaren inguruan.

Euskarazko kontalaritza berriak badu nabarmendu beharreko beste osagai bat ere nahiz lehenago ere aipatu dugun: euskararen mugak gainditu izana. Uste dugu azpimarratzeko modukoa dela. Izan ere, euskarazko kontalarien jarduerak –adituenak behinik behin- Euskal Herriko eremua gainditzen du eta frantses eta espainiar estatuetan garatu diren kontalaritza egiturekin askotariko harremanak dituzte, zenbait kasutan zoliak.

Frantziako eta espainiako kontalari elkarteetan asoziatuak aurki daitezke euskarazko zenbait kontalari, ANCEF eta AEDA elkarteetan hurrenez hurren. Inoiz, nahiz eta asoziatuak ez egon, elkarte horiek antolatuta ikastarotan parte hartu edota bestelako ekarpenak ere egiten dituzte euskarazko zenbait kontalarik. Joxemari Carrere eta Itziar Rekalde, esate baterako, AEDA elkartearen kide izan ez arren, kontalari aitortuak izaki, AEDAREN ahozko narrazioaren hiztegiaren²⁶ parte hartu dute.

Euskarazko kontalariak Euskal Herrian euskaraz jardun arren nagusiki, gazteleraz eta frantsesez ere aritzen dira jendaurrean kontalari. Haien ekarpenak euskarazkoak ez diren kultur sareetan aitortuak aurkitzen ditugu²⁷ (Pittet-Blanchard, 1990; Sanfilippo, 2007a; *Aedo*, 2013).

Gazteleraz edo frantsesez jarduteak espainiar eta frantziar estatuetan ez-ezik, harantzagoko lurraldeetan kontatzeko aukera ematen du. Bide horretatik, Koldo Amestoyren saio edo ikuskizunak frantses hizkuntzan frankofonia deritzon eremuan programatua ikusi daitezke (Quebec, herrialde arabiarak, Congo...). Gazteleraz, berriz, ibiliak dira euskal kontalari batzuk Ertamerika eta Hegoamerikan, esate baterako (Joxemari Carrere eta Itziar Rekalde gutxienez bai).

²⁵ Kotsulta, 2015-07-09, sarean: <http://www.maitefranko.com/es/nor-da/labur-labur/>

²⁶ Kotsulta, 2015-07-26, sarean: <http://www.narracionoral.es/index.php/es/biblioteca/un-diccionario-de-narracion-oral>

²⁷ Kotsulta, 2014-06-02, sarean: <http://loscuentosdelaluna.blogspot.com/>. Bertan aurki daitezke euskal kontalariak gazteleraz Logroñon egiten dituzten saioen programazioa. Haien saioen kritika bakarrak ere blogean aurkitzen dira

Gogora dezagun, ondorioz, euskarazko kontalaritza berriaren zati bat elebitasunean garatu dela. Kontalari aditu batzuk euskaraz baino jarduten ez duten arren -bereziki haurrentzako eskola eta liburutegien programazio sarearekin lanean dihardutenak- badira gazteleraz edo frantsesez jarduteko aukerarik galtzen ez dutenak: besteak beste, aukera horrek entzule helduekin jarduteko aukera ematen du. Kontalari hauek oso positiboki baloratzen dute elebitasuna eta helduekin jarduteko aukera. Eredugarri zaizkien kontalari berriak ezagutzeko aukera ere paregabea gertatzen zaie. Eta nola ez, beste herrialde batzuetan mugimendua egituratzeko eta garatzeko moduak ezagutzeko aukera izaten da modu horretara.

Halaxe, Koldo Amestoyk²⁸ Quebeceko kontalari bat zuen garai batean eredu eta haren kontatzeko modua jomuga: Amestoyren hitzetan eredu zuen kontalari hark aulki batean eserita inolako imintziorik egin gabe entzuleak gozarazten zituen.

Gogaitzetik urrun, hain sarri eta bi hizkuntzetako norabidean itzulpen eta egokitzapen lan mardulak egiten dituzten euskarazko kontalariak, bi hizkuntzetan aritzeak elkar-elikatzen duen narrazio gaitasunak garatzen laguntzen diela azpimarratzen dute (Diaz de Gereñu, 2012).

Aurreko guztiaren ondorioz esan daiteke, esate baterako, Koldo Amestoyren aitzindaritza eta haren bilaketa artistikoa eredugarria dela aitortu duten arren eskarmentu gehien duten kontalariak, hegoaldean ez dela behar beste ezagutzen. Eskola, aisialdi eta liburutegitan kontalari dabilzan askok ez dute haren jendaurreko konta-saiorik ikusi ere egin. Kontrakoa ere gertatzen da, jakina: Rai Bueno 1994. urtean hasi zen arren kontalari, eta 2004. urtean egin zuen lehenengo saioa Iparraldean.

Mugaren alde batean eta bestean banatuta daude euskarazko kontalaritza indartsuago egin dezaketen eragileak: euskararen egoera eta hura sustatzeko baliabideak hegoaldean hobeak diren bitartean iparraldean jarduera artistikorako baliabide administratiboak hobeak dira (Touati, 2000).

Akaso, mugaren alde bateko eta besteko abantailak aprobetxa litezke, baina barne egituraketa sendotzeko beharra atzematen dugu, mugimendua iraunarazi eta hedatzekotan.

Edonola ere, kulturantzatasuna eta eleaniztasuna, uste dugu onuragarri izan zaizkiola euskarazko kontalaritzari. Kulturantzatasun horretatik, gerta hala gerta, elikatu da ahozko jendaurreko kontaketa intertestualitatea. Generoa bera gauzatzeko ereduak

²⁸ Ahoz jasoa 2004an saioak grabatu aurreko solasean.

garatu dira. Hala ere, euskarazko kontalaritzak eta beste hizkuntza gutxituenak, aparteko babesa eta begirunea behar dutela uste dugu.

5. Euskarazko egungo kontalaritzak aurrez aurre dituen eztabaidagaiak

Ondorengo puntuetan egun euskarazko kontalaritza berriak mahai gainean dituen auzi-arazoak nabarmenduko dira. Hartarako aurrez egindako lanetan oinarrituko gara nagusiki (Diaz de Gereñu, 2012).

5.1. Konta-praktika berrien aniztasuna eta mugimenduaren egituratze premia

Egun, euskarazko konta-praktika polito programatzen da baina saio gehienak hurrei bideratutako irakurzaletasunaren sustapen, eskola eta aisialdi jardueretara bideratuak daude. Haurra eta euskaldunberria izatea kontalari berrien entzule perfilaren bi ezaugarri nagusiak.

Hau ez da berez arazo, alderantziz. Arazoa dena bestelako entzule motarik apenas izatea da. Eta horrexek dirudi, hain zuzen, kontalaritza bere osotasunean gara dadin ezinbesteko baldintza.

Idatzizko literaturan harreraren teoriak (Eco, 1981; Zumthor, 1990) narrazioaren interpretazioan entzulearen kooperazioaren garrantzia erakutsi badu, berehalakoan egiten den narrazioan berebizikoa da. Izan konta-saioa edo izan solas batean gertatzen den kontaketa, ahozkoan egokitzapen erabatekoa egitea berezko eskaria dela erakutsi da (Labov & Waletzky, 1967; Watson, 1973; Laforest, 1996; Bauman, 1986; Wittig, 2004; e.a.).

Euskara maila ona duen entzule helduen faltak euskarazko kontalaritza berria gurgpil zoro baten sartzen du: harrerak baldintzatzen baitu praktika artistiko honen garapena (Bauman, 1986). Bestela esanda, euskarazko kontalaritzak harrera baldintza hobeak behar ditu inguruko beste hizkuntzetako garapenera heltzeko, eta bilatzen ari den aitortzea jasotzeko. Horrez gain, gure kasuan, ipuinen puerilizazio prozesuari eta didaktizazioari, mugimenduaren egituratze ahula gehitzen zaiolarik, aterabidea ez da erraza.

Bere garaian, euskarazko kontalariek hiru egitasmo nagusi agertu zituzten (*Behinola*, 2010) entzuleen harrera hobetzeko. Lehenik, kontalariek euren jarduera

publikoa gauzatzeko behar dituzten baldintzen berri ematea. Kontalaritza entzunkizuna baino areago ikuskizuna izanik, beharrezkoa dute jendaurreko saioetan atentzioa, arreta eta isiltasuna bermatzea. Entzuleen –bereziki haurren gurasoen- eta antolatzaileen utzikieriaz kezku, kontaktak behar dituen baldintzetan guztiak ere *hezteko* helburua hartu zuten kontalariek. Frankok hala goraiatzen du zenbait liburuzainek ahozko kontaktaren entzuketaren inguruan egiten duten lana:

Zenbait herritako liburuzainek lan izugarria egin dute eta egiten segitzen dute kontaketa-saioak ondo antolatzeko, gure lan -baldintzak ahalik eta egokienak izan daitezen eta, ondorioz, bai hurrek baita gurasoek ere, kontaketa-saioari duen balioa eta merezi duen errespetua eman diezaioten. Nola? Ba, adibidez, *gonbidapenen sistema* erabiliz. Liburu-maileguarekin batera, kontaketa saiora joateko gonbidapena eskaintzen zaio haurrari. Era horretan, datozen umeek adin egokia izaten dute, gurasoak kanpoan gelditzen dira, ume-kopurua kontrolatzen da, puntualtasuna bermatzen da, etab. (Behinola, 2010: 15)

Ofizioko duintasuna bermatzearekin lotzen den alderdi hau bete aldera honako gomendioak ematen dizkiete kontalariek antolatzaileei: a) aurrez galdetzea zer behar dituen kontalariak bere saio gauzatzeko; b) isiltasuna bermatzea; c) hurrek litxarkeriarik ez eramatea; d) entzulea eroso sentitzeko moduko espazioa sortzea; e) gurasoak egotekotan, haiek ere entzule direla konturatzea; f) haurren adina errespetatzea kontu-saiorako adina finkatu den kasuetan; g) eta entzuleen sartu irtenak saihestea²⁹ (Behinola, 2010).

Bigarrenik, elkartearen helburuak finkatzea ere erronka zela adierazi zuten kontalariek: zehazki, beharrezkoa zen elkartearen eginkizunak nahiz ahozko narrazioan dihardutenen partaidetzaren nondik norakoa zehaztea. Dakigula, lan hau ez da burutu.

Hirugarrenik, “ezjakintasun handia baitago nonahi” (Behinola, 2010:59) ikerketaz zein promoziorako bidez kezkatu honako hiru egitasmo proposatu zituen kontalarien elkarteak: a) kontalaritza jardunaren nondik norakoak ezagutaraztea; b) ahozkotatasunaren ondarea bildu eta ezagutaraztea; c) elkarteko kide izateko gutxieneko baldintzak finkatu beharra aipatzen da, azkenik.

Eginkizun guzti hauek gainditzeko daude. Azkena, gainera, kontalarien arteko eztabaida iturri izan ohi da (Hernandez, 2006). Izan ere, nork erabaki nor den kontalari eta nor ez? Mugimendua beste praktika artistikoen gisara egituratu nahi izatekotan,

²⁹ Saioek gauzatzeko behar duten baldintzen inguruko adierazpen honetan ANCEF elkarteak kaleratutakoan eragina ikusten dugu. AEDA elkarteak ere atera berri du antzeko adierazpena.

ordea, saihestezina dirudi galdera horri aurre egitea. Irizpideak erabaki eta betearaztea hartarako eskumena duen instituzio bat eraikitzea da, eta halakotzat onartua izatea. Ez da halakorik adostea lortu, guk dakigula euskarazko kontalarien artean. Horregatik beharbada, euskaraz jarduten duten zenbait kontalarik AEDA elkarteari lotuta ageri dira egun (Iñaki Carretero, Ines Bengoa eta haurrentzat saioak euskaraz egiten dituen Virginia Imaz). AEDAk berriki erabaki ditu irizpideak eta bere web orrian kontsulta daitezke kontalari profesional gisa onartua izateko bete behar diren baldintzak³⁰.

Mugaren bestaldean, administrazioa frantsesak onartzen duen intermitente figura da, kontalarien artean ere, kontalari gisa aitortza lortzeko bide ziurra (Hernandez, 2006).

Bateko eta besteko irizpideak erkatuta, profesionalizatzea dirudi irizpide garrantzitsuena kontalari gisa aitortua izateko, nahiz eta horrek ez dion beti kontalarien artean kezka iturri den praktikaren barruko *anabasari* (Behinola, 2010) irtenbiderik ematen.

5.2. Ahozko narrazioaren aldeko agiria: kontaketa praktiken instituzionalizaio eta kristalizazioa.

Hona beste kezka gune bat. *Euskal Herriko Kontalariak*³¹ elkarteak kaleratutako *Ahozko narrazioaren aldeko agiria* (aurrerantzean *Agiria*) dokumentuaren inguruan geldionetxo bat egin beharra legoke, dokumentuak berarekin dakarren instituzionalizaio egitasmoa dela eta.

Euskal Herriko kontalarien *Kontalariak* elkarteari 2008. urtean eman zitzaion egitate legala, nahiz eta lehenagotik biltzen eta elkartzen hasiak izan kontalariak, gorago ikusi dugun moduan.

Agiria izeneko dokumentua 2007ko elkarrearen IV. topaketetan eztabaidatu zen eta jardunaldien ondotik plazaratu. Bertan, kontalarien jarduera zedarritu, egituratu eta arautzeko asmoa agertu zuten kontalariak. Hernandezek dioenez (2006) kontaketa praktiken instituzionalizazio eta kristalizazio egintza dakar halako agiri batek. Mugarri estatusa egozten zaio.

Agiriak egindako ekarpena aintzat hartzekoa da. Ahozko narrazio gisa izendatuz kontalarien berbazko jardunaren komunikazio ekintza, nagusiki artearen esparrukoa

³⁰ Kontsulta, 2015-07-25, sarean: <http://narracionoral.es>

³¹ Batzutan *Kontalariak* eta hurrengo *Ipuin-kontalariak* agertzen da (Behinola, 2010). *Agirian* bertan biak agertzen dira. Baliokiketzat hartuko ditugu.

dela baieztatzen da eta ondorioz haren helburu nagusia gozamenezkoa dela aldarrikatzen da. Ikus dezagun *Agiriak* bere osotasunean dioena:

AHOZKO NARRAZIOAREN ALDEKO AGIRIA³²

Hondarribian 2008. urteko Urtarrilaren 25, 26 eta 27an antolatutako **IV. Kontalarien Topaketaren** arduraduna izan den **Kontalariak-Euskal Herriko Kontalarien Elkarteak azaltzen du:**

Ahozko narrazioa arte bat da. Ohartzen gara baloreetan hezten duela, terapeutikoa izan daitekeela, komunitatea trinkotu dezakeela eta irakurtzera bultzatu ere. Baina guztiaren gainetik, ahozko narrazioa hitzaren artea da eta duen **lehenengo helburua gozamina bultzatzea da komunikazio eta harreman inguru batean.**

Ahozko narrazioa denboraz gain irauten duen artea da, orain eta etorkizunean praktikatu nahi duguna, iraganeko kontalarien askatasun eta maitasun berdinarekin. Askatasun hau erabili eta defendatu nahi dugu gure arteari, gure publikoari, norberaren errepertorioari eta kultur aniztasunari dagozkien errespetuarekin.

Kontalariok gure errepertorioko ipuinen “norberaren bertsioak” ekoizteko eskubidea eta konpromisoa aldarrikatzen dugu.

Kontalariok gure burua ikusten dugu berezko estiloarekin istorio egiazkoak, fikziozkoak edo sinbolikoak kontatzea helburua duten pertsonak bezala; errepertorio originala sortzen dutenak, norberaren bilaketaren erakusle; jendearen aurrean bere izenarekin mintzo eta aurkezten direnak eta jardun hau, arte gisa bezala, ofizio moduan ikusten dutenak.

Komunikazio ekintza den aldetik, ahozko narrazioak entzuketa egokirako baldintzak behar ditu.

Kontalariok ofizioaren duintasuna bultzatuko dituen baldintza egokiak lortzeko ahaleginak egingo ditugula hitz ematen dugu, kalitatea ziurtatzeko bezala helburu hori lortzeko ahalbidetuko dituzten hizkuntzaren eguneratze eta aniztasuna garatuz.

Hondarribian 2008ko Urtarrilaren 27an

KONTALARIAK- Euskal Herriko Ipuin kontalarien Elkarte

Agiri hau kaleratzea ez da euskarazko kontalarien ekimen orijinala izan, beste herrialdeetan egin denari jarraiki egin da eta. Izan ere, kontalaritza praktika artistikoaren gaineko instituzionalizazioa eta arautzea egin nahiak praktikaren gaineko teoria eraiki eta kontalariaren *egiten jakitea* zedarritu, adostu eta horren berri zabaltzea eskatzen du. *Agiriak*, zehazki, kontaketa praktiken instituzionalizazio eta kristalizazio egintza suposatzen duenez, aparteko garrantzia duela deritzogu.

³² Tipografia aldaketak jatorrizko testuarenak dira.

Kontalariak elkartearen *Agiria* nahikoa berankorra da Frantziako ANCEF kontalarien elkarteek plazaratutakoekin konparatuta: *La Charte* izenarekin 1996an kaleratu zen bi urtetik behin eztabaidatua eta egokitua izateko asmoarekin³³ (Touati, 2000). Desadostasun handiak piztu izan ditu hasieratik frantsesezko agiriak (Hernandez, 2006).

Agiriaren elaborazioaren oinarrian *La Charte* dagoela nabarmena da, nahiz eta askoz laburragoa izan. Ordea, interesgarriagoak dira egindako moldaketak. Moldaketa adierazgarrienetakoa gure ustez honako hau da: frantsesezko agirian *profesio* ageri den lekuan euskaraz *ofizio* hitza agertzen da. Nozio bi hauen arteko joan-etorriari geroago helduko diogu, kontalaritza berriaren arazo gune garrantzitsua deritzogu eta.

Kontalaritza artea dela baieztatzean kontalari guztiak ados egoten diren arren, artea ulertzeko modua nahiz mugimenduaren egituren egitekoa ulertzeko moduak ere asko baldintza dezakete elkartearen helburuekiko atxikimendua. Artearen esparruan ohikoak dira sormen askatasunaren eta arautzearen arteko tentsioak. Horri guzti horri gehitzen badiogu ahozko kontalaritza ondasun unibertsal gisa irudikatzen dela (Hernandez, 2006), kontradikzioak agerian gelditzen dira.

Euskarazko kontalaritzaren kasuan, desadostasunak gutxieneko elkartasuna sortzeko eragozpen izan direla dirudi. Izan ere, ez dugu *Agiriaren* gaineko eztabaida edo birmoldatzerik ezagutu.

Edozein kasutan, euskarazko kontalaritza berriaren egituratze ahalegina baieztatu dugu kontaketa praktiken instituzionalizazio eta kristalizazio egintza suposatzen duen *Agiriaren* bitartez. Ez da izan egun batetik bestera etorri eta hala moduz egin den ekintza. Hiru hamarkadatan zehar kontalari askoren praktikaren, elkartrukearen -maiz Euskal Herriko mugetatik kanpo- eta lan handiaren ondotik etorri zen.

Azpimarratu nahi dugu, halaber, *ahozko narrazioa artea* dela baieztatzearekin batera *Agirian* gaur egun euskarazko kontalaritzan dihardutenen kezka, behar izan eta aldarrikapenak laburbiltzen direla³⁴. *Agiria* laburra bezain trinkoa da, eta bertan jasotzen denak euskarazko kontalaritza berriaren arazo gune diren gaiak identifikatzen eta

³³ Ordea, euskarazkoa baino berankorragoa da oraindik AEDA -Asociación de Profesionales de la Narración Oral en España- elkartearen sorrera bera eta hark plazaratutako dokumentu markoa eta estatutuak (2010).

³⁴ Nahiz eta gaztelera ari direnena ere bai, esan dugun moduan, batzuk gaztelera hutsez jarduten baitute. Euskal Herriko Kontalarien Elkarte euskaraz eta erdaraz kontatzen duten kontalariak osatzen dute. *Agiri* hau, hala ere, euskarazko bertsioan baino ez dugu ezagutzen.

mugatzen laguntzen digu. Arazo gune horiek beste herrialdeetako kontalaritza berriaren arazoekin bat egiten dute:

- Tradizioarekin lotura egiten da, sormenerako askatasuna aldarrikatuz. Honekin tradiziozko ahozko literaturan jaso diren testuen bertsioak egiteko lizentzia aldarrikatzen da. Bide batez esateko, kontalari zaharrak garai batean ere sormenaren bidetik jarduten zuten agente gisa irudikatzen dira.
- Era berean, sormenerako askatasun hori mugatzen da, zedarrizten ez den *errespetua* delako nozioarekin: artea, publikoa, norberaren erreperitorioa eta kulturantzatasunarekiko errespetua erakutsi behar du kontalariak. Nolabaiteko arautzea bilatzen dela dakusagu nozio horren erabileran.
- Kontalariak erreperitorio orijinala osatu beharra dute, kontalaritzari egiten dioten ekarpenaren adierazgarri. Aitortua izateko bide nagusietakoa ere horixe da.
- Praktika honen baldintzak hobetzeko bi jomuga dituzte: konta-saioak gutxieneko baldintzetan burutu daitezzen baldintzak eragitea eta kontalarien maila ona bermatzea, bereziki hizkuntza baliabideak zainduz.

Ez da harrizkoa kontalariak mintzairarekiko arduraren erakustea, areago euskararen egoera soziolinguistikoa kontutan hartuta. Kontalariak artea sortzeko baliabide nagusi du hitza (*Behinola*, 2010), eta ez du hizkuntza hori berariaz lantzea beste aterabiderik kontalari gisa aitortua izan nahi badu: generoaren gaineko ezagutza, euskalki/euskara estandarra, heteroglosia arazoak, e.a. asko dira. Eredu zehatzak, gainera, ez daude sobera.

Amaitze aldera, zehaztasun bat: azpimarratzekoa da mintzairaren gaineko kezkek ez diola inola ere garrantzirik kentzen gai edo edukien aldetiko lanketari. Kontrakoa. Bata bestea gabe, nekez gerta daiteke artearen mailakoa kontsideratua izan daitekeen emaitzarik (Rastier, 2001).

Egungo mendebaldeko kontalari berri deritzogunak bat datozen esaten euren jardueraren artea dela, *berbazko artea*. Ikusi dugunez, euskaraz diharduen kontalari talde batek bat egin du ikuspegi horrekin. Horri deritzogu euskarazko egungo konta-praktiken inguruan gertatu den garapenaren emaitzarik behinena eta adierazgarriena.

5.3. Egun *ofizio* nozioak duen operatibitate mugatuaz

Kontalari berriek *ofizio* nozioa darabiltela aipatu dugu, inoiz *profesio* nozioak ordezkatzeko duen arren. Interesgarria da bi nozioen arteko lehia aztertzea, kontalaritza berriak zaharrarekiko dakarren aldaketa ulertzen lagun gaitzake eta.

Kontalariak, alde guztietakoek ere, *ofizio* nozioa darabilte³⁵ euren kontalari jardura identifikatzeko, ogibide izan edo ez (Bruno, 2011; Hernandez, 2006; Behinola, 2010). Gizarte modernoetan galdu bide zen jardunbide bat berreskuratu dutela irizten diotela irakurtzen dugu maiz kontalari berrien adierazpenetan: Historiako trobadore, juglare, kinkilari eta antzeko figurekin loturak irudikatzen dituzte (Montelle, 1996). Tradizioarekiko lotura eztabaidagai bilakatu da arlo akademikoan ere: “(...) los narradores orales contemporáneos incorporan mucho del saber de tiempos antiguos (más en los procesos que en los contenidos) y lo adaptan a las situaciones reales contemporáneas, incorporando nuevas técnicas narrativas y nuevas maneras de comunicar” (Prat Ferrer, 2013:6).

Heinigerren arabera, berriz, mota horretako baieztapenek ez dituzte gertaera historikoen konplexutasuna aintzat hartzen (Heiniger, 2013). Azterketa zehatzen faltan, gainera, intuizioa gainditzen duten loturak frogatzea zaila dirudi kontalari zaharrez oso gutxi dakigulako (Voigt, 1990; Apalategi, 1987). Kontalaritza zaharraren alderdi performatiboari erreferentzia egiten dieten datu eta oharrak oso baliagarri zaizkigun arren, kontalaritza zaharraren azterketa enpirikoak egitea ezinezkoa den momentutik, aterabide zaila du planteamendu honek.

Hala ere, hasteko ikus dezagun zenbateraino den eztabaidagarri kontalariaren nozioa bera, eta hau nola lotzen den ofizioarenarekin. Heinigerrek (2013) dioenez oso deserosoa zaio kontalari berriari bere jardueraren definizioa egitea. Ofizio nozioarekin lotzen da kontalari berriaren jardura. Nozio honi, ordea, ofizioak berarekin dakarren praxi hutsa gainditzeko eskakizuna egiten zaio aldi berean. Joxemari Carrere euskal kontalariak *Un diccionario de narración oral* AEDA elkarteak 2014an argitaratutako hiztegian egiten duen definizioan aipatutakoa argi ikusten da:

(...)Más que la definición en sí misma, lo verdaderamente importante es que quien narre, con más o menos dedicación, reflexione sobre su trabajo, investigue, proponga, no caiga en lo fácil, asuma riesgos. Como toda propuesta creativa, la del narrador oral deberá buscar caminos

³⁵ Kontsulta, 2012-07-07, http://www.blogari.net/tximintx/2006/04/26/koldo_amezttoy_a_kontalaria_gauza_intimoa

sarean:

expresivos que aporten nuevos planteamientos que enriquezcan tanto su propia experiencia como la narración oral contemporánea, sin caer en tópicos, obviedades o simples aberraciones intelectuales. Es necesario trabajar desde unos postulados que busquen la dignidad del oficio, tanto enfocándolo desde un punto de vista individual, como teniendo en cuenta su dimensión pública, ya que lo que el narrador oral muestre públicamente con su trabajo vendrá a construir la imagen que se tenga socialmente de esta actividad artística.

En definitiva, al narrador y a la narradora orales lo que les define, tanto individual como socialmente, no es tanto una definición académica sino su trabajo, algo obvio pero necesario de recordar (...).³⁶

Profesio ez da agertzen goiko definizioan, bai ordea, ofizio. Berbaldiaren edukiak berriz, bat egiten du kontalari profesional baten ardurekin.

Lekuan lekuko kontalaritza berriaren egituratzearen arabera, bi nozioen erabilera aldakorra egiten dela baieztatu dugu. Hala, nahiz eta kontalari frantsesen adierazpenetan ofizio den nozio erabiliena, ANCEF elkartearen *La Charte* agirian ez da ofizio nozioa aipatu ere egiten, eta haren ordean, profesio agertzen zaigu beti.

Espaniar estatuko AEDA elkartearen adierazpenetan bi nozioen erdibideko erabilera aurkitzen dugu: elkarteak adostutako manifestuan ofizio eta profesio agertzen dira, biak ala biak, baina elkartearen dokumentu markoan batez ere ofizio erabiltzen da.

Kontalariak elkartearen *Agiria* adierazpenean ofizio nozioa gailendu izanak izan dezake zerikusia euskararen egoera soziolinguistiko ahularekin eta ondorioz, egoera horrek jardunbidearen garapenean duen eraginarekin. Gure ustez, nozio bien erabilera lekuan lekuko kontalaritza berriaren mugimenduen egituratze mailaren indize izan daiteke. Beraz, esanguratsua deritzogu bi nozio hauen erabilera gorabeheratsuari.

Bada, ofizio nozioaren erabilera problematiko hau kontalarien adierazpen indibidualetan ere islatzen da. Eta problematikoa ez denean ere, gutxienez halako bersemantizazio bat gertatzen da. Argi dezagun esandakoa hiru kontalari aitortuen adierazpenak ekarriz.

Koldo Amestoy kontalaria ofizio nozioari oso atxikia agertzen da, *artisan* figurari lotua darabilena:

Betitik artisan-ofiziala bakarlari eta eskulangile izan nahi nuen. Horretan ere saiatu nintzen gazte denboran, etxegintzako teknikak ikasi eta gero morroi, harategiko langile, hargin eta zurgin,

³⁶ Kontsulta, 2015-07-10, sarean: <http://narracionoral.es/index.php/es/biblioteca/un-diccionario-de-narracion-oral/120-palabra/708-narrador-oral>

arotz eta etxe-marrazkigile, arkitekto gisa ere. Eta orain ere berdin, uste dut beti artisau-ofiziala naizela. Iparraldean, abertzaletasunaren lehen urratsek, euskal kantagintza eta antzerki berriek, ikastolen hasierako mugimenduak eta helduen alfabetatze-euskalduntzeko irakasleekin batera bide puska bat egiteak (AEK-an, hiru urtez kolaboratzaile izan zen) bultzatu ninduen artista bidetik, euskara eta euskal herriko kultura besapean ; ipuina, makila gisa neramala. "Euskal Herriko itzulia" abiatuko nuen, hortik urrunago ere nire pausuak luzatzeko gero nire "compagnonnage", kontalari ofizioan abiabide bat bezala urratzeko...³⁷

Artisautzaren nozioak ere badu arrakasta jardunbide honetan dabiltzanen artean, beharbada, kontalariari mintzairaren lanketak eskatzen dion erabateko arreta azpimarratzeko. Hiztun arruntaren gaitasunekiko ezberdintasuna markatzeko modua izan daiteke.

Frantziako kontalaritza berriaren aitzindari den Bruno de La Salle, inoiz atxikita eta hurrengo urruntasunez mintzatzen da *métier* nozioaren inguruan: "(...) Je n'ai jamais vraiment accepté le terme de « conteur » pour définir ce que je fais, je n'ai jamais affirmé non plus que c'était un métier, pas plus que je n'en savais assez pour y prétendre." (Touati, 2000:20).

Pep Brunoren kasuan ere, atxikimendu maila ezberdinak ikusi ditugu³⁸. Ondoko hitz hauetan ofizio eta profesio nozioen arteko muga lausoa ageri da: "No. Nosotros no somos tradición oral, nosotros somos trabajadores, lo nuestro es un oficio que tiene mucho detrás, mucha elaboración artística y creativa, mucha búsqueda y mucha preparación" (Sanfilippo, 2007a:343).

Aurrera eginez, ikus dezagun Larringanek kontalariaren ofizioa nozioaz egiten duen definizioa. Autoreak ikuspegi diskurtsibotik kontalariaren jarduna aurrez ezarritako berbazko eta komunikaziozko ereduen gainean eraikitzen den egiten jakitea dela diosku:

³⁷ Kontsulta, 2015-07-10, sarean: <http://www.euskonews.com/0119zkb/elkar11901eu.html>

³⁸ Kontsulta, 2015-07-10, sarean: http://www.cuentistas.info/index.php?option=com_content&view=article&id=53&Itemid=38&lang=es.
Pep Brunoren web orrian, gai honekiko posizio ezberdinak eta aldakorrak agertzen dira: "Sería pretencioso pensar que el siguiente ejemplo pertenece a la tradición oral, pero sí tiene que ver con la oralidad y con la transmisión de textos orales. Me sucedió con *Carolina Gomadeborrar* y *Superlapicero Oscuro*, un cuento que escribí allá por 1995 y que conté hasta 1998. Un cuento que siete años después de dejar de contarle volvió a mí en un curso sobre narración oral (el único que he impartido), donde uno de los asistentes contó "un cuento que me gusta mucho y que oí en Extremadura y que he preparado hoy para vosotros". Ese cuento no era otro que mi querido *Carolina* y *Superlapicero*, que llevaba unos cuantos años rodando de boca en oreja y que volvía para hacerme una visita. Te puedes imaginar la cara que se me puso."

(...) "kontulariak "ofizioa" erakutsi beharko du, itxura eman bere lanari. Maisutasuna ez bada ere, ofizioa bai behintzak, euskal gizarteak egiten duen balorazio bat da. Horrexegatik, ipuingintzako enuntziatuek badute elkarren berririk, ez dira elkarrekiko askeak: "Behin batetan ", "egun baten...", "urteak joan eta urteak etorri...", "mendian zebilela agertu zitzaion"... Etabar. Badakigu horien izateaz eta egiteaz. Badakigu, halaber, zertara gauden bakoitza. Horrela bakarrik "pasatzen da" ipuina: benetako trukatzea gauzatuz. Emailearen poetikapean eta jasotzailearen estetikapean. Hortik dira moldaerak, egokitzapenak, bertzio berriak. Bestela ez du korritzen ez historian ez partaideen artean. (Larringan, 1992:499-500).

Goiko definizioari honako beste alderdi hauek gehi geniezazkioke: batetik, ofizioa tradizioaren eta berritasunaren artean nozio transbordadorea da; eta bestetik, tradizioaren gaitasun analitikoa eta interpretatiboa du, ofizioa ez da irakasten. Bertatik bertara (kontaktuan) egin eta osatu den ikasketari deritzo.

Jakintza formalizatuak sortzeko zailtasunak aurkitzen dituen praktika batean (*El Aedo*, 2013) ofizioaren nozioa errentagarria da. Gainera, formakuntza prozesu neketsua duela erakusteko ere balio du: kontalaria ez da egun batetik bestera egiten. Bereziki euskararen kasuan, aitortua izan nahi duen praktika bati balio erantsia emateko modua izan liteke.

Beste era batera esanda, ofizioaren nozioa operatiboa da hein batean tradiziozko narratzailearen egiten jakitearen bi alderdi uztartzen dituelako: batetik, alderdi intelektualak biltzen ditu beregain, jakintza eta ezagutza diren heinean; baina batez ere praxiari dagokion alderdiak jasotzen ditu ("badu kontatzeko ohitura", "badaki kontatzen"), finean, egiten jakitea. Beraz, erabat profesionalizatu ez den mugimendu batean behintzat, ofizioak nozio operatiboa dela dirudi.

Ordea, ofizio nozioa eskolatu gabeko hausnarketaren eremukoia izan da, unibertsitatez kanpokoa eta horregatik esango dugu nozio *aurre-formala* edo *aurre-zientifikoa* dela. Hori dela eta, ofizio nozioak mugak aurkitzen ditu praktika artistiko gisa egituratu nahi den mugimendu baten barruan. Operatibitatea galtzen duela ukazina dirudi. Arrazoi hauexek aipa genitzake: a) Literatur gertakari gisa onartu nahi izatean ezagutza formalen elaborazioa eta irakaskuntza egitera behartuta dago: batetik jakintza formalen deskontestualizazioa egin eta bestetik, kontalarien *egiten jakitearen* deskribatu edo ezaugarritzera; b) Ofizioaren arautzea eta profesionalizaziorako joera eta formakuntzari ematen zaion garrantzia; c) Kontalariaren aldetik errepertorio orijinalaren osaera.

Egun ofizioaren nozioa apur bat mugatua aurkitzen da beraz, kontalari berrien egiten jakitea deskribatzeko, bereziki, egungo praktika artistikoen formazio konbentzioak jarraitu nahi direnean. Buelta eman zaio bigarren mailakotzat, gutxietsitako, murriztutako eta azpiratutako genero baten egoerari (edo praktika) eta estatus literarioa ematera pasa nahi duen kontzientzia berria sortu da. Intuizioz aritzetik eskola sortzera edo hala egin nahi izatera pasa da kontalaritza berria: printzipio, arau, muga, helburu, erronka eta are enuntziazio instantzia konkretu eta mugatuak identifikatzera. Hitz batean, sortzen ari den poetika baten aurrean gaudela uste dugu. Egiten jakitearen formalizazioari ematen zaion garrantziak ofizioaren nozioa gainditzearen hastapenetan gaudela diosku.

Ofizioaren nozioa baliagarri da garai bateko eta gaurko kontatzeko moduen artean transbordadorea edo bitartekari delako, baina ez dio gaurko problematika epistemologikoari irtenbidea bilatzen: a) Intertestualitate mailakoak diren iturri berrien, orijinaltasunaren, bakoitzaren estiloaren, itzulpenaren, ahozko/idatziaren arteko interfazearen gaiak ez ditu zedarritzen edo argitzen; b) Interdiskurtsoaren mailan problematika berriak planteatzen ari dira dialogismo interkulturalaren bidetik, eta hau ere ez da argitzen.

Bada, ahozko narrazio forma berriak ulertzeko zertxobait mugatua iruditzen zaigu ofizioaren nozioa: narratzaileari bestelako eskariak eta betebeharrak egiten zaizkio eta egun. Tradizioari dei egiten diete kontalariak, helduleku gisakoa dela esan genezake, baina testuinguru batzutan kontalariak eurek ere, profesio nozioa erabiltzea nahiago dute.

Ofizio nozioak ez dakar eskola mailako trasmisiorik eta gaur egun artearen narrazioaren gaineko jakintzen formalizazioa eta kontalarien formazioa helburu nagusietakoa bihurtu da. Bestetik, eta ukaezina den arren garai batean ugari eta aukeran zegoen praktika sozio kultural baten jarraipena dela, jendaurreko ahozko narrazioa ulertzeko modu berri bat dakusagu. Hala, jardunbide artistiko honetan aurkitzen ditugun sormen arazo berriek kontalari ofizioaren egiten jakite bereizgarriaren ezaugarritzea kolokan jarri dute.

5.4. Kontalaritza praktika: jakintza objektuen formalizazioa eta formakuntza

Dabilkigun eremuan, eztabaida-iturri da hurrengo alderdia ere. Bronckarten arabera (1996), gure gizartearen ezaugarria da gero eta deskontestualizatuagoak diren jakintzen sortzea. Egungo kontestu historikoan kontalaritza berriari ere praktika artistiko gisa aitortua izan dadin praxi hutsaren ikaskuntza baldintzak gainditzea erabakigarria zaiola esan dugu. Zenbait lekutan behinik behin, kontalari eskolak ugaltu dira eta kontalariaren egiten jakitearen inguruko jakintza objektuen formalizazioari ekin zaio:

Les savoir-faire sont au cœur de la profession de conteur et c'est par eux qu'ils s'imposent. Stages et revues spécialisées sont des espaces où les conteurs professionnels, à la renommée aujourd'hui internationale, exposent ce que nous pourrions nommer leur « introspection gestative » des sons, des mots des textes avant qu'ils ne deviennent « contes » et invitent stagiaires et lecteurs à les suivre dans la mise en place de cet art. (Heiniger, 2013)

Dikotomia batean sartu da ahozko narrazioa aldaketa prozesu honen bitartez. Egungo konbentzio literario eta artistikoak jarraitu nahi ditu eta praktika artistikoek adinako normatibizazio ahaleginaren edo arauen gainean instituzionalizatu nahi du; baina, era berean, ahozko narrazioak berarekin dakarren ideologiarekin kontraesanak sortzen ditu, ondasun unibertsaltzat jotzen da-eta (Hernandez, 2006).

Kontalaritza berriak, kontraesanak kontraesan, formakuntzari ekin dio eta zenbait lekutan dagoeneko urte askotako tradizioa duten formazioak eskaintzen dira, esate baterako, frankofonian³⁹. Denetarikoak eskaintzen dira, laburrak nahiz urte askotako iraupena dituztenak ere bai.

Materia artistikoan, dena den, formazioa beti da gai polemikoa eta bereziki kontalaritza berria ezin egituratu dabilenetan, eztabaidagai sutsu bihurtzen da. Gatozen espainiar estatuaren kasura. Kontalaritza berria egituratu eta praktika artistiko gisa egonkortu nahian dabilizanak honako bi alderdiok salatzen dituzte: a) batetik zenbait kontalarik, autodidaktismoan babestuz, jakintzak formalizatzeari erresistentzia erakusten diotela salatzen dute; b) eskura dagoen teoria eskasarekin batera formazioa ia erabat alderdi praktikoetan oinarrituta dagoela (*El Aedo*, 2014).

³⁹ Esan nahi da frantsesa egiten den herrialdeetan. Eskaintzen den formakuntza motaren gaineko informazioa kontsulta daiteke. Kontsulta, 2015-08-25, sarean: <http://www.lamaisondudebruxelles.be/ecole-du-conte/formation-longue-conteur-acteur.htm>; <http://www.clio.org/formations/formationsintramuros/>.

Lehenago ere esan dugun moduan (Diaz de Gereñu, 2012), euskarazko kontalaritzak ez du lortu euskaraz kontalariak formatzeko egitura bateratu bat edo antzeko lana egingo lukeen laborategirik. Euskarazko kontalari gehienek eskaintzen dituzte ikastaroak baina gehien bat guraso, hezitzaile, antzerkilari, irakasle eta liburuzaintzat izaten dira. Eskaintzen den formazioa, oro har, ez dago kontalaritza praktika artistiko gisa garatzera eta kontalariak profesionalki formatzera bideratuta. Hala ere, esan behar da euskaraz diharduten belaunaldi berrietan formakuntzak gero eta garrantzi handiagoa hartu duela.

Azkenik esan dezagun, batetik, kontalaritza berriaren ezaugarria izanik antzerki mundutik hurbiltzen den kontalari kopuru handia (Sanfilippo, 2007a; Diaz de Gereñu, ibid.), kontalaritza berriaren inguruko jakintzen formalizazio baldintzatu dela:

Leur travail, dans l'exploration de ce qu'ils nomment « art du récit » ou « art de la parole », se nourrit bien souvent, et à leur corps défendant, d'expressions théâtrales. Abbi Patrix, au sein du « Labo » à la Maison du conte de Chevilly-Larue, impose aux apprentis conteurs le travail du corps et de la voix, l'improvisation, le rapport à l'espace et au public qui puisent dans sa formation première d'acteur formé au théâtre expérimental. (Heiniger, 2013)

Gurean ere baliteke hala izatea. Bestetik, eskuliburu, ikastaro eta bestelakoek gutxi izan diren arren, bereziki garai batean, eragina izan dutela baieztatu dugu (Diaz de Gereñu, ibid.). Ordea, ez ditugu zehaztasunak ezagutzen.

Imazekin (*El Aedo*, 2014) bat gatoz eraberritu den –eta eraberritzen ari den– jendaurreko kontalaritza eskarmentu hutsez aritu dela pentsatzeko joera dagoela esaten duenean. Praktikaren garrantzia gutxietsi gabe, uste horrek praktika artistikoen kasuan formalizazioaren zailtasuna eta konplexutasuna ezkututzen duela iruditzen zaigu. Baina baita, hein batean, kontalaritzak suposatzen duen berbazko ekintzaren ez-ezagutza ere.

Aurrera begira, berriz, jakintza horien formalizazioa eta sistematizazioa erabakigarria dirudi. Bertsolaritzaren kasuan izan zen bezala⁴⁰, bereziki euskarazko kontalaritzaren kasuan garrantzitsua da azpimarratzea ikasten den zerbait dela eta ez berezko dohaina, joera indibidualak gora behera.

⁴⁰ Kontsulta, 2015-08-26, sarean: http://www.berria.eus/paperekoa/1859/022/001/2015-08-26/ikasi_ezin_zena_irakasteko_erronka.htm

5.5. Erreperitorioaren osaera eta sorkuntza prozesua

Kontalari berriari erreperitorio orijinala osatu beharra da egiten zaion eskarietako bat – *Agirian* bertan adierazia ikusi dugu-. Sormen gaitasuna erakutsi eta bere estilo propioa landu beharra du kontalariak, halakotzat aitortua izan nahi badu.

Lehen galdera bat datorkigu burura orduan: kontalaritza berriaren kontagai gehienak idatziz jaso diren tradiziozko ondare unibertsalak izanik nagusiki... nola osa daiteke erreperitorio orijinal bat? Ez da gutxiesteko moduko kontradikzioa.

Bigarren galdera, idatzizko kontagai horiek ahozko adierazpideetara eramatean sortzen diren interfazeen gainean egin daiteke: zein da kontalaritzak bi adierazpideen gainean egiten duen erabilera?

Lehen galderari erantzunez, gure ustez, norbanakoaren aukera estetiko agerikoez gain badira erreperitorioaren aniztasunean eta orijinaltasunean eragiten duten faktoreak:

- Ikuskizun orijinalak eskaintzea: konta-saio edo ikuskizun bereziak eskaintzen dituzte kontalariak egun. Kontalarien web orrietan eta fitxa teknikotan, ikuskizun ezberdinez osatutako erreperitorioak eskaintzen dira, oro har gai aldetik bereizten direnak, baina badira bestelakoak ere⁴¹. Antolatzaileen eskari bereziei ere erantzun ohi diete.
- Entzule mota: entzule motaren arabera erreperitorio ezberdinak osatzen eta moldatzen dira. Ikusiko dugun moduan, uste guztien kontra, haurrentzako erreperitorioen osaeran idatzizko erdal haur literaturako kontagaiak erruz erabiltzen dira (Diaz de Gereñu, 2012).
- Performantze izaera: entzuleekin berehalako hartu-emanen, erreperitorioan moldaketak halabeharrezkoak dira konta-saioak irauten duen artean. Conta-saioak burutzearen burutzeaz ere erreperitorio orijinalak moldatzen joaten dira, entzuleen harreraren arabera taiututa.

Ikusten denez, erreperitorioaren osatzea sorkuntza prozesu konplexu eta luzea da eta ahozko eta idatzizko literaturaren interfaze artatsu baten ondorio: idatzizko kontagaiak –izan ahozko literaturakoak edo ez- dira gehienetan kontalarien iturri, baina haien berariazko lanketa eta eszenaratzea egin ezean ezin da erreperitoriorik osatu. Erreperitorioak berarekin dakar, inkorporatua, kontaktaren praxiari dagokion dimentsioa. Kontalariak maiz aipatzen dute urteak pasatzen direla kontakizun bat prest

⁴¹ Joxemari Carrerek, esate baterako honako ikuskizunak eskaintzen ditu: “Ipuin-konferentzia”, “Ipuin pre-erotikoak”, “Kondo bakoitzak bere historia dauka”, e.a. Kantsulta, 2015-08-26, sarean: <http://carrerekontalaria.blogspot.com.es/p/kontaketa-ikuskarriak.html>

izan baino lehen (*Behinola*, 2010). Jendaurrean maiz kontatu behar izaten dira kontakizunak, eta inoiz denboraldi batez baztertu eta urte batzuen buruan berrartzean moldatzen dituzte gustura aritzeko moduko bertsoak.

Kontalarien arabera eta eskaintzen dituzten ikuskizunen arabera alde handiak dauden arren, euskarazko kontalarien errepertorioa anitza dela baieztatu dugu. Afera hau ere Diaz de Gereñu (2012) lanean aztertu genuen eta honako gogoeta hango ekarpenetan oinarritzen dugu. Lan hartan, kontalari berrien jardunbideaz gehiago jakin nahian, Sanfilippok espainiar eta italiar kontalariekin erabilitako galdetegi bat moldatu genuen. 2011an Legution ospatu zen Euskal Herriko Kontalarien Festan elkartu ziren kontalariak (eta gure tesi honetako corpusa osatzen lagundu diguten gainerako kontalariak) pasa zitzaizkien galdetegia. Emaitza orientagarriak izanda ere, besterik ezean, baliotsuak izan zaizkigu inguruko herrialdeetako kontalari berriekin alderatzeko. Besteak beste, kontalariak euren errepertorioa osatzen duten kontakizunen jatorria adieraztea eskatu zitzaizkien, ehunekotan adierazita. Honako emaitzak jaso genituen:

1. Taula. Euskaraz diharduten kontalari adituen kontakizunen jatorria (Diaz de Gereñu, 2012:94)⁴².

Jatorria	Bataz bestekoa
Idatziz jasotako <i>erdarazko</i> ahozko tradizio(eta)ko kontakizunak	%33,3
Idatziz jasotako <i>euskarazko</i> ahozko tradiziozko kontakizunak	%23,3
Idatzizko <i>erdal</i> autoreen kontakizunak	%19'5
Idatzizko <i>euskarazko</i> autoreen kontakizunak	%10'16
Kontalariak berak idatziz sortua	%9'5
Jendeari ahoz entzundakoak ⁴³	%1,6

Lehenengo eta behin, taulan ehunekotan agertzen den zifra bakoitzaren atzean kontalari bakoitzaren erabilera oso ezberdina dagoela esan behar da. Idatzizko euskarazko ahozko tradiziozko kontakizunen kasuan, esate baterako, kontalariaren arabera %5 eta % 50 bitarteko aldea egon daiteke. Datuon irakurketa kontalarien jardueraren beste ezaugarri batzuekin batera egingo dugu ondoren.

⁴² Erantzun gutxi batzuk ez zirenez ehunekotan jaso, irakurlea jabetuko da taularen portzentaiak ez direla ehuneko ehunera heltzen orotara.

⁴³ Rekalde kontalariak propatutako itema da, berez, inkestan aurreikusi ez zena. Hala ere, taulan sartzea egoki iruditu zitzaigun.

Goiko datuen artean harrigarriena gerta daiteke idatziz jasotako ahozko erdal literaturek duten lekua euskarazko kontalarien erreperitorioan. Hiru eragile posible ikusten ditugu honen atzean: a) erdal literaturen *merkatua* handiagoa izatea, b) orijinaltasuna bilatzea; c) ahozko literaturaren kontagaien zailtasuna eta desegokitasuna ume txikien saiotarako. Izan ere, kontalariak gogoratzen dute behin eta berriz ume txikienei ahozko kontakizunek eragiten dizkieten larritasuna saihestu beharra⁴⁴ (HABE, 1999). Bada, euskaraz jasotako tradiziozko kontagintza batere erabiltzen ez duen kontalaririk ere. Aukera estetikoak eta harrera arazoak tartean direla ere esan daiteke.

Oraintxe esandakoari kontrajartzen zaion datu interesgarria dugu ahozko literaturako kontagaiak -bertakoak nahiz kanpokoak- heldua den publikoarekin gehiago erabiltzeko joera. Datu hau nahikoa deigarria da ikusita zenbateraino lotzen den irudikapen aldetik tradiziozko ahozko literatura hurrekin. Praxiak, dirudienez, besterik esaten digu.

Idatzizko euskarazko autore ipuinak ere oso ezberdin banatzen dira kontalarien erreperitorioan, %1 eta %30 artean. Adierazgarriena da kasu batzuetan batere ez direla erabiltzen, eta erabiltzen direnean bereziki haurren esparruan erabiltzen direla, lehen aipatutako bidetik. Idatzizko erdal autore ipuinak euskarazkoen aldean bikoitza dira. Edonola ere, idatzizko autoreen ipuinen erabileraren nagusitasun hau datu esanguratsua izan daiteke hurrekin egiten diren konta-saiok genero gisa duten berezitasuna deskribatzeko. Hernandezek (2006) kontalarien praktika sozio kulturalaz egindako kategorizazioan haurren saiok duten aparteko estatusa berrestera etor liteke datua.

Datu xumea bezain erregularra dugu kontalarien artean norberak sortzen dituen istorioen kopuruari dagokiona: %10. Hauetako asko ahoz *sortu* dituztela zehazten du kontalari bat baino gehiagok.

Kontagaien jatorrian jendeari ahoz entzundakoen kategoria da apalena, orotara %1,6a suposatzen du. Kategoria hau Rekalde kontalariak proposatutakoa da “besterik” indizean, eta baliteke, kategoria hau hasieratik proposatu bagenu datuen proportzioan aldaketak eragin izana. Hurrengo lan baterako kontutan izateko modukoa dela iruditzen zaigu, kontutan izanda kontalariak euren adierazpenetan maiz kontagai iturri bezala aipatzen dituztela asmatutako istorioak (*Behinola*, 2010).

Azkenik, erreperitorioaren konplexutasuna zedarritzeko esan behar dugu gero eta eztabaida handiagoa dela kontalarien artean inori entzundako kontakizunak kontatzea

⁴⁴ Gasteizko irakasle eskolan Pello Añorgak emandako hitzaldian zehatz azaltzen du gaia. Kontsulta, 2014-12-12, sarean: <https://ehutb.ehu.es/eu/video/index/uuid/50bc5fe51bf7e.html>.

zilegi den edo ez (Sanfilippo, 2007a). Bereziki autore ipuinen kasuan. Izan ere, badabilta ahoz aho kontakizun berrien bertsioak ere (ikus 38. oharra).

Ahozko literaturako kontagaiak ondare unibertsal gisa irudikatu dira eta hala, kontakizunek egilerik izan ez dutela esan izan da. Uste horren ondoan, baieztatu dira garai batean ere elkarri erronka jotzen zioten kontalariak bazirela, nork gehien limurtu eta nork kontakizun harrigarrienarekin liluratu entzuleak (Hélias, 1990; Fabre-Lacroix, 1974). Gaur eguneko kontalarien arteko tentsioak beraz, ez dirudite hain berriak ere.

Edonola ere, kontalariaren figura eta haren jarduna ia eksklusiboki ipuin miragarriekin lotu izan den (Kvideland, 1990) bitartean -baita ere mito eta leiendekin ere- kontagaiak era askotakoak izan dira beti. Garai bateko biltzaileek mota bateko edo besteko generoak hobetsi izan dituzte, tradizioaren irudikapen jakinak sorraraziz (Kvideland, 1990; Du Berger, 2006). Egungo kontalariak, berriz, irudikapen murrizt horrekin abiatzen direlarik ere maiz, kontagaien generoen aniztasunaren jabe egin direla erakutsi dugu.

Atal honen hasieran egindako bigarren galdera sortari helduz, aipagarria da erreperitorioaren osaeran eta sorkuntza prozesuan ahozko eta idatzizko adierazpideen erabilera konplexua egiten dela. Bi adierazpideen arteko interfazea aberatsa eta anitza da, eta kontalariaren arabera aldakorra ere bai. Dena den, itzulpen lana da kontalaria modu erabatekoan sormen prozesuan idatzia erabiltzera daraman eragilea. Horrez gain, kontagaiak ikuskizun bihurtzeko bidean, sorkuntza prozesuan idatzia erabiltzen dute kontalariak, batzuetan ikuskizun guztia edo gehiena idatziz eta bestetan oharrak biltzeko, bertsioak finkatzeko, e.a. baino ez.

Badira sorkuntza eta prestakuntza prozesuan idatzia inoiz erabiltzen ez duten kontalariak nahiz eta hasierako urtetan erabili izan (Añorga, Bueno, Carrere). Hau, datu esanguratsua da ibilbide luzea duten hiru kontalarien eskutik etorritakoa da eta. Honela azaltzen du Joxemari Carrerek bi adierazpideen erabileran izan duen garapena:

Hasieran idazkuntzak presentzia gehiago zuen, gaur egun ahozkoasuna da ia erabatekoa, nahiz eta, jakina ipuinak liburuetan topatu. Idatzizkoa ageri da, batez ere, euskarara egindako itzulpenak direla eta (gazteleratik, frantsesetik, portugesez, katalanetik), eta ikuskarien nolabaiteko gidoi txikiak egiterakoan. (Diaz de Gereñu, 2012:105).

Aipatzekoa da zenbait kontalarik sortze prozesu konplexuaren erakusgarri idazketa, grabaketa, transkribaketa, eta berridazketa modalitateak darabiltzabela

(Egizabal, Rekalde eta Amestoy). Inoiz idatzitik pasatzen ez den ahozko prestaketa lana egiten duela ere zehazten du Amestoyk, hala ere.

Tradiziozko kontalari trebeek ere, zeukaten baliabide guztiak erabiltzen zituzten euren konta-saioak aurrez prestatu eta lantzeko. Héliasek dio bere aitona kontalari aitortuari saio bat egiteko eskaria helduz gero aspaldian saiorik egin gabe egonik, zuhaitzei kontatuz trebatzen zela (Hélias, 1990).

Tradiziozko kontagintzan etengabea izan da ahozkoaren eta idatziaren arteko elkar elikatzea azken mende luzeetan (Apalategi, 1987; Ong, 1987; e.a.). Maiz, usteak uste, ezin da erabat garbi jakin zer datorren ahozkotik eta zer idatzitik (Prat Ferrer, 2013). Herri folklore petoaren ikurtzat izan diren kontakizunak ere finean idatzizko iturrietatik elikatu direla erakusten duten lanak ugarituz doaz, gizartearen eta hizkuntzaren funtzionamenduaren konplexutasunaren adierazgarri (Carruthers & McCusker, 2010). Alderantziz ere bai, idatzizko literaturak ahozkoaren figurazioa erruz egin du eta, ahozko kontagaietatik elikatu den literatura arrunta izan da (Defrance & Perrin, 2007). Onartzen dugu, beti ere, idatzizko adierazpidea eta haren araberako hizkuntzaren irudikapena gailendu dela (Koch & Oesterreicher, 2007; Larringan & Ozaeta, 2012).

Edonola ere, interesgarria da baieztatzea ahozko eta idatzizko adierazpidearen interfazea areagotzeak ahozko adierazpidearen plastizitate eta ezaugarri berriak aurkitzea ekarri diela kontalariei. Euskarazko kontalariengan behintzat, mintzairaren beraren irudikapena aldarazi zaiela baieztatu dugu:

- Alderdi metalinguistikoariari dagokienez, euskara maila hobetu dutela adierazten dute kontalariek. Entzule arretatsuak bilakatu dira, gogo biziz euskarazko esamolde eta eguneroko mintzamoldeei, keinuei, e.a erreparatzen dietelarik. Hizkuntzaren funtzionamenduaren inguruko behaketa eta hausnarketa egiten dute.

- Ahozkotasunarekiko ezagutzaz den bezainbatean, ahozkotasunaren mekanismoez jabetu izanaren garrantzia azpimarratzen dute kontalariek. Aldi berean, ahozkoarekiko egun dagoen “ezjakintasuna” nabarmentzen dute. “Idatzizkoari” erabat lotuta dagoen gizartea deritzote gureari.

- Saioen prestakuntzan idatzia erabiltzeak ahozkoa garatzea eragotzi ordez, hura garatzen laguntzen dietela adierazten dute kontalariek: “ahozkoan sartuta gero, ahozkoa askatasun, trebetasun eta ausartzia gehiagorekin erabiltzen da”. Itxuraz kontradikzioa badirudi ere, ahozko eta idatziaren estetiken ezberdintasunaz mintzatzen dira kontalariak. Kontalaritzan jarduteak, idatzizkoa eta ahozkoa lanketa propioa eskatzen

duten bi mundu osagarri baina batez ere ezberdin direla jabetzera eraman dituela azpimarratzen dute.

- Erdaraz kontatzeak eta itzulpen lana egiteak aparteko eta berariazko lana ekartzen dien arren, kontalariak hau modu positiboan baloratzen dute: hizkuntzak elkar elikatzeko moduko aurkikuntzak egiten laguntzen baitie.

Kontalari berriaren ibilbidean ahozkoarekiko duen hastapeneko pertzepzioa eta irudikapena arrunt aldatzen dela baieztatu dugu.

Bukatzeko, eman dezagun ahozko eta idatzizko interfaze eremu garrantzitsu baten ahuleziaren berri euskararen arloan: euskarazko kontalarien errepertorioa ez da apenas idatzizko bertsioetan nahiz multimedia bertsioetan argitaratzen⁴⁵. Badira salbuespenak, baina Europako beste herrialdeetako kontalaritza berriarekin konparatuz oso gutxi egiten da. Kontalaritza berria garatzeko eta hedatzeko bidean beste indize bat dela deritzogu.

5.6. Mintzaira landua eta anitza sortzeko ahalegina

Mintzaira da kontalarien lanabes nagusia. Agerikoa den hau, hortaz, gai nagusi dugu. Ez, ordea, errazena. Hizkuntzalaritzaren ikuspegitik bereziki garrantzitsua iruditzen zaigu gai honi heltzea ahozkoaren adierazpidearen ezaugarrietatik abiatuta (Koch & Oesterreicher, 2007) deskripzio objektiboak eta sistematikoak ahalbidetzeko.

Nolatan lortzen dira ahozko poetika eta kontalaritzaren adierazpenaren elaborazio maila altuak? Zer zerikusi du honek egoera komunikatiboaren berehalako baldintzekin? Datu kontrajarriak aurki daitezke gai honen inguruan (MacDowel, 1974; Bauman, 1986; Lord, 2001).

Kontalariak euskarazko kontalaritzaren kalitatea hobetzeko eta bermatzeko konpromisoa erakutsi izanak gaiak sortzen duen kezka adierazten du. Euskararen eta euskarazko kontalaritzaren egoera ikusita, kezka zentzuzkoa da. Hala ere, beharrezkoa deritzogu kalitate nozio horren zedarritze ahal denik eta objektiboena egiteari (Larringan & Idiazabal, 2005), ez da eta, intuizio bidez konponduko den gaia.

Kontalariak kalitatearekin batera *aniztasunaren* nozioa aipatzen dute. Azken nozio honen azpian praktika artistikoa ezaugarritzen duten estetika anitzak onartu eta babestu nahia ulertu behar da. Izan ere, euskarazko kontalaritza berriaren egoera onaren

⁴⁵ Kotsulta, 2014-10-02, sarean: <http://www.naiz.eus/es/especiales/100ipuin/azala>. Esteka honetan euskarazko zenbait kontalariaren kontakizunen (ez konta saioen) ikusentzunezko materialak aurki daitezke.

adierazgarri litzateke estilo aniztasuna aurkitzea. Halaber, ez da ahaztu behar kontalari berak ere, estetika edo berbaldi mota ezberdinak erabil ditzakeela konta-saio berean. Mintzamolde landua erakusteko, izan ere, horixe behar da: mintzamolde anitzak eta erregistro askotarikoak, maiz, gramatikek zedarritzen ez dituzten berbazko moldeak. Ondorioz, hizkuntz erabilera *zuzena* edo *estandarra* ez erabiltzeagatik epaituak izateko beldurra izan dezakete kontalariek⁴⁶.

Aniztasunak kontalarien berbazko jardunari aitortza besterik ez lioke ekarri behar. Aniztasun hori, halabeharrez, mintzairaren lanketaren baliokide izango genuke. Ordea, landua edo elaboratua terminoak kontalarien artean ere nahaste handia sortzen duela ikusi dugu: nekez lotzen dute-eta *landua* terminoa euren jardunarekin (Diaz de Gereñu, 2012). Beraz, beharrezkoa dirudi nozio hau ere nola ulertzen dugun argitzea.

Uste dugu hein batean kontalariek ez dutela gustuko euren berbazko jarduera idatziaren adierazpidearen ezaugarriak deskribatzeko erabiltzen diren nozioekin identifikatzea. Hau ulertzekoa da ikusita *landua* eta *elaboratua* nozioak maiz “natural”, “arin”, “argi” bezalakoei kontrajartzen zaizkiela. Ahozkoa *naturaltasunarekin* lotzen da; baina *naturaltasuna* aldi berean kaotikotzat jotzen da, eta ondorioz arau faltarekin, sistematizazio ezarekin eta nola ez, akatsez jositako hizkerarekin lotzen da (Teberosky, 1998). Nahasmena agerikoa da.

Argi utzi beharra dago gauza bat dela kontalari aditua jendaurrean *naturaltasunez* (edo *jariotasunez*) aritzen dela iruditzea, eta besterik horren atzean halabeharrez dagoen elaborazioa eta lanketa, idatzizko adierazpidearen erabilera barne egon daitekeelarik. Ondo baino hobeto prestatu ezik ez dago jendaurrea liluratu eta arrakastaz inprobisatzerik. Are gehiago, zenbat eta landuago izan, orduan eta berehalako komunikazio egoerari aurre egiteko aukera gehiago izango da: *naturalagoa* iruditzeke, alegia. Horra, paradoxa. Larringanek (1992) dioen moduan, kontalaria ez da hiztun arruntaren baliokidea. Bere helburuak lortzeko eskura dituen baliabide guztiak erabiliko ditu kontalariak, ikusi dugun moduan, izan ahozkoak zein idatzizkoak. Kontalari ibilbidean zehar ere moldatu eta aldatuko ditu gainera baliabideok.

Elaborazioa ahozko jendaurreko berbaldiek berezko duten ezaugarria da (Dolz & Schneuwly, 1998) eta ez da ezelan ere idatziaren ezaugarria bakarrik (Blanche-Benveniste, 1998). Beharrezkoa irizten diogu kontalaritzaren metamintzaira osatu eta eztabaidatzeari beste arlo batzuetan gertatzen den bezala (Rispaill et al., 1995), bereziki

⁴⁶ Gure tesi lan honen bigarren zatian erabiliko dugun corpusa osatzeko egin genituen grabaketa egunetan, kontalari bik adierazi ziguten epaituko genituen gaineko kezka.

eskola sortu nahi bada. Ahozkoaren metamintzaira kontalarien artean ere eztabaida iturri izan daiteke, nola ez. Kontalariek *landua* nozioaz duten irudikapen ezkorra eztabaida gaurkotu baten ondorio baino, gizartean –giro akademikoa barne hartuta– dauden aurreiritzien ondorio da.

Kalitatearekin lotuta, euskaraz, harrera arazoak dauzkagu. Kontalariek entzuketarako baldintzak eskatzen dituzte (*Behinola*, 2010; *TK*, 2014), hauek, zerikusi handia baitute horiek konta-saioen arrakastan. Euskarazko kontalaritzaren maila garatzeko horixe da gure ustez eragozpen nagusietakoa. Kontalariak bat datoz esaten entzule mota baino garrantzitsuagoa dela entzuleen jarrera (Diaz de Gereñu, 2012).

Jarrera egokiarekin batera hurrengo eskakizuna ere garrantzitsua da euskarazko kontalaritza gara dadin: entzule heldu euskaldunen kopurua handitzea, hau da, euskara ikasten ez dabilzanena. Entzuleek duten euskara mailaren arabera saioak ez dira horregatik gutxiago, ez da hori atera beharreko ondorioa. Alderantziz, Amestoyk eta Frankok dioten moduan, ez dute euskara apalagoa egiten entzuleek maila txikiagoa izanagatik. Mintzaira *egokitu* egiten dute. Hau lezioa da hizkuntzalariarentzat. Izan ere, berbazko komunikazioa etengabeko egokitzapena da (Koch & Oesterreicher, 2007), eta hori ondo daki kontalari trebeak. Aurrez aurre dituen entzuleekin asmatu behar du, ez beste inorekin. Ez da huskeria, ez eta errazkeria ere ez. Besterik da, ordea, kontalariek eskaintza dibertsifikatzeko eta garatzeko aukera handiagoa bilatu nahi izatea.

Egungo euskarazko kontalaritza baldintzatzen duen gurpil zoroa dugu honako hau ere: baldintza anitzagoak ez egoteak ekar dezake, salbuespenak salbuespen, maila elaboratugoak ez lortzea. Kontalariek kalitatea bermatzeko konpromisoa hartzen dute eta era berean kontalari jardun nahi duena kontzientzi hartzera eraman nahi dute. Baina hori, azken finean erabileraren erabileraz baina ezin da lortu: entzuketara kalitateak baldintzatzen duenez kontalariaren jardunaren elaborazio maila (Bauman, 1986).

Guztiaren gainetik, eta aurreiritzien gainetik batez ere, kontalariek entzuleekiko - izan euskaldun zahar edo berri- erakusten duten begirunea azpimarratzekoa iruditzen zaigu.

6. Kontalaritza eta kontalari zaharrak: berrikusi beharreko bi irudikatze

Orain arte kontalaritza eta kontalari berriak izan ditugu kontuan, kontalaritza eta kontalari zaharrak albo batera utziz. Baina derrigorrezko ikusten dugu kontalaritza eta kontalari zaharrez ere, jakingarri batzuk ematea, beti ere irudikapen oker bat baino

gehiago egin baita haiei buruz, praktikaz eta figuraz. Bi irudikapen horiek ondorengo zati banatan aztertuko dira (6.1 eta 6.2). Uste dugu arloaren ikerketan ikergai horiek badutela garrantzirik.

6.1. Kontalaritza zaharrean albora utzitako komunikazio alderdiak

Kontalaritza zaharraren alderdi performatiboez eta mintzairazkoez ez dakigu gauza handirik. Garai bateko kontalari trebeen egiten jakiteaz behintzat ez da maiz oharrik baino jaso. Hori dela eta, folklolean, antropologia eta etnografian kontagintza zaharraz egin diren azterketei buruzko kritikak jasoko ditugu.

Gure aldetik, aurrena folklore edo herri literaturaren bilketen bildumak nola osatu diren gogoratuko dugu kontaketa berezko testuingurua aintzat hartu gabe jaso direla azpimarratuz. Eginbide horrek kontaketa praktikan alboratutako alderdiak ekarriko ditugu.

Bestetik, gogoratuko da garai bateko kontalari trebeek parte hartzen zutela zenbait gaubelatan. Haiei buruzko berriak eskasak izateaz gain desitxuratuak dira zenbaitetan (Vernus, 2004; Apalategi, 1987; Hélias, 1990). Errepaso honek bide emango digu ahozko literaturatzat duguna halakotzat har dadin egon litezkeen mugak argitzeko (Prat Ferrer, 2013).

6.1.1. Metodologiak albora utzitakoak

Tradiziozko literatura jaso den testuinguru komunikatiboaren ezaugarriak eta testuinguru komunikatibo errealekin duten aldeak azpimarratuko ditugu. Era berean, informantea eta kontalari rolak berezituko ditugu, eta horrek ahozko literatura dela eta, mintzaira alderdiak aztertzeko izan ditzakeen mugak.

Euskaraz ahozko tradiziozko kontakizunen bilduma garrantzitsuak egin dira, baina, halaz guztiz, Lekuonak (1982) lan berritzaileen falta baieztatu zuen. Zoritxarrez, autoreak ez zuen ildo berririk zehaztasunez aipatu, ez eta bere kezken iturria zein zen azaldu ere. Lekuonaren garairako aldatzen hasiak ziren folkloreaken esparruko lan metodologiak, esate baterako, performantzearen kontzeptuaren integrazioa ekartzen zituztenak (Bauman & Briggs, 1990), edota hizkuntza bere erabilera testuinguruari lotuago aztertzen zituztenak. Sinbologiaren bidetik egindako azterketa estrukturalagoak

ere (Kortazar, 1985; Etxebarria Zuloagak, 1992; Etxebarria Zamalloa, 1992; Apalategi, 1987; Arrieta, 2004) izango zituen Lekuonak gogoan, beharbada.

Nolanahi ere, kontakizunaren mintzairazko alderdi pragmatikoek ez dute arreta handirik jaso. Horrez gain, arazo enpirikoa gaindiezina dirudi: egun, tradiziozko gaubeilak eta konta-praktikak gure inguruan ez dirudi testuinguru errealetan behagarri direnik, edo asko eraldatu dira⁴⁷. Beraz, berezko testuinguru komunikatiboetako datu enpirikoak jasotzea ezinezkoa dirudi.

Kontakizunen edukiez eta eskema narratiboez gain gutxi deskribatu da. Garai bateko konta praktikei eta bereziki kontalari trebeen egiten jakitea eta jarduna ezaugarritzen zuten alderdiei buruz ezer gutxi dakigu. Sorkuntza herrikoia bezalako nozioak gailendu dira eta horien atzean hizkuntzaren eta ahozko estetikaren ikuspegi erabat murrizgarriak daude. Ikus dezagun ondoko testua:

Horrekin, herritik jasoak, XIX. mendean hedatutako deitura berreskuratuz, honako kontakizunak «folk» direla adierazi nahi izan dugu. Hau da, ez direla literaturara nahiz beste jardun kulturalera emaniko pertsonen propio asmatuak, sortuak eta burutuak izan; ez direla, zentzu horretan, «kultuak» eta egile indibidualizatu baten sorkariak. Herritarrek ahoz aho jaso eta ahoz aho igortzen dituzten *ahozko kulturaren* osagaietako bat direla ekoizpen horiek azpimarratu nahi izan dugu. Eta, jasotzailea, igorlea nahiz biltzailea zeinahi izanik ere eta edozein delarik beraren kultura maila, kontakizunen herritartasun hori mantentzen dela, baldin eta ahozko kulturari gutxieneko atxikimendua badio. (Etxebarria Zuloaga, 1992:17)

Deskribatzen den bilketa testuinguru komunikatibo honetan ez dira kontalaritzaren berezko gozamenezko helburuak edo alderdiak aintzat hartzen. Egungo ikuspegitik ez da onargarria iker-arlo honi propio zor zaion komunikazio alderdia, hots, kontalari eta entzuleen arteko harremanean motibazio den helburu estetikoaren bazter uztea. Horregatik, inkesta edo bilketa egoeretan ere bilatzen dira helburu horiek: “Kontalariak eta entzuleak giro egokia behar dute kontakizun harrigarrien igorpenerako” (Etxebarria Zuloaga, 1992:21). Kaltzakortak (1989) jaso zituen “giro” honekin lotuta tradiziozko bildumetan agertzen diren berbazko alderdiak, baina zinez oso gutxi dira kontaktaren gainean bildutako oharrak. Guztiak ere oso baliotsuak, gure ustez.

⁴⁷ Horrek ez du esan nahi batere ez dagoenik. Britainian, herrialde galoan ezagutu izan dugu tabernetan antolatutako afari-gaubeiletan kontalari jarduten zuten emakume nagusirik, 1998. eta 1999. urteetan.

Cerquandek (1985) dioenez, Iparraldean XIX. mendearen bigarren erdirako gainbehera ziren gaubeilak populazioaren emigrazioak zirela eta. Hala ere folkloreaken bilketa lanek egun badarraie (Etxebarria Ayesta, 1992, Ozaeta & Arriolabengoa, 2013). Dударik gabe, oraindik bada zer bildua:

Luzia Arrizabalagak arratsalde batean haurtzaroko 30 abesti kantatu zizkigun, bata bestearen atzetik. XIX. mendera eraman gintuen”, gogoratu dute Arantza Ozaetak eta Divina Arriolabengoak.⁴⁸

Bilketok ezinbestekoak diren moduan zer komunikazio ekintza suposatzen duten hausnartzeko aukera ez genuke galdu behar. Zein dira parte hartzaileen rolak? Zein da zehazki bilketa egoeretan agertzen den komunikazio ekintzaren enuntziario eskema?

Cerquandek kontakizun eta bestelako generoak biltzera bidali zituen errientei berariaz eskatu zien gaubeiletara joan zitezen bilketak egitera. Errienteek ez zuten hala egin, astirik ez zuten aitzakia jarritz. Hala ere, aipagarria deritzogu Cerquanden intuizio horri, kontakizunak komunikazio egoera errealean biltzeko nahiari. Izan ere, kontalariak ohi zituen testuinguruetatik isolatuta eta maiz diktaketa erara (Ariztia, 1982) jasotzen baitziren kontakizunak. Halako corpus batek agerikoak diren mugak erakusten ditu mintzairaren azterketa enpirikoa praktikatu nahi izatekotan. Kontalari hoberena izanda ere, komunikazio egoerak erabat baldintzatzen du mintzaira ekintza: ezin dira bilduma horiek kontalariak garai batean eta jendaurrean egiten zuten ekoizpen kokatuaren baliokidetzat jo. Beraz, bildumetan ageri diren hizkuntz ekoizpenak badute muga hizkuntzaren azterketa enpirikoa egiterakoan. Helburu estetikoak dagokienez, behinik behin.

Kontutan izan behar genuke, gainera, biltzaileek jasotako materialen gainean egin zituzten aldaketak, ezabaketak eta hedapenak. Cerquandek berak (1985) kontakizun batzuk baztertu zituela dio errienteek bidalitako zenbait bertsiotan gehiegizko moldaketak egin zirela iritzita.

Bilketa egoerak inkesta egoera akademikoen ondorioz sortzen diren komunikazio egoerak dira, eta biltzaileek badituzte haien metodologiak egoera horiek “leuntzeko”. Bilatu nahi da ahalik eta esperimendu egoera leunena, erosoena, bereziki mikrofono bat jartzen denean grabaketa egiteko. Etxebarria Ayestak inkestak sortzen dituen egoera komunikatiboa leuntzeko eta giro ona sortzeko *esataria* –ez derrigorrez

⁴⁸ Kontsulta, 2015-6-22, sarean: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2279/ondarea>

kontalaria- artegatu gabe jardun beharra dagoela dio. Horrez gain, inkesta egoerak sortzen duen rolen asimetria leuntzeko honakoa diosku: “Giro on baterako, senitartekoak izaten dira egokienak baina esataria ezezaguna bada bion lagun den norbaitekin joatea da onena” (Etxebarria Ayesta, 1992:387).

Barandiaranek bilketa metodologiarako eman zituen irizpideen artean oharrak hartzearen ginetik informantea eroso sentiaraztea nabarmentzen zuen. Biltzaileek informante edo *esatariarekin* inkesta egoera arruntarena baino intimoagoa den uea sortzea bilatzen dute. Beti ere bigarren mailakoa den helburu hau, biltzaileak beharrezkoa duen baldintza baten ondorioz agertzen da: esatariak “benetan balebil bezala” jardutea bilatzen da besteak beste, memoria, kontagaia, solasaldia ager daitezen.

Gure ustez, baina, komunikazio eta hizkuntzaren emaitzari dagokionez badute muga bat kontaketa ekintzaren azterketarako, kontalariaren egiten jakitearen azterketarako. Komunikazio egoerako ko-enuntziatzaileek ezarri eta negoziatzen duten marko komunikatiboak izaera aldakorra eta hauskorra duenez (Goffman, 1991; Fillietaz & Revaz, 2006) inkesta erako komunikazio egoeretako marko hori era jakin batean bideratzen da. Komunikazio egoeran eragiten duten faktore anitzen arteko erlazioa antzaldatzeko saiakera bat izaten da: publikotasun gradua, interlokutoreen arteko familiaritatea gradua, inplikazio emozionalaren gradua, kooperazio gradua, espontaneitate gradua, e.a. (Koch & Oesterreicher, 2007). Egon daitezke ñabardura garrantzitsuak grabaketa batzuen eta besteen artean. Baina ez gaitzezen nahastu, inkestek helburua akademikoa dute: bilketa oparo baten grabazio ona lortzea da lehentasuna.

Laburtuz, inkesta eta ipuinen berri jaso nahi duten lan etnografiko, dialektologiko, folklorikoek sortzen duten komunikazio egoerak helburu akademiko eta zientifikoen azpian burututako komunikazio ekintza jakinak dira. Zentzu osoa dute, eta jarduera akademikorako ezinbestekoak dira baina ezin dugu haiekin garai bateko kontalari zaharren berbazko praktiken azterketarik burutu. Edo azterketa horrek izango dituen mugak onartu beharra behintzat badagoela iruditzen zaigu.

Gozamenaz beste helburu nagusiak dituzten testuingurutan bildu dira han eta hemen herri literaturako kontakizun gehienak, gutxienez XX. mendearen amaiera arte. Horixe salatu dute, gainera, bateko eta besteko eta iker arlo ezberdinetako adituek (Zumthor, 1991; Sanfilippo, 2007a; Apalategi, 1987; Bauman, 1977; Carruthers, 2010). Ez da testua bere testuinguru “sozialean”, “naturalean” jaso, nahiz eta azken urteetan badiren folklore bilketa horietan testua eta testuingurua lotzeko ahalegina egin duten lan aipagarriak (Mariotti, 1990).

Bilketa modu horrek, ahozko literaturari denbora luzez “disembodied superorganic stuff” baten itxura eman dio Baumanen ustez (1986:2). Jokaera sozialaren zentzua eta forma hartzen duten berbazko emaitza horiengan eragile indibidual, sozial eta kulturelek duten zeregina erakusterik ez dago. Idatziz –edo ikusentzunezko euskarrietan- bildutako kontakizunen testu horiek jaso diren moduagatik, bildu diren komunitateko partaideentzako ere ulertezinak izatera hel daitezke (Badcock, 1977), hain daude edukiak deskontestualizatuta.

Egiaz, Zumthorrek (1991) Lekuonak ahozko kontalaritzari buruz esandakoa baieztatzen du ahozko poesiaren ikerketan: ahozko literatura edo poesiaren alorreko azterketen eremuan bereziki ahozko kontalaritzan falta izan dira azterketa funtzionalak eta pragmatikoak.

Mintzairazko alderdiei dagokionez ere bada albora utzitakorik. Julio Caro Barojak, Joxe Martin Apalategiren *Introducción a la historia oral* (1987) liburuari egindako hitzurrean zorrotz kritikatzeko du testuak eta hauek sortutako kontestuak banatu izana. Horrekin batera, berriz, gurean hain gutxi aipatu den gaia sartzen du, hain zuzen, biltzaileek kontalari edo informanteen berbaldiaren gainean egindako moldaketak:

Es claro que si el testimonio oral ha de estimarse como testimonio antropológico e histórico, ha de ser recogido en toda su integridad y no dejándose guiar por criterios de purismo o perfección al transcribirlo (...). Una cosa es, pues, el “purismo para lingüistas” y otra el “purismo para los antropólogos” y en esta época en que hay clases de Matemáticas para biólogos y otras actividades similares, podríamos pensar en la necesidad de crear una “Lingüística para antropólogos” o una “Antropología para lingüistas”. (Apalategi: 1987,10-11)

Etxebarria Zuloagak (2007) ere eman du biltzaileen moldaketak ohitura arrunta izan direnaren berri. Kontuan izan behar da aldaketek beregain har ditzaketela ez bakarrik gramatika eta sintaxiaren dimentsioak, baizik eta diskurtsiboak eta edukien gainekoak ere. Azkuek berak azaltzen du *Euskalerraren Yakintzako* bere hitzurrean aldatu ez-erik informanteei entzundakoa buruz asmatu ere egin zuela jasotako oharrik galdu zituela eta (Azkue, 1989).

Kontesturik gabeko testuen bilketa, kontalari edo informanteen ahozko jardunaren moldaketa eta zuzenketa, bestalde, fenomeno orokorra izan denik ezin uka (Sanfilippo, 2007a; Hélias, 1990; Finnegan, 1969). Horrez gain, Héliasek (1990) eta Babcockek (1977) folkloerari, oro har, kontalariak erabiltzen zuten askotariko baliabide

metanarratibo eta diskurtsiboak ezabatu izana leporatzen diote. Gure folkloreak barruan, dakigula, Zaikak (2011, 2015) baino ez du aztertu enpirikoki moldaketen arazoa.

Moldaketa horiek “eredugarri vs. akastun” edo “on vs. txar” parametrotan mugitzen den hizkuntzaren irudikapenari jarraiki eginak izan dira, idatziaren prestigioaren nagusitasunari lotuta. Jokabide honek erro sakonak eta ondorio latzak izan ditu, oro har, giza zientzietan. Folkloreak arloan zehazki Finneganek (1969) ere irmoki gaitzetsi zuen jokaera hau. Oraindik orain ditugun ahozkoaren gaineko aurreiritziek (Luzatti, 1998; Blanche-Benveniste, 1998; Idiazabal & Larrigan, 2008; Ochs, 1979; Mondada, 2000) nola ez zieten, bada, garai bateko biltzaileei eragingo.

Gure interesa egungo kontalari trebeen, aitortuen, berbazko jardunak dira. Jende arruntaren kontaktak luze eta zabal aztertu dira (Labov & Waletzkyren 1967ko lan aitzindariaren ondotik zerrenda amaiezina da), ikuspegi epistemologiko askotarikoen arabera (Watson, 1973; Laforest, 1996). Berriz, kontalari trebeen diskurtso analisi gutxi egin dira (Sanfilippo, 2007a, 2007b; Prat Ferrer, 2013). Folkloreak izan duen jokaera akademiko ez egokiari egotzi zaio, besteak beste, arloaren devaluazioa.

Denbora askoan biltzaileen intuizioari eta irudikapen erromantikoari⁴⁹ atxikitako kontalarien mintza jardunaren irudikapen okerrak egin direla uste dugu, eta hein batean irauten dutela esango genuke. Horren erakusgarri, paradoxa bat aurkitzen dugu kontalari zaharren mintzairaren deskribapenetan: haien mintzaira *altxortzat*, mintzaira modu *garbi/benetazkotzat* jotzen da baina hurrengo kontalarien berbeta umekeri, huskeri edo akatsez eta erredundantziaz jositako mintzairatzat jotzen da. Kontalarien mintza jardunaz halakoak esan izan dira:

Mintzairaz den bezainbatean, ez da egiazko legerik: kondatzaile bakoitzak badu bere euskara eta bere jeinua. Etxeko eta herriko hizkuntza baderabila, dakien neurrian ala mordoilo, aditzaileei kausitu nahiz. Kondatzean, edergailu guti: han-hemenka atsotitz bat edo bertze; konparazio bat edo bertze, arrabots edo zarata-hitz batzuk jostatzeke ateraldi bakar batzuekin. (Lafitte, 1973:165)

Lafitteen esanak oinarriren bat izango du, beharbada buruz buru jaso diren kontakteten berri jasotzen dituzten testuak... Ezin jakin. Ordea, Lafittek esandako hori ez dator bat kontalari zaloengatik beste autore batzuek irizitakoak. Uste dugu ahozko

⁴⁹ Idatziaren eta zehazki literaturaren nagusitasunaren eta eurozentrismoaren oinordeko, Matok azalduko lukeen bezala (1991: 109-110)

literaturaren hizkuntza baliabideek izan dezaketen literatur balioei dagokionez ere gorago ahozkoari buruz aipatu paradoxa bera hedatu dela. Ondorioz, ahozko kontaketa mintzairazko alderdien balio-gutxitze handia gertatu da, nahiz eta inoiz edo behin haren balioa zinez aitortzen den (Atxaga, 1992).

Apalategiren (1987) ustez, kontalarien hizkuntzaren gaineko jokaera arduragabea ahozko tradizioarekin arduratu diren autoreak ekoizpenaren alderdi genealogiko eta konparatzaileaz arduratu izanaren ondorioetako bat da⁵⁰. Besteak beste, autoreak Barandiaranen lana kritikatzeko du bilketetan testua eta bere testuinguruaren gaineko loturez oso ohar gutxi jaso zituela argudiatuz. Esate baterako, kontalariek generoaren arabera denbora parametro ezberdinak eta beraz marka linguistiko bereizgarriak erabiltzen zituzten oharra jaso zuen Barandiaranek. Oso gutxi izanik halako oharrak, Apalategik kontalarien mintza jardunari buruz jasotako datu esanguratsuak faltan botatzen ditu:

Interesante y escueta observación, porque a lo largo de toda esta investigación vamos sosteniendo la tesis de que los cuentos (como toda producción folklórica o de otra índole) deben considerarse con su contexto, y no sólo en su texto. (Apalategi 1987:55).

Baliabide teknologikorik gabeko ahozko folkloreaken bilketa lan mardula bezain zaila izan behar zuela ulertzekoa da, baina gure ustez, bada bestelako arazo sakonagorik ere, epistemologikoa. Esana dugunez, ikuspegi teoriko jakinek eta bilketa metodologia jakinek baldintzatu dute hein handi batean, bildumetan jasotako emaitza.

Biltzaile gehienek -nahiz eta zoritxarrez ez duten horren inguruko zehaztasun askorik ematen- Ariztiak (1982) deskribatzen duen moduko diktaketa bidezko bilketa metodologia erabiltzen zuten. Kontalariak konta-praktiken bidezko testuingurutik isolatu eta diktaketa bidez biltzen ziren kontagaiak. Horiek horrela, Grimm anaiek kontalari onak baino diktaketaren beharrei hobeto erantzuten zieten memori oneko informanteak gurago izatea ez da harrizkekoa (Prat Ferrer, 2013).

Agerikoa da, berriz, horrek guzti horrek kontalarien berbazko emaitza mugatzen duela. “La memoria de los cuentos”⁵¹ filman kontalaritza zaharra ezagutu zutenek

⁵⁰ Proppek berak, ikuspegi estrukturalista eta genetikoak eraginda, ipuina kontatzen den momentuari buruz ezer ez zekiela onartu zuela gogoratzen digu Apalategik (1987:48).

⁵¹ A. Rodríguez Almodovarrek zuzendutako filma honetan kontaketa -eta berau gauzatzen zen gaubeilaren- testuinguru ezagutzeko datuak jasotzen dira. Koltsulta, 2015-07-07, sarean: <http://www.aralmodovar.es/videoteca/14>; filmaren 25'45''- 28' mitutuen artean bi informatek goian adierazitakoa esan eta guk transkribatua da testu zatia.

jendaurrean kontatu eta harreraren araberako egokitzapen eta moldaketak deskribatzen dituzte:

A: A lo mejor exageras una cosa, la repites, a lo mejor cuentas una cosa tuya que es una vivencia ya de cuando eras pequeño y la metes ahí e? yo que sé, ¡cualquier cosa!

B: Eso también vale cuando cuentas a un niño, según la afición que ves que tiene él, que está envelezado...después tú vas alargando, vas acortando, y lo haces de esa manera...porque...em...al pie la letra no...pero siempre vas aportando alguna cosa nueva” (Rodríguez Almodovar, *La memoria de los cuentos*, 25'45''- 28')

Gainera, kontalarien jarduna haien ohiko jendaurreko konta-saioretan biltzeak gogaitu egiten zituenaren testigantzak baditugu (Belmont 2002; Sanfilipo, 2007a). Biltzaileek ezin zioten kontalarien mintza jardun arruntari jarraitu, eta gainera, kontalariak diskurtsiboki egiten zituzten aldentzeak (digresioak, iruzkinak, e.a.) ernegua eragiten zieten biltzaileei. Ez, ordea, gaubeiletako entzuleei:

Ce dernier procédé, François-Marie Luzel, l'un des premiers collecteurs bretons soucieux d'authenticité, le stigmatise fortement. [...] nos conteurs populaires, le plus souvent, ont deux manières: la première, sobre, brève et allant droit au but. C'est la meilleure, surtout pour les collecteurs de contes et autres traditions orales. Dans leur seconde manière, au contraire, ils donnent l'essor à leur seconde imagination, à la folle du logis, comme disait Montaigne, se livrent à des nombreuses digressions, mettent en scène des personnes connues, quelquefois leurs auditeurs mêmes, et prennent pour débiter leurs histoires et leurs fables le double du temps que demanderait une narration simple et suivie. C'est là la méthode la plus goûtée généralement par les auditeurs de nos veillées champêtres. (Belmont, 2002:68-69).

Itxura denez, baziren egoera batean edo bestean kontatzen trebeak ziren kontalariak ere. Hala, Marc'harid Fulup kontalari bretoi entzutetsuak Le Brazentzat kontatu eta gero etxekoentzat kontatzen jarri eta kantatzen hasten omen zen⁵² (Belmont, 2002). Fulupek jakin bide zuen Le Brazek zer bilatzen zuen, hau gogaitu egiten baitzen jendaurrean egiten zuen kontaketaekin. Izan ere, Fulup kontalariaren ipuin beraren bi bertsio daude eta hara non luzeena entzuleak dauden egoran bildua den. Luzelek –

⁵² Fulup anderea kontalari trebea izan behar zuen bai jendaurrean eta bai biltzaileen aurrean ere, zeren eta Héliasek (1990) dio grabaketa baliabiderik ez zegoen garaian Fulup kontalariari bildu ahal izan zitzaizkiola bakarrik kontakizunak, honek hitzez hitz, antzera, kontatzen baitzuten.

biltzaileak- bertsio luzeari “conte altéré et mélange” izendapena jarri zion ohar batean (Belmont, ibid.). Adibidea adierazgarria iruditzen zaigu.

Belmontek dio ahozko ipuinetan agertzen ziren era askotako kontradikzioak - nagusiki bertsioren gainean- biltzaileak baino ez zituztela kezkatzen, baina ez kontalari edo entzuleak (Belmont, 2002). Kontalari eta entzuleak bestelako testuinguru diskurtsibo batean zeuden inplikatuak, murgilduak. Hala, Estornésesek (1952) euskarazko ipuin zahar bakoitzak bere kanta zeukala zioen datua ere adierazgarria zaigu. Zumthorren arabera (1991) ahozko poesian, berez, ez dago bien arteko banaketa egiterik. Alderdi hau ere, ez zen izango erraz jasotzekoa idatzizko bilduma batean.

Halako gora beheren berri ematen duten testigantza gutxi ditugun arren, nahikoa dira jendaurrean eginak ziren garai bateko kontalarien kontaketa ekintzetan eduki tematikoetatik aldentzen ziren berbaldiak, digresio eta desbideratzeak arruntak zirela egiaztatzeko. Ariztiaren *Amattoren Uztan* badira kontalariaren digresio eta metadiskurtso adibide aipagarriak. Ezin zehaztasunez jakin, berriz, narratiboak ez diren segmentu horien iturria kontalaria bera edo Ariztia izango zen.

Horregatik gogoratu nahi genuke berriz ere, kontalaria eta informantea, bi rol komunikatibo ezberdin direla. Baldintza komunikatibo ezberdinen azpian jarduten dira. Adibiderako: Mallorcako nekazariak eztabaidak izaten omen zituzten zein kontakizun kontatu eta ez kontatu apaiz biltzaileari⁵³. Edozer gauza ezin kontatu elizaren estamentuko ordezkariari. Kontutan hartu behar da sexu gaiaren inguruko kontakizunak eta sexu harreman gordinen agerpenek erruz osatu dutela helduen arteko kontagaiak (Alvarez-Pereyre, 1976), nahiz eta bildumetan ez diren hainbeste jaso.

Baliabide teknologiko berriak izanda ere, sailkapen jakinen arabera buruz buruko bilketa eta grabazioak egiten jarraitu da bestelako oharrak eta komunikazio ekintzari buruzko ikuspeirik zabaldu gabe. Zorrotz krikikatu zaio folkloreak bereziki aurrerabiderik aurkitu ez izana, helburu eta metodologia zaharkituei eutsi eta diziplinaren gainbehera ekarri izana (Bauman, 1977; Babcock, 1977; Finnegan, 1969; Viana, 2007). Garai bateko biltzaileen interesa kontakizun huts hutsa biltzean zentratuta egoteak (Zarcate, 1991) aurrerabideak eragotzi zituen.

Azkenik esan dezagun, azterketa objektuak berak ere mugatu izan duela gure ustez haren azterketa. Esan nahi da, ahozko prosa jasotzeko zailtasunak eta haren konplexutasunak uste baino gehiago baldintzatu dute haren azterketa. Beste ahozko

⁵³ Antonio Rodriguez Almodovarrari 2002ko *Ipuinak Ipuin* jardunaldietako mintegian ahoz jasoa.

genero batzuen ondoan erronka suposatzen du: Sanfilipporen ustez (2007a) ahozko poesiaren, bertsoaren eta kantuairen dimentsio testuala jasotzen errazagoa da, oro har. Areago baliabide teknologikoen faltan.

6.1.2. Komunikazio ekintza anitzak eta konplexuak konta-praktika zaharretan

Europako kontestuan nekazal edo arrantza egitura sozio ekonomikoetan gertatzen ziren konta-praktiken etena besteak beste alfabetizazioarekin, industrializazioekin eta gerrekin ere lotzen da (Hélias, 1990; Alvarez-Pereyre, 1976; Vernus, 2004). Bitartean, eta mende luzeetan, askotariko gaubeilak izan dira garai bateko konta-praktiken agerpenerako une nagusi Vernusen arabera (2004). Autore honek gaubeila eta konta-praktiken arteko harremanak ikertu dituelarik, mendebaldean oroimin antzu batek gidatutako gaubeilaren irudikapen oso itxuragabetua zabaldu dela azpimarratzen du. Errealitatea, arras ezberdina eta, bereziki anitza zen.

Lehenik, ikus dezagun nola definitzen duen Vernusek gaubeila: lanak amaitu eta oheratzeko ordua betetzen den moduari (Vernus, 2004:7). Oso zabala da, beraz, definizioa. Izan ere, hainbat gauza gertatzen zen une eta gunere berezia zen gaubeila. Historian zehar molde anitzak eta konplexuak hartuz bilakatu eta garatu da gaubeila. Vernusek gaubeila praktika sozio kultural anitzen agerpenaren erdigunetzat du, gertakari kultural zentrala izandakoa.

Vernusek behin eta berriz azpimarratzen du gaubeilaren inguruan literatura asko egon bai baina berau osotasunean deskribatzen duten lanak eskasak izan direla. Izan ere, gaubeilaren irudi idiliko bezain itxuragabetua eragin duten aldaketa sozial eta ekonomikoak aztertzen ditu autoreak. Ondorioz, gaubeilaren irudikapen idealizatuak islatu dira artearen esparruan ere: bereziki literaturaren eremuan. Gaubeilaren idealizazio hau erreparatzeko modukoa iruditzen zaigu.

Lehenengo eta behin gaubeilatan erabiltzekoak ziren almanakak aipatzen ditu Vernusek. Deckherr anaiek 1849an almanaka editatu zutelarik, “Almanach des veillées” izenburua jarri izana adierazgarritzat jotzen du Vernusek. Kazetaritza garatzen den unean, nekazal giroan exodoa ere hasten den garaian, *Les Veillées des Chaumières* aldizkariaren agerpena gertatzen da: mundu modernoaren aurka zihoan katolizismo

intransigente baten ikuspegitik egina, erlijioa mespretxatzen⁵⁴ ez zen denbora eta mundu rural bat aurkeztzen da⁵⁵. Aldizkaria, itxura denez, irakurle urbanoari bideratua zegoen eta nekazal giroaren ikuspegi jakina sortzen lagundu zuen. Frantzia XIX. mendean zehar izenburuan *gaubeila* hitza zuten aldizkariak hamarnaka biderkatu ziren.

Literaturak⁵⁶ maiz erabili du *gaubeila* (Vernus, 2004) kontaketa marko pribilegiatu gisa, haren misterio giroa sustatuz. Asko dira XVI. mendetik frantses literaturan agertzen diren adibideak. Baliabide literario bihurtu zenak, *gaubeila* ipuinen kontakizunerako leku eta une berezizat zuen irudikapena zabaldu zuen, eta ondoren, beste hainbat generotara hedatu zen.

Vernusen iritziz Ducray-Duminil idazleak sortu zuen genero bat aipagarria da zentzu honetan. *Les Veillées de ma Grand-Mère, nouveaux contes de fées à l'usage des jeunes gens* izenburuko lanean amona bati bildutako ipuinen bilketa irudikatzen zen. Genero hau XIX. mendean loratu eta gerora eredugarri bilakatu zen.

XIX. mendean idazle askok *gaubeilaren* inguruan gertakariak garatu zituzten: Guy de Maupassant, Balzac, Zola, Verne, Lamartine, Mistral... irudi oso klasikoa osatuz joan zen denborarekin, bildurra eta ikara eragiten duten kontalariak tarteko, modernitateak lekurik ez duen dimentsio gisa aurkeztuz *gaubeila*. Tonu malenkoniatsua duten deskribapenez josia, arrisku fisiko edo moralen babesleku bihurtu ziren *gaubeilak* literaturan (Vernus, *ibid.*).

Hala, XIX. mendean literaturak aiton amonak polo familiar magnifikatua bihurtzen zituen. Aiton-amona kontalaria hurrei eskainitako arketipo bihurtu zen. 1870-1914 artean frantsesez badira era honetako hogeita hamarretik gora titulu Vernusen arabera: *Histoires et Contes de ma Grand-Mère*. Aiton-amonak kontalari zaharren estereotipo bihurtu ziren, maiz, helburu moralizatzailea zuten bilduma hauetan. Gure artean *Amattoaren Uzta* azaldutakoaren adibide ona dugu, hitzaurrean, Ariztiak (1982) hurrei kontatzeko helburuarekin egina izan zela diosku-eta.

⁵⁴ Ahaztu gabe ere elizak nekazal giroan gertatzen ziren *gaubeiletako* sexu jolasak ez zituela maite (Urkizu, 1994). Vernusek dioen moduan, elizaren *gaubeilen* kontrako jarrera horri esker ezagutzen ditugu *gaubeilen* zenbait alderdi. Galbide eta ustelkeri gune izatea leporatuta, *gaubeila* kristauaren eredu inposatzen saiatu zen Eliza (2004:29).

⁵⁵ Errealitatetik urrun samar zegoena bestalde, hainbat elizgizonek utzitako testigantzetan ikusten dugunez.

⁵⁶ Artean oro har ere islatu zen *gaubeilaren* konnotazio indar ahaltsu hau, margorlan eta grabatuetan. Asko dira adibideak, besteak beste XIX. mendeko almanaketan agertzen ziren irudiak baina pintore famatuak ere erabili duten gaia izan da, Millet edo Van Gogh-esate baterako. Idazle regionalistek legez, margolariak egin dute irudi hau landu nonnahi: supazterra, marmitak,... (Vernus:2004). Lekuan lekuko altzariak, abereak, edo katu baten itzala, intimitatearen sinbolo. Guzti horrek kristalizatu du *gaubelaren* irudia eta aldi berean kristalizazio horren lekuko ditugu.

Ordea, Vernusek erakutsi du gaubeilak, berez, denetarikoak zeudela: multiformeak ziren eta instituzio gisa dibertsitate muturrekoa zuten. Baziren arruntak eta baziren berezi bereziak ere bai. Plastizitate harrigarrikoak, momentuko beharrei egokitzen ziren eta baita bizitzaren gora beherei ere. Garapena eta berritasuna integratzen zituzten gaubeilek, ohiturak progresiboki aldatuz joaten zirelarik. Bi gaubeila mota nagusi bereizten ditu Vernusek: familiakoa eta familia gaindituz. Bereizketa horren arabera askotariko kontalariak aurki genitzakeen. Horietako zenbait, entzuleek ondo estimatu eta desiratuak.

Beste hainbat gaubeila mota identifikatu ditu Alvarez-Pereyrek (1976) Errumaniako hiru komunitateetako gaubeilen azterketa eginez. Héliasek ere (1990) kontalariak gonbidatzen ziren gaubeila bereziak deskribatzen ditu, edo bi kontalarien arteko lehiak egiten zirenekoak ere bai. Era berean, Fabre eta Lacroixek diote, Okzitaniako Nébias herrian gaubeiletan edonor jarduten zela kontalari baina herriko kontalari trebeenetako bat agertuz gero isildu egiten ziren guztiak hari erabat hitza emateko (Fabre & Lacroix, 1974:133). Hirurehun biztanleen artean bi kontalari trebe zeudelarik, gaubeila berean biak elkartzuz gero lehia gogorra egoten zela jasotzen dute autoreek. Beste inork ez zuen hitzik hartzen gaubeila horietan. Horra, Vernusek erakutsi duen gaubeilaren aldakortasun eta plastizitatearen beste adibidea bat.

Héliasen arabera (1990), bi mundu gerren ondoren amaitu ziren era horretako gaubeilak. Nahiz eta gerra garaian iratiaren faltagatik berrindartu ere egin ziren.

Gurean ere, baditugu gertakari hauei buruzko zenbait erreferentzia baina gehienetan aipamenak baino ez dira. Beraz, estimagarriak lirateke kontalaritza tradiziozkoaren alderdi hauetan sakonduko luketen lanak.

Lerro artean irakurri eta biltzen ditugu euskarazko konta-praktika zaharrak non eta nola gertatzen ziren. Apalategik (1987) argitaratutako Arratibelen inkesta gutunetan konta egoera hauek identifikatu ditugu zerrenda hau osatzeko⁵⁷: a) artozuriketan familia guztia sukaldean bilduta zegoela; b) neguko iluntze luzeetan egindakoak; c) neska sailak jostera biltzen zirenetakoak; d) mendian ikazkintzan zebilenen bat etxera etortzean; e) bidaietan egindakoak; f) lanordutan: arto zuritzen, aletzen, larriak josten edo galtzerdiak egiten, g) ekaitzak gogor jotzen zuenetan⁵⁸. Urkizuk (1994) arto jorratze garaiko

⁵⁷ Apalategiren lanean (1987: 217-241) B eranskinean jasotzen dira elkarrizketok.

⁵⁸ Jarduera sozio ekonomikoen arabera lekuan lekuan konta egoera ezberdinak aurkituko ditugu: ehiza egiteko postuetan egindako gaubeiletan (2009/2010 ikasturtean ahozko literaturaren inguruan ikasleek egindako lan batean jasoa), “suertea” deritzon egurrak egiteko egunetan (Rekalde, 2009): “Se

gaubeila bat ere deskribatzen du eta HABEk (1999) sortutako kontagintzari buruzko materialean ere hainbat eta hainbat testuinguru ezberdin aipatzen dira.

Ariztiak aipatutakoak gaineratu behar dizkiogu: meza handien bezperako gaubeilak, txerri hilketetara gonbidatutako kontalari trebeak, e.a. Halako egoeren deskribapen zehatzak ez dira ahozko literaturaren ikergaiak izan, tamalez.

Arratibelek dioen moduan (1995), gaubeilatan kontalari *edonor* izan zitekeen. Izan ere, gaubeila mota askotakoak zirela ikusi dugu gorago. Baina ondorio garbi bat ateratzen dugu gure azterketatxo honetatik: euskararen eremuan ere kontalari batzuk gailentzen ziren, nabarmen.

Laburbilduz, Vernusek (ibid.) konta-praktikak agertzeko joera zuten bi gaubeila mota ezberdintzen ditu: familiakoa eta familia markoa gainditzen zutenak. Zenbat eta bizitza komunitario handiagoa, orduan eta ohikoagoak ziren bigarren gaubeila mota hauek (Vernus 2004:171). Lekuan lekuan, unean unean, gaubeilek forma jakin bat hartzen zuten eta horrenbestez, gaubeilak ohituren, herrialdeen, komunitateen eta garaiei jarraitu die, moldatuz. Baziren, arruntagoak ziren gaubeiletatik bereizten ziren une bereziak, esate baterako, kontalari trebe bat espero edo agertzen zenekoa. Horiexek izan daitezke agian, egungo konta-saioekin konparagarriak. Aztertzeke daude bien arteko loturak eta hausturak.

Bitartean, guretzat konta-praktika ezberdinak eta anitzak konstatzea abiapuntu garrantzitsua izan da egungo egoeraren konplexutasuna ulertzeko.

6.2. Kontalari zaharra: irudikapena berreraiki beharra

Atal honetan kontalari zaharraren figura berreraikitzeke zenbait irizpide ematen ahaleginduko gara. Lehenik eta behin, sormen ahalmena aitortuko diogu. Bigarrenik, kontalari zaharraren figura berreraikitzeke beharrezko izango zituen zenbait tasunen berri emango ditugu.

6.2.1. Kontalari zaharraren sormenaz: egile kolektiboa kontzeptuaz

Behin kontalari trebea eta kontalari ari zitekeen edonoren artean muga ezarrita, kontalari trebearen komunikazio gaitasunen izaeraz hitz egitera pasa gaitezke.

contaba animadamente en las noches de invierno cuando se iba a hacer la suerte de leña". Gure ustez konta egoera hauen kategorizaziorik eta deskribapen sakonik egin gabe dagoela euskarari dagokiola.

Gaubeilak egoera komunikatibo oso aldakorrak ziren eta kontalari trebe bat agertzeak -edo gonbidatzeak- gaubeila berezi bihurtzen zuen (Vernus, 2004).

Komunikate batek uzten duen kultur ondarearekin batera norbanakoak egiten duen ekarpena ezinbestekoa da giza komunikazioa eta hizkuntzaren ekoizpena bera ulertzeko (Bronckart, 1996). Testu bakoitzak badu egile bat, eta generoak adopzio/adaptazio parametrotan taiutzen eta sortzen doaz etengabe. Hori dela eta, arlo honetan *egile kolektiboaren* kontzeptua deseraiki (Lekuona, 1982; Kortazar, 1997) eta zehaztu beharreko nozioa dela iruditzen zaigu kontalari zaharraren lana hobeto ulertzekotan.

Ahozko poetikan oro har, anonimatu eta egiletzaren arazoa oso korapilatsua izan da (Zumthor, 1991). Julio Caro Barojak berak gogor kritikatu zuen tradizioaren eta egiletasunaren ikuspegi monolitiko eta higiezina. Funtsean, ahozko literatura hizkuntzaren funtzionamendu arruntaren ikuspegiaren azpira ekartzea eskatu zuen:

La tradición oral es algo mucho más complicado y variable en su dinámica de lo que se ha dicho. Porque, en realidad, no hay *una* sola. Hay varias. Sus relaciones con la tradición escrita son complejas. Bastará con recordar algún ejemplo al que se hace alusión en esta obra –Apalategiren aipatu lanari sarrera egiten baitio-. Todavía no se ha aclarado del todo el efecto que en la tradición oral vasca (como en la de otros pueblos del mundo cristiano occidental europeo) ha tenido, por ejemplo, el sermonario. Pero es evidente que los sermones, inspirados por lo menos en tradición escrita, no sólo bíblica y teológica, sino también de obras humanas clásicas, a lo largo de siglos han introducido en el “saber popular” o folklore más de un concepto moral, más de un concepto histórico, pese al cacareado ahistoricismo del campesino en general, que de Spengler a hoy ha sido considerado como cierto por no pocos filósofos y pensadores (Apalategi: 1987,10-11).⁵⁹

Ahozko literaturaren kasuan, eta areago kontalaritzan, *tradizio* eta *egile kolektibo* gisako kontzeptuen arrakasta, *transmisio* termino unibokoarenarekin batera, komunikazioaren errealitatea –mintzairarena- estali duen oihal bihurtu dira hein batean. Ikuspegi monolitiko eta uniboko hau aldatuz badoan arren (Zumthor, 1991), zama handia du eta norbanakoek eta baldintza sozio historikoek kulturen eraikitzean duten egitekoa itzalean jartzen jarraitzen dute. Horrela, badirudi kontalaritzaren bidezko gozamen emate eta hartzea iturri bat zabaldu eta ixtearen pareko emaria dela, berez

⁵⁹ Fabre eta Lacroixek ere aipatzen dute nola ahozko kontakizunak idatziarekin erlazio zolian garatu diren (1974).

emanda datorrena, norbanakoak inolako egitekorik izango ez balu moduan. Giza komunikazioaz egun dugun ezagutza zientifikoei muzin egiten dien ideia da hau.

Egile kolektiboaren ideia eztabaidatuz Apalategik (1987) kontazaharlariaren figuraren berreraiketa proposatu zuen. Segidan aztertuko dugu hau.

6.2.2. Kontazaharlaria/kontalari zaharra: figura itxuragabetua.

Gurean, Europa guztian bezala, ez dute kontalari gisa nabarmendu direnek halako errekonozimendurik lortu: hein handi batean, eremu akademikotik zabaldu den tradiziozko kontalariaren figura idiliko eta deformatuak eraginda (Vernus, 2004). Arratibelek berak mantendu du⁶⁰ edonor izan zitekeela kontalari, baina Apalategiri bidalitako inkesta-gutunetan, lerro artean argi irakurtzen da *taju* –Arratibelek erabilitako hitza da- gehiago erakusten zutenak bazirela. Horra lerro artean irakurriz jaso dugun kontalari trebeen zerrenda:

- Famili bat nabarmentzen zela diosku, familian denak kontulariak omen zirenak.
- Kanpotik etortzen zen gizon (ikazkina dela uler daiteke) bat ere, hasiz gero ixiltzen ez zena.
- Guztien gaintetik auzoan itsu gelditutako gazte baten kontraera liluragarria bezain ahanztezina nabarmentzen du:

(...) badet beti gogoan auzoko gizon bat, nik itxu ezagutu nuen ta sasoikoa, bear bada hogeitahamar urte (...). Gizon orrek bazuan patxara bat kontu zaarrak esateko, beste gutxik bezelakoa, baño arek ez zituan kontuak lanean ari zala esaten, atsedean aldietan, izan ere jesto asko egiten zituan kontatzen ari zan bitartean. Gu aua zabaldua egon oi giñan berari entzuten. Zori txarrez, berak esandako konturik ez det orain gogoan, naiz eta ikusten nago nola jartzen zan bi besoak zabaldua, kontatzen ari zan artan bera ibilli balitz bezela... (...) Gizon itxu orren illoba nere lagun bat zan eta da, orrek ere kontu asko esan oi zituan (...) (Apalategi, 1987:226).

Arratibelek “giro” hartan kontatzea normala zela dio, eta hori ukaezina da, gorago ikusi dugu moduan. Arratibelen berbaldian bertan, hala ere, baieztatzen da kontalari trebeak bazirela. Fabre eta Lacroix autoreek (1974) diote garai batean

⁶⁰ Eta guk geuk Estibalizeko monastegira joan eta han egindako elkarrizketa batean, berariaz galdetu genion arren, halakorik ukatu zigun.

kontaketa komunitateak eratzen zirela eta kontalari jarduteko modu eta gradu asko zeudela. Horrela, kontalari aritzeko berebiziko grina zuenak, ez zuen zertan etxearen markoan bertan jaso kontaketarako zaletasun edota gaitasuna. Autoreek baieztatu dute *transmisio* hori gertatzeko bazirela bestelako guneak eta moduak:

La mère de la conteuse que nous avons interrogée à Cailla ne connaît pas de contes, la tradition a ainsi sauté une génération (...) La conteuse possède par ailleurs un jeu très riche de formules finales sur lequel elle peut improviser. (Fabre & Lacroix, 1974:44)

Beste adibide hau ere badakarte autoreek :

(...) tient l'essentiel de son savoir d'un bûcheron, compagnon de travail de son père, qui venait le chercher chaque matin, et contait en déjeunant (...) L'informatrice a conté dans les veillées et raconte aujourd'hui pour sa famille (...). (Fabre & Lacroix, 1974:47-48)

Edo beste hau :

Elle tient son savoir des «anciens», racontant à la veillée et en particulier d'un grand-oncle qui a conservée dans le village la réputation d'un conteur exceptionnel (...). (Fabre & Lacroix, 1974:46)

Egia esan, osaba kontalarien testigantzak erruz agertzen dira han-hemenka (Vernus, 2004; Larringan, Idiazabal & Diaz de Gereñu, 2008 ; Rekalde, 2010). Transmisioaren gaia ere sakondu beharreko gaia dela deritzogu, nahiz eta oraingo honetan ez dugun sakonduko.

Apalategik *kontazaharlari* (1987) deitu zituenen figura hori gutxiegi ezagutzen dugula diosku, eta ados gaude. Bertsolari zaharren figurarekin konparatu besterik ez dugu, esate baterako.

Apalategik adibide gisara ematen du Xenpelar edo Txirritaren ordainik ez daukagula kontalaritzan arloan. Ordain horiek zeintzuk lirakeen galdetuta, erantzuten zaila irizten dio Apalategik. Hala ere, dakusan hutsunea betetzeari ekiten dio, kontazaharlariaren figura eta mintzajarduna deskribatzeko Lekuonak bertsolaria deskribatzeko erabilitako zerrenda bera jarraituz. Apalategi saiatzen da Lekuonak bertsolari zaharrentzat ematen duen ezaugarri bakoitzeko ordezkoa ematen, baina bi kasutan ez du lortzen. Hutsik geratzen diren bi laukiak mintzairazko alderdiei dagozkie.

Horrek erakusten digu, ahaleginak eginda ere, zein gutxi dakigun kontzaharlari haien mintzajardunaz.

Apalategiren ezaugarritzea oso oinarritzkoa izan arren, aipagarria da kontalariaren jardunbidea bistartzeko eta berreraiketarako bidea ezarri zuelako. Honelakoa da deskribatzen duen figura: kontzahalariak kantatu egiten zuen zenbait momentutan⁶¹; ipuinak *egin* egiten zituen -ez zen transmisio hutsa-, berehalakoan aritzen zen, inprobisatu egiten zuen; familia gainditzen zuen markoan aritzen zen; memoria handia zuen⁶²; irudikatzaile handia zen; eta oro har, berak eta entzuleek bizi duten kontestuari oso lotutako argumentuak zebilzkien baina baita berariaz jorratzen zirenak ere -heriotzaren gaia. Hizkuntzaren ezaugarriei dagokionez: “ramplonería de conceptos” eta “léxico bárbaro” dira kontzaharlariari Apalategik esleitzen dizkion ezaugarriak. Alderdi honi dagokionez ez zuen askorik aurreratzerik izan autoreak eta Lafittek agertutako ikuspegia ez da gainditzen tamalez.

Kontzaharlarien ezaugarritzearekin amaitzeko, Apalategik irmo baieztatzen du egile kolektiboaren aurrean *kontzaharlari* jakinez hitz egin daitekeela eta ezagutzen zituenetik abiatuta zerrenda bat osatu zuen: Arratibelen ama eta auzoko itsua, batetik; Barandiaranen kasuan Ataunen: haren ama, Maria loba, Jose Maria Auzmendi, Juan Migel Agirre, Felipe Apalategi. Bähr-ek aipatzen duen Ormaiztegiko geltokiko itsua; e.a. Apalategik dioen moduan, kontakizunen bilketa gehiegi eta konta-praktikaren azterketa gutxiegi egin den arloa da. Joan den mendeetako biltzaileak, salbuespenak salbuespen, ez ziren arduratu kontalariaren figuraz, bere bokazioaren jatorriaz, errepertorioaren zuzeneko jatorriez, eta entzuleekin zuen hartu-emanaz. Hutsune handia dago eremuan: “Or, c’était cette complicité qui faisait la véritable signification du conte puisque le conteur était véritablement le “comptable” de sa petite société.” (Hélias, 1990:216).

⁶¹ Estornések (1952) ipuin eta kanten arteko harremanaz zioena baieztatuz, bide batez esateko.

⁶² Hemen ere kontradikzioak aurkitzen ditugu. Autorearen arabera garrantzi handiagoa ematen dio memoriari. Esate baterako Belmontek (2002) izugarritzkoa ematen dio, eta beste batzuk gutxiago (Hélias, 1990).

7. Tarteko sintesia eta ondorioak

70 eta 80. hamarkadetako artearen esperimentazio garaiek kontalaritza berriaren sorreran eragin zuten, eta horrek jendaurreko kontaketa potentziala garatu egin zuen, literatur kulturaren zenbait balio ere antzaldatur, hala idatzizko adierazpenaren gailentasunari dagokionez, eta baita, ahoz gora esateko edo errezitatzeko eginak ziren behin betiko testu ukiezinei dagokionez ere. Eredu eta praktika kultural hiritar berriak asmatu ziren, eta jendaurre helduarentzako ere desiragarri egin ziren konta-saioak. Eredu horiek, maiz Europako ahozko tradiziozko konta-praktiken gainbehera zela eta, kulturantzaren bidetik, nazioartean ahozko tradizioa gorde duten beste kulturen behaketa eta eragina izan dute.

Euskarazko kontalaritzan eragile izan ziren inguruko gertaerak eta zehaztasunak aztergai daude. Honen azpian, arrazoi akademiko konplexuak daude (Rastier, 2001; Sanfilippo, 2007a; Bauman, 1986; Babcock, 1977; Apalategi, 1987). Lehen ere esan dugu, euskal literaturaren eskuliburuetan edo bestelako lanetan kontalaritza berria ez da aipatzen (Aldekoa, 2008; Kortazar, 1993, 1997). Euskarazko tradiziozko literatura ikuspegi berritzaileekin behatzen ari diren lanak gero eta ugariagoak diren arren, ez dugu kontalaritza garaikidearen aipamenik aurkitu (Kaltzakorta, 1989; Etxebarria Zuloaga, 2007). Tradiziozko kontagintzaren bilketa asko egin da, baina azterketa berritzaileak dituzten lanak gura baino urriagoak dira. Ziur aski, azterketarako metodo eta irizpide berriak ez garatzeak kontalaritza berriari kalte egin dio ia ikusezin bihurtzeraino arlo akademikoan.

Kontalaritza berriak problematika berriak sortu ditu: diziplinen arteko mugak ezbaian jarri ditu, erreperorioaren osaera orijinala eta tradizioaren gordailua izatea era berean, profesio eta ofizio nozioen arteko lehia, e.a. Hizkuntzaren erabilera izanik artea sortzeko baliabide nagusi, harenganako kezka berezia da euskarazko kontalarien artean. Entzuleen harrera eta kontalariaren trebetasuna baldintzatzen baitu euskararen egoerak, zuzentasun gramatikalaren aldetik baino, generoaren maila askotako funtzionamenduaren aldetik.

Euskarazko kontalaritza berriaren berehalako kontestu soziala gertakari literarioa izan nahi duen horren mugatzailea dela uste dugu. Apenas lortu du euskarazko hiztunen praktika sozio kulturalen parte izatea (bertsolaritzak ez bezala). Kontestu didaktiko eta

pedagogikoetatik urruntzen den nahikoa konta-praktikarik ez dago. Ez behintzat, inguruko herrialdeetan adinako indarrarekin gara dadin.

Eremu didaktiko eta pedagogikoetan programatzen dira nagusiki konta-praktika berriak, bai, gramatikaren praktika indibidualetatik urrun generoari lotutako hizkuntzaren praktika osatzen dutelako. Kontestuan egiten den mintzaira jarduera soziala den aldetik baloratua da, nola ez, areago hizkuntza gutxitu baten irakaskuntzaren arloan. Honek generoaren irudikapen puerilizatua iraunarazten du eta ez dio haren irudikapen artistiko edota literatur mailakoa izan litekeenari laguntzen.

Berriz, erakutsi da ahozko narrazio praktika berrientzako beharrezkoak direla praktika kontestu onak, optimoak (Hernandez, 2006; Bauman, 1986). Helburu estetiko hutsak dauzkaten konta praktikek kontalariei gaitasun komunikatibo eta linguistiko-diskurtsiboak garatzea eta proposamen berritzaileak egitea eskatzen die. Horiek gabe, nekez garatuko da kontalaritza berria euskaraz.

Ahozko kontalaritza gero eta handiagoa den intertestualitatearen mailako elkartruke kulturalaren erakusgarri ona da (Bronckart, 1996). Ahozko literatura tradiziozkoaren jarraipena badagoen arren -gutxienez kontagaiei dagokienez- eta jendartean edo jendaurrean konta-praktikak berrezarri direla agerikoa denetik, baieztatu dugu ahozko narrazio egintza ulertzeko eta kontzeptualizatzeko modu berriak agertu direla. Kultur arteko dialogismoak berebiziko lekua hartu du berehalako testuingurutik urrun sortuak edo ekoiztuak izan diren diskurtsoen agerpen lekua eginez kontalaritza berria. Gorago deskribatu dugun ahozko narrazioaren praktika sozio kulturalen berregituratze, berrantolatze eta materializazio berriek ardatz dute kontalariaren figura (Hernandez, 2006). Kontalariak darabilen generoa bera, konta-saioa, eraldatu da eta beraz, bereganatze/egokitze (adopzio/adaptazio) terminotan generoaren garapena (Bronckart, 1996; 2005) gertatu dela baieztatu dugu.

Praktika narratibo berriak gero eta anitzagoak eta konplexuagoak dira euskararen arloan ere, egoera berriek hala eskatzen dutelako batetik, eta bestetik, egun artearen arloan inskribatzeak berekin dakarrelako orijinaltasuna, esperimenez bilatu beharra. Funtzio pedagogiko eta didaktikoetatik urrundu den eta sormenaren bidetik ibilbidea hasi duen eremu bat identifikatu dugu euskaraz, nahiz eta egituratu nahi den praktika artistiko gisa badituen ahultasunak.

Hein batean, ahozko narrazioa euskaraz normalizazio linguistikoaren eskutik etorri da (Diaz de Gereñu, 2012), beste praktika sozio kultural batzuen kasuan gertatu den bezala. Bi sistema kulturei bereziki lotuta etorri ere. Honek badu beste alderdi

interesgarri bat, euskarazko kontalaritzaren bereizgarria: kontalaritza berria elebitasunean eta eleaniztasunean Euskal Herriko muga fisikoetatik kanpo ere garatu da. Narratzaile profesionalen kasuari buruz ari gara, beti ere.

Ahozko kontalaritza berriak berezkoa duen elkartruke kulturalak (Calame-Griaule, 1991; Hernandez, 2006) euskarazkoa ere ahalbidetu du, generoari eta generoaren erabilera eta gauzatze baldintzei buruzko ezagutza intertestualak ekarriz. Hala ekin zion Koldo Amestoyk helduei kontatzeari, Okzitaniako festibal batean ahazko kontaketa helduentzako ere izan zitekeela ikusi zuenean. Orduetik, asko jardun du Euskal Herriko mugetatik kanpo. Eta haren ondotik etorri dira beste batzuk.

Kanpoan kontalari ibili edo ez, gure aurreko lanetan baieztatu dugu euskarazko kontalarien materia narratiboaren % 50 dela beste kulturetatik hartua (Diaz de Gereñu, ibid.) –ahozko zein idatzizko-. Horrek beste gai batzuk dakarzkigu mahaigainera: itzulpena, bertsoak, egiletasuna, bertso berriak, erreperorioaren osatzea...praktika honentzat erronka bereziak direnak. Euskarazko kontalariak beste hizkuntza eta kultura batzuetan antolamendu, eztabaida eta teorizazio, praktika ereduak aurkitzen dituzte.

Generoa ulertzeko arazotegi berria dugularik, hizkuntzaren ekintza bera ulertzeko modu berriak etorri zaizkigu: a) Bai erabiltzen den materia narratiboaren aldetik eta baita honen ordenamendu eta trataeraren aldetik ere: norberaren erreperorioa eraiki, tradizioa iraunarazi eta estilo propioa aurkitzearen joan etorrian; b) Konta-praktika bera ulertzeko modu berria; c) Ahozkoa eta idatzizko adierazpideak artikulatzerako orduan -nahiz eta guk dagoeneko osagarri gisa ulertzen ditugun-elkartasunez aritzen dira bata bestearekiko kontalarien praktikaren eraberritze honetan.

Azkenik, badirudi bidegurutze intrakultural eta interkultural baten aurrean gaudela kontalarien praktikei enuntziatio alderditik begiratzen badiogu: euskarazko kontalarien enuntziatioetan beste kulturetan esandako diskurtsoak ageri dira; askotariko ahotsak ekartzen dira enuntziatziora; ikuspegi kultural anitza erakusten da. Tradizioan norbanakoaren inguruan eraikiago zegoen praktika narratiboa zela dirudi; egun balio interkulturalak erdigune dira. Eta aipatu dugun hau heteroglosia ez beste (Bakthine, 1992) arazo bat da, ez baikara ari hizkuntza bateko kodigo, estilo eta genero ezberdinen erabileraz: kultur elkartrukearen merkatuan beste zirkunstatzia batzutan sortu diren diskurtsoen ebokazioaz ari gara. Beraz, dialogismo interkulturalaren planteamendutan murgildutako kontalariak ditugu egungo hauek.

Amaitzeko nabarmendu dagigun tradizioaren (edo hobe esan, tradizioen) jarraipenean genero bat berri edo berrezarri dela narrazioa ulertzeko eta irudikatzeko

modu berriekin batera. Beraz, horrek kontalariaren egiten jakitearen gainean aldaketarik ekarri duela pentsatzekoa da.

Paul Delarue aipatuz Urkizuk hala dio: “Gaur egun ahozko tradizioan txertatutako ipuinek ia galdua dutela bere funtzio estetiko eta soziala, alegia, neguko arratsalde luzeetan nekazari eta artesauen auzo-lanbilerak arindu eta alaitzearena.” (Urkizu, 1994:160).

Beharbada ahozko tradizioko kontakizunek beste eremu batzuk aurkitu dituzte kontalaritza berriaren sorrerarekin, berriak diren kimuak *txertatzeko*, testuinguru haietan zuten funtzio etena gertatu bada ere.

“Convenons que “le texte ” est une dimension du langage et que “les textes” constituent l’objet empirique de la linguistique. Loin d’être dépassé par de nouveaux médias, le texte connaît un nouvel âge, comparable à la révolution philologique et éditoriale de la Renaissance.” (Rastier, 2001:3)

BIGARREN ZATIA: EUSKARAZKO KONTALARITZA BERRIAREN ZEDARRITZEA: MINTZAIRA ALDERDIEN EZAUGARRITZEA.

Luzetxo atera zaigu tesi honen lehenengo zatia edo kapitulua. Izan dugu horretarako arrazoirik. Euskal irakurleak ez du eskuragarri kontalaritzaren berri ematen duen testurik. Bada gaiaren gaineko bibliografia, baina nahiko sakabanatua agertzen da eta irakurleak arazoak izan ditzake bertara jotzeko euskararen esparruko bibliografiatik abiatuta, bederen.

Hortik aparte, gabiltzan arazoan, gaiaren egoera zein den jakiteko ere lagungarri izan delakoan gaude aurreko lehen zati hori; halatan, a) gaiaren aurrekarien aurkezpena egiteko balio digu, gaiaren problematika orokorra ekarriz; b) kontalaritzaren esparruan egin diren eta egiten diren ekarpenen berri eman da, modu kritikoa; c) azkenik, gerora begira, azterkizun dauden arazoak mahai gainean jarri zaizkigu.

Horiek horrela, egun kontalarien jendaurreko berbazko praktikak nagusiki *konta-saio* deritzen mintza jardunetan gauzatzen direla gogoratu behar dugu. Konta-saio hauen izaera eta mintzairaren aldetiko ezaugarri nagusiak zedarritzeak osatzen du gure lan egitasmoaren bigarren atala, beti ere, testu enpirikoen behaketatik abiatuta dagoena. Helburua, zehazki, kontalaritza berriaren gauzatze modu nagusia irudikatzen duten konta-saioak testu genero bezala deskribatzea eta ezaugarritzea da, jarraian aurkeztuko diren marko teorikoa (8.) eta lan prozedurarekin (9.).

Tesiaren bigarren atalaren emaitzatat jo behar da lan prozedura bera, testuen behaketatik beren beregi sortua. Konta-saioa genero bezala ezaugarritzeko balioa izango luketen emaitzak, berriz, hiru multzotan emango ditugu, konta-saioaren egitura nagusia osatzen duten atalak jarraituz: irekiera (10.), garapena (11.), itxiera (12.).

8. Oinarri-teoriko metodologikoak.

Gatozen, honenbestez, tesi lan honetan oinarri izango ditugun irizpide teorikoak eta orientabide metodologikoak azaltzera.

Geure egiten dugu Bronckartek (1985, 1996) eta haren lankideek (Dolz, Pasquier, Schneuwly, ...) proposatzen duten ikuspegia, hau da, Interakzionismo Sozio Diskurtsiaboaren (aurrerantzean ISD) ildotikoa. Genebako eskola horrek izan du gure artean jarraipen sendoa (Arano et al., 1991; Idiazabal & Larringan, 1999; Larringan, 2009; Idiazabal & Garcia Azkoaga, 2007; Plazaola & Alonso, 2007; Garcia Azkoaga & Idiazabal, 2015), eta beraz, lan hau ere, ildo horretara batzen da.

Badugu arrazoirik ikuspegi hori hautatzeko. Batetik, mintzairaren funtzionamenduari buruzko oinarri sendoak eskaintzen dizkigu; bestetik, metodologiako orientazioak ere eskaintzen ditu; azkenik, hizkuntzen didaktika hurbiletik aintzat hartzen da, teoriaren eta praktikaren arteko zubia eginez.

Planteamendu teoriko honetako bi azterketa eredu edo ekarpen interesatzen zaizkigu gure lanerako: a) mintzairazko ekintzaren eredia, eta b) testuaren arkitekturaren eredia. Honela dio Bronckartek: “Les produits de base de l'ISD sont de une parte le modèle de l'action langagière, qui vise à conceptualiser les conditions synchroniques des textes, et le modèle de l'architecture textuelle” (Bronckart, 2005:155).

Ikuspegi honen arabera (Bronckart, 1996), mintzaira giza-jardueraren baitako ekintza da. Mundua irudikatzeko baino, komunikatzeko tresnatzat jotzen da mintzaira eta lanabes soziala den neurrian, gauzak egiteko eta elkarri eragiteko erabili ohi da.

Testua komunikazio-ekintza baten hitzezko emaitza dugu, hiztunak testuinguru batean duen asmo komunikatiboaren eraginez sortua: zentzu batasuna du, alegia, itxiera semantikoa eta komunikatiboa du. Mintzaira ekintza testu bidez gauzatzen da; hiztunak ez du beste biderik testura jotzea baino. Testua berbazko produkzio unitatea da, komunikazio egoera bati lotua. Ahozkoa zein idatzizkoa izan daiteke, luzeagoa edo laburragoa. Jakina, testu bat osatuko badu, hizkuntz natural bateko baliabideak baliatu beharko ditu. Zerbait paradoxikoa badirudi ere, ordea, testua hizkuntz unitatez osatua dagoen arren, berez, ez da unitate linguistikoa, komunikatiboa baizik, ekintza psiko-soziologiko batek sortua da eta. Ikus dezagun astiroago guzti hau, mintzaira ekintzak, testuak eta generoak duten lotura zedarrizteko.

8.1. Mintzaira ekintzaren eredia

ISDren ereduak mintzaira praktikek nola funtzionatzen duten azaltzen digu, hau da, hizkuntz praktiken alderdi psikosoziala edo egoerazkoa deskribatzen du. Testuaren ekoizpen sinkronikoan parte hartzen duten baldintzen kontzeptualizazioa garrantzitsua da jarraituko dugun lan prozedura gidatzen duelako.

Testu ekoizleak edo hiztunak, mintzaira ekintza jakin bat burutu nahi duelarik, egoera horretako parametroen gaineko irudikapenak egin beharko ditu, hala parametro fisikoei edo materialei dagokienean (denbora, espazioa, ...), nola parametro sozio-subjetiboei (enuntziatzailea, solaskidea, ...) dagokienean ere. Mintzaira ekintzaren testuinguruaren lehen eta bigarren alderdiak dira aipatutakoak, fisikoa eta psikikoa, hurrenez hurren. Era berean, testuinguruko parametroen irudikapen hauek eduki tematikoekin -erreferentziazkoekin- elkarreragin estuan daudela gogoratzen digu Bronckartek (1996:49).

Irudikapen horiek lagun, hiztunak ezagutzen dituen eta eskura dituen testu moldeen artetik, hots, generoen artetik, bere ekintza egokien bideratzen laguntzen duen generoa hautatuko du. Dena delako hizkuntz naturalean erabilgarri diren generoez hiztunak duen ezagutzak osatzen du intertestua; eta berau da mintzaira ekintzaren kontestuaren hirugarren alderdia, propioki berbazkoa dena. Testuarekin batera, beraz, generoa eta intertestua nozioak sartzen zaizkigu:

L'**intertexte** est constitué de l'ensemble des genres de textes élaborés par les générations précédentes, tels qu'ils sont utilisés, et éventuellement transformés et ré-orientés, par les formations sociales contemporaines. (...) l'organisation de ces genres se présente sous forme d'une *nébuleuse*, comportant des ensembles de textes assez clairement délimités et étiquetés par les évaluations sociales, et des ensembles plus flous composés de sortes de texte pour lesquels les critères d'étiquetage et de classement restent mobiles et/ou divergents" (Bronckart, 1996:103).

Mintzaira ekintza gauzatzeko lokutorea (agente) haren berbazko komunitateak eskura jartzen dizkion konstrukto teorikoak diren testu generoen ondaretik aukerak egitera derrigortua dago (adopzioa), beraz. Genero horiek, intertestuan eskuragai daudenak, etengabe egokitzen zaizkio beharizan komunikatiboen garapenari.

Horrela, bada, prozesu bikoitzari heldu beharko dio hiztunak. Alde batetik, mintza komunitatera joko du, eta bertatik hartuko du genero bat; ez da hutsetik hasten,

aurretiaz ezer ez balego bezala. Bestetik, genero hori kontuan hartu ondoren, egokitze - berriztatze- ahaleginak egingo ditu, aldaketak hartaratuko ditu, eta xehetasun partikularrez hornituko bere testua. Sarritan, jakina, mota mugatu xamarreko komunikazioetan, oso erraz asmatzeko moduko ereduak izango ditu; beste batzuean ez, ostera. Guzti honen emaitza zera izango da: testu enpiriko berria bat, testu ale bat, aipatu bi alderdiak elkartzen dituen: dimentsio generikoa eta dimentsio partikularra. Produzio eredu honi “egoerazko eredu” ere deitu ohi zaio.

Ikuspegi hau bereziki interesatzen zaigu, testu partikularrek, intertestuarekin eta generoarekin interakzioan, kulturaren semiotizazio maila bat ordezkatzeko baitute. Beraz, kontalarien testuen analisiak, kontu-saioa bezalako genero bat gauzatzean genero horrek intertestuan eta kulturaren duen izaera, lekua eta garapena erakuts dezake:

C'est dès lors dans le cadre de ces unités et relations sociolinguistiques particulières et arbitraires que s'organisent les représentations humaines de l'activité et des connaissances; la sémantisation linguistique “redouble” et “re-interprète” ainsi la sémantisation proprement actionnelle. Enfin, quelle que soit la langue maternelle utilisée, les activités langagières prennent la forme concrète de *genres de textes*, indexés à des contenus et à des situations communicatives plus ou moins spécifiques. Ces genres exhibent dès lors certaines formes de dépendance à l'égard de ces contenus et de ces situations, tels qu'ils se présentent dans un espace culturel particulier, et ils portent également les traces des processus sociosémiotiques qui ont présidé à leur construction historique dans ce même espace. Les genres constituent dès lors un troisième niveau de sémantisation du social. (Bronckart, 2002: 200)

Horrela, Bronckarten arabera (2002), kultura *soziala zehazki aurkezten den modua* da, edo nahi bada egoera sozio-historiko jakin batean gauzatzen diren jarduerak edo antolaketa kolektiboak, berbazko irudikapenak eta testu jarduerak antolatzen diren moduak.

8.2. Testuaren arkitekturaren eredu

Eredu hau, aurrekoa ez bezala, “ez-egoerazko eredu” litzateke, eta ez litzateke kontuan hartuko produkzio egoeraren parametro desberdinak. Izan ere, testu enpiriko baten deskribzioa egingo bada, ez da aski mintzaira ekintzen arabera hura deskribatzea: beharrezko da testuaren barne egituraren eta antolamenduaren berri emango duen azterketa eredu bat ere eskura izatea. Beharrezko da mintzaira praktiken alderdi linguistikoak azalduko dituen eredu bat ere izatea. Testuaren arkitekturaren eredu baten

premia dugu oraingo honetan, hau da, testuaren barne egituraren azterketa bideratuko duena. Azal dezagun zerbait gehiago azkenengo eredu hau.

Genebako planteamenduari jarraiki, barne arkitekturak hiru maila lituzte:

- Testuaren azpiegitura, hurrengo hiru esparruok biltzen dituelarik: planifikazioa maila / testu planoak eta sekuentziak (Adamen proposamena onartzen da teorizazio honetan); diskurtso motak;
- Testuratze mekanismoen maila (izen kohesioa, aditz kohesioa, konexio);
- Kontuan hartze enuntziatiboaren, ahotsen tratamenduaren, eta modalizazioaren maila. Lan honetan, gure aldetik, planifikazioaren gainean dugu interesa.

Gorago esan da testua beti ere molde bateko dela, hau da, genero bateko. Horrek esan nahi du posible dela edo behar lukeela testuak multzo ezberdinetan biltzea, testu erak identifikatzea, honako edo halako testuak multzotan kategorizatzea. Esan ohi dugu testu hau molde honetakoa da, beste hura, beste batekoa. Generoak bideratzen ditu, hain zuzen, hizkuntzaren eta jardura sozialaren arteko interakzio maila (Bronckart, 1996; 2005).

Testua eta generoaren nozioak elkarrekin datozkigularik, bien arteko erlazioa eta gorabeherak deskribatu beharko dira, zeren eta bete betean harrapatzen baitu gure lana: aztergai izango ditugu zer-nolako testua dugun kontu-saioa, zer generotakoa den, zer osaera duen, zein den generotasunaren maila, zer paper betetzen duen generoak corpuseko mintza praktika jakinetan; zer elkar lotura dagoen hizkuntz-produkzioen eta testuinguru sozialen artean; e.a. Hau dugu interes-gune nagusia gure corpusaren azterketan.

Testua eta generoa banaezinak dira: ez dira kontrajarriak, osagarriak baizik. Bien arteko ibilbidea bi norabidetan egiten da, bi muturren artean oszilatzen du (alderak kargak barne):

- Testutik has gaitezke eta, testua aurrean dugularik genero bila aritu, hala nola testuko eta testuetako erregularitasun testualak jasoz, elementu konbergenteak eta konbentzionalak ekarriz, osagai egonkorak eta kristalizatuak nabarmenduz. Erregularitate horiek testuaren ezaugarriak identifikatzeko irizpide izango dira;
- Edota, generotik testurako bidea egin ahal da: ibilbide honetan generoaren plataforma gisa jotzen da, beste testu bat ekoizteko formatuarena

egingo lukeena. Kasu honetan generoa testu bat egiteko erreferentzi gisa hartuko litzateke. Generoaren gaineko ezagutzak -hala ekoizlearenak, nola hartzailearenak- testua sortzeko baliabide eta orientabide lirateke.

Gure analisisian egingo duguna, hain zuzen, lehenengo norabidean jokatzea izango da testutik generorako norabidean. Bigarren ibilbidea berriz, generotik testura doana, bereziki garrantzitsua da hizkuntzen irakaskuntzarako eta didaktikarako.

Honez gero, ohartu gara arkitektura eredu hau zuzen lotua dagoela gure lanaren helburuarekin, besteak beste, konta-saioen izaera eta dimentsio generikoak erakutsi nahi baititugu.

9. Lan prozedura

Metodologiari dagokionean, hizkuntza bere erabileran aztertuko da, hots, ingurune batean eta komunikazioa helburu duenari: hiztuna/igorlea, hartzailea, asmo komunikatiboak eta abar kontuan hartuta. Testu enpirikoa funtsezko kategoria dugu. Testu enpiriko bakoitzak, mintzaira bezala, historiari, gizarteari eta kulturari estuki lotuta dagoela ikusi dugu.

Goitik beherako azter-ibilbidea proposatzen da, honelatsu: jarduera orokorrak --- > mintzaira jarduerak ----> mintzaira ekintzak ---> testuak ----> hizkuntz unitateak. Era berean, giza jarduerak lehentasuna dute jarduera komunikatiboekiko. Arrazoi horregatik, generoa - balio soziala, alegia- testuarekin lotuko da eta lehentasuna izango du hartuko dugun ikuspegian.

Egungo euskarazko kontestu kulturean sortzen diren konta-saioak deskribatzean kontutan izango dugu generoak berez anitzak eta aldakorrak diren ezaugarriak izango dituela. Generoak agertu/desagertu egin daitezke, moldaketa eta berragerpen eta guzti. Motibazio sozial, elkartruke egoera edota komunikazio euskarri berrien araberrako etengabeko aldaketari lotuak daude generoak. Horregatik uste dugu, konta-saioen kasuan, genero aldetik izan dezakeela halako oihartzun berbazko komunitatearen intertestuan, esan dugun moduan, inor ez baitio mintzaira ekintzari ezerezetik ekiten. Norbanakoen mintzaira ekintzen metaketak dira eta garapenaren motore edo eragile:

(...) ce processus d'adoption-adaptation génère lui-même de nouveaux exemplaires de genres, plus ou moins différents des exemplaires pré-existants. Et que c'est en conséquence par l'accumulation de ces processus-individuels que les genres se modifient en permanence, et prennent un statut fondamentalement dynamique ou **historique**. (Bronckart, 1996:106).

Lehenik, azterketa enpirikoaren oinarri izan den corpusa osatzen duten testuen aurkezpena egingo dugu, eta ondoren, testu horiek aztertzeko prozedura zehatza azalduko da.

9.1. Corpusa

Azterketarako corpusa egungo euskarazko kontalarien berbazko praktikan gauzatzen den mintzajardunen grabaketaz osatu da. Konta-saio horiek kontalaritza berriaren mugimenduan edo mugimendu horretatik gertu dabilzan kontalarienak direla kontsidera daiteke, testi lan honen lehen zati nagusian azaldu den guztiagatik. 1998 eta 2004. urte bitartean egindako grabaketak dira, Euskal Herriko hainbat lekutan.

Euskarazko ahalik eta kontalari aditu gehienekin kontaktuan jarri ginen bere garaian eta momentuan programatuta zituzten saioen grabaketaz osatzen joan da corpusa, inolako bereizketarik egin gabe, modu aleatorioan jaso da. Hastapeneko irizpide bakarra, kontalari aitortuen saioak biltzearekin batera helduekin, gazteekin eta haurrekin egindako saioak kopuru antzekoan biltzea izan zen.

Bada, corpusa osatzen duten saio guztiak, kontalarien ohiko jardueraren barruan grabatu dira. Behaketa egitera mugatu garenez, grabaketetarako inolako prestakuntza edo gertakari berezirik ez da adostu ikertzaile eta kontalariaren artean. Kontaketa saioak hasieratik bukaerara daude grabatuta, eta komunikazio egoeraren inguruko ohar garrantzitsuenak jasota, bereziki testuinguruaren parametro fisikoei dagozkienak.

Kontuan izan behar da kontalariak behin saioa amaituta baino ezin diotela oniritzia eman haien saioaren grabaketa ikerketarako erabiltzeko. Konta-saioen emaitza arrakastatsuak gora behera handiak izan ditzake antolaketa, eta entzuleen parte hartzearen arabera. Kontalaria ez bada konforme geratu saioarekin, gutxieneko maila bat ez izateagatik, bertan behera uzten da grabazioaren erabilera. Horrela, hemezortzi saio grabatu behar izan ziren kontalarien hamar saiori oniritzia jasotzeko. Saioen arrakastaren proportzio hau, kontalariak haien saioak burutzeko dituzten baldintza zailen erakusgarri har daiteke.

Laburtuz, hamar konta-saiok osatzen dute gure corpora: horietako lau saio haurrekin gauzatu dira; bat nerabeekin; bost helduekin. Saio horiek guztiak antolatzaile baten eskariz burutu dira eta kontalariarentzat ezezaguna den jendaurre batean.

Ondoko tauletan ikusten denez, corpora osatzen duten hamar testuak T1, T2, T3, e.a. izendapenez jaso dira, eta hala izendatuko dira aurrerantzean. Halaber, tauletan jaso dira grabaketetatik abiatuta osatu den hamar konta-saioetako corpusaren xehetasunak:

Corpora osatzen duten hamar testuen transkripzio fitxak.

1. fitxa: T1 konta-saioa	
Corpusean duen izendapena	T1
Konta-saioaren izenburua	<i>Bibir del Kuento</i>
Grabaketaren data	1998/12/09
Lekua	Eibarko <i>Ignacio Zuloaga</i> institutua
Ordua	11:00
Iraupena	82'29''
Kontalaria	Joxemari Carrere
Antolatzailea	Irakasleak
Entzule kopurua	125 bat ikasle
Entzule mota	LOGSE 2. mailako ikasleak (17-18 urte bitarte)
Parte hartze mota	Itxia/halabeharrezkoa
<p>Oharrak</p> <p>Deialdia itxia zen, institutoko ikasle jakin batzuentzat baino ez zen. Irakasleek antolatu zuten saioa eta aretoko atzeko aldean eseri ziren.</p> <p>Ikasleak erabateko arretarekin egon ziren arren, hainbeste izanik eta kontalariak hainbeste barre eraginda, transkripzioa zailago egiten duten hotsak eta barreak sarritan azaltzen dira. Batzutan kontalariak ezin du aurrera egin, barreak baretu artean inoiz segunduren batzuk itxaron behar izaten du berbetan jarraitzeko.</p> <p>Saioa areto nagusian egin zenez eta gainezka zegoenez, kontalaria oso ozen hitzegitera behartua zegoen. Zabala baino luzea zen aretoa.</p> <p>Joxemari Carrere kontalariak oholta gainean igota egin zuen konta-saio. Bertatik ezker eskubi mugitu arren, ez zen behin ere oholta gainetik jeitsi.</p> <p>Objektu gisa Maliko musika tresna bat, kaxa bat eta kondoi bi erabili zituen konta-saioa bi tartetan.</p> <p>Grabagailua oholta gainean jarri zen, lurrean. Behatzailea lehenengo lerroan, grabagailutik gertu.</p>	

2. fitxa: T2 konta-saioa	
Corpusean duen izendapena	T2
Konta-saioaren izenburua	<i>Bilintx</i>
Grabaketaren data	1998/12/09
Lekua	Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Ordua	18:00
Iraupena	69'64''
Kontalaria	Koldo Amestoy
Antolatzailea	Nafarroako Unibertsitate Publikoa (irakasle talde bat)
Entzule kopurua	30 bat lagun
Entzule mota	Bertako ikasleak gehienak (20-26 urte bitarte)
Parte hartze mota	Librea/irekia
<p>Oharrak</p> <p>Pascal Gaigne musikariarekin batera egindako konta-saioa. Konta-saio honen berezitasuna kontalaria eta musikariaren arteko elkarreaginean datza.</p> <p>Unibertsitatean bertan burutu zen konta-saioa, areto nagusian. Entzuleak sartzeko argi nagusiak itzalita zeuden eta argi leunek giro gozoa sortzen zuten.</p> <p>Koldo Amestoy eta Pascal Gaigne aurkezleak aurkezpena egin ondoren irten ziren jendaurrera.</p>	

Oholtzara atera eta bertan igaro zuten biek ikuskizun osoa.
 Koldo Amestoyk zutik egin zuen saio osoa, eszenatokiaren aurrealdearen erdi aldean kokatuta. Noizbehinka, berba egiteari uzten zionetan, atzera egiten zuen apur bat, baina bestelako lekualdatzerik ez zuen egin.
 Musikaria, berriz, batetik bestera ibili zen barreiatuta zeuden musika tresnek eszenatoki guztia hartzen baitzuten: organo elektrikoa, akordeoia, gitarra... Lekualdatzeak entzuleentzat ia oharkabeak ziren.
 Musikarekin zabaldu eta itxi zen ikuskizuna.
 Saioari buruzko eztabaida bat egon zen amaieran, baina arazo teknikoengatik ez zen grabatzerik izan.

3. fitxa: T3 konta-saioa

Corpusean duen izendapena	T3
Konta-saioaren izenburua	<i>Makilargi</i>
Grabaketaren data	1998/12/10
Lekua	Basauriko Kultur Etxea
Ordua	19:00
Iraupena	67'68''
Kontalaria	Koldo Amestoy
Antolatzailea	<i>Euskararen Bila</i> elkarte
Entzule kopurua	50 bat lagun
Entzule mota	Euskaltegiko ikasleak batez ere (25 urte ingurukoak)
Parte hartze mota	Librea/irekia
<p>Oharrak</p> <p><i>Euskararen bila</i> euskararen aldeko elkarteak antolatu zuen ikuskizuna, Basauriko kultur etxeko antzeztokian.</p> <p>Entzuleak aretoaren atzealdean jarri ziren. Kontalariak aurreratzea eskatu zien konta-saioa hasi aurretik. Deialdia irekia zen arren, entzule gehienak euskaltegiko ikasleak ziren.</p> <p>Eszenatokiaren erdian eta aurrealdean aulki bat besterik ez zegoen. Aretoan sartzerako argi nagusiak itzalita zeuden eta argi apalek giro goxoa sortzen zuten.</p> <p>Kultur elkarteko partaide batek Koldo Amestoy kontalariaren aurkezpena egin zuen eta ondoren atera zen eszenatokira kontalaria, eskuartean pandero bat zuela. Ikuskizunak iraun zuen denbora guztia aulkian eserita egin zuen. Azken agurra egiteko besterik ez zen zutitu.</p>	

4. fitxa: T4 konta-saioa

Corpusean duen izendapena	T4
Konta-saioaren izenburua	---
Grabaketaren data	1998/12/14
Lekua	Zumaiako <i>Foronda</i> Kultur Etxea
Ordua	17:00
Iraupena	Iraupena: 54'28''
Kontalaria	Pello Añorga
Antolatzailea	<i>Foronda</i> Kultur Etxea (liburutegia)
Entzule kopurua	25 bat lagun
Entzule mota	9-10 urte bitarteko haurrak
Parte hartze mota	Librea/irekia
<p>Oharrak</p> <p>Kultur etxeko ganbaran egin zen, lekuak giro goxoa eskaintzen zuelarik. Liburutegiko bi arduradun bertan zeuden. Argi nagusiak piztuta egon ziren ikuskizun guztian zehar. Haur batzuk aulkietan, eta beste batzuk lurrean eseri ziren zain zeukaten kontalariaren parean. Haurrak kokatzen lagundu eta gero kontalaria berriz aulkian eseri zen eta ez zen konta-saio guztian jaiki.</p> <p>Saioan zehar haur batek eragozpenak sortu zizkion kontalariari.</p> <p>Saioaren erdialdera haur batzuk solfeora joan behar zutela eta saioa eten egin zen, egoera kudeatze aldera.</p>	

5. fitxa: T5 konta-saioa

Corpusean duen izendapena	T5
Konta-saioaren izenburua	---

Grabaketaren data	1998/12/16
Lekua	Basauriko <i>Pozokoetxe</i> Kultur Etxea
Ordua	11:00
Iraupena	Iraupena: 55'09''
Kontalaria	Pello Añorga
Antolatzailea	Basauriko <i>Pozokoetxe</i> Kultur Etxea
Entzule kopurua	80 bat lagun
Entzule mota	7-9 urte bitarteko haurrak
Parte hartze mota	Itxia/halabeharrezkoa
<p>Oharrak</p> <p>Gela arrunt baina handia erabili zen. Alfonbra handi batek kontalariak erabiliko zuen espazioa eta entzuleena bereizten zuen.</p> <p>Laurogei bat haur bertaratu ziren irakasleekin batera eta haurrak sartu orduko lurrean alfonbraren gainean edo haren atzean eseri ziren. Ordurako, kontalaria, aulki baten eserita zegoen. Hala ere, kokatzen ere lagundu ziren. Haur guztiak eseri eta gero, argi nagusiak itzali ziren eta kontalariari zuzendutako argi xume bat utzi zen.</p> <p>Kontalariak kaxa handi bat eta danbor bat erabili zituen saioaren une ezberdinetan.</p> <p>Azken kontakizuna burutzeko antzezpen bat egin zen, eta bi haur boluntario aterako dira antzeztera.</p>	

6. fitxa: T6 konta-saioa	
Corpusean duen izendapena	T6
Konta-saioaren izenburua	<i>Ipuin beroak</i>
Grabaketaren data	2004/03/20
Lekua	Gasteizko <i>Aldabe</i> Kultur etxeko liburutegia
Ordua	19:00
Iraupena	57'
Kontalaria	Joxemari Carrere
Antolatzailea	Gasteizko liburutegien sarea
Entzule kopurua	40 bat lagun
Entzule mota	Batez ere euskaldun berriak: euskaltegietako ikasleak, helduak.
Parte hartze mota	Irekia/librea
<p>Oharrak</p> <p><i>Aldabe</i> gizarte etxeko liburutegian egindako konta-saio hau, 2003/2004 ikasturtean Gasteizko liburutegietan irakurketa sustatze aldera antolatutako hainbat konta-saioetako bat izan zen.</p> <p>Liburutegiko sarreraren pareko paretaren kontra aulki ilarak jarrita, eszenatoki gisakoa sortua zen entzuleak sartu orduko. Behin entzule guztiak eserita zeudenean baino ez zen azaldu kontalaria jendaurrean, apalategien artetik. Aulkietan kontalariaren saioaren eskuorriak zeuden.</p>	

7. fitxa: T7 konta-saioa	
Corpusean duen izendapena	T7
Konta-saioaren izenburua	---
Grabaketaren data	2004-06-20
Lekua	<i>Armentia</i> ikastola
Ordua	12:00
Iraupena	60'
Kontalaria	Itziar Rekalde
Antolatzailea	<i>Armentia</i> ikastola
Entzule kopurua	30 inguru
Entzule mota	Helduak (baina haur batzuk ere sartu ziren gurasoekin)
Parte hartze mota	Librea/itxia (ikastolako gurasoek baino ezin zezaketen parte hartu).
<p>Oharrak</p> <p>Gasteizko <i>Armentia</i> ikastolan urte bukaerako ospakizunak tarteko, gurasoentzat konta-saioa antolatu zen. Kontaketa areto nagusian egin zen. Kontalariak solas egiten du entzuleekin kontaketaekin hasi aurretik, jendeak lekua hartzen duen artean.</p> <p>Nagusientzat antolatua zen arren haur batzuk egon ziren, kontalariak saio hasieran ohartarazi arren hura ez zela haurrentzako. Espero izatekoa denez, eta haurrak izateko nahikoa lasai egon ziren arren, hurrek eragozpenak sortu zizkieten kontalariari saioan zehar. Hala ere, gurasoek ez zituzten haurrak aretotik</p>	

atera.

Lehenengo zazpi kontakizunen artean Tonino Carotoneren *Me Cago En El Amor* abestia darabil kontalariak; horretarako musika tresna bat dauka eszenatokiaren atzealdean. Aldiro, entzuleei bizkarra emanez musika tresna pizten du. Kanta zati bat entzunarazi eta gero berriz musika kendu eta jendaurrera aurreratzen da.

8. fitxa: T8 konta-saioa	
Corpusean duen izendapena	T8
Konta-saioaren izenburua	<i>Emiliano, tzolilak eta gu</i>
Grabaketaren data	2004/06/08
Lekua	Zabaldi Elkarte
Ordua	19:00
Iraupena	63'
Kontalaria	<i>Baltziskueta</i> (Aitor Txarterina)
Antolatzailea	Zapatisten aldeko astea; <i>Zabaldi</i> elkarte
Entzule kopurua	50 bat lagun; helduak.
Entzule mota	Militante internazionalistak edo sentsibilitate horren gertukoak
Parte hartze mota	Librea/irekia
Oharrak Iruñeako <i>Zabaldi</i> Elkartean, EZLN-aren alde antolatutako hainbat ekintzen artean konta-saioa antolatu zen, astearen irekiera ekintza bezala. Zabaldi elkarteko gela batean tarima txiki bat egonik, kontalariak argiak -foko bi- prestatu zituen eta atzeko horman zapi haundi bat jarri zuen zintzilik. Beraz, eszenatokia bere erara antolatu zuen. Saioaren hasieran antolatzaileetako batek aurkeztu zituen bai aste osoko egitaraua eta bai kontalariaren saioa bera. Azpimarratzekoa da konta-saio hau enkarguz egin zela, aste osoko jardunaldiaren tematika jasota.	

9. fitxa: T9 konta-saioa	
Corpusean duen izendapena	T9
Konta-saioaren izenburua	---
Grabaketaren data	2004-06-25
Lekua	Miarritzeko <i>Itsas Argi</i> ikastola
Ordua	11:00
Iraupena	38'
Kontalaria	Rai Bueno
Antolatzailea	Iparraldeko hiru irrati (<i>Gure Irratia, Xiberoko Botza</i> eta <i>Irulegiko Irratia</i>)
Entzule kopurua	30 bat haur
Entzule mota	8-10 urte bitarteko haurrak
Parte hartze mota	Beharrezkoa/itxia
Oharrak Iparraldeko hiru irratiaren ekimenez (<i>Gure Irratia, Xiberoko Botza</i> eta <i>Irulegiko Irratia</i>) konta-saio bi antolatu zituzten Miarritzeko <i>Itsas Argi</i> ikastolan. Saioak irrati ere emitituko zirenez, irrati kazetari bat zegoen tartean grabaketa lanak egiten. Kazetariak saioak amaitzean haurrei galderak egiten zizkien haien erantzunak grabatuz gerora emitituak izateko. Ikastolako jangelan izan ziren kontaktak. Kontalariak eszenatoki edo areto antzeko bat moldatu zuen aulkiekin. Bi saioetan lehena 8-10 urte bitarteko haurrekin burutu zen eta bigarrena, 5-7 urtekoekin. Lehenengo saioari dagokio fitxa hau.	

10. fitxa: T10 konta-saioa	
Corpusean duen izendapena	T10
Konta-saioaren izenburua	---
Grabaketaren data	2004-06-25
Lekua	Miarritzeko <i>Itsas Argi</i> ikastola
Ordua	12:00

Iraupena	44'
Kontalaria	Rai Bueno
Antolatzailea	Iparraldeko hiru irratia (<i>Gure Irratia, Xiberoko Botza eta Irulegiko Irratia</i>)
Entzule kopurua	30 bat haur
Entzule mota	5-7 urte bitarteko haurrak
Parte hartze mota	Beharrezkoa/itxia
<p>Oharrak</p> <p>Iparraldeko hiru irratiren ekimenez (<i>Gure Irratia, Xiberoko Botza eta Irulegiko Irratia</i>) konta-saio bi antolatu zituzten Miarritzeko <i>Itsas Argi</i> ikastolan. Saioak irratiz ere emitituko zirenez, irratiko kazetari bat zegoen tartean grabaketa lanak egiten. Kazetariak saioak amaitzean haurrei galderak egiten zizkien haien erantzunak grabatuz gerora emitituak izateko.</p> <p>Ikastolako jangelan izan ziren kontaketak. Kontalariak eszenatoki edo areto antzeko bat moldatu zuen aulkiekin. Bi saioetan lehena 8-10 urte bitarteko haurrekin burutu zen eta bigarrena, 5-7 urtekoekin. Bigarren saioari dagokio fitxa hau.</p>	

Azterketaren emaitzak ematerakoan, testu bakoitzeko adibideak lerroka emango dira, beraz, parentesi arteko *TI:98-102* zeinuak corpusa osatzen duen lehen testuko 98. eta 102. lerroei dagokiola adieraziko luke.

Iraupenaren aldetik, zenbait erregulartasun baieztatzen dira corpuseko testuetan. Corpusa biltzean kontalariak esan izan digutenez, haurrekin egindako saioek nekez gainditzen dituzte 45 minutuak, eta ia inoiz ez ordubetea. Helduekin, ordea, ordubete inguru edo piska bat gehixeago. Bada, corpuseko testuetako iraupenak kontalariak egin izan dizkiguten oharrak baieztatzen du, hiru iraupen tarte begiztatuz: haurrekin egindako saioek 54-57 minutu inguru irauten dute; helduekin 67-69 minutu inguru; nerabeen kasuan, testu bakarra dagoenez ezin dugu baieztapenik egin, baina badirudi helduen iraupenera hurbiltzen dela. Hala ere, nerabeen saioak izan ohi dira irregularrenak eta berariazko ezaugarriak dituzte (Loup & Ferdinand, 2005) eta alde horretatik, gutxienez esan dezakeguna da benetan irregularrena berori dela 82 minutuko saioa benetan luzea da eta. Beraz, dagoeneko saioen iraupenak testuak bildutako testuinguruko zenbait parametroren arteko ezberdintasun txikiak erakusten ditu.

Corpusa irizpide zehatzak jarraituz dago bildua eta transkribatua. Konta-saioen datu zehatzagoak 1. eranskinean emango dira, transkripzioarako jarraitu diren aipatu irizpideekin batera. Eranskinean bertan, transkripzio lanaren berezko ezaugarriak ere hizpide izango ditugu, ahozko hizkuntza ekoizpenaren datu biltze eta eraikitzean duen garrantzia erabatekoa da eta.

9.2. Hipotesiak

Generoak mintzaira ekintzaren eta hizkuntzaren arteko interakzioa gidatzen badu, gure bereziki interesatzen zaigu konta-saioen generoa deskribatzea, egin gabe dagoen lana delako. Generoa ekintza komunikatiboarekin lotuta dago, ekintza horren euskarria da. Konta-saiotako ekintza komunikatiboa testuinguru sozialak baldintzatua dago, hau da, instantzia sozialaren emaitza ere bada. Horiek horrela, lan hau burutze aldera hauexek ditugu galdera gidariak:

- Zein da konta-saioen alderdi generikoa, eta zein neurritan agertzen da gure corpuseko testuetan?
- Zer-nolako presentzia du dimentsio generikoak konta-saioen praktikan?
- Zeintzuk dira, bestalde, dimentsio generikoaren adierazleak?

Corpuseko testuek planifikazio mailako erregularitateak erakusten dituzte, praktika konbentzionalizatuak dira eta beraz, bereganatu dute gizartean nolabaiteko estandarizazioa. Hiztunak alde aurretiko moldeak adoptatu egiten ditu, “jaso eta jasan” egiten dituela esan dugu, baina baita adaptatu ere; eta horrek ahalbidetzen ditu berrikuntzak, momentu historikoari eta premiei begira egindako egokitzeak. Areago, zenbait ezaugarri indibidual edo estilistiko ere agertuko dira corpusean. Eta, seguruenik, hortxe ditugu genero urraketak dei genezakeekak, berriztatze sakonak. Gure hipotesi nagusia da kontalariak ez duela bere berbazko jarduna ezerezetik sortzen. Kontalari ofizioaz/ jarduteaz ari garenean, instantzia sozial eta historiko baten egiteko eta jardute moduez ere ari garela uste dugu. Kontalarien ofizioan jarduteak instituzio baten, erregimen baten arabera jokoera kontuan hartzea esan nahi du (Larringan: 1992), eta horrek, halaber, eraman behar du kontalaria gauzatzen duen testua modu jakin batean moldatzera eta jendaurrean ematera, konta-saiorekin generoarekin identifikatu nahi bada. Konta-saiotako praktika ez da hitzaldietako berbaldia, kasurako.

Zehatzago azaltzeko, erakutsi nahi dugu bi direla generotasun horren faktoreak edo ezaugarriak, eragileak eta, aldi berean, adierazleak konta-saioen testuetan: azpiegitura jakin bat izatea, eta zenbait ohiko diskurtso egintza. Horrela, ekoizleak bere ekintza komunikatzeko euskarriaren berri du, eta entzuleak ere planifikazio jakin baten bilakaera espero du batik bat, holako elkarrekintza komunikatiboetan ohi dena. Konta-saio batera hurbiltzen denak badaki, alde aurretik, zer nolako eskema izango duen, badaki zertara doan, “zein berbaldi eredutara” doan.

Azterketa burutze aldera, bi mugimendu seinalatuko dira: horizontalitatea eta bertikalitatea. Testuen azpiegitura osatzen duten bi mugimendu edo ardatz hauek, sor daitezkeen testuak oso heterogenoak izan arren, genero berekoak diren edo ez diren zedarrizten lagunduko digute eta konta-saiotako produktuak mota berekoak diren baieztatuko dugu. Zeren eta gure ustez, egitura bera erakusten baitute, oinarrizko eskema bakar baten arabera antolatzen direla uste dugu.

Kontasaia, arte eszenikoetako izaki, entzuteko ez ezik, ikustekoa ere bada. Tesiaren lehen zati nagusian eman dira gertaera honen zenbait ezaugarri. Zati narratiboak -mintzairazkoak- ez ezik bestelakoak ere badituela esan dugu: irudia, mimika, gorputz-keinuak, antzeztokia, aparailuak, soinu-argiak... Kontasaioa, gutxi asko, gertaera multimodala da. Arte eszenikoetatik ere badu beste genero batzuk baino gehiago, nahiz eta hizkuntzaren bidezko baliabideak lehentasun diren. Kontalariak (gure kontalariak), zenbaitetan, kontatu ez ezik, erakutsi ere egiten du, antzezpeneren bitartez komunikatzen du. Saiotako ekitaldiak, hein batean, ikuskizuna ere badira. Gu, esan bezala, mintzairazko alderdira mugatu gara. Ez dago denari batera ekiterik.

Jo dezagun, ondoren, konta-saioaren konposizionalitate edo osaera generikoa aztertzeraz. Bi norabidetan egingo da:

a) ardatz horizontalari dagokionean, hau da, hasieratik bukaerainoko segida kontuan hartuz gerokoa; testuaren planifikazioaz ari gara, erretorikan, “dispositio” ere esan ohi zaio;

b) ardatz bertikalari dagokionean, non estrukturatze modua erakutsiko den. Ardatz honen analisirako propio eratu dugun erremintaz baliatuko gara, “diskurtso ekintza” izendatu dugunaz, hain zuzen.


9.3. Konta-saioaren ardatz horizontalaren edo lineala

Ardatz horizontaleko osakinak konta-saioaren elementu finkoak dira,

Saioak izan daitezke laburragoak, edo luzeagoak, eta materia narratibo askotarikoz osatua. Ardatz horretan gertatzen diren elementu eta segmentu diskurtsiboak, berez heterogenoak dira, baina *ipuindu* egiten dira, “etxekotu” esango genezake, ipuin barruko izaki bilakatzen. Mintzaira egintza horrek irauten duen artean, edozer gertatzen dela ere, konta-saioaren muga barruan ulertuko da. Homogenotasuna eragiten duten elementuak kokatuko ditugu ardatz horizontalean. Hiru atal nagusi bereiztuko ditugu ardatz honetan: *irekiera*, *garapena*, eta *itxiera*. Atal nagusi hauetan

azpiatalak ere badaude, xehetasunez aztertuko ditugunak. Jarraitu beharreko sekuentzia edo hurrenkera da, beste hitzez, testu-plano (Adam, 2011) finkoa. Ezaugarri horiengatik konta-saio testuaren genero ezaugarri izango da. Hona ondorengo azalpen guztiak ulertzeko lagungarri suertatu daitekeen azpiegitura horizontalaren eskema:

0. Taula. Konta-saioa ardatz horizontalean ezaugarritzen duten atal nagusiak eta azpiatalak.



Ikusten denez, atal bakoitzean azpiatal gehiago identifikatu ditugu.

Konta-saioaren izaera generikoa defendatzen ari garen heinean, gure ustez eta corpusak erakusten duen aniztasun diskurtsiboaren gainetik goiko egitura gainartzailea edo inguratzailea da ardatz horizontala osatzen duten elementuez baliatuta. Ardatz bertikalean kokatzen ditugun beste batzuk (diskurtso egintzak) subordinazio harremanean daude harekiko.

Aurrerapen gisa goiko eskemako atal nagusi eta azpiatal nagusiak azal ditzagun:

- Irekiera atala: Lehen fase hau kontalaria eta entzuleak kontestu enuntziatibo berean aurkitzen diren momentutik lehen ipuinaren hasierara heldu artekoa da. Eratzailea da izaeraz: interakzio markoa ezartzen du, entzuleei *harrera* egiten dio. Bi azpiatalez osatua da: *saio-irekitzea* eta *atarikoak*.

- Garapena atala: Ziklo *narratibo* eta *artekaketa* atalez osatzen da garapena. Lehenak, ziklo narratiboak, konta-saioaren linealtasunean aurrera egiten laguntzen duen plataforma edo egiturak dira, errekurtsiboak eta era berean hiru fase dituztenak: aurrekaria, tratamendua eta irteera. Ziklo narratibo horiek “kontestu literario” (Marguerat et al. 2000:58) gisa jokatzeko dute. Artekaketa elementuek ziklo narratiboaren arteko zubi lanak egiten duten segmentuek dira.

-Itxiera atala: fase hau, azken kontakizunaren ondotik eta konta-saioa guztiz bukatzen den arteko berbazko ekoizpenek osatzen dute. Bi azpiatal identifikatu ditugu: *itxitura* eta *saio-ixtea*.

Konta-saioak, bada, mintzaira ekintza egituratuak dira, konbentzionalitate handiko ekoizpenak.

9.4. Konta-saioaren egitura bertikaleko osagaiak

Aurreko lerroetan, horizontalitatea deiturapean, konta-saioaren planifikazioaren osakin finkoak ekarri dira, eta defendatzen dugu testu generoaren ezaugarri direla. Beste hitzetan esanda, elementu konbentzionalak edo estandarrak direla, nolabait esan, lege edo eredu bihurtzen diren horietakoak: agertzea espero ditugun horietakoak.

Badira, ordea, beste osakin batzuk askeagoak direnak, estrukturazioari lotuak: *diskurtso egintzak* deituko ditugu. Ez dira ezinbestekoak edo beharrezkoak; ez dira lege bihurtzen, eta, zentzu horretan, testuen dibergentzi eragile izan daitezke. Baina, gure konta-saioetan, balio berezia bereganatzen dute eta birtualki derrigorrak direla defendatuko dugu: testuetan maiztasun maila handia dute, behin eta berriz errepikatzen dira, eta, garrantzitsuagoa dena, zenbaitetan konbinazioa sortak eratzen dituzte. Lehentxoago eta gerotxoago agertuko dira, gehixeago edo gutxixeago, baina testuen estrukturazioan, hortxe ditugu. Hala izateak, testu baten generotasuna adierazteko ere balio du, nahiz eta, berez, finkatze indarrak ez izan. Diskurtso egintzek probabilitatea eragin ohi dute, eta ezin uka dakieke generotasuna markatzeko adina indar. Gehiago zedarritze aldera, lehenbizi zer ez diren esango dugu; ondoren modu positiboan definituko ditugu.

Ez da hizketa-egintza (Austin, 1970; Searle, 1969) edo *diskurtso egintza* beste adiera batzuekin (Sinclair y Coulthard, 1975; Adam, 2012) nahastu behar, nahiz eta ahaidea izan. Inoiz hizketa-egintza soil batekin gauzatu daitezkeen arren (eskerrak ematea, agurtzea, hizketa-egintza zuzentzaileak, aginduak, esate baterako, e.a.), edota

hizketa-egintza jakin bat bektore lukeen testu egintzarekin (Roulet et al., 2001) antzekotasunak izan ditzakeen arren, nozio hau bestelako adierez beteko dugu.

9.4.1. Diskurtso egintza azter unitate gisa: definizioa

Gatozen modu positiboan definitzera.

Estrukturazioaren bitartez, antolaketa diskurtsiboaren eta eduki tematikoaren kontrastea eta bariazioa erakusten dute nagusiki. Konta-saioa ez da kontakizun multzo hutsa, ez da $[n1+n2+n3+n4+\dots = nX]$ kontakizun segida. Diskurtso egintzak kontakizun nagusiak direnen aurretik, bitartean eta bukaeran aurkituko ditugu. Programa narratiboari (eta ez narratiboari) ekiteko modu bat da, kotestuaren A segmentu batetik Bra pasatzekoa (Ozaeta, 2011). Diskurtso egintza berak ez du izaera eta funtzio bera hartuko saioan ematen zaion kokalekuaren eta erabileraren arabera. Modalitate ezberdinetan gauza daiteke, entzulearen arabera nahiz saioaren luzeraren arabera izan... Kontalari batek joera izango du erabiltzeko honako edo halako kantitatetan.

Adibide bat: kontalariak digresioak egin ahal ditu, eta digresioak multiplikatatu... Digresio batek osa dezake diskurtso egintza bat. Zer eragin du testuaren ikuspegitik? Edota enkastratzeak, edota desplazamenduak... Horretarako baliatutako egintzak dira.

Diskurtso egintza delako kategori hau, analisi testualean oinarritzen bada ere, unitate komunikatibo gisa definituko dugu. Unitate komunikatibo horiek banatzeko irizpide formalak eta semantikoak erabili ditugu. Noiz gaude diskurtso egintza baten aurrean? Eta zein diskurtso egintzaren aurrean? Hona hemen diskurtso egintzak sailkapena gidatu duten indizeak:

a) Diskurtso-egintzaren **helburua**: zertarako, zer egiteko da? Zein da aldaketaren helburua? zer egoera berri dakar? Galderei erantzuna duen berbazko ekoizpenak diskurtso egintza baten balioa izan dezake. Helburuaren arabera karakterizatu edo identifikatu ahal dira.

b) **Edukiaren antolaketa diskurtsiboa**: edukia zein diskurtsotan formatan datorkigu? azalpen gisa? narrazio gisa? deskripzio gisa? argudiapen gisa?...

c) Diskurtso-egintzaren **maila** edo **gradua/eskala**: Diskurtso-egintzek berbaldean intentsitatea aldarazten dute. Diskurtso-egintzen artean ere, ez dute denek intentsitate eta hedapen bera. Batzuk puntualak edo bide batezkoak dira, besteak ordea, propioki landuak, beren begikoak. Horien eraginak ezberdinak izango dira, beraz.

d)**Egoera psikologikoaren aldaketa:** Diskurtso-egintzen presentziak eragina du aldaketa sortzean, edo aldaketaren norabidean. Esate baterako, distentsio aldia dakar, edo erritmo aldaketa, joku estetikoa, eta abar.

e)**Antolatze** eginkizuna eta indarra planifikazioan eta antolaketan: kontaktaren barne dinamikan funtzio edota eragin antolatzailea dute. Datorrenari edo lehenago esan denari erreferentzia egin diezaiokete –izan diegetikoa edo ez-. Izaera anaforikoa edo kataforikoa izan dezakete, beraz. Diskurtsoaren antolaketa bideratzen dute.

T3 corpuseko testuaren lehen hamabi lerro hauek adibide hartuta ekingo diogu diskurtso egintzak nola irudikatzen ditugun azaltzeari. Beheko adibidean kolore ezberdinez markatu dira azpiegituraren lehen atal nagusiari ekiten dion segmentua eratzen duten diskurtso ezberdinak. Beheko adibideak konta-saioen planifikazioaren lehen atal nagusiaren (irekiera) zati bat ordezkatzeko du. Ikusiko dugun moduan irekiera atalean bi azpiatal daude eta horietan lehena, saio-irekitzea da. Saio-irekitzea azpiatalaren helburu nagusia interakzio markoaren ezarketa eta rol komunikatiboak ezartzea da nagusiki, geroxeago zehaztasunez erakutsiko dugun moduan. Azpital honen estrukturazio bertikala, berriz, ondoko diskurtso egintzek osatuko lukete Makilargi saioaren (corpuseko T3 testua) hasierako segmentu honetan:

Koldo Amestoy⁶³: (eszenatokian sartu da, zutik jarrita deklamaturaz) *lurrean belarrak / hondartzan harea / itsasoan ur ttanttak / airean notatxoak herriko enparantzan urratsak eta nire ahotik / hitzak! arratsaldeon!*

Entzuleak: arratsaldeon!

Koldo Amestoy: (eszenatokiaren erdian dagoen aulkian eseri da; panderoa jo eta kantaturaz) *nere ago iturritik i::xuri guziak edanen ote ditu zure belarri::ak / nere ago iturritik i::xuri guziak edanen ote ditu zure belarri::ak trandadatindidadidudidandiraridaundi / (mespretxuz) ja::! bueno zuek bezela egingo dut / lasai lasai **ze?: ze hemen** (kantatu eta kolpe bat eman ondoren belauetan utziko panderoa) **bibabibababibaba!** hortxe zarete:: u: / sartuta:: / ezin duzue ipurdia mugitu ere! (tonua jaitsiz) *berdin da!* (...) (T3:1-12⁶⁴)*

⁶³ Corpusaren transkripzioan ez bezala, ulergarritasuna bermatzeko 9. atal honetan kontalarrien izen abizenak eta parte hartzaileen izendapena laburdurarik gabe emango ditugu. Bestetik, adibideotan dauden tipografien esangura transkripzio irizpideetan finkatua da. Hortan bai, ez dugu inoiz corpusean erabili dena aldatuko adibideetan. Inoiz edo behin, atal honetan bertan segmenturen bat nabarmentzeko edota aurrerago aditz formen aldaketa edo partikula diskurtsiboren bat nabarmentzeko koloreztatze grisa erabiliko da. Gainontzekoan, corpusean dagoen transkripzioa erabatean errespetatuko da.

⁶⁴ Adibideak ematerakoan, bukaeran, zein testuri eta zein lerro-artekeko segmentua den adieraziko da parentesi artean.

Lehen “arratsaldeon” arteko segmentuarekin kontalariak entzuleekin lehen kontaktua hartzen du, elkarrekintzaren izaera estetikoa agerian utziz eta kontalariaren rol komunikatiboa ezarriz. Hau guztia, sarrera formula deitu ohi den formazko baliabidea erabiliz, era honetako performantzeen interakzio markoa giltzatzeko, ezartzeko, baliabide tipifikatua (Bauman, 1977).

Lehen eta bigarren “arratsaldeon” segmentuak elkarrekintza arruntagoetako solasei ekiteko ohikoa den hurren-bikotea dugu formalki, aurreko segmentua kontrastatuz, erantzuna eskatzen duen agurtze hizketa-egintza. Semantikoki, kontalari/entzuleen arteko berbazko kontaktua burutzen da, oso laburra eta kasu honetan helduen konta-saio bat izanik, apenas gertatuko den moduan.

Berriz, “*nere ago iturritik ... trandadatindidadididudidandiraridaundi*” arteko segmentuan, semantikoki interakzio markoaren rolen lanketari berrekiten zaio, oraingoan kontalariaren rola gogoratzeaz gain entzulearena ekarriz. Formalki, berriz ere formula erako baliabide formala aurkitzen dugu.

Azkenik, “(mespretxuz) ja::! bueno zuek bezela egingo dut (...)” ondotik dagoen segmentuak berriz ere, eta itxura batean behintzat, formalki ohiko solas elkarrekintza egoeretako enuntziazio moduetara buelta egiten du. Lagunarteko egoeratan –batzutan behinik behin- baino onar ez litezkeen kortesia hatsarreak hautsiz rol komunikatiboak hausteko mehatxu bat dakusagu. Mehatxu hau, konta-saioa deritzagun makro egintza komunikatiboaren barruan, jolas ludiko bihurtzen da, entzulea xixatu eta liluratzeko baliabidea, noski.

Ohar bedi irakurlea, aipatu ditugun lehen eta hirugarren segmentuak edo diskurtso egintzak sekuentzi bat osatzen dutela formalki eta bigarren eta laugarren daudenak, beste bat. Lehen sekuentziak (1. eta 3. segmentuak) baliabide metanarratibo ludikoak darabiltza eta bigarren sekuentziak (2. eta 4.), hizketa-egintza arruntagoak. Zinez dira konplexuak planifikazio maila ezberdinak, euren arteko hartu-eman eta joan-etorriak linealtasunean aurkitzen duguna gainditzen dute. Bada, diskurtso egintzek txandakatze sistema berezi bat osatzen dute, konbinazio modu jakinak osatzen dituzte, eta lan honetan ezingo dugun konplexutasun guztiaren berri eman.

Horrela, diskurtso egintzek, miszelanea, mosaiko efektuko azpiegituraren estrukturazioa ahalbidetzen dute, askotariko berbaldi moduen, enuntziazio moduen eta haiekin lotutako eduki askotarikoen erabilera eginez. Estrukturazio elementu garrantzitsuak dira, inola ere.

9.4.2. Diskurtso egintzen kategorizazioa

Diskurtso egintzak honelatsu definitu eta kategorizatu ditugu:

a) Berbaldi bariazioak dira: formarekin eta bereziki edukiarekin dute lotura. Diskurtso edo berbaldi “bariazioak” dira izatez; bariazio horiek berbaldiaren edo diskurtsoaren organizazioarekin zerikusi estua dute, esan gura da diskurtsoaren organizazioan parte hartzen dutela: eragile eta adierazle lana egiten dute (era, berean dira adierazle eta eragile// indize eta faktore).

b) Bariazio horiek berbaldiaren organizazioan eta antolamenduan dute eragina; saioaren garapenean:

-Egiturari dagokionez, berbaldiko uneak nabarmentzen dira; joan-etorriak kontrastatzen dira, oposizioak izan gabe; berbaldiko une batzuen nabarmentze eta kontrastea markatzen dute. Komunikazioaren momentu ezberdinak fokalizatzen dituzten berbazko adabegiak dira.

-Enuntziario alderdiari dagokionez, erregulazio indizeak edo adierazpenak dira: kontrol baliabideak. Berbaldiaren erregulazio baliabideak edo estrategiak dira (Charadeau, 1985): seinalatzea, markatzea, nabarmentzea, bapatekotasunari aurre egitea, desplazatzea, ahotsen markatzea, e.a.

-Komunikazioari dagokionez: interakzio dimentsioa nabari zaie. Komunikazio mailako eragileak dira: askotariko berbaldi eskemak ekartzen dituzte, elkartrukeak bideratzeko eta markatzeko moduak dira. Elkarrizketa eta interakzioaren nolakotasuna, hurbiltzea, publikoarekin harreman *hurbila* eta *intimoa* lortzea, parte hartzaileen arteko lotura erdiestea, beren arteko emozioak, e.a. Beti ere berehalakoan gauzatzen ari den egoera komunikatiboak eskatzen duen kontalari-entzule harremana hartu-emanen eraikitzen dela kontutan izan behar da. Finean, kontalariak publikoarekin eraikitzen duen harremanaren kudeaketa ahalbidetzen dute.

Bariazio batzuk prebisibleak dira, aurreikusgarriak. Portaera horrek nolabaiteko izaera asmagarria ematen diote kontatzaileari. Nolabaiteko tipizitatea edo antzekotasuna. Ondorioz, eta corpusaren behaketa enpirikotik abiatuta diskurtso egintzen kategorizazioari dagokionez, honako kategoriak erdietsi ditugu:

Diskurtso egintza mota	Azpikategoria	Ezaugarriak
Narratiboa	Narrazio soila	<p>Narratiboak diren enuntziatu multzoa edo segmentua. Eskema narratibo bati legokiokeen ezein zati osatzen duena. Funtzio narratiboa dute.</p> <p>Adibidea:</p> <p>“herritarrak abiatu zien alde batetik eta bestera otsoen bila / eta gure hiru lagunak elkarrekin / batak / ma! e! (solasa) <i>otsoa! otsoaren larrua izango da: lehendabizi: ikusi / duenaren / duenarentzat / a ezezezezezeze!</i> lehendabizi / <i>tiro</i> / botako dionarentzat izango da larrua / ba ez jaunak / ez / ez! <i>hil</i> / otsoa <i>hil</i>(txaloa)-go duenarentzat izango da larrua / ezezezezezeze <i>ikusi</i> / nahikoa da ikustea / ezezezezeze tiroa botatzea nahikoa da / e! horre / horrela ari ziren hiru lagunak eztabaidan / eta orduan entzun zuten hortxe hurbil hurbil atzekaldean holako / (otsoarena eginez) <i>u:::.....</i> / “(T3:232-241)</p>
	Sarbide narrazioak	<p>Narrazio segmentu hauek kontakizunen aurretik aurkitzen ditugu, kontakizun nagusi izango diren aurretik. Narrazio antza dute baina osagabeak dira, gai baten iradokitze edo aurrerapen gisa jokatuz. Inoiz, ondoko adibidean bezala, bertsio berri bat osatzeko aitzaki bilakatzen dira. Funtzio interaktiboa eta estetiko nabarmentzen zaie. Adibideko narrazio segmentua argiagoa ikus dadin, aurretik eta atzetik dauden metanarrazio diskurtso egintza soilak ez ditugu ezabatu:</p> <p>Adibidea:</p> <p>“eta ezagutu nuen lenengotako ipuin bat / hauxe zen / ezta? euskal ipuin bat / um? Joxe Mari Barandiaran:-ek / jaso! baiñan ()/ bueno / kontatuko izuet / Barandiaranek jasatako bers / jasotako bersioa / eta gero / benetazko bersioa / ez? nik esan a! hemen / trukoa dao / ipuiña / ho honela dio / zorioneko garai haietan / mundu guztiak / hitzegiten zuen / animaliak / landareak / goroldioa ezik / orduan / hasi ziren denak / goroldioari / hitzegiten irakasten / baiñan orduan / denek / mututu egin ziren / denak! gizakia ezik / hori da ipuiña / eta esate (X) (dudazko soinu sabaikaria) / hemen zerbait falta da /” (T6:119-128)</p>
	Artekaketa narrazioak	<p>Narrazio segmentu hauek makro egituran kokatzen dira, kontakizunetik kontakizunerako saioaren aurreratzea dakarte.</p> <p>Adibidea:</p> <p>“Koldo Amestoy: (...) ahoa zabal zabalik dao Bilintx / a amak / be behin da berriro kontatzen dio be bere istorioa / ahoa zabal zabalik entzuten / entzuten / o:: ez du Annak kontatzen herritarrei ez eta auzokoei! familian bakarrik / bere senarrai / eta semeai! da semeak entzuten entzuten / ta senarrak / bere emazteak esandako guziak baieztatzen / e! hau ezta ametsa izan! Anari gertatutakoa / ez ote da / urrezko m erramu batekin etxera bueltatu? bai! Tomasek buruan dauka gogoan dauka entzuna du behin be baino gehiagotan herritarrek esaten / o::! Anari gertatutakoa eztela egiazkoa! e:ztela sinetsi behar haur gertatu denik! bainan / Tomasek dio ez dela esan behar hau hala izan ez denik! a! ez ote da geroztik / barkua / mugittu gabe / hortxe gelditu! gau osoan! m::? h:! gure: Bilintx Bilintx xoratzen da! gloriatzen da! aitta ama eta a hauen adixkide lagun arrantzale eta marinelek kontatutako gauzekin! egoten da pau ahoa zabal zabalik!” (T2:262-275)</p>
Meta-narratiboa	Soila	<p>Narrazio ekintzari berari erreferentzia egiten dioten enuntziatu multzoa.</p> <p>Adibidea:</p> <p>“Koldo Amestoy: (...) eta hortan daukat holako arazotxo (kriskitin) bat / e ipuinak / ipuinaren (txaloa) ondoan beti ipuinen ondoan / ez dakit</p>

	<p>ezagutzen dituzuen ipuinak zuen liburuetan edo ()! badaude beti ondoan holako e / e nola: / hitzarmen batzu / hitzarmen hoietan esaten da ipuina kontatu behar dela horrela horrela eta horrela kontuz horrekin detaileak () bueno / kontatzeko:: () eta ipuin horren / a m hi hi hi hitzarmenean / paragrafo bat dago / eta zatitxo hortan / esaten da / (agintera tonuaz) <i>kandela erretzeko denbora guzian ez duzu ipuinik kontatu behar / erretzen utzi behar duzu kandela osoa / bo! beti da momento:: () / “(T3:270-279)</i></p>
Kontaktuzkoa	<p>Metanarrazio enuntziatu multzo bat interlokuzio baliabide formalez gauzatzen denetan. Funtzio nagusia elkartrukearen erregulazioa egitea da.</p> <p>Adibidea:</p> <p>“Pello Añorga: (...) eta uste dezute Entzuleak: handitu Pello Añorga: puskatu zela? ta handitu! biño uste duzute puskatu zela? Entzuleak: ez” (T4:192-196)</p>
Sarbidezkoa	<p>Kontakizunen aurretik agertzen dira topikalizazio baliabide gisa, beti ere, hurrengo datorren kontakizunaren edukiei erabat lotua agertzen dena.</p> <p>Adibidea:</p> <p>“Joxemari Carrere: (...) Behenafarroakoa ez? eta istorio honetan esplikitzen da mundua nola banatuta dagoen” (T6:63-64)</p>
Ludikoa	<p>Metanarrazio enuntziatu multzo hau jolas, kanta, eta ludikotasunarekin eraikitzen da. Bere funtzio nagusia horixe da, jolas estetikoa.</p> <p>Adibideak:</p> <p>“Pello Añorga: (...) eta joan ta joan / Mari Joana Mari Joan!” (T5:578)</p> <p>“Rai Bueno: (...) hala esantzijon / (doinu berezia) <i>zokote mokote / mokote kokote zokote mokote kokote / baina nora zoaze?</i>” (T9:96-98)</p> <p>Ondoko adibidean diskurtso ludikoaren aurreko segmentu narratiboaren zati bat erakusten dugu, txandakatzea argiago ikus dadin:</p> <p>“eta abiatzen da / barkoa! arraun egin! jei! harro harro da gure Bilintx / (harro plantak egin eta papoan txalo jo du) luma / (txalo berriri papoan) beti papoan (txalo egin du poltsiko aldean) ezkata poltxikoan / da boga boga !/ (kantatuz) <i>boga / boga boga mariñela mariñela joan behar degu urrutira / urrutira / bai indietara / bai indietara ooo ea ba!</i> (erneguz)” (T2:437-442)</p>
Digresioa	<p>Momentuko berbabidea alboratu eta bestelako hizpidea jorratzen duen enuntziatu multzoa.</p> <p>Adibidea:</p> <p>“Joxemari Carrere: (...) pentsatu zuten / argi hori lapurtzea! orduan plan bat egin behar zuten / egin zuten / ze badakizue zu zerbait lapurtu behar baduzu plan bat egin behar duzu / ze ia pasteleriarena ia oso ikusia dago / (lapurretan zabar saiatu eta saltzaileak harrapatzen duen bezeroarena eginez) <i>e e e e:::!! ez e? ez du pena merezi / e? ez du: hobe da plan bat egitea / (eztarria garbitu eta bihurri itxurak eginez) e? eta gero pastelerian sartu / ez? (bezeroarena eginez) emangoiazu hango pastel hori? (saltzaileak) a bai!</i> eta (bezeroak ondoan daukana lapurtzen duela irudikatuz) <i>ez? hori da plan bat ez? egin zuten plan bat / eta / (isilago)</i></p>

	<i>halako batean beren burdiarekin gerturatu ziren egun argiz noski!</i> (T6:164-17)
Iruzkina	<p>Glosa metadiskurtsiboak nahiz edukiari buruzko iruzkinak sartzen dira hemen. Narratzailea bera bere hitzen iruzkingile agertzen da sarritan: errepikapenetan, kontalaria bere enuntziatuen irizkingile bihurtzen denetan. Interpretazioa gidatzea, egokitzeak, eguneratzeak, azpimarratzeak bideratzen dituzten segmentuak dira.</p> <p>Adibideak:</p> <p>“Pello Añorga: (...) gaur egunean esaten den bezala / e? (T5:120)”</p> <p>“Baltziskueta: (...) heldu zenean Bizar Urdina / lehenbizi / Bizar Urdina zen / tipo diruduna! nazkagarria! eta oso azkarra! batzutan / bo bi / zea hiru / hiru deskripzio bat ez? eta / batzutan bakarrik bi aldagaiak daude / beste batzutan bakarra / beste batzutan / bost / ba kasu hontan hiru! eta oso azkarra zen eta: orduan.” (T8:506-511)</p>
Azalpena	<p>Azalpen helburua eta eskema jarraitzen duten enuntziatu multzoa.</p> <p>“Koldo Amestoy: (...)i (entzuleei zuzenduz igitaia zer den ulertuko ez balute bezala) a igitaia! m! igi / igitaia da / holako esku tresna bat / ho:lako itxura bat daukana / (keinuz eta onomatopeiez irudikatuko du) <i>ui pin tan!</i> (ingelesezko <i>all right</i>) ol rait? ho:lakoa!” (T3:28-32)</p>

Amaitzeko egin ditzagun hiru ohar analisiari begira. Lehen, diskurtso egintzen kategorizazio honen aplikazioari begira dago. Goiko kategorizazioak analisisa egiteko orduan beraien arteko urtzeak onartuko ditu. Hala, baliteke diskurtso egintza bat *kontaktu egintza metanarratibo* gisa identifikatzea. Azterketak eman dituen emaitzetan emango dugu metaketa eta urtze hauen berri.

Bigarrenez, gogoratu behar da, oso kontutan eduki beharra dagoela, berbazkoak izateaz gain, oro har “ikus-entzutezkoak” ere badirela diskurtso egintzok. Hobeto esanda, ikus-entzutezko osagaiak ere lagun dituztela. Egia esan, gisa honetako faktoreak eragina dute bariazioak burutzean/markatzean, eta ezin dira bazter utzi (Fillol & Mouchon, 1977; Calame-Griaule, 1981; Kwenzi-Mikala, 1993). Zentzu emate prozesuan berbazkoa eta ikus-entzunezkoaren arteko artikulazioak osotasun bat egiten dutenaren jakitun gara. Oraingo ordea, ahozko narrazioaren kasuan kontalarien mintzajardunak merezi duen berbazko tratamendua erreparatzeari lehentasuna emango diogu. Bariazio hauek guztiek diskurtsoaren osaera laguntzen eta bideratzen dute. Horrekin batera, gure corpusean solas arruntetako hizkuntzaren erabileraz deskribatu diren ezaugarriak (Gadet, 1989, 2003; Blanche-Benveniste, 1997; Briz, 1998; e.a.) agertzen direla agerikoa da. Gogoratu behar da, ordea, metodologikoki narratzailearen eta pertsonaien arteko segmentuak bereiztuko ditugula (Arbilla & Kaifer, 1988) eta narratzailearenera mugatuko garela. Izan ere, pertsonaien ahotsetan agertzen dira gehien bat solas arruntetako ezaugarriak, baina ez hainbeste eta batez ere oso bestelako

funtzionamenduarekin agertzen dira bestelako segmentuetan. Bereizketa egitea beharrezkoa da.

Hirugarren oharrari dagokionez, esan behar dugu, badirela diskurtso egintza fatiko edo apelatiboak deitzen ditugunak. Hauek ordea, inoiz edo behin aipatuko ditugu baina ez ditugu lan honetan aztergai izango erakusten duten problematika bereziagatik. Diskurtsoan baieztapena eskatzen duten, autozentratuak, norberari egindakoak diren interlokuziozko enuntziatuak eta baita diskurtso markatzaile batzuk ere: maiz “badakizu”; “ezta?”; “e?” bezalako indizeez osatzen dira. Diskurtso egintza fatiko hauek ikonikoagoak ere izan daitezke, “*bibabibababibaba!*” (T3:11), “zirinda / zeraunda!” (T9:107) erakoak. Erregulazio funtzio argia dute. Oso neurtua eta kontrolatua da hauen erabilera. Ez gara ari pertsonaien arteko solasetan agertzen direnekin, horiek ez dira kontutan hartzen lan honetan, metodologikoki ezberdintzen baitugu atal narratiboa eta pertsonaien arteko dialogoak. Hauetan, bai erruz agertzen dira, hizkera imitatuz. Esan bezala, narrazio ataletan dauden diskurtso egintza fatikoak ez ditugu lan honetako kategorizazioan sartuko, bestelako tratamendua behar dute eta.


Azkenik gogora dezagun gure azter unitate den diskurtso egintzaren helburua zein den: metodologikoki ezinbesteko unitatea izan zaigu gure corpuseko hainbat femomeno deskribatu ahal izan ditugu, baina era berean, eztabaidarako ere proposatzen da.

10. Emaitzak I: irekiera atalaren azpiegituraren ardazketa.

Ondoren, corpusaren behaketatik abiatuta konta-praktikaren antolaketa deskribatuko da bi ikuspuntutik: ardatz horizontal edo azpiegiturari (planifikazioari) dagokionean, eta ardatz bertikal edo egituratze ardatzari dagokionean. Horietako bakoitza erregimen ere deitu dugu. Gogora lehenbizikoa dimentsio generikoaren adierazle eta eragile dela, bestela esanda, alderdi erregularrei eta finkoei esleitzen zaiela; bigarrena, ostera, diskurtso egintzei lotzen zaiela, eta beraz, indar ahulagoa izango dutela testuen generotasuna markatze orduan.

Irekiera atala konta-saioetan aurkitzen dugun azpiegitura horizontalaren lehen elementua da: kontalaria entzuleekin kontaktuan jartzen den momentutik lehen kontakizunari ekingo zaion artekoa. Irekiera ekitaldiaren edo makro egintzaren lehen fasea da; elementu para-linguistikoak ere integra ditzake. Ekar dezagun, modu eskematikoan, irekiera atalak konta-saioaren ardatz horizontalean hartzen duen lekua.

1.Taula. Konta-saioaren irekiera atalaren lekua eta osagaiak nabarmendu dira kolore grisez:



Irekiera leku aproposa da formula erako berbazko baliabideak baliatzeko, baina baita guztiz bestelako ekoizpenak agertzeko ere. Eta badago galdera zehatzik egiterik: zerk motibatzen du kontakizunei ekin aurretiko irekiera atal deritzoguna osatzen duen berbazko ekoizpena? Zein da atal honen egitekoa konta-saioaren bi ardatzei dagokienez? Bi biak ote dira erregularrak?

Atalaren barruan bi azpiatal bereiziko ditugu: saio-irekitzea eta atarikoak, eta berorien kokatzea hala ardatz horizontalean, nola bertikalean azalduko dugu.

10.1. Irekiera: ezaugarri nagusiak

Baumanek tradiziozko konta-saioen hasieran gertatzen den hizkuntz ekoizpenari *giltzatze (the keying of performance)* deitzen dio. Autoreak, kontaketa erako performantzearen azterketan Goffmanen (1974) interakzio markoaren ezarketaren teorizazioa uztartu eta berariaz deskribatzen du. Performantzearen giltzatze hori interakzio markoa berariaz lantzeko unea litzateke. Beste edozein elkarrekintzaren hastapeneko markoratzean bezala, interakzio markoaren ezarpena kulturalki konbentzionalizatutako –eta eredu formalak diren– metakomunikazio baliabideen bitartez burutzen da: “(...) the power that the performer derives from the control over his audience afforded him by the formal appeal of his performance.” (Bauman, 1977:16).

Beste era batera esanda, performantze gisako elkarrekintzak ere, generikoak diren alderdi formalekin eratzen dira. Irekiera atala horiexek agertzeko unea da. Arruntagoak diren elkartruke komunikatiboekin alderatuz, kontalariek baliabide markatu eta eredu formalizatuagoen erabilera egiten dute publikoaren parte hartzean eragiteko: “an attitude of collaborative expectancy (...) once you grasp the trend of the form, it invites participation” (Bauman, Burke zitaturaz, 1977:16).

Euskal tradizioan Kaltzakortak (1989) erreparatu ditu kontaketa ekintzaren hasierari lotutako esapide eta formulak, bereziki elkarrekintzaren helburu eta parte hartzaileen rola gai dituztenak. Gaurko kontalariek haien lan dibulgatiboetan, jasotzen dituzte kontakizunei hasiera emateko formula antzeko baliabideen zerrenda, ohar eta irakaspenak (Añorga, 1999; Irusta, 2001). Bada, gure azterketa, aurreko lan hauek osatzera etorriko litzateke, formula erako baliabideez gain bestelakoak ere erabiltzen direla ikusita.

Kontutan hartzekoa da, Baumanek giltzatzerako berbazko baliabideen zerrendarekin batera, zerrenden eraginkortasun urriaz ere ohartarazi gintuela: “the essential task in the ethnography of performance is to determine *the culture-specific constellations of communicative means that serve to key performance in particular communities*” (Bauman, 1977:17). Bada, zerrendak baino, konta-saioen giltzatze moduak eta komunikazio funtzioak interesatzen zaizkigu hemen.

Lehenik, irekiera atalaren definizioa eskainiko dugu:

a) Kontalaria eta entzuleak egoera komunikatiboa partekatzen hasten direnetik saioko lehen kontakizunari ekin bitarteko tartea hartzen du. Programa diskurtsibo-

enuntziatiboak duen egituraren lehen atala da, beronen une espezifiko bat ordezkatzeko duelarik. Estrukturalki eta linealki lehen posizioa dagokio, eta printzipioz, aldakaitza da.

b) Ekintza komunikatibo honen programa diskurtsibo-enuntziatiboa eta rol tematikoaren hedakuntza, aldiz, aldakorra eta zirkunstantzien arabera da; balio semantiko, pragmatiko eta narratibo aldakorreko informazio gehigarrien multzoa eduki dezake.

c) Badirudi bere lana narrazio indizeekin edo zati narratiboarekin konektatzea dela. Honela, kontalaria aktore (Goffman, 1974) den heinean, figuren lanketa egiten du⁶⁵, kontalariaren rola hartuz. Bere rol diskurtsiboa estalki figuratibo baten pean jantziz (Kerbrat Orecchioni, 1996). Indize zirkunstantzialen multzo batez lagun daiteke (elementu para-linguistikoz), hala nola: kaxa, (gero saioan zehar ager daitezkeen objektuak gordetzen dituen) edo poema edo abestiren bat.

d) Programa diskurtsiboak era berean bere ainguraketa historiko-narratiboa osatzen duten leku eta denbora indizeak eduki ditzake, esaterako: pertsonai baten edo kontalariaren beraren biografia osatzea, geografia imaginarioen erabilera, erreferentzi mundu jakin baten inguruko espazio eta denbora indizeak abiapuntu gisa erabiliz, e.a. Bestelako indizerik ere aurkitzen dugu: estalki terapeutiko baten pean jantzen den saioa, bizi esperientzia eraldatzeko une bihurtuz saioaren hurrena.

e) Behin diskurtsioa espazializatua eta tenporalizatua (zirkunstantzializatua), sar litezke geroko funtzio narratiboak erabakitzen dituzten aspektu-indizeak, kontaketa markatzeko erabiltzen diren elementuak: denboran atzera joatea eragiten dutenak, gertakizun bat aurreratzen dutenak, kontakizunek entzuleei lekarkiezen onuren aurrerapena...

Logikoa denez, agerpen figuratibo (eta sinboliko) zirkunstantzial guzti hauek, kontaketa ainguratzeaz gain, gorde dezakete saioaren programa diskurtsibo-enuntziatiboko hurrengo fase bateko esanahi sare zabalagoetan integragarriak diren beste balio semantiko eta narratiboak ere.

f) Enuntziatio eskemaren (Charaudeau, 1985) antolaketa aurkezten da: entzulea lehen kontakizuneraino eramango duen programa diskurtsiboa da. Erritualizaziotik asko duen momentua da: elkarrekintzan parte hartzen duten rola banatu eta enuntziatio eskema zehazten den une berariazkoa.

⁶⁵ Figuren lanketaz gogora ditzagun Goffmanen hitzak: “(...) tout ce qu'entreprend une personne pour que ses actions ne fassent perdre la face à personne (y compris elle-même)” (Goffman, 1974 : 15).

Hizketa edo solas arruntean ez bezala ekiten zaio elkartruke komunikatibo mota honi. Badira testuetako ekoizpen heterogeneoan komunak diren alderdiak, konta-saioen irekiera atala ezaugarritzeko modukoak. Ikuspegi komunikatibotik, oro har, bi helburu dituzte irekierako berbazko ekoizpen hauek: batetik, interakzio markoaren ezarketa eta parte hartzaileen rolen banaketa, eta, bestetik, saioaren marko narratibo nagusia, entzuketa planoaren nahiz narrazio indizeen ezarpena egitea. Ekoizpen hauen intentsitatea eta modalitateak aldakorrek dira saioaren arabera esan bezala, baina saio guztietan ageri dira.

10.2. Irekieraren azpiatalak: saio-irekitzea eta atarikoak.

Konta-saioaren irekiera atala, elkar osatu eta elikatzen duten bi azpiatalez osatzen da: saio-irekitzea eta atarikoak. Ardatz horizontalean dute kokalekua.

Irekiera atal honetan, gradualki, mailaz maila eta unean uneko baldintza eta beharren arabera modu progresiboan eraikitzen da interakzio markoaren ezarketa (Goffman, 1974). Performantzeetan ekiteko modua berriaz landua egoten da (Bauman, 1977); konta-saioen hasiera zaindu beharreko momentua da, hor erabakitzen da-eta, hein batean, saioaren arrakasta. Komunikazioa gertatzen deneko kontestu fisikoaren nahiz kontestu sozio-subjektiboaren parametroen irudikapena lantzen da konta-saioaren markoaren ezartzea lehentasuna den honetan. Edozein delarik ere egoera komunikatiboa, alderdi errituala nabarmendu egiten da elkartrukearen hasieran (eta amaieran) bakoitza zertara dagoen finkatu beharrez (Goffman, ibid.).

Oro har, konta-saioetara hurbiltzen den bi entzule motekin elkarrekintzan jardutea da zailena, arrazoi ezberdinak medio: haurrak eta nerabeak. Haurrekin irekiera atala rol komunikatiboen lanketa berriazkoa eginez eratzen da, komunikazio parametro sozio-subjektiboen irudikapena egiteko oraindik zailtasunak izan ditzaketeelako oraindik (Bronckart, 1996). Nerabeekin, berriz, figuren lanketa tentuz egin beharra aipatzen da: kontalari/entzule kontratu komunikatiboa onartzeko erresistentzia aurki dezake kontalariak, bereziki jarrera pedagogikoa edo paternalista erakusten badu (Loup & Ferdinand, 2005).

Halaber, enuntziario egoeraren ebaluazio une bizia ere bada irekiera atal hau kontalariarentzat, entzuleen jarreraren arabera saioak eman dezakeenaren gaineko aurreikuspenak egiteko balio baitio.

Oro har, kontestuko parametro fisikoen lanketatik ekiten diote kontalariek, ondoren, gradualki parametro sozio-subjektiboak lantzerantz igaroz. Beste era batera esanda, komunikazioa gidatzen duten kontestuko parametro fisiko eta komunikatiboak finkatu eta entzuleekin adostu gabe, indize narratiboak agertzea ia ezinezkoa da. Berez da hauskorra eta, interakzio markoa ezarri eta ondoren ere etengabe negoziatu beharra izaten da, gainera (Goffman, 1974). Horrela, unean uneko beharrek eraginda, nahiz eta saioan aurrera egin, parametro fisiko eta komunikatiboen irudikapenaren lanketa itzuli behar izatea gertatzen da. Horregatik diogu, solidarioak eta elkar osatu eta elikatzen duten azpiatalak direla, saio-irekitzea eta atarikoak, biak ere.

Ikus ditzagun azpiatalok banan bana eta xehetasunez. Azpiatalon posizio linealaz edo horizontalaz gain, diskurtso egintzen bidezko estrukturalazio edo osaera erakutsiko dugu.

10.2.1. Saio-irekitzea: egituratze bertikala.

Azpiatal hau da kokapen aldetik lehena da irekiera atalean. Entzuleekin kontaktu hartzeko momentua da batetik, eta bestetik, mintzaira ekintzaren instituzionalizazio fasea ere bada, haren izaera eta funtzioak zehaztu eta finkatzeko unea.

Inoiz aurkezlerik izaten da –antolatzailea bera izan ohi da aurkezle- kontalaria eta saioa bera aurkeztuz (T8 testuan), baina ez dirudi ohikoa denik, corpusean duen maiztasun txikia ikusita. Gogoratzekoa da, hala ere, saioaren antolatzaileen egitekoa ezinbestekoa dela konta-saioen soziologia ulertzeko (Hernandez, 2006).

Saio-irekitzeak bereziki interakzio markoaren ezarpena du zeregin, hots, performantzearen abiapuntua da eta elkarrekintzaren instituzionalizazio unea. Komunikazio egoeraren parametroen lanketa dakar horrek, unean uneko baldintza fisiko eta sozio-subjektibo zehatzekin batera.

Abiatzen den parametro fisikoen kontestuak, lehenik, nolabaiteko muga edo oinarria jartzen dio interakzio markoaren ezarketari. Ez da berdin izango antzokian, eskolan, liburutegian edota jangela edo taberna baten kontestu fisikoan konta-saio bat abiatzea. Interakzio markoaren ezartzeak gure testuetako corpusean honako ibilbidea erakusten du: konta-saioaren izaera eta helburuak -zuzen edo zeharka- zedarrizten dira; konta-saioaren mugabarrutia (espazio eta denbora berezitua) esplizitatzen da; azkenik, kontalari/entzule rol bereizketa azpimarratzen da.

Ondorioz, saio-irekitzean mota jakin bateko diskurtso egintzak dira maiztasun handiena dutenak: metadiskurtsibo soilak eta metanarratibo kontaktuzkoak⁶⁶. Era berean, eta elkartruke motaren izaeragatik, diskurtso egintza horiek ezaugarri ludikoekin batera metatuta edo maiz urtuta ere, agertzen dira (formula metakomunikatibo bezala identifikatu izan direnak).

Corpuseko testuak monologalak direla kontsidera daitekeen arren, badaude interlokuzio edo interakzio guneak. Solas egoera gogoratzen diguten unitate dialogikoak (Roulet et. al., 1991; Kerbrat Orecchioni, 1996, 2005) agertzen diren arren, ezin dira konta-saioak solasaren generoen artekoak kontsideratu. Antzekotasun formal batzuk badiren arren⁶⁷, funtzionamenduz eta funtzioz oso bestelakoak dira konta-saioetako solas egitura dialogikoak. Hasteko, bada aipatu beharreko ezberdintasun handi bat hauen distribuzioaz: haurren konta-saioetan agertzen sarri samar agertzen diren bitartean, helduekin puntualki baino ez dira agertzen.

Gure metodologiak, elkartruke eta sekuentzia bezalako unitate dialogiko hauek kontaktuzko diskurtso egintza unitateak barnebiltzen ditu. Eta hain justu, saio-irekitzea kontalari/entzuleen arteko elkartruke egiturak agertzeko unea da, esan berri dugun moduan, haurrak entzule direnean bereziki. Solas egiturak agertu arren, ez dituzte solas arruntaren txandakatze legeak eta moduak betetzen (Sacks & Schegloff, 1974). Nolabait esateko, interbentzio bakarra osatuko lukeen hitz txanda dugu kontalariarena. Entzuleen hitz hartzeak badira, baina denak ere kontalariak utzi, gidatu eta baimendutakoak: haren hitz txanda betetzera, osatzera eta jarraitzera baino ez datoz.

Honela, saioari ekiten zaion une beretik entzuleen interbentzioak kontalariak erabat gidatu eta kontrolatu beharrekoak direla ikusten dugu, bereziki hurrekin, jakina. Kontalariak kontrolatzen du hitzaren banaketa (hitzartzeak) edo zirkulazioa. Kontalaria ezaugarritzen duen alderdi garrantzitsua da hitzaren kontrol modua.

Entzuleei inoiz hitza ematen zaie, beraz, modu erabat neurtuan eta dosifikatuan egiten da. Gainera, saioaren atalaren arabera, era batera bideratzen da hitz hartzeen bidezko parte hartzea. Horrela, irekiera atalean entzule rola onartzera eramango dituen elkartruke egitura metanarratiboak –zenbaitetan ludikoak- agertuko dira. Garapen

⁶⁶ Irakurketa arintzearen, aurrerantzean metanarratibo kontaktuzkoak beharrean “kontaktuzkoak” bakarrik izendatuta gauza bera ulertuko da.

⁶⁷ Lehen begiratuan ez bezala, xeheago begiratuta formalki ere solas egoeretako egiturekin erkatuz oso bestelakoak direla konturatzen gara. Ez da lan honen mugetan sartzen, baina aipa ditzagun agurtzeko moduak, hitz txanden antolaketa, gai edo azpigai berrien proposamena (Sacks & Schegloff, 1974 ; Cosnier, & Kerbrat-Orecchioni, 1991; Laforest, 1996 ; Sacks, 2000; Kerbrat-Orecchioni, 2005), ..., formalki ere oso bestelako ezaugarriak dituztela gure corpusean unitate dialogiko hauek. Horren berri hein batean lanean zehar emango dugun arren, berebiziko azterketa bat egitea komeniko litzateke.

atalean eta itxieran, kontaktuzko diskurtso egintzek bestelako forma eta funtzioa izango dute, elkartruke egitura gisa identifikatuta ere.

Beraz, konta-saioan zehar, irekieratik itxierara komunikazio lehenetasun eta helburuen arabera testuen planifikazio bertikal aldakorra aurkituko dugu: horizontalitatean kokatzen den, lineala den, hasi eta bukatu nahi duen egitasmo narratibo eror ez dadin, beharren arabera diskurtso egintzak egokitu eta egituratzen dira ardatz bertikalean. Horregatik diogu, ardatz bertikala osatzen dutela diskurtso egintzek. Eutsi egiten diote saioari; helburu hori erdiesteko, berriz, aldagarritasuna eta malgutasuna behar dute. Ezin dira horizontalitateko osagaiak bezain finkoak izan.

Ikusi dugu, saio-irekitzea azpiatala hiru osagai edo baldintza komunikatibo hauen gainean estrukturatzen diren diskurtso egintzez osatzen dela. Ondoren, xeheki aztertuko ditugu:

a) Testuinguruko parametro fisikoen tratamendua: Entzuleak ondo entzuten duen, kontalari nahiz entzuleen kokapena egokiena den, e.a. kontrolatu eta zaintzen da. Alderdi fisikoenak diren hauek, aldi berean, entzuleekin kontaktu hartzeko modua ere bihurtzen dira, berbabidea. Baina aitzakia soil direnik ere ezin esan. Izan ere, saioaren arrakastaren oinarria entzuten den edo ez, eta bertaratutakoen kokapen egoki eta erosotasuna lortzean dago, besteak beste. Ohikoa da saioaren aurretik kontalariak antolatzaileak proposatutako leku fisikoaren egokitzapenak egitea, argiztapena aukeratzea, aulkien lekualdatzea, e.a. Saioan zehar ere suertatzen dira (T4 testuan, esate baterako) egokitu beharrak, baina bereziki saio-irekitzean bertan oinarritzkoa da. Halaber, fisikoki entzuketa egokia lortu den baieztatzeko momentua entzuleen prestutasuna baieztatzen hasteko unea ere izaten da, entzuleen kolaborazioa baieztatzeko unea. Gutxieneko baldintza fisikoak betetzen ez diren artean kontalariak ez du aurrera egingo. Espazio fisikoa oso formala denean, arte eszenikoen berezko espazioak diren antzoki erako eszenatokiak, esate baterako (T6, T2 eta T3), lekuaren antolamendu fisikoaren semiotikak bera lagungarri izaten da (argiztapena, musika, espazioaren banaketa). Kontrara, lekuko semiotika elkartruke mota honen izaeratik oso urrun dagoenean entzule gaztetxoek, esate baterako, interakzio markoa ulertzeko zailtasunak izan ditzakete. Hori dela eta, kontalariak eskoletako gimnasio-lekuak modukoak konta-saioak egiteko espazio fisiko gorrotagarritzat dituzte (KT, 2014). Beraz, hurrekin zenbat eta baldintza fisiko txarragoak, orduan eta interakzioaren lanketa handiagoa behar dela dirudi saioaren hastapenean.

Horrela, modalizatuak eta ludikoak izateko joera duten arren, saio-irekitze atalean agertzen diren kontaktu diskurtso egintzak oro har zuzentzaileak dira oso, direktiboak. Ikus ditzagun bi adibide, gaztetxo eta haurren saioetakoak, hurrenez hurren. Lehen a baieztatze erako kontaktu diskurtso egintza soil baten bitartez burutzen da. Saioari honela ekiten zaio T1 testuan nerabeekin:

(1)

JC: entzuten duzue atzean?

EN: bai

...ez

JC: hemen badago leku gehiago e? nahi baduzue! nahi izan ezker e? (T1:1-4)

Ondoko (2) adibidean, entzuleak eskola den gelako sarreran agurtu ondoren⁶⁸, bertan, zuzentzailea den eskaera hizketa-egintza rektore baten bitartez zuzentzen zaie kontalaria. Kontaktua diskurtso egintza bat osatzen dute beheko adibideko hizketa egintzen multzoek: entzulea sartzeko eta leku-hartzeko modua gidatzen dute. Kontaktua diskurtso egintza nagusia ezaugarri metadiskurtsiboez hornitzen da:

(2)

RB: (Ikastolako jantokian burutuko da konta-saioa eta kontalariak atean egiten die harrera haurrei; saioa grabatuko denaren azalpena ematen die irakasleei) e arratsaldeon denori! edo hemen esaten dezuten bezala! e eskatuko dizuet (XXX) (zalaparta dago eta isiltasuna eskatzen du; hainbat segundutako etena) sartu baino lehen! e / hitz bi! batetikan gustatuko litzaidake e beti eskatzen dut / e / sartu beharrean denak / korrika edo arrapaladan! arren! sartu / poliki poliki! e? orduan eskubiko aldetikan e? sartu ingo zera eskubiko aldetikan pasa / banku batzuk jarri ditugu! den denak ondo ikuxi ahal izateko / orduan zaudete lasai! denentzat tokia bada! eta (XXX) sartu faborez poliki poliki / e? (XXX) jun betetzen bankuak! (T10:1-11).

Helduen saio batekoa dugun hurrengo adibidean ikusten da parametro fisikoek psikologikoekin duten lotura estua. Parte hartze honek ez du osagai intelektualik. Une intimoa bilatzen du, sentimenduzko tesietan oinarrituz. Hala, beheko testu segmentuan (non konta-saioaren muga-barruti fisiko eta denborazkoen ezarpenari ekiten zaion) agertzen den atea ixteko eskariaren justifikazioa ez genuke, esate baterako, hitzaldi batean espero izango:

⁶⁸ Eskolako jangelan burutu zen konta-saio honen aurretik kontalariak espazioa erabat moldatu zuen, aulkiekin zirkulu erdi erako forma emanez.

(3)

IR: atea itxiko dugu? atea itxi! (17'') **eguerdion!**

EN: eguerdion!

IR: noizbait hasi behar da ta: / e ?

EN: bai

...bai bai

IR: e atea itxi dittugu piska bat e: / intimotasuna edo gordetzeko! (T/:7-13)

Kontalariak konta-saioaren muga-barrutia ezartzen du: espazio jakin bat aukeratu eta atontzen da konta-saioarena izateko. Ez du bertan dagoen kontestuko espazio fisiko guztia hartzen. Semiotizatu egiten da espazioa, lehenik fisikoki. Konta-saioarena bihurtzen den espazioa, espazio fisikotik bereizten da, desegokia denean (Diaz de Gereñu 2012; Hernandez, 2006). Bestela esanda, konta-saioak ez du inguruko espazio guztia okupatzen. Kontalariarenak, beraz, ez dira funtzio fatiko hutsa duten enuntziatuak: besteak beste, enuntziatioaren bitartez entzuleak biltzen eta gidatzen ditu performantzearen gertakizunean.

b) Aurkezpena/agurra/aldez aurretiko eskertzea: konta-saioko lehen berbazko hartu-emanetan agertzen diren hizketa-egintza espresiboek agurtzea, kontalaria aurkeztea eta aldez aurretik eskertzea egitea dute helburu. Zenbaitetan solas arruntetan ohikoak diren elkartruke konfirmatiboak⁶⁹ sortzen dira (Goffman, 1973; Roulet, 1991). Agur esplizituak (*arratsaldeon, eguerdion, denak ongi?* bezalakoak) hamar testuetatik bostetan agertzen dira, esate baterako. Maiz, ordea, entzuleei ez zaie denborarik ematen erantzuteko, eta beraz, ez da elkartruke konfirmatiboa solas arruntan ezagutzen dugun moduan gauzatzen:

(4)

JC: *bueno / arratsaldeon! jum! espero dezagun: bonbarik ez erortzea / behintzat hurrengo ordubetea / baina nork daki! igual desbiatzen da baten bat (XX) / eta: / (barre)* (T6:4-5)

Agurra egin eta erantzunari itxaron gabe aurrera jarraitzea programa diskurtsibo-enuntziatibo berezia abiatu denaren adierazle dela uste dugu. Parekoari hitz txanda ukatuz kontalariak duen hitzaren kontrola nabarmentzen da. Holakoak arruntak dira

⁶⁹ Elkartruke konfirmatiboak elkartrukeen irekiera eta itxieran agertzen diren interakzio motako eta izaera erritualeko hizketa-egintzak dira (Roulet, et al., 1991).

formalak diren beste genero batzuetan: hitzaldi, solaskiderik ez dagoen irrati eta telebistako saioetan... Ondoko adibidean, berriz, entzuleen agurrari tartea egiten zaio, ondoren bere burua aurkeztera pasatzen delarik kontalaria:

(5)

RB: berriro ere denoi / arrasaldeon!

EN: arratsaldeon!

RB: gaur pozik nago! (barre keinu zabala eginez) *je::!* (barreak) nire izena Rai da / nere benetakoa izena bada piskat luzeagoa / da da R:ai-**mun**do

EN: Raimundu

RB: baina den denek esaten naute / Rai!

EN: Rai

RB: pozik nago / **lelehengo** aldiz! lelehengo aldiz hemen / Miarritzen / iparralde hontan / heldu naizelako ipuiak kontatzera! (T9:18-28)

Agurrari dagokionez, (5) adibide honetan agertzen dena saioaren bigarren agurra dela erreparatu beharra dago, “berriro ere arratsaldeon” segmentuan ikusten denez. Saio-irekitze berean –edo irekiera atalean zehar- bi agurtze hizketa-egintza edo bestelako elkartruke konfirmatibo berberak behin baino gehiagotan aurkitzen dira corpusean (T7, T8, T10). Metatze mota hau, gure ustez, markoaren ezarketa graduala denaren seinale da. Mailaz maila hartzen du kontalariak egoeraren kontrola eta mailaz maila heltzen da markoaren ezarketa egitera, negoziazioaren bitartez (Roulet et al., op.cit). Corpuseko testuen erdiek, ez darabilte inolako agurtzeko hizketa-egintza espliziturik, bai ordea, bestelako elkartruke konfirmatiboak. Oro har gainera, hizketa-egintza hauek, agurtzea edo eskertzea esate baterako, dena delako diskurtso egintza osatzen duten testu segmentu handiagoetan integratzen dira. Horrez gain, egoera arrunteko solasen egituratze moduetatik urrunduta, haurrek kontalariak esandako bera esaten dute: oihartzun gisako parte hartzeak dira. Saio-irekitzearen hastapenetik bertatik kontalariaren esku geratzen da hitzaren kontrola.

Aurkezpenari dagokionez, (5) adibidean bertan kontalariak “pozik nago” hizketa-egintza adierazkorrekin osatzen du berori, elkarrekintza egoerak eskatzen duen gozamenezko eta eskerroneko jarrera agertuz.

Kontalariaren aurkezpenari dagokionez, berriz, egiaztatu dugu kontalariaren aurkezpen zuzenak ez direla oso ohikoak. Egiten direnean, unean uneko behar komunikatiboak lotuta, figuren lanketari oso lotuak egiten dira. (5) adibidean

lasaitasuna, atsegin hartzen duen jarrera iradokitzen du aurkezpenarekin, izan beharreko jarreraren erdua eman bezala, haurrekin ari da-eta. T1 testuan, nerabeak izanik entzuleak, oso bestela jokatzeko duentzuleak. Nerabeek kontalariez izan ohi dituzten aurreiritziak osatzen da aurkezpena, kontalariaren irudiaren mehatxu diren horiek diskurtsora ekarriz:

(6)

JC: bueno ni ipuin ipuin kontalaria naiz / ezta? normalean eskola batetara joaten <naizenen,naizen> eta institutoetara eta horrela / (gazteen kaleko berba tonuaz) *bue:: kontakuentos / pasa tio::!* (barreak) **hori!** literatur irakasleek ekartzen duten pertsona txapa sartzeko ikasleei ezta? eta / klasea saltatzeko beraiek ez / eta halakoak ez? ez? eta zuek ere ez?
(T1:7-12)

Figuren lantzea berariazkoa eta esplizitua egiten du kontalariak. Bere ofizioak nerabeen artean izan dezakeen harrera eskasa abiapuntu hartzen du. Aurkezpen gordin honetan, beste inork baino lehen, kontalariak bere burua gaitzesten du: ondoren, irudi pedagogiko eta idiliko baten orde, sozialki porrota besterik lortu ez duen norbait bezala aurkeztuko du bere burua. Entzuleen enpatia osoa lortzen du: marjinala den eremu sozial batean kokatzen da, antiheroe bat da. Interakzio egoera oro da arriskutsua interlokutoreentzat (Goffman, 1973; Brown & Levinson, 1978). Ordea, bereziki iheskorra eta entzule rola onartzen gogorra izan daiteke entzule nerabea -nahiz eta eskerronekoena ere bai- (Loup & Ferdinand, 2006). Bada, entzule hauek izango dira bakarrak behin kontatutako amaituta, kontalariari behin eta berriz eskatuko diotenak kontatzen jarrai dezan.

Konta-saio edo performantzeen hasieran kontalariak bere burua aurkeztu eta gutxieteko baliabidea, hala ere, hainbat tradizioetan badugu (Bauman, 1977). Azpimarratu behar da gutxiespen hau gerora saioan zehar ere ager daitekeela (T1 testuan bertan eta T8 saioan zehar etengabe).

c) Parametro sozio-subjektiboaren lantzea: gorago ikusi ditugu egoera komunikatiboaren zenbait alderdiren lanketa. Orain, zuzenago helduko diogu elkarrekintza motaren izaerari, helburuei eta parte hartzen dutenen rolen banaketaren alderdien lanketari. Izan ere, asko dago horretatik saio-irekitzean.

Horrela, kontatutako saioaren behaketan ikusi dugu interakzio markoan parte hartzen duten rolen eta kontatutako saioaren denbora eta espazioaren lanketa -metakomunikazio

alderdiak- berariazkoa dela; elkartrukearen kontratu eta baldintzen negoziazioa. Alderdi hauek bideratzeko diskurtso egintza metanarratiboak nahiz kontaktu diskurtso egintzak maiztasun handiz agertzen dira saio-irekitzean, baina bada bestelakorik ere. Hor ditugu, esate baterako, digresio diskurtso egintzen agerpenak zenbait saio-irekitzetan.

Has gaitzen azken hauetatik. Beheko (7) adibidean diskurtso egintza digresiboa nagusi edo rektore da, diskurtso egintza metanarratiboak txertatuak dituelarik. Kontalariaren berbaldiari ekiten dion “bueno” partikularen ondotik eta agurtze hizketa-egintzaren ondoren, saio-irekitzea osatuz agertzen zaiguna digresio diskurtso egintza bat da. Baliabide horrek ahalbidetzen du momentuko egoera sozio-politiko eta konta-saioaren muga-barrutia lotzea:

(7)

JC: (kotalaria apalategien artetik atera eta jendaurrean jartzen da; hasierako bonbei buruzko erreferentzia garaiko Iraken aurkako gerrarekin lotu behar da; tonu serioa) *bueno / arratsaldeon! jum! espero dezagun: bonbarik ez erortzea / behintzat hurrengo ordubetea / baina nork daki! igual desbiatzen da baten bat (XX) / eta: / (barre) ez? ipuinak kontatzea: egun honetan / badakizue! fikzioa: hau da errealtateak fikzioa gainditzen du / beraz! (txaloa eta barrea; zinikoki) kontu.: amerikarrak kontatuko dittut / bueno ez! (eztarria garbituz) etorri naiz irratia entzuten bidean / eta: irratiko korrespontsala bazirudien / zela gobernuaren / delekatua: / Iraken / ezta? (berriemale doinu) *aber! bukatzen duten berehala / Sadamekin eta () / tio! korrespontsal bat zea! (barrezka) ez? hori esan beharko du je! lehendakariak presidenteak edo ezta! eta ez korrespontsal de gerra ez? (berriemaile doinu) *aber! eta juaten garen etxera ez? bokata bat hartzera bueno! (eztarria garbituz) afaltzera ez? (T6:1-15).***

Arratsaldeon esan eta aurrera jarraitzean, hitz txanda bereizgarriari ekin dio kontalariak, gorago esan dugu moduan. *Hurrengo ordubetea* esatearekin, kotalaria konta-saioaren muga-barrutia zedarritzen ari da, eta horri metanarrazio diskurtso egintza txertatua dela irizten diogu. Bi diskurtso egintza metanarratibo txertatzen dira ondoren: lehenik fikzioa eta errealtatearen arteko erlazioaz hausnarketa egiten du eta, bigarrenik, gauzatuko ez diren topos baten gezurtatzen. Egintza metanarratibo txertatu horiek agerian uzten dute kontalari eta entzule rolen ezarpena eta negoziazio esplizitua, beste indize guztiekin batera. Agerikoa da, halaber, entzule helduekin enpatia edo are adhesioa ere bilatzen dela kritika sozialaren bidetik. Komunikazio parametroak diskurtso egintza digresiboaren bitartez lantzen duen beste testua T7 da⁷⁰. Biak ere

⁷⁰ T7 testuan ere hauteskunde kanpaina betea zela eta erreferentzia egiten zaio atarikoak atalean. Garai berdinean grabatuta daude bi saioak. Maiz aurkitzen ditugu konta-saioen hasieretan kontestuko egoerako

helduekin burutuak daude. Haurren konta-saioetan ez dugu digresio diskurtso egintzarik identifikatu.

Haatik, diskurtso egintza metanarratiboak ugariak dira saio-irekitzean, era guztietako saioetan. (7) adibidean beste diskurtso egintza batean txertatuak ikusi ditugu, baina aurki litezke bestelako estrukturazioak ere. Oro har, bi motakoak aurkituko ditugu azpiatal honetan: metanarratibo soilak, ludikoak, kontaktuzkoak eta horien guztien arteko mailakatze ezberdinak.

Diskurtso egintza metanarratiboak estetikoki markatuagoak direnean ludikotasuna darie, jolas edo musika bidez. Formula itxura har dezakete, izan tradizioetik datozkigunei jarraiki eginak edo sortzaileagoak, asmatuak. T3 testuan formula metanarratibo ludikoak darabiltza kontalariak, baina ondorengo (8) adibidean ikusten denez, agurtze⁷¹ kontaktu diskurtso egintza batekin tartekatuta agertzen da:

(8)

KA: (kantatuz) *lurrean belarrak / hondartzan harea / itsasoan ur ttantak / airean notatxoak herriko enparantzan urratsak eta nire ahotik / hitzak arratsaldeon!*

EN: arratsaldeon!

(kantatuz) *nere ago iturritik i::xuri guziak edanen ote ditu zure belarri::ak / nere ago iturritik i::xuri guziak edanen ote ditu zure belarri::ak trandatatindidadididudidandiraridaundi* (T3:1-5)

(8) adibideko agurraren aurreko zatia kontalariaren rola ari da sartzen. Agurraren osteko segmentua, entzulearen rolaren ezarpenarekin lotuago agertzen da, *ote* partikula modalizatzaileak negoziazio horren leungarri jokatu. Bi segmentuak, diskurtso egintza metanarratibo ludikoak dira. Ondoren, orain arte negoziatu diren rolak antzaldatzeko mehatxua egiten duen kontaktu egintza batek jarraitzen die. Diskurtso egintza honek, solasekoak izan litezkeen kortesia arau arruntak erabat hausten ditu:

gertakizun garaikideei buruzko erreferentziak. Helduen konta-saioetan, kritika sozio-politiko oso ohikoa da eta hau tradizioan ere bazegoen Héliasen arabera (1990). Autoreak dio kontalariak agintariei kritika zorrotzak egiteko aprobetxatzen zituztela konta-saioak. Bildumetan oso gutxi dira holakoak, baina inoiz edo behin agertzen da kontakizun batean, Ariztiaren *Amattoren Uztan* kasu (1982).

⁷¹ Kasu honetan helburu fatikoak ere baditu agurrak, elkartruke konfirmatiboa gauzatzen da, erantzunari itxaroten dio eta kontalariak.

(9)

KA: (mesprezu modura) ja::! bueno zuek bezela egingo dut / lasai lasai **ze?:? ze hemen** (hau kantatu eta kolpe bat eman ondoren belauetan utziko du panderoa) **bibabibabibababa!** hortxe zarete:: u: / sartuta:: / ezin duzue ipurdia mugitu ere! (tonoa jeitsiz) *berdin da!* (T3:5-8)

Ikusten denez, kontalariak berak eztabaida ireki eta itxi ere egiten du, “berdin da!” segmentu ebaluatiboarekin egin duen mehatxua neutralizatuz. Diskurtso egintza metanarratibo honek entzuleek komunikazio parametro sozio-subjektiboekiko dituzten aurreikuspenekin jolasten du.

Figuren lanketa, kortesia hatsarreen (Levinson & Brown, 1978; Kerbrat Orecchioni, 1996) erabilera berezia eginez gauzatzen da. Eguneroko elkarrekintzetarako –elkarrekintza formalak behinik behin- deskribatu izan diren erabileraz bestelakoak aurkitzen ditugu. Kortesia hatsarreen urraketak konta-saioak genero gisa berarekin dakarren ludikotasunaren estetikapean ulertzen dira. Entzuleei ziria sartzeak, bat batean espero ez diren haserreak eta intimoak diren gaiak ekartzeak, hartu-eman berezi baterako espazio diskurtsiboa zabaltzen du. Irudiz behintzat, eta saioak irauten duen artean beti ere, jakina, kontalariak entzulea emozioetatik gertuago darama ariketa intelektualetik baino. Gozamen mota hori eragin nahi bada.

(8) eta (9) adibideek osatzen duten saio-irekitze azpiatalean ikusten da markoaren ezartzea gradualki eta bi txandatan egiten da: batetik, hizkuntza figuratiboagoa dakusagu formula bidezko segmentuetan eta -nolabait esateko- solas arruntagoetako hizkera, bestetik. Denak ere, diskurtso egintza metanarratiboak dira, baina diskurtsoaren modalitate aldaketarekin jolasten da. Diskurtso egintzen artean askotariko kontraste diskurtsiboa da konta-saioen dinamikaren ezaugarri nagusietakoa.

Tradiziotik batik bat esapide formulistikoak jaso izan dira. Héliasek (1991), berriz, Britainiako tradizioan entzuleek kontalariarengan erabilera sortzaileagoak estimatzen zituztela nabarmentzen du. Edonola ere, metanarrazio diskurtso egintza ludikoak tradiziozko performantzeen giltzatzean ohiko baliabideetakoak izan dira (Bauman, 1967). Baina, bada besterik, erakutsi dugun moduan.

Haurrekin egindako saio batekoa dugu hurrengo adibidea. Kontalariak, esandakoa errepikarazten die eta haurrek agindutakoa betetzen dute. Adibidearen amaieran, ordea, kontalariak errieta egiten die –kortesia hatsarre baten haustura nabarmena, berriz ere- kantaren errepikapenak ekar dezakeen rolen anbiguotasuna aitzakia gisa hartuta:

(10)

PA: (XXX) dena / zuek errepikatu / (kantatuz) *ipuiak ipuiak*

EN: *ipuiak ipuiak*

PA: *kontuak kontuak*

EN: *kontuak kontuak*

PA: *ipuiak konta ditzagun*

EN: *ipuiak konta ditzagun*

PA: *umore onarekin*

EN: *umore onarekin*

PA: *denak elkarrekin*

EN: *denak elkarrekin*

PA: *ipuiak*

EN: *ipuiak*

PA: *kontuak*

EN: *kontuak*

PA: zuek <ba,bai> al dakizute **zer** esan dezuten? ze / esan dizuet / ipuiak konta ditzagun / eta zuek errepika dezute **ipuiak** konta ditzagun / (errieta eginez bezala) *beraz / zuek esaten baldin badezute ipuiak konta ditzagun / ez ez al zerate konturatzen zuek ipuiak kontatu behar ditzuzutela!* (T4:1-19)

Jakina, testuinguruan ez da anbigotasunik. Ordea, *gu* hizkuntz markaren balio anbigua jostabide bilakatu du kontalariak. Aukera kontua da, zeren eta kontalari berak T5 testuan kontalariak formula bera erabilita ere ez die entzuleei horregatik errieta egin. T9 testuko irekieran ere, kontalariak bigarren pertsona plurala erabiltzen du batasuna edo talde dimentsio adierazteko: “**gaur** ez dugu oso luze joko / e? kontatuko dugu bi edo [hiru ipuin]”.

(10) adibidearekin jarraituz, azpimarra dezagun helburu ludikoak baina baita fatiko, metakomunikatiboak eta interakzionalak ere badaudela diskurtso egintza horretan. Saio-irekitzea entzuleen arreta biltzeko une bizia dugu. Izan ere, bere programa burutzerakoan, kontalariak aurki dezake eragozpenik entzuleen artean, bereziki haurrak badira. Konta-saioaren arrakasta entzuleak euren rolari lotzean datza. T4 saioko saio-irekitzean, adibidez, ikusten da entzule batek ez duela kontalariak esleitu nahi dion rola bereganatu nahi. Konta-saio osoa entzungo duen arren etengabe saiatzen da saioa ezegonkortzen. Areago, kontalariaren rola hartzen ere saiakerak egiten ditu entzule honek (T4:24-25). Jokabide horrekin mehatxu egiten dio haurrak kontalariari, kontalari/entzule kontratuari partzialki muzin eginez –entzun egiten baitu- eta bereziki

interbentzioetan beragandik espero denaren kontrako jarrera diskurtsiboa erakutsiz. (10) adibideari jarraitzen dion (11) segmentu honetan ikusten da entzule honen jarrera zein den ekoizten dituen ezeztapenezko enuntziatuetan:

(11)

PA: **orduan** / orduan **erne!** ze esaten badezute / ipuiak konta ditzagun ()

(...)

PA: *ipuiak ipuiak*

EN: *ipuiak ipuiak*

PA: *kontuak kontuak*

EN: *kontuak kontuak*

..... *ez kontuak kontuak*

PA: *ipuiak **konta** ditzagun*

EN: *ipuiak **entzun** ditzagun*

PA: *umore onarekin*

EN: *umore onarekin*

PA: *denak elkarrekin*

EN: *denak elkarrekin*

..... *denak ez elkarrekin (T4:41-57)*

T4 testu honetan, saio osoan zehar etengabe kontratu hautsi nahia adieraziko du entzule jakin horrek. Ikusten da, entzule gisa duen jarrera jokabide linguistiko bihurtzen dela. Hortik, kontalari batek garatu beharreko zenbait komunikazio gaitasun. Uste dugu haurrekin egiten den unitate dialogikoen erabilera kontrol hori mantentzera begira dagoela.

Egia da, hala ere, saio-irekitze azpiatalean hizpide dugun entzule honen jarrerarekin malguagoa dela kontalaria. Arruntagoak bide dira saio-irekitzean entzuleen erresistentziak kontratu komunikatiboa onartzerakoan eta, hortik agian, saioaren hastapeneko kontalariaren malgutasuna. Izan ere, saio-irekitzean, kontalariak interbentzio mehatxagarriok alboratzen dituen bezala, behin saioak aurrera egiten duenean, elkarrekintza ezegonkortzen jarraitzen duen entzule honekin kontalariak hainbat baliabide berbazko eta ez berbazko erabiliko ditu entzulearen portaera zuzentze aldera. Ordea, haurra saioa ezegonkortzen tematzen da eta berau lasaitzeko eta dagokion rolean mantentzeko deskalifikazio argiak ere zuzentzen dizkio kontalariak, nahiz estalki ludikoaz jantzi: “hi txikito hiperelektromoskito” (kontaktu egintza metakomunikatibo deskalifikatzailea, beraz) diotso birritan. Saioaren bukaeran gainera entzule bakoitzari

brillantina banatzean, haur bera oihuka dabilela eta: “hiri jarriko diat txilborrean” diotso. Bada alderik, alde honetatik ere, diskurtso egintzen erabileran saioaren horizontalitatean aurrera egin ahala.

Diskurtso egintza metanarratibo soilak eta kontaktuzkoak ere erabiltzen dira komunikazio kontestuko askotariko parametroak landu eta kontrolatzeko. Entzuleei mugikorrek itzaltzea eskatzen zaien adibideak ditugu corpusean (adibidez, T7:14-16). Ondoko (12) adibidean, berriz, kontalariak ekarri dituen objektuen aurkezpena egiten da:

(12)

PA: (lehen hitzak ez dira grabatu) (XXX) eta beste tresna batzuk / baita ere tanborra! zuei / ipui batzuk kontatzeko: (T5: 1-2)

(13) adibidean, saioaren aurkezleari eskerrak eman ondoren, modu esplizituan entzuleen aurreikuspenak dakartza kontalariak kontaktu egintza metanarratibo soil batean:

(13)

BA: bai / (oso baxu eta izekaz) *eskerrikasko eskerrikasko!* (segundu batzuk pasatzen dira antolatzailea eszenatokitik atera eta kontalaria erdian jarri eta saioari ekin arte; beha gelditzen zaie entzuleei kontalaria momentu batez) esperoan zaudete guztiok ez? osea nik <komentatzeko,kontatzeko> / bai! nabaritzen dut / (T9:32-42)

Jakina, diskurtso egintza metanarratibo soila dela diogu, baina azken adibide honen ezaugarri ludikoak ondo ulertu behar dira. Saioaren ezaugarriak kontutan izanda eta kontalariaren estetika ezagututa modu erabat ironikoan esanda dagoela ulertzen da. Izan ere, hein batean, aurkezleak egin duen aurkezpen luzea dela eta zirika egiten dio, kontalariak luzamendurik gabe ekingo diola adieraziz.

Ondoren ikusiko dugun adibidean, kontaktu metanarratibo soilekin kontalariak entzuleak izan beharreko jarrera, kontatuko dituen ipuin kopurua eta antzeko saioaren ezaugarri metakomunikatiboak esplizitatuko ditu. Haurrak dira entzuleak. Ondoren, mailakatuta, zenbait eskaera zehatz zuzentzen dizkie entzuleei:

(14)

RB: begira nik / ipuiak kontatzeko behar dudan **gauza bakar bakarra** da / zuek ixilik baino! nei gustatzen zait esatea / behar dut zuek **lasai** egotea! trankil! ta behar dut bexte gauza bat / eta da / **nahiz** eta nik () oso **itsusia** izan / begiratu neri! (irribarre zabala entzuleei egin eta hauek ere irri) ipuinekin hasi baino / lehenago / gauza bat esan nahiko nuke! parre egin nahi duenak / egin dezala parre! negar egin nahi duenak! egin dezala negar! (honekin aztoratu dira apur bat entzuleak, barre eragin die eta) lagunari / eskutik heldu nahi dionak! heldu diezaiola eskutik! (umeak barrez lotsakor, elkarri begira; 7'') hasi baino lehen! denei / hemen egotearren / milesker! (haurrak barrez lotsakor; 3'') (T9:32-42)

Aldez aurretiko eskerrak emanez amaitzen da aurreko segmentua, baina segidan beste kontaktuzko diskurtso egintza metanarratibo bat datorkigu. Hurrei, iparraldekoak izanik, saio-irekitzearen azken sekuentzia den horretan eskaera hau zuzentzen die:

(15)

RB: a! e azkeneko gauzatxo bat! azkeneko gauzatxo bat! heldu naiz

EN: (XXX)

RB: heldu naiz Donas / Donostitik / bueno! Donosti ondoko herri batetik / Oiartzundik!

EN: Oiartzun

.....(XXX)

.....**Oiartzun!**

RB: e / baten batek / hitzen bat edo: () / guk e beste era batean ere beste hitz batzuk esaten ditugulako / **zer**bait hitzen bat ulertu edo ezagutuko ez balu / lasai besoa altxa! eta galdetu! bale?

EN: bale (T9:41-53)

Ikusi dugun moduan, kontaktu diskurtso egintzak metanarratiboekin urtuta burutzen dira eskaera, gonbite, baieztapen, agurtze eta antzeko hizketa-egintza asko; horrek saio-irekitzearen planifikazioaren nondik norakoa erakusten digu. Ez beti, hala ere: T6 testuan eta T3 testuan, metanarrazio diskurtso egintza asko egon arren, ez dira kontaktu bidez gauzatzen, eta itxuraz behintzat testu monologalagoak bihurtzen dira. Argi ikusten da hurrekin egindako saioetan kontestuko parametro fisiko nahiz psikologikoen indizeak kontaktu egintzen bitartez gauzatzeko joera nabaria. Beraz, testuen azpiegitura dialogikoagoa azpigenero ezberdinak direnaren seinale izan daiteke.

Orain arte aipatu ditugun diskurtso egintzok, ezberdinak izanagatik, esanahi sare zabalagoak biltzen dituen konta-saioan integratzen dira. Literaturaren pragmatikaren bidetik esan dezagun hauen interpretazioa generoaren konbentzioak gidatuta baino ezin daitezkeela egin (Pozuelo Yvancos, 1995). Bada, diskurtso egintza konfirmatiboa

gauzatzeko molde bereziek eta kortesia hatsarreen hauste moduek genero literario edo, nahiago bada, ludiko jakin baten estetikapean gaudela diosku. Horrez gain, saio-irekizetik bertatik, haur eta helduen saioen arteko ezberdintasunak ikusten ditugu.

Konta-saioaren erritualizazioa edo instituzionalizazioaren unea den saio-irekizteak, parte hartzaileen eskarmentua du abiapuntu. Entzule gaztetxoenen kasuan, markoaren ezarketa, ikusi dugun bezala, problematikoa izan daiteke. Bronckarten arabera (1996), hain zuzen, kontestuko parametro fisikoen jabekuntzarekin gertatzen den kontrara, komunikazioaren parametro sozio-subjektiboak dira bereganatzen zailenak hiztunarentzat.

Oso nabarmena da corpusean hurrekin egiten diren saioetan kontalariak bai kontestuko parametro fisiko eta, areago, sozio-subjektiboak lantzen ematen duen lana. Horrek berbazko testua bera modu batera edo bestera egituratzera darama. Beti ere, modu ludiko batean egin behar da hau. Gozamenez, urratsez urrats, inolako gaizki-ultertu eta frikziorik gabe negoziatzen da entzulearen jarrera. Berezikari interakzioari ekiten zaion une honetan. Kontuan izan behar da eginkizun zaila dela; maiz, bereziki haurren kasuan -gure corpuseko nerabeen kasuan ere-, eskola orduetan egiten den jarduera dela-eta derrigortuak daudela saioetan parte hartzera.

Laburtuz, saioa-irekizte azpiatalaren lehentasuna, konta-saioaren interakzio markoa zehaztea eta negoziatzea dirudi, kontalariaren irudiaren lanketak eta rolen banaketak hartzen duen lekua ikusita. Konta-saioaren instituzionalizazio fasea da, erritualizazio eta liturgia forma zehatzak hartzen dituenak. Markoaren finkatzea konta-saioetan graduala dela ere ikusi dugu, interakzio egoera errealean gertatzen den legez (Goffman, 1991); interakzio markoak ez baitira behin betiko emaniko elementuak, eta bai ahulak eta hauskorrak, izatez.

Azkenik, gogoratu behar da erabateko salbuespena dela T2 testua, saio-irekizte osoa musikak ordezkatzeko duelako. Elkarrekintzaren errotiko izaera ludikoa gogorarazten digu kasu honek: ahozko narrazioaren eta kantuaren edo musikaren artean dagoen harreman estua, banaezina (Zumthor, 1991). Finean, konta-saio batek suposatzen duen gozamen bidezko elkarretaratzean parte hartzaileak biltzeko berezko baliabidea.

10.2.2. Atarikoak: egituratze bertikala.

Saio irekitzearen ondotik, eta haren osagarri, beste azpiatal bat agertzen zaigu: *atarikoak* deitu duguna. Azpiatal honetan saioan zehar diegesian agertuko diren topikoen eta ekarriko diren mundu narratiboen iragarpena egiten da. Entzuketa planoan iradokitzen da eta lehen kontakizuna heldu bitarteko prestaketa suposatzen du. Saio osoaren balio semantikoak aurreratzen ditu azpiatal honek; zer datorren iragartzen da.

Rekaldek (2010) bere etxeko konta-praktiken tradizioetik abiatuta diosku, entzuleek erraz antzematen zutela kontalariak zein erreperetiora joko zuen: kontaktari ekiteko moduan atzematen zitzaion kontalariari. Gutxi jaso da, dakigula, halako gertakarien berri. Hala ere, esan bezala, badaukagu tradiziozko kontagintzan halakorik egiten zenaren bestelako testigantzarik (Hélias, 2001; Bauman, 1967; Zumthor, 1991).

Posiziozkoa eta testuala da atarikoak azpiatalaren agerpena ere. Semiotikoki, saio-irekitze azpiatalarekiko erabateko aurrerapena eta aldaketa suposatzen du atarikoaren azpiatalak: diegesi mailari ekitea suposatzen du.

Azpiatal honen osagaiak askotarikoak dira: formula metakomunikatiboak, hasiera faltsuak (Zumthor, ibid.; Bauman, ibid.), kontakizunak txertatuko diren extradiegesi edo makro narrazioaren aurkezpena (Genette, 1989), tradizioaren aipamena edo *dei egitea*, *pre-story* deitutako berbazko segmentuak (Lavob & Waletzky, 1967; Sacks, 2000; Seck, 2009), e.a. Finean, instantzia narratiboaren hedapena egiten da. Luzera aldakorreko (segundo gutxi batzuk irauten dutenak badira eta baita hainbat minutuko iraupena dutenak ere) azpiatal honetan ere diskurtso egintza ezberdinen uztartzea edo metaketa izan ohi dela baieztatu da.

Azpimarratzekoa dena hau da: kasu bakar batean ezik, hurren konta-saioetan ez da agertzen atarikoak azpiatala.

Bestela, bi diskurtso egintzen erabilera nagusitzen da atarikoak atalean: narratiboak eta digresio diskurtso egintzak.

Diskurtso egintza narratiboen adibide gisa T2 testuko atarikoak atala bere osotasunean ikusiko dugu ondoren: Itsasgizon zahar baten aurkezpena egiten da atarikoak azpiatalean. Instantzia narratiboa dakusagu, orainean ainguratutako deskribapena egiten, narratzaile orojakile gisa identifikatzen duguna. Berehala, analepsia erabiliz lehenera salto egiten da, metadiegetikoa bihurtzen den narrazio segmentua txertatuz (*Apanizek* kontatuko duen istorioa). Narratzaile heterodiegetikoak (Genette, 1989) bide eman dio beste instantzia bati atarikoak atalean bertan. Narrazio

diskurtso egintza bi daude bata bestearen barruan txertatuta, eta instantzia narratiboak ere aldatzen dira. Ahozko konta-saioek ere izan dezakete, beraz, konplexutasun narratiboa metalepsia baliabide gisa hartuta:

(16)

KA: (musika lasaiak girotzen du konta-saioa sarrera moduan; gitarra) **Bilintx** / arrantzale zaha:rra / **gauero** / **gauero** bezela / portutik etxera doa / **kaleari** gora! Bilintx arrantzale zaharra / nekatua da: kezkatua (□) / bizi guzia pasa du: / **itsasoko maixuaren** atzetik! **ma-re-a-e-giten** duen maixuaren atzetik! **bizi** guzia! eta horra nun / joan den egunean hurbildu zaiola / mutil gazte bat / **Apanize** deitutakoa / **artzaina!** eta honek kontatu diola baizik eta / hantxe! menditik / botatu dutela / **munstro** bat! herentsuge munstro handi bat eta / hau **itsasoan** dagoela! zer da ba? zenbat dira munstro itsaso horretan / bat ala bi? (gogaituta) *aj!* (musika 11^o; baxuago) *joan dadila! joan dadila:!* Ibarsolara! Apanize honen herrira / handik abiatu zen istorio guzia! han / Ibarsolan / Apanize honen aittonak **Xibalie** deitutakoak / **honek** / tranpa bat / tranpa batean sartu zuen herentsuge munstroa / e eman zion jatera / behi baten larrua polboraz beterik! eta herentsugeak hau hartu ta (txalo jo eta ohiuka) **ua: u: a! sua bota!** sua ta kea ahotik botaka / pairatu zen munstroa / eta herri osoa zeharkatu zuen eta hantxe / itsasoko uretan bota zuen bere burua / barruko sua itzaltzeko / (musika 11^o; baxuago) *joan dadila!* hango zaharrek jakingo dute! Ibarsolako zaharrak geroztik hantxe daude / ou! zuloa! kobazulo hura / begiratzen! herentsugea atera zen zulo hura / zaintzen / heiek jakingo dute! **joan** dadila ba ikustea zahar hoiak! a: joango da ba / joango da! Bilintx / baiñan (duda eginez arnasa hartu du) eguraldia hobe hobeagoa izango delarik **ederragoa!** e:!! bihar arrantzara joan beharra dauka: eta: / arrantzara je:!! / aizu <aizue ta,XXX> / Bilintx zahar zaharra da ta bere barkua / bera baiño zaharrago! eta ez dia hain urruti joaten e:!! gizona eta barkua / ez hortxe! bueltatxo bat / hum! **barkua** / barku zahar hori / bere aitak / utzi zion (berbazkoa bukatu denean musika tonuak igo egin du eta ondoren isiltzeraino jeitsi; 11^o) (T2:1-29).

Adibidean atarikoak azpiatalean kontaketa markoa ekarri dela baieztatzen da. Konta-saioa atarikoak atal honetan abiatu den extradiegesiaren pertsonaia nagusiaren inguruan egituratuko da. Arrantzalearen biografia antzeko bat eskainiz, biografia horren harira kontakizun guztiak txertatuko dira gerora garapena atalean; kontakizun bakoitzak maila diegetiko bat behera egitea suposatuko du, eta tarteetan berriz, maila extradiegetikoa –arrantzalearen bizitzaren biografia- errekuiperatuko da (artekaketa deituko ditugun loturazko ataletan).

Atarikoak azpiatalera itzulita, eta diskurtso egintza narratiboak oinarri dituzten atarikoak azpiatalen osaerarekin jarraituz, T3 testuaren gorpuztea ikustera pasako gara. Geografia imaginarioen bidetik, oraingoan *gu* enuntziazio marka aurkitzen dugu

instantzia narratiboaren enuntziatzaile gisa -kontaketa girotuaren enuntziatio markak (Bronckart, 1996)-. Marka horren ondorioz talde dimentsioa ematen zaio enuntziatioari; Euskal Herriko irudimenezko dimentsio batean kokatzen den makrodiegesian, potentzialki entzulea barne hartzen da. Izen eta kokapen zehaztugabea duten indize narratiboak aurkitzen ditugu, narratzaile homodiegetikoa testigu-protagonista delarik. Kontaketaren marko edo extradiegesi gisa funtzionatuko duten indize tenporal eta fisiko zehaztugabeak sartuz, garapeneko kontakizunak hari horretara lotuak geratzen dira atarikoak azpiatalean. Baumenek (1967) performantzeen giltzatzean erabili ohi den baliabideetako bat bezala zerrendatzen du tradizioari dei egitea, eta badu horren antzik (17) adibideak. Euskal Herriko garai mitiko bati egiten zaio erreferentzia eta haren aitzakiara eraikitzen da narrazioa. Ikus dezagun adibidea:

(17)

KA: **oso**:: / ederki bizi ginen gu / Euskal Herrian / pake ederrean / bai! harreman ederrak genituen / gizonetakoak eta andreetakoak / zaharrak eta gazteak / kanpotik etorritakoak eta bertakoak / **oso** ederki bizi ginen zorion zorionsu pake pakean bizi ginen / egun hortaraino! **o**: ai zorionsu! **harro harro** bizi ginela / burua **gora!** hantxe / zeruan! je! izadia natura gure inguruan / babesle: / lagun / eta: oinak / ama lurraren gainean finkatuak / **oso** zorionsu ta **harro** bizi ginen gu / **egun** hortaraino! (T3:15-20)

Atarikoegi dagokion adibide hau saio-irekitzeko (8) eta (9) adibideen ondotik datorrenez, agerikoa da nolabaiteko inkongruentzia aktantzial, enuntziatiboa dagoela. Saio-irekitzean *orain* eta *hemen* kokatuta iragarri den instantzia narratiboa denbora mitikoen denboretatik enuntziatzera pasa da. Saio-irekitze eta atarikoak azpiataletan agertzen diren instantziak ez dira idatzian espero genezakeen bezain koherenteak. Hau ahozko literaturaren lizentzia eta ezaugarri bezala ikusi behar da: instantzien aldakortasuna eta heterogeneotasuna; horien arteko saltoak eta loturak ilogikoak izan daitezke, baina inola ere ez dira ulermenaren kaltegarri eta are gutxiago gaitzesgarriak. Areago, ahozko kontaketen estetikaren ezaugarri direla uste dugu. Horregatik beharbada, irakurtzen ditugu ahozko kontaketa *onirikoa* den bezalako baieztapenak (Belmont, 2002). Gure ustez, bada hori baino zehaztasun handiagoarekin azaltzerik - komenigarria ere bai- ahozko literaturaren baliabide diren erabilera hauek.

Atarikoak azpiatala gorpuzterakoan, narratiboarekin batera digresiboa da diskurtso egintza garrantzitsua. T1 testuan, esate baterako, kontalaria bihurtu izanaren zergatia azaldu beharra aipatu du saio-irekitzean (6) eta ondoren, galdera horri

erantzuteko, digresio diskurtso egintza datorkigu. Gerora, kontalari izatearen galderari erantzuteko aitzakiarekin (hemen ere azalpenek ez diete testu akademikoen logikari jarraituko, agerikoa denez) txertatuko dira konta-saioko kontakizunak:

(18)

JC: (//) “**bueno!** e:: **ni:k** / kontatuko du () / bueno ni ipuin ipuin kontalaria naiz / ezta? normalean eskola batetara joaten <naizenen,naizen> eta institutoetara eta horrela / (gazteen kaleko berba tonuaz) *bue:: kontakuentos / pasa tio::!* (barreak) **hori!** literatur irakasleek ekartzen duten pertsona txapa sartzeko ikasleei ezta? eta / klasea saltatzeko beraiek ez / eta halakoak ez? ez? eta zuek ere ez?! ordua:n / beti tokatzen zait () / jode hau dago () / (eskailerak jaisteari ekingo dio) badirudi <XXX,nagoela> en el kongreso de los diputaus (barreak; 3”) (kabaretean bezala kantatuz eta hankak dantzatzuz) *ta txi:n tatxin tatxin* (barreak) // ba **orduan!** kontatuko dizuet **lenengo** () / klaro ze mundu guztia / estra / e:: harritzen da ezta? zergaitik ipuinak kontatu eta zergatik ez eta: hori ezta? orduan / **lenengo** / hasi behar naiz esplikatzeko / nire:: / nire bizitza / ez intimoa noski! (irribarreka eta ironiaz) *euskalduna naiz eta orduan / berehala bukatuko nuke! ez?* (barre)

EN: ke bueno!

JC:ba:: / zergatik heldu naiz ipuin kontalaria izatea / ezta? bueno / e:: / kapitulo honen izena da / Bibir del Kuento / (irribarreka eta bajuago) *e? esan nahi dut / (koitadu ahotsez) a! klaro! zer egingo dut nik? ni naiz / halako:: desgraziau sozial bat ezta? Errenteriakoa: / Orereta / nahi dezuen bezala” (T1:6-26)*

T5 testuan, berdintsu jokatzen da, nahiz eta haurren konta-saioa izan. Hau dugu adibide bakarra. Kontalariak ipuinak zergatik behar dituen azalduko duela esanez ekiten dio digresio diskurtso egintzari. Segidan, bere ipuinekiko zaletasuna argitzen duen narrazio diskurtso egintza biografikoa txertatuko du.

T6 konta-saioan, euskaldun-berriak izanik entzule gehienak, euskalduna izatea zertan datzan azaltzera doan digresio egintzarekin abiatzen da atarikoak atala, ondoko kontaketak hari erantzuteko azalpenak izango direla iradokiz.

T7 saioan metanarrazio diskurtso egintza baten ondoren berehala diskurtso egintza digresiboen bitartez gizakiaren izateari buruzko galdera transzendentalez josten da atarikoak atala. Beheko (19), (20), (21) eta (22) adibideetan xeheago ikusiko dugu. Adibideotan dakarzkigunak elkarren segidan aurkitzen ditugu corpusean, baina hemen, esan bezala, zatikatuta ikusiko ditugu.

Aztertuko dugun T7 testuaren atarikoak atal honen aurretik, saio-irekitze bat egon da. Hala ere (19) adibidearen hasieran ikusten den bezala, atarikoak atala diskurtso

egintza metanarratibo batekin hasten da “bueno! hau / e konta nagusiendako kontaketa izango da / hauteskunde kanpainako hitzaldiak izaten diren bezalakoak / e?”. Saioa helduentzako antolatua egon arren, guraso batzuek haurrak ekarri dituzte eta litekeena da kontalariak espero ez dituen entzuleak izateagatik, kontratu komunikatiboaren baldintzak gogoratu izana. Haurrak ez dute helduen saio baten baldintzetara egokitzeko gaitasunik eta kontalariak hauteskunde kanpainetako hitzaldien komunikazio parametro batzuekin analogia eginez gurasoek horixe uler dezaten saiatzen da. Hala ere, gurasoek ez dituzte haurrak ateratzen⁷². Ondoren, egoera politikoa eta bereziki politikarien diskurtsoetatik abiatuta errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak ezegonkortzeari ekiten dio kontalariak (T6 testuan ere antzeko baliabidea dakusagu). Behin eta berriz dakusagu hau atarikoak atalean: fikziorako bidea urratzen duen diskurtso egintzak dira. *Orain* eta *hemen* egoetatik lizentzia literarioa eraikitza pasatzeko baliabideak ditugu diskurtso egintzak: hauen bitartez entzuketara plano bereizgarriak egituratzen dira eta entzuleari eskaintzen. Gerora etorriko diren kontakizunen zentzu-emate prozedurak dira. Ondoko kasuan, konta-saioa ez sufritzeko erremedioen eskaintza gisa irudikatzen da eta kontakizunak sufritzeko edo ez sufritzeko aukeraren adibide:

(19)

IR: bueno! hau / e konta nagusiendako kontaketa izango da / hauteskunde kanpainako hitzaldiak izaten diren bezalakoak / e?

EN:ez ez mesedez!

IR:nagusientzako / jente heldua eta ondo formatu-antzako / zeren eta nik / e azken hil honetan ez bi hilabete hiru hilabete gaude kanpañan ezta? eztakizenbat! ba! eta: / aizue! danak eskeintzen dituzte hainbat gauza! **edozein** gauza gañera! ba! **bota ta bota** ibiltzen dira ezta? gañera ematen du berotu egiten direla! eta hasten dira gauza txikiekin / eta ia behin berotu ezker berdin zaie ezta? kantatu dantzatu edo bua! ilargia ere eskeini ba! berdin da! ezta? hirugarren **mundua** eta eskeintzen digute edozein gauza! **petrolio**! bueno ba nik ez sufritzeko erremedioak eske eskeiniko dizkizuet! / um? zeren eta / ja! noraezean ibiltzen gara bai? mundu honetan / galduta bezala / ni bai behintzat! **zuek**?

EN: baita

....(XXX)

....batzutan

IR: ba lasai! e: hemen aurkituko duzue: bidea / seguraski! edo sufritzeko edo ez sufritzeko e? osea nik / hemen kontakutako ditudanak dira / adibide batzuk ezta? istoria batzuk / eta: hor ie / horko protagonistek / momentu batean erabaki zuten sufritzea! kasu batzutan / edo ez sufritzea!

⁷² Tradiziozko kontagintzan kontalariak kanporatu arazi egiten zituzten haurrak saioetatik (Hélias, 1990; Fabre & Lacroix, 1974).

orduan / denetarikoa daude / dago / eta: / norberaren aukeran dago / ba zer egin bizitza honetan!
(T7:21-38)

Politikarien berbaldi eta eskaintza faltsu eta ernegagarrien ondoan, bizimodu latzaren *baltsamo* gisa eskaintzen da konta-saioa: diskurtso publiko alternatiboa eskaintzen. Entzuleak limurtzeko bidea egiten ari da kontalaria. Baina ez da hemen amaitu atarikoak azpiatalaren egituratzea. Ekindako bide horretan, berriz kontrastez beteko da atarikoak azpiataleko egituratze bertikala. Digresio kontaktu diskurtso egintzarekin jarraituz, kontalariak galdetegi bat pasarazi nahi die entzuleei. Ez da hori entzuleek elkarrekintzarekiko espero dutena gertakaria eta kexu agertzen dira. Ondorioz, kortesia hatsarreen haustura ludikoa egiteko aukera ezin hobea du kontalariak. Ikusi dugu lehenago ere, ohiko baliabidea dugula jostabide hau irekiera atalean:

(20)

IR: bai? e:: horretarako:: / lehenengo galdetegi bat / egingo dizuet / adi! erantzun / atera kuadernoa eta boligrafoa!

EN: (entzuleak harrিতuta marmarka kexu dira) zaila da hau e?

IR: aizue! begira / ni neuk / hona nator ez sufritzeko erremedioak eskeintzera! eta zuek **ala!** axolagabe ezta? benga! huskeri bat izango balitz bezela // galdetegia prestatuta dago / e: ipuin kontaketa honen denporaren barruan sartzen da! orduan egingo dizuet / dena den / e:: pentsatu **ondo** / sakon / mediatu / hiru segundu / dituzue / erantzun bakoitzentzako / eta gero: / m: bueno horrek jarriko digu bakoitzari (mugikor batek jo du eta behin behineko zalaparta sortzen da) e: gure tokian / (T7:39-55)

Kontalariak aurrera jarraituko du, jakina, bere programarekin. Galdera zirrargarriak egiten dizkie eta galdera horien aitzakiapean txertatuko dira kontakizunak, gero, garapena atalean. Ez-berbazko baliabideen aldetik oso markatua dago inkesta pasatzen deneko zati hau, tonu eta galderen osteko isiluneak luzeak dira eta. Kontalariak entzuleei galderak zuzendu ahala, hauen artean isiltasuna gailentzen joaten da. Entzule bihurtzen direla argi ikusten da ondoko adibidean:

(21)

IR: aber! lehenengo galdera! ba al dago ez sufritzeko antidotorik? (5'') ziur zaudete / bizirik zaudetela?

EN: bai

....batzutan ez! (barreak)

IR: (6'') ze mundutan bizi zarete?/ ziur zaudete: / zuen mundua goinontzentzako ere mundu berbera dela? (6'')

EN: gutxitan (isiltasuna segundu batzutan)

IR: ze gizaki motak dira: / zizareak?// zertarako daude mundu honetan inurriak / eta txirritak?// ederki! **ia!** (bi hots sabaikari) e:: segundu haueta:n / galderak erantzun baldin badituzue! ba ez izan inolako arazorik! (oraindik jendea sartzen ari da) aurkitu duzue ez sufritzeko erremedioa! baina: (eztarria garbitu du) / ezpaduzue erantzun / eta:: lehen baino: nahasiagoak baldin bazaudete! **ba bizirik zaudete!** baina sufritzeko boletu guztiak dituzue gainean! (barreak) ederki! e:: ba: / adibideak / ikusiko dittugu / bai?// (T7:62-76)

Laburbiltzeko, atarikoak azpiatalaren estrukturatze bertikalean hiru joera ikusten ditugu beraz:

a) Atarikoak hau betetzen ez denekoa (T4, T8, T9, T10): Atarikoak atalak haurren konta-saioetan ez agertzeko joera garbia du, lautik hirutan ez da ageri eta. Atarikoak atalak saioari konplexutasun diskurtsibo eta narratiboaren zama dakarkion seinale dugu, eta badirudi konplexutasun maila hori ez zaiola ondo egokitzen entzule mota horri. Hala ere, inoiz aukera estetikoak eta ludikoak ere izan daitezke ez gauzatzearen atzean, T8 testua kasu.

b) Digresio diskurtso egintzak helduekin erabiltzen dira bereziki: Digresioekin batera diskurtso egintza metanarratiboak ere ager daitezke interakzio markoaren ezarpena gidatuz. Konta-saioa zertara datorren berbalizatzerako datoz digresioak: modu estetiko eta ludikoan eta eguneroko bizimodua gobernatzen duten egoera soziopolitiko ernegagarriari zein larridura existentzialei aurre egiteko modu gisa eskaintzen da saioa. Gizakiaren izateari eta haren sufrimenduari lotutako toposak iragartzen dira. Batzuetan, oso konplexuak izan daitezke digresio diskurtso egintza hauen gauzatzea. Adibidez, T5 haurrekin egindako testuaren kasuan, testuko digresio diskurtso egintzak barnean du txertatua narrazio diskurtso egintza bat.

c) Narrazio diskurtso egintzen bitartez: Helduen konta-saioetan bereziki, makro narrazioak abiatzen dira atarikoak azpiatalean. Beraz, saioan diegesi maila ezberdinak aurkituko ditugularik, extradiegesiaren mailari dagozkion indizeak sartzea da atarikoak azpiatalean diskurtso egintza narratiboak duten funtzioa. Hori egiteko modu asko

identifikatu ditugu. Horietan erabiliena diskurtso egintza digresiboarekin hasi edota harekin urtuz kontalariaren indize biografikoak –fikziozkoak, beti ere- kontatzen dituzten diskurtso egintza narratiboen segmentuak leudeke. Errealitate eta fikzioaren arteko muga zeharkatzen duen instantzia narratibo baten hedapena egiten da.

Dakigunez, kontalariak izen abizen zibilak erabiltzen dituzte, oro har, kontalari jardueran eta hau anbiguotasun iturri izaten da. Nahastu ere egiten dira azterketa linguistiko berritzaileenetan (Carruthers & McCusker, 2010). Gure ustez, erabateko garrantzia du autorea eta instantzia narratiboa ezberdintzeak. Ahozko kontaketa pragmatikak nahasmen horretara eraman gaitzakeen arren, testuen behaketatik abiatuta erakutsi dugu instantzia narratiboa tarteko dela eraikitzen dela kontalariaren berbaldia (Larringan, 1992). Atarikoak azpiataletik atera gabe ere, instantzia narratibo baten orde, askoren erabilera egiten dela ere ikusi dugu.

Irekiera atalean bereizi ditugun bi azpiatalen -saio-irekitze eta atarikoak-gauzatzea aldakorra da hedaduraz eta intentsitatez. Gogora ditzagun ezaugarri eta osagai nagusiak:

-Helduen konta-saioetan orekatuago agertzen dira bi azpiatalak; gutxienez biak agertzeko joera dago. Haur eta nerabeen konta-saioetan bata edo bestea “gizentzen” da. Izan ere, hurrekin egindako konta-saioetan behin baino ez da agertzen atarikoak azpiatala (T5).

-Badago elkar elikatze bat azpiatalen artean: bata laburra denean bestea luzeagoa izateko joera dago, kontalari berberak eginiko saioetan ikusten denez (T4 vs. T5; T2 vs. T3). Horregatik diogu elkar elikatu eta osatzen duten azpiatalak direla. Bereziki, saio-irekitze azpiatalaren berezko ezaugarriak diren interakzio markoaren lanketa atarikoak azpiatalean ager daitezke, beharraren arabera.

-Markoaren ezarketari lotuta agertzen dira diskurtso egintza guztiak ere. Zertara bildu diren elkarretaratuak eta zein den bakoitzaren egitekoa lantzeraz. Entzulearen arabera egokitzen da diskurtso egintzen izaera eta konbinazioa.

-Captatio moduko honetan helburu ludikoekin entzulea zirikatzen da. Hau, kortesia arauen haustean ikusten da, rolen banaketarekin lotua egiten dena beti ere. Lau testuetan agertzen dela ikusi dugu: irakasleen ondora gonbidatuz ikasle nerabeak (zirikatze helburuarekin); entzuleak kontalari rola har dezaten tentatuz (8., 11., adibideak); hurrei kantarazi zaien formula metanarratiboaren zuzenketaren bitartez (10. adibidea); kontalaria entzuleei lehenaren proposamena –desbideratua- jarraitzeko agertzen duten zalantzenatik asaldatzen zaienean (10., 11. adibideak).

Interakzio markoaren ezartzea graduala da, etengabe negoziatu beharrekoa eta horregatik agertzen zaizkigu corpuseko testuetan agurrak bikoiztuta, bakoitzarengandik espero dena zehatz emana (izan formalki prosaikoa edo formula bidezkoa), e.a. Agerpen horiek, aldi oro, funtzio bat betetzen dute. Horrela, T7 testuan esate baterako *eguerdion* bidezko bi agurtzeek bi urrats ezberdintzen dituzte: Lehenak, lehen kontaktu fisiko bat ixten du, alderdi fisikoagoari, espazioaren eta jendearen elkarretaratzeari begira dagoena; Bigarrenak, ordea, parametro sozio-subjektiboaren lanketa berariazkoagoetara pasatzea markatzen du (nor bezala gaude eta zertara gaude?).

Amaitzeko, azpimarra dezagun interakzio markoa konta-saioetan ere etengabe eraiki eta negoziatzen den elementua dela baieztatu dugula. Elkarrekintzaren parametro fisiko eta sozio-subjektiboaren parametroen irudikapenek instantzia narratiboekin gordetzen duten lotura erabatekoa dela ikusi dugu. Azken hauen oinarri eta errail gisa jokatzen dute lehenek, komunikazio ludiko-estetikoaren elkarrekintza ahalbidetuz.

11. Emaitzak II: garapena atalaren azpiegituraren ardazketa.

Atal honetan garapenaren bi osagai nagusiak jorratuko ditugu: ziklo narratiboak eta artekaketa atalak. Hauen ezaugarritzea, berriz ere, bi estruktuzio alderdiri begira egingo da, horizontala eta bertikala.

Era berean, ziklo narratiboaren osaera hirukoitza deskribatuko da, ziklo narratibo bakoitzak aurrekaria, muina eta irteera atalekin osatuko dela ikusi baitugu.

11.1. Garapena atalaren ezaugarri nagusiak

Héliasek *ekintza betean* (Hélias, 1990:252) deitzen duen atalari *garapena* izendapena eman diogu. Hark Britainiako konta-saio tradizionalaz deskribatutakoak oinarritzko izan zaizkigu konta-saioen egituratze lineala edo horizontalaren osagai nagusiak zedarritzeko. Formalki eta estrukturaliki idatziz jaso diren kontakizun bildumekin konparatuta, konta-saioak oso ezberdin antolatzen du kontakizuna bera eta kontakizunen artekoa. Garapena dugu atalik luzeena, eta agian konplexuena ere bai.

Konta-saio baten garapena ez da kontakizun kateaketa hutsa, ez da justaposizioa. Baliabide metanarratibo eta narratibo konplexuak agertzen zaizkigu, beti ere ahozko poetikaren estetika baten arabera ulertu behar dena. Eskema narratibo hirukoitza (Aristoteles, 1994) nahiz boskoitza (Adam, 1984; 1998) ez da corpusean agertzen den

antolaketa orokorraren berri emateko nahikoa. Labov eta Wallezkyren (1967) ahozko narrazioaren eskema kanonikoak ere ez du konta-saio baten egituratze maila azaltzeko nahikoa ahalmenik. Horiek horrela, sekuentzia narratiboez gain, edo horien gainetik, ardatz horizontalean beste bi osagai identifikatu ditugu: *ziklo narratiboa* eta *artekaketa* azpiatalak.

Alde batetik, zedarritu dugun ziklo narratiboaren azpiatalak, beti, eskema narratibo bat barnebilduko du. Beste aldetik, artekaketa azpiatala, ziklo narratiboen artean aurkitzen diren berbazko segmentuek osatzen dute. Azken segmentu hauek ziklo narratiboen arteko nola edo halako lotura lana hartzen dute beregain.

Garapena gauzatzeko moduak anitzak dira. Hiru eragile nagusi aipatu behar dira:

a) Diskurtso egintza moten arteko txandakatzea etengabea da: diskurtso egintza batetik bestera igarotzea mekanismo edo dinamika erregular batek gidatzen duela dirudi. Luzzatik (2004) ahozko sintaxiaren funtzionamendua deskribatzeko erabiltzen dituen *lehiokatze* egituren funtzionamenduarekin badu antzekotasunik mekanismo honek: sekuentzia narratibo bat linealki –etenik gabe hasi eta bukatu- eman ordez, ahoz ulertzeko moduko egitura diskurtsibo zatikatuaren bitartez ematen da. Holako edo halako unitateetan banatuta mailakatzen delarik kontakizuna, unitate diskurtsibo horien arteko kontrastearekin jolastuz entzuleen arretari eutsi, eta era berean, kontaktzen denaren haria ez galtzeko eraginkorra dirudi. Kontrara, ikusita corpusean kontalari adituek eduki narratiboak diskurtsiboki nola egituratzen dituzten, kontaketa egintza lineal batek ez dirudi ahozko adierazpiderako eraginkorra denik.

b) Diskurtso egintza mota jakin batzuk agertzea: batetik, diskurtso egintza narratiboez gain, metanarratiboek ere leku nabarmena dute, oro har. Bestetik, diskurtso egintza batzuen agerpenak, dibertsifikazio baten berri ematen digute: helduekin iruzkin erakoak izango ditugu, eta hurrekin kontaktuzkoak eta ludikoak, gehien bat. Diskurtso egintzen arteko zenbait konbinaketen erregularitasuna identifikatu dugu: Helduekin narrazio diskurtso egintza eta iruzkin diskurtso egintza txandakatzen dira; hurrekin, berriz, ohikoagoa da kontaktuzkoen eta ludikoen arteko elkartzea (ezkontza).

c) Diskurtso egintzen arteko txandakatzeek sortzen dituzten konbinazio sailak ere aldatu egiten dira. Esan nahi da, diskurtso egintzen konbinaketa sail erregular bat aurkituz gero, denbora baten buruan, beste sail erregular bat edo irregular bat aurkituko dugula. Etengabe aldatuko dira diskurtso egintzen konbinaketak saioan zehar.

Gogoratu behar da diskurtso egintzen betebeharra ez dela planifikazioren gauzapena. Diskurtso egintzen egitekoa, ardatz bertikalari eutsiz, egokitzen diren egitea

izango da, kontaketak aurrera egin dezan: interakzio markoa negoziatuz, alegia, ustekabeei aurre egiteko, entzuleen arreta kontrolatzeko, joko estetikoa eragiteko, tentsio aldaketak eraginez, e.a.

Deskribatzen ari garen moduko osagaiak tradizioan bazirela egiaztatu dugu. Ezin jakin zein neurritan. Hala, nahi genukeena baino gutxiago jaso diren arren, euskarazko kontalaritza zaharreko formula bidezko zenbait adibide interesgarri bildu ditu Kaltzakortak (1998). Gurean, kontalariek kontatzen jarraitzeari uko egitean erabili izandako esapideak baditugu, Europako tradizioan dauden bezala. Aarne-Thompsonen bildumetan, esate baterako, sailkapen arazoak sortzen dituzten kontatzen jarraitzeari uko egiten zioten sasi-narrazio ludiko ugari ageri dira (Petitat & Pahud, 2004):

Ces contes, que nous dénommerons *contes-surprises*, usent de ressorts qui éclairent les rapports entre auteurs-conteurs et auditeurs. Ils suivent des stratégies manifestes afin d’obtenir des effets délibérés sur les récepteurs. Ils appellent donc une analyse de type interactionniste, attentive non seulement à l’intrigue, mais à l’interaction narrative dans son ensemble. (Petitat & Pahud, 2004: 159)

Héliasek (1990) ere aipatzen du narrazio segmentuez gain askotariko baliabideak erabiltzen zituztela kontalari bretoiek aitzina, interakzio alderdiak zaintzeko: “Et c’était à regret que le conteur devait se résoudre à y mettre une fin provisoire. A bout de souffle. La suite au prochaine numéro” (Hélias, 1990:253). Kontalariek komunikazio egoeraren etengabeko ebaluazioa baliatuz neurtzen zituzten entzulearen indarra eta entzuten jarraitzeko gaitasuna. Héliasek baieztatzen du kontalari zaharrek kontu handiz zaintzen zutela saioak eten beharra entzulea nekatu baino lehen.

Hala ere, saioari eusteko eta kontaktua gordetzeko, entzuleen arreta ziurtatzeko, *cric* eta *crac* bezalako formula fatikoez harago joan beharra zuen kontalari trebeak aitzina ere (Hélias, 1990). Digresioak, zerbait ahaztu izana simulatzea, kritika politikoak, metadiegesiaren erabilera, eta askotariko baliabideak erabiltzen zituztela diosku Héliasek. Ez dirudi beraz, formula gutxi batzuetara murrizteko moduko gaia.

Izan ere, gure kasuan ere badugu holakorik : non askotariko mozketak, trantsizioa edo luzatzeko zeinu-ikonoz baliatzen diren kontalariak. Formula fatikoez hornitutako testuak ditugu gure corpusekoak.

Beraz, aurrera dezagun konta-saioa ez dela kontakizun segida bat, ez da kontatze saioen batura hutsa: lasaitze uneak sortu beharra dago narrazio ekintzan, berriz


intentsitatez abiatzeko, lotura edota efektu estetiko-ludikoak lortu beharra dago, beharrezko jotzen diren azalpenak eman –dibertimendu edo ikuspegi estetikoa mantenduz-, entzuleen arreta mantendu, e.a. Finean, konta-saioari, *eutsi* egin behar zaio. Eta hau diskurtso egintzen kateaketa eta bariazio etengabe baina kontrolatuaren bidez egiten da.

Programa narratiboaren planifikazio mailan, kontakizunen kateaketa organikoa eta ziklikoa dela ikusiko dugu: kontakizunek kate solidarioak eratzen dituzte, funtzio koordinatuak betetzen dituzte. Kontakizun multzo koordinatua osatzen da. Konposizio bateratua eta koerlazonatua osatzen da konta-saioaren osotasunari begira. Horren guztiaren egituratzaile nagusi dira, esan bezala, ziklo narratiboak eta artekaketa azpiatalak. Bariazio handiak izan ditzakete formalki, baina ardatz horizontala deskribatzeko ezinbesteko osagai deritzegu, erregulariki betetzen baitira eta identifikatzeko moduko ezaugarri komunak baitituzte.

11.2. Garapena: ziklo narratiboa eta artekaketa azpiatalak.

Garapena osatzen duten azpiatalen deskripzio xehea egin aurretik, gogora dezagun tesiaren atal honek konta-saioaren barruan hartzen duen lekua distribuzio horizontalean. Beheko taulan ikusten dugunez, garapenean ziklo narratiboak eta artekaketa segmentuak ez dira edonola kateatzen. Era jakin batean gertatzen da hauen banaketa: ziklo narratibo batekin hasten da, ondoren artekaketa atalak jarraitzen dio eta honi berriz ere ziklo narratiboak. Aldiz, ziklo narratiboen artean baino ez da agertzen artekaketa atala. Garapenaren azken elementua beti ziklo narratibo bat izango da. Ikus ondoko eskema:

2. Taula. Garapen atalaren osaera horizontalaren unitateak.




Ondoren, ziklo narratiboak eta artekaketa atalak deskribatuko ditugu egituratze bertikaleko diskurtso egintzen osagaiez egiten duten erabilera kontutan hartuta.

11.2.1. Ziklo narratiboa: egituratze bertikala.

Esan dugu halako progresio eta koerlazio batean kokatzen direla kontakizunak, ez direla besterik gabe kateaketa mekaniko hutsez pilatutako istorio multzoak. Ziklo narratiboa kontakizuna txertatzeko plataforma edo mekanismoa da. Kontakizuna haren araberrako esangurez janztea ahalbidetzen du. Ziklo narratiboa hiru azpiatalez osatua dago: *aurrekaria*, *muina* eta *irtetzea*. Hona eskeman ziklo narratiboaren unitateak:

3. Taula. Ziklo narratiboaren osaera horizontalaren unitateak.



Osagai bakoitzak, jakina, funtzio bereizgarria du:

- Aurrekaria muinean kontatuko den istorioaren irekiera gisakoa da. Ez ditu ahazten saioarekiko loturak eta konta-saioaren irekiera atal nagusian ezarritako indizeak. Hala ere, bere funtzioa saioari bainoago kontakizun bakoitzari begira egotea da, hari sarbidea eman eta ziurtatzea.

- Muinak erdiko posizioa hartzen du eta berau da azpiatalik luze eta oparoena, nahiz eta badiren salbuespenak. Bertan eskema narratiboa gauzatua aurkitzen dugu, egituratze bertikal jakin baten bidez. Beraz, eskema narratiboko azpiatalak identifikagarriak gertatzen diren arren (hasierako egoera, indar transformatzailea, e.a.) diskurtso egintzen bidezko egituratze bertikalaren sare-begiak gorpuztua aurkitzen dugu eskema.

- Irtetzea azpiatala da zikloaren azken elementua, kontakizunaren amaiera eta artekaketa atalaren artean dagoen berbazko ekoizpena jasotzen duena. Ziklo bakoitzeko kontakizunaren amaieraren eta artekaketa atalen arteko artikulazioa edo zubi lana egiten du. Berriz, konta-saioa amaitze bidean dagoenean, muina saioaren azken atalarekin lotzen du zuzenean irtetzeak, ez baitugu artekaketarik azken zikloaren ondotik.

Hasteko, eman ditzagun ziklo narratibo hauen ezaugarri eta datu orokor batzuk. Ziklo narratiboak genero narratibo askotariko kontakizunez osa daitezke, ez dago mugatzerik: berriak, pasadizoak, errelatoak, autobiografiak, leiendak, txisteak, mitoak, ipuin miragarriak, autore ipuinak, e.a. Oro har, corpuseko testuen antolamenduan ziklo narratibo batetik bestera generoen arteko kontrastea aurkitzen dugu. Ziklo batetik besterako generoen aldagarritasuna erregularra da. Inoiz ez ditugu aurkituko bi mito bata bestearen atzetik kontatuta, edo bi ipuin miragarri bata bestearen segidan. Alderdi honek ere azpiegituraren antolaketa baldintzatzen du. Gainera, ikusiko dugun moduan, hein batean behintzat, generoak diskurtso egintza batzuen edo besteen agerpena baldintza dezakeela dirudi.

Ziklo narratiboen kopuruari begiratzen badiogu, batez besteko kopurua saio bakoitzeko 5 kontakizun da. Baina horrela esanda ezberdintasun handi bat ezkututzen da: helduekin egindako konta-saioek 7 bat kontakizun (ziklo narratibo) izaten dituzte, eta hurrekin egindakoek 2 eta, inoiz, 3. Haurren konta-saioetan, hirugarren kontakizun bat izatekotan, hau bestelako baliabide semiotikoz hornitzen da eta: kontaktaren euskarri den liburua T4 testuan; antzerkira moldatzen den kontakizuna T5 testuan. Edonola ere, entzuleen araberrako iraupen kopuru hauek esanguratsuak dira.

Gure corpusean hurrekin egindako saioak ez dira 40 minututik pasatzen; helduekin, berriz, 50-60 minutuko saioak burutzen dira, oro har hartuta. Esana dugu, iraupena corpuseko testuen arteko ezberdintasunak ikusteko beste eragile bat izan daiteke. Horregatik, kontakizunen iraupen/kopuru erlazioari begiratzen badiogu, kontakizun bakoitzak askoz denbora gehiago irauten du haurren konta-saioetan. Bestela esanda, haurren konta-saioetan astiroago eta eduki narratibo edo diegetiko gutxiago

agertzen dira. Horrekin ez da ulertu behar, inolaz ere, haurren konta-saioetan sinpleagoa denik zikloaren osaera.

Aurkeztu berri ditugun zikloaren osagai hauek irudikatze aldera, adibide gisa, corpusaren garapena atalean aurkitzen den ziklo narratibo laburrena baliatuko dugu. “Atzapar eta intxaur banaketa” izendatu dugun ziklo narratibo labur hau, T3 testuko hirugarrena da. Haren laburtasunak, osaera horizontala eta bertikala aldi berean erakusteko aukera paregabea eskaintzen digu: ziklo narratiboaren hiru azpiatalen eta diskurtso egintzen arteko ardazketa bikoitza bere osotasunean, hain zuzen ere.

Izan ere, ziklo narratiboak ahozko adierazpidearen legeen arabera izateaz gain, hein batean ulergaitz gertatzen dira transkripzioetan; horri gaineratzen badiogu zinez luzeak eta konplexuak diren diskurtso egintzen bidezko estrukturatze bertikala, ez da erraza zentzua ulertzeko moduko adibideak aurkitzea. Gainera, ahal dela, corpusaren konplexutasunaren irudi murriztua ematea saihestu nahi izan dugu. Beraz, argi utzi behar da 4. taulako adibide labur hau, ez dela corpusean gertatzen den ardazketa ohiko baten erakusgarria. Hau ulertuta, ordea, baliagarri zaigu esan bezala, ziklo narratibo oso bat bere horretan irudikatzeko. Ikus dezagun.

Eman ditzagun aurrez zenbait zehaztasun. “Atzapar eta intxaur banaketa” zikloa txertatzen den saioaren azpiegitura nagusia konplexua da oso. Ziklo narratibo hau T3 testuko hirugarrena da eta nagusi den extradiegesi batean txertatzen da: konta-saioa harilkatzen duen herri baten historian zeharreko kontakizun nagusia den maila diegetikoaren arrimura ulertu behar da. Hain zuzen, 4. taulan dakargun ziklo hau (17) adibidean ikusi dugun indize narratiboetara lotzen zaie. Saioan aurkezten den herriaren historia hein batean pertsonai batzuen bizimoduaren bilakaeraren aitzakiapean garatzen da. Intxaur baten banaketaren inguruko alegoria dugu hizpide dugun ziklo narratiboa osatzen duen istorioa. Lehenago, extradiegesian eta diegesi mailako aurreko zikloetan *igitaiduna* izan dena, *promotore* bilakatu da (nabarmena da denbora mitiko batetik denbora garaikide batera egiten den saltoa), eta analepsi teknika erabiliz extradiegesiaren *igitaidun*-->*promotore* haren txikitako istorioa kontatzen da. Konta-saioa aurreratzeko modua da. Gerora ere, saioan zehar izango du bestelako bilakaerarik. Ziklo narratibo honen berezitasuna honetan datza: laburra izateaz gain, muina atalean apenas duela narrazioa ez den diskurtso egintzarik. Oro har, corpus osoari erreparatuz, estrukturatze atipikoa dela esan behar da. Gatozen adibidera:

4. Taula. T3 testuko “Atzapar eta intxaurraren banaketa” ziklo narratiboaren hiru azpiatalak eta osagai bertikaleko diskurtso egintzak.

Zikloaren unea	Atalaren balio semantikoa	Diskurtso egintza mota eta segida	Testu segmentua
Aurrekaria	Topikalizazio unea	1.Sarbide metanarratiboa	“a! horietako bat da badakizu: / i igitai / igitaiak zaukana / (...) igitaiduna e Atzapar / deitzen dugu guk / Atzapar” (T3:281-83)
	Sumarioa ⁷³	2.Narrazioa	“beti ondoko: e landa ta ondoko:: e: baserrietan eta beti badabil siki / sikite igitaiak saltzen (hitz totelka) eta e: (dudamudan) / promotore bilakatu da (barreak)” (T3: 283-286)
Muina <i>Sekuentzia narratiboaren eskema jarraituz eraikiduen segmentua</i>	Hasierako egoera	3.Narrazioa	“um:! txikia zela hau e beste bi lagunekin bazebilan e /” (T3: 286-287)
		4. Kontaktuzko argibide parafrastikoa	“uo:! txikitan egiten dugun bezela gure herrian ibiltzen gea handik eta hemendik” (T3: 287-288)
	-Indar transformatzaiela -Ekintzen garapena -Indar Orekatzailea -Bukaerako egoera	5.Narrazioa	“eta halako batean / bi lagunak aurretik zez zituen hortxe ta bat korrika abiatu zen eta hantxe gelditu zen intxaurrondo baten azpian eta esan zuen / <i>nik! lehendabizi nik! nik nik ikusi dut intxaurra ta hau nirea da! bigarrena hurbildu ta ttak ez nik harrapatu dut hau nirea da / bai nik ikusi nuen hau nirea da! ez ez ez! hau nirea da! Atzapar hurbildu ta / intxaur bat? bai! besterik eztao! ta nik ikusi nuen ta hau nirea da / ez ez ez! nik harrapatu nuen hau nirea da / ixi! nahi duzue nik au / auzi / auzia egitea honetan? ba:i! esan zioten lagunek / ta / Atzaparrek hartu zuen orduan intxaurra / ta bi zati / egin / m! tori! zuk ikusi zenuen e? hori zuretzat eta tuk! zuk harrapatu zenuen tori / zuretzat! o! ai ze poza! ederki! je / eskerrikasko! bai / baina nik lana egin det e? orduan / barruko hoiek / niretzat / eta intxaurra bereganatu zuen / barrukoa behintzat” (T3: 288-301)</i>
Irtetzea	Sumarioaren berrestea/ebaluazio	6.Iruzkin ebaluatiboa	“a! bai promotore / Atzapar! m:” (T3:301)

Adibide oso hau ikusita, zikloaren azpiatal bakoitzarekin diskurtso egintzen osieran identifikatu ditugun erregulartasunak deskribatzera pasako gara.

⁷³ Marguerat eta Bourquinek (2000) sekuentzia narratiboaren gainera erregulartasun handiz agertzen den egitura hirukoitz bat atzematen dute Testamentu Zaharreko narrazioetan. Egitura hirukoitz horren lehen elementua da sumarioa, kontakizunaren aurrerapen gisa eta haren kontestualizazioa egiten duena.

11.2.1.1. Aurrekaria: ezaugarriak eta egituratze bertikala.

Sumario, sarrera, hitzaurre, aitzinsolasetik badu zer bait atal honek. *Incipit* gisakoa da, definizio honetan deskribatzen diren funtzio eta erabilerak ikusita:

Narratologian, *incipit* esaten zaio narrazioaren hasierari, fikzioaren munduarekiko muga gainditzen deneko mugari edo moldura gisakoa denari, mundu errealararen eta fikziozkoaren arteko aldea nabarmenarazten duenari. Narrazioaren amaiera bezalaxe, une estrategikoa da *incipit*unea, eta erretorika zaharrak tratamendu berezia eskaintzen zion *exordium* zeritzan une horri, entzulearen arreta bereganatzeko ahalegina egin behar den mementoa baitzeritzon. Tradizioz datozen narrazioetan, esate baterako, *incipit*aren une horretarako esapide jakinak erabili izan dira: *Bazen behin*, *Munduan asko bezala*, *Behin batez bazen*, *munduan asko d(ir)en bezala*, *Asko munduan bezala*, eta izanzen diren bezala, *baziren ama-seme batzuk...* eta gauza bera gertatzen da amaieran. C. Reisek dioenez, (*Diccionario de narratologia*, 1996) narrazio hasierak zehazten du sarritan narrazioaren egoera eta kontalariaren berri emateko unea; hala, kontalari heteodiegetikoa zuzenean sartu ohi da historiaren errepresentazioan; XIX. mendeko nobeletan, esate baterako, narratuko den unibertso diegetikoaren osagai nagusiak aurkezteko unetzat hartzen da *incipita*: protagonistak, espazioak eta garai historikoen berri emateko abagunea. Eredu iraunkorra da hastapeneko kokapen gisa eginiko azalpenak ematea (...). (*Literatura Terminoen Hiztegia*, 2008)

Konta-saioaren irekierak *incipit*aren ezaugarri asko ditu, bereziki atarikoak azpiatalean. Bada, ziklo narratibo bakoitzaren agerpenak *incipit* erako bat ere badakar berarekin eta corpuseko testuen ardatz horizontaleko osagai erregularra bihurtzen da.

Ordea, besterik da ahozko kontalaritzarekin lotuta, Héliasen arabera (1990) lehen erromantizismoaren ondorioz zabaldu den “*bazen behin*”, “*munduan asko bezala*” esapideak *incipit* bakartzat jotzea. Autoreak azpimarratzen du ahozko kontalaritza zaharrean erabiltzen ziren baliabideak hainbat aberatsagoak zirela eta ondorioz ahozko kontaketa *incipit* moduen irudikapena murriztu dela. Izan ere, hastapen batean guk geuk ere kontakizun bakoitzaren aurretik halakoxeak espero genituen, eta egia esan, horiexek baino ez.

Corpusaren azterketak erakutsi digu, berriz, ez direla espero genituen *incipit* horiek ez sistematikoki erabiltzen ez eta espero daitekeen funtzio pragmatikoekin agertzen. Beste behin, Héliasek azpimarratzen duen kontalaritzaren aniztasuna eta konplexutasuna aintzat hartu ez izanaren erakusgarri dugu kontua. Gai honek aparteko azterketa behar luke, gure ustez. Bitartean esan dezagun, guk kontakizunen eskema

narratiboaren hasierako egoeraren denbora indizetzat edo testu antolatzailetzat joko ditugula “bazen behin” eta antzekoak, eta ez beraz, incipitaren markatzen.

Bestetik, esan behar da aurrekaria ziklo narratiboaren osagaia identifikatzeko Marguerat eta Bourquinen (2000) lanean oinarritu garea. Haien azterketaren arabera, testamentu zaharrea kontatzen diren istorioetan erregulari sumario deitzen dituzten aurrerapen erako laburpenak agertzen dira -incipit erakoak-, maiz, aurrerapen moduko laburpen bat egiten dutenak. Testuaren hartzaileak gertatuko denaren kontestua ulertzeko moduko sarreratxoa ere izan daiteke. Autore hauen arabera, <sumarioa-istorioa-ebaluazioa> erako mekanismo bat atzematen da testamendu zaharreko makro-narrazioaren antolamenduan. Guk lan hartan oinarria hartuta, antzeko osaera proposatu dugu kontatzearen garapenerako zikloentzako.

Aurrekariari dagokionez, ziklo narratiboan kontakizun izango den “unibertso” diegetikoaren zenbait ezaugarri aurreratzen dira edo harekin lotutako motibazio edo bestelako zentzu-emate prozedurak ekartzen dira. Irekiera atalean gertatzen denaren kontra, aurrekaria ataleko incipita erabat lotua dago hurrengo datorren istorioarekin. Aurrekariak eginkizuna zikloari begira betetzen du:

- Topiko baten enuntziatioa izan daiteke, kontakizun objektuaren ezein alderdiren iradokitzea.
- Kontakizunaren inguruko (aman)komuneko jakite bat –iritzia, ikusalde bat ekar daiteke diskurtsora.
- Laburpentxo bat egin daiteke.
- Eta abar.

Metanarrazioa gailentzen den uneetako bat da aurrekaria atala, baina baita bestelako zentzu-emate prozedurak azaltzekoa ere: narrazio txikiak edo osagabeak, istorioa kontatzearen justifikazioak, kontakizun bertsiotzat gaitzesgarri baten narrazioa⁷⁴, e.a. Beraz, kasu hauetan maiz segmentu metanarratiboak nahiz (sasi)narratiboak ager daitezke. (Aurre)Ebaluazio segmentuak ere ager daitezke, aurrerapen modukoak.

Aurrekariak jarraipen antzeko zerbait iragartzen du, diskurtsiboki zerbait osagabea eta osatu beharreko balego bezala, honela adibidez: “lehen gauza orduan / bere lehen lana izan tzen / otso beltza / hil egin behar zela” (T3:225-226); “eta ezagutu nuen lenengotako ipuin bat / hauze zen / ezta?” (T1:119-120), e.a.

⁷⁴ Istorio faltsua erako baliabide ezaguna ahozko literaturan (Zumthor, 1990)

Azkenik esan dezagun, konta-saioan aurrera egin ahala aurrekariaren behar handiagoa izaten dela. Izan ere, bigarren ziklo narratibotik aurrera aurrekaria atala mardulagoa eta konplexuagoa izateko joera ikusi dugu corpusean. Gertakari honek konta-saioko atalen arteko lotura eta koerlazioa baieztatzen digu, interakzio markoaren etengabeko negoziazioa eta kontagaien zentzu-ematea etengabea dela adierazten du.

Aurrekariak dakarren estrukturatze lanari dagokionez, irekiera atalarekin –eta haren azpiatalekin- harreman estuan aurkitzen da. Hain da harremana estua non batzuetan haien arteko muga ezartzen ez da erraza. Esan beharra dago bestalde, atal batetik besterako pasabide diren diskurtso egintzen mugen lausotasuna handiagoa dela helduen saioetan. Oro har, haurren konta-saioetan atal nahiz azpiatalen arteko banaketa garbiagoa izan ohi da. Azken hauetan, diskurtso egintza metanarratibo esplizituagoak erabiltzen dira eta horrek erraztu egiten du beste diskurtso egintzekiko segmentazioa. Diskurtso egintza narratiboek ere maiztasun handia dute aurrekaria atalean, nahiz eta metanarratiboen mende edo haiekin urtuta agertzen diren sarri.

Ikus dezagun aurrekari segmentu bat bere osotasunean. Hau ere adibide laburra dugu baina egokia deritzogu azpiatal honen txandakatzea irudikatzen laguntzeko. Helduekin egindako T6 konta-saiokoa da eta lau diskurtso egintzekin osatzen da. Bi metanarratiboren arteko kontrastea tartekatzen den argibide diskurtso egintza batek sortzen du. Entzulari entzuketa plano bat iradokitzen zaio aurrekari honetan, muinean izango den kontakizunak munduaren banaketaz jardungo duelarik, banaketa horretan non kokatzen den hausnartzera gonbidatuz:

5. Taula. Aurrekari atalaren diskurtso egintza bidezko egituraketa bertikalaren adibide bat.

Diskurtso egintza mota	Berbazko testu segmentua
Metanarratiboa	eta istorio hau / istorio hau da Behe Nafarrokoa / uste dut (T6:57)
Argibidezkoa	badakizu Behe Nafarroa / zu / joaten zara (mapa bat irudikatuz) / hemendikan / ez? Hendaiara / Hendaiatik gora / eta galdetu / ez? egiten dugun guztiak! (solasa) <i>aizu Behenafarroa? segi segi! aurrera!</i> ta joaten zara galdetzen eta derrepente / ikusten duzunean / nafar bat / esaten du (X) <i>hau Behe Nafarroa da?</i> (erantzuna zakar) <i>hau Nafarroa da!</i> eta bueno da / bai! (T6:57-63)
Sarbidezkoa (metanarratiboa)	Behenafarroakoa ez? eta istorio honetan esplikatzten da mundua nola banatuta dagoen (T6:63-64)
Iruzkina (gonbite erakoa)	gero bakoitzak aukeratuko du non kokatzen den (T6:64-65)

Kontalari bakoitzak aurrekaria gorpuzteko diskurtso egintza ezberdinen eta hauen konbinaketa ezberdinen alde egiten duela ikusi dugu:

-Koldo Amestoyk narraziozkoak erabiltzen ditu gehien bat eta bigarren ziklo narratibotik aurrera metanarrazio diskurtso egintzekin konbinatzen ditu.

-Pello Añorgak metanarrazio ludikoak diskurtso egintza metanarratibo esplizituarekin konbinatuta erabiltzen ditu.

-Rai Buenok metanarrazio esplizituak konbinatzen ditu, narrazio diskurtso egintza ludikoekin.

-Karrerek zenbait metanarrazio diskurtso egintza azpimota erabiltzen ditu, iruzkin eta argibideekin konbinatuta.

-Baltziskueta kontalariak metanarrazio diskurtso egintzak darabiltza.

Azken kontalari honek T8 testuan egiten dituen 9 ziklo narratiboen aurrekari guztiak bildu ditugu ondoren eta agertzen diren hurrenkera berean. Lehenengo zikloak ez du aurrekaririk, hurrengo guztiek bai:

6. Taula. Baltziskueta kontalariaren T8 saioko aurrekari guztiak.

Ziklo narratiboa	Aurrekariaren osaera
1.	---
2.	bueno!/ beste kontu bat / hau ezberdina / hau ezberdina da! bai! hau ezberdina da (T8:)
3.	(txaloak) bueno! bueno orain kontatuko dizuet / askotan kontatu dudan ipuin bat eta: / karo Mejikon kotatua dagoenez ba nik uste dut e interesantea dela / Emilianorena: / aste hontan kontatzea (T8:207-209)
4.	bueno! aber hau kontatzen dudan ongi! / ze eske hau da: / pixkat konplikatua e? hau da familia baten / bueno / aber argitzen garen! (T8:377-379)
5.	bueno! alaitzeko alaitzeko kontatuko dizuet beste: / (entzuleak barrez) ipuin kontenporaneo bat! kontatuko dizuet eta ba horrela (T8:420-422)
6.	bueno! orain ipuin triste bat! bueno / ipuin alai bat / hau! (entzuleak barrez) <u>e::</u> / (T8:520-523)
7.	bueno! orain ipuin: laburtxo bat e: / zera: / piskat nahasteko! eta: / eta honekin / honekin ia bagoaz / bagoaz etxera! ze / ez dago () (T8:612-614)
8.	bueno kontatuko dizuet e:: / ia bukatze aldera: / eske hauek dira oso oso zailak / ni gero nahasten nahasten naiz baina bueno hauek dira:: / ipuin: / osea mito mito bat edo / mito: / botereari buruzko mito bat! bueno aber kontatzen dudan ongi ze piskat lioa da e? aber! / hau bai dela fikzioa e? baina: / bueno! zuek ulertu nahi duzuen bezala () (T8:676-680)
9.	Bueno ta ia bukatzeko kontatuko dizuet e azken azken azkena! hola:: / ipuin / e: / konten kontenporaneo bat ere bai eta:: / ta horrela bagoaz kontenporaneamente etxera e? bueno / (T8:741-717)

Goiko adibideetan dakusagu interakzio markoa gidatzen dela, generoaren edo kontakizunaren bestelako ezaugarriren bat aurreratzen dela, kontalariak bere lana betetzeko izan ditzakeen zailtasunak ere hizpide direla figura horren parodia eginez, e.a. Guzti hauek metanarrazio mailako diskurtso egintzak dira, eta maiztasun handia dute. Metanarrazio diskurtso egintza hauek gauzatzerakoan, kontalari bakoitzarengan joera ezberdinak ikusten dira.

Metanarrazio diskurtso egintza azpimota askotakoak errepara daitezke: soilak, ludikoak, sarbidezkoak -gaiaren topikalizazioa egiten dutenak, kontaktuzkoak, e.a. Maiz, metatu eta urtu egiten dira diskurtso egintzok. Diskurtso egintza metanarratiboak, oro har, erabiltzen dira: a) interakzio markoa erregulatzeko, b) kontakizunaren generoa edo bestelako ezaugarriren bat aurreratzeko –protagonista, gaia, e.a.- c) kontakizun jakin bat kontatzeko motibazioa azaltzeko, eta d) azkenik, kontestu fisikoan agertzen diren objektu eta indizeen eta diegesiaren artean loturak egiteko. Funtzio hauek urtuta etortzen dira maiz, jakina.

Hala ere, egia esan, aurrekaria atala oro har zerbaitek ezaugarritzen badu diskurtso egintza metanarratibo azpimota ezberdinen eta narrazio diskurtso egintzen arteko estrukturazio txandakatua da.

Has gaitezen sarbide diskurtso egintzen erabilera deskribatzetik, maiztasun handikoak dira eta. Lehenik, aurrekaria atalaren bereizgarria den sarbide deitu dugun metanarrazio diskurtso egintza azpimota deskribatuko dugu. Ziklo narratibo bakoitzean agertzen den kontakizuna ezaugarritzen duen alderdiren bat aipatzen da sarbide diskurtso egintzetan, gehienetan gaiaren ingurumariak ekartzen direlarik. Sarriago eta luzeago agertzen dira bigarren ziklo narratibotik aurrera, bai heldu eta bai hurrekin egindako kontakizunetan. Beraz, konta-saioaren horizontalitateak, aurrerapenak, badu zerikusirik sarbide diskurtso honen agerpenean. Bigarren ziklo narratibotik aurrera konta-saio guztietan, hutsik egin gabe, sarbide egintzak agertzen dira.

Hona hemen sarbide diskurtso egintzen lau adibide. Lehenengo biak metanarratibo soil eta esplizituak dira, oso laburrak. Izan ere, lehen ziklo narratiboaren aurrekariak dira eta esan dugun bezala, laburrenak ere izaten dira horiek. “Ba hau jakinda” eta “bada”, irekiera ataleko aurrekarietan aurreratu diren indizeekin lotura egiten duten konexio elementuak direla esan daiteke. (22) adibidean protagonistaren izena aipatze hutsaz osatzen da sarbide diskurtso egintza eta (23) adibidean berriz, saioko lehenengo istorioa dela esplizituki adierazten da:

(22)

IR: ba **hau** jakinda! kontatuko dizuet / Antonioren: **istoria!** (T7:96-97)

(23)

RB: hasiko naiz bada lenengo ixtoriarekin (T9:56)

Beheko adibidean, gaia aipatzen den sarbide diskurtso egintza metanarratiboa dakusagu:

(24)

PA: kontaktuko dizuet / errege madarikatu baten ixtoria! (T4:354)

Behean dakargun (25) adibidean kontaktuzko diskurtso egintza metanarratibo ludikoa da, formula erakoa. Kontaktuzko diskurtso egintza metanarratibo hauek haurren konta-saioetan baino ez dira agertzen eta, sarbidezkoen kontrara, lehen ziklo narratiboan bigarrenetan baino ugariagoak dira: hau da, irekiera ataletik gertuago kokatzen dira. Baliteke konta-saioaren hastapenean helburu fatikoa duten baliabide hauen behar handiagoa izatea interakzio markoaren ezarketa momentua delako, eta haurren parte hartzea kontrolatzen laguntzeko. Esan liteke, halako diskurtso egintzen agerpena aurrekaria atalean kontratu komunikatiboa behin betiko giltzatzeko edo berresteko modu bat izan daitekeela:

(25)

“PA: nik esaterakoan krik / zuek erantzun krak / eta ipui honekin hasiko naiz / krik!

EN: krak

.....krask” (T4:58-61)

Ikusten denez, entzule batek entzulearen rola hartzeari uko egiten dio baieztatzea baino bilatzen ez duen formularen erantzunean lehenetsia ez den erantzuna emanez. Hots bakar baten ekoizpenaren aldearekin (krak>krask), komunikazio elkartrukea ezbaian jartzen da, saioa arriskuan dagoela iragarritz. Zorionez, entzule hori bakarra izan zen halakorik egiten saio hartan eta entzuleek arretaz jarraitu zuten saioa. Etengabe lehenetsitako erantzunak eman zituen ordea aipatu entzule jakin horrek, eta baita ez zegozkion hitzartzeak hartzen saiatu ere. Izan ere irekiera atalean (10) adibidean ikusi dugun entzule bera da. Haurrekin saioak egiteak dakarren interakzioaren markoaren negoziazio gogorraren seinale. Irekiera eta aurrekaria ataletan, kontalariak entzulearen erantzun desegokiak eta interbentzio ahaleginak alboratuz jokatu du: ezentzunarena eginez eta besterik gabe aurrera joz. Saioan aurreratu ahala, ordea, bestelako jarrerak izango ditu kontalariak entzule honekin. Badirudi, hasieran, espero izatekoak direla entzuleek euren rola hartzeko erresistentziak, eta ondorioz, onargariagoak ere bai.

Bada, formula bidezko kontaktuzko diskurtso egintza metanarratiboen indarra eta ahultasuna ere horretan datza: kontratu komunikatiboak bideratzeko erabateko indarra dute, baina bortitzak ere gerta dakizkieke entzuleei; ez baitira prest interakzio markoan dagokien rola hartzeko. Haurrekin erabiltzen dira baina inoiz ez nerabe eta helduekin. Badirudi ez dituztela formula erako hauek, gaurko entzule helduekin jarduteko leuntasunik. Figurazio lanean esango genuke (Kerbrat Orecchioni, 1996), formula metanarratibo kontaktuzko horiek erabiltzea heldu eta gazteei “haurrak zarete” bezalako mezuak bidaltzearen pareko litzatekeela. Eta hori mehatxagarria da, bereziki nerabeentzat. Loup eta Ferdinand (2005) autoreek nerabeekin jarrera paternalistekin aritzeak dakartzan porrotez ohartarazten gaituzte, eta hau diskurtso mailan islatzen da. Helduekin jarduteko bada bestelako baliabide egokiago eta eraginkorragorik, beraz.

Aurrera eginez, aurrekarian agertzen diren diskurtso egintza metanarratiboetan inoiz kontakizunaren jatorria aipatzen dela esan behar da. Maiz, narrazio diskurtso egintza iradokitzaileekin konbinatuta (entzuleekin enpatia bilatzera bideratuak) agertzen dira. Ahaztu gabe, batzuetan konta-saioaren maila kontakizun markoa den extradiegesiarekin loturak zehazten dituzten metanarrazio diskurtso egintzekin ere metatzen direla. Ordea, argitu behar da lotura hauek ez direla beharbada idatzian espero genukeen bezala gertatzen eta garatzen. Ez diote idatziaren logika narratiboari jarraitzen. Ikus dezagun T5 saioko bigarren ziklo narratiboko adibide hau:

(26)

PA: eta geo baita ere bexte / bexte ipuia! eta ipui hura / txoriketaria berarena zen/ zen (T5:344-345)

Sarbide diskurtso egintza honetan, aurreko ziklo narratiboan agertu den pertsonaiari erreferentzia egiten zaio, hurrengo bigarren ziklo honetako pertsonaia ere izango dela iragarritz. Ordea, protagonista honek zeuzkan agentibitate balio zehatzek ez dute inolako zerikusirik ziklo batetik bestera, ez dute justifikazio narratiborik. Jakina ahozkoan funtzionatzen duela, nolabaiteko lotura, batasuna ematen zaio, eta badirudi hala behar duela. Bortxatua da lotura idatzizko adierazpidearen ikuspegitik, baina ahozko kontaktak baditu bere legeak, gutxienez, sekuentzia narratiboaren gainetik dauden zenbait atalen egituratzean. Belmontek (2002) etengabe dio onirikoa izatea dela kontalaritza tradiziozkoaren ezaugarri nagusienetakoa. Esan dugu nozio horrek ez duela zehaztasun eta baliagarritasun handirik deskribapen diskurtsiborako: baina, beharbada,

badu zerikusirik gure corpusean *ad sensum* egiten diren lotura elementuekin. Bada zer zehaztu eta objektibatu testu eta diskurtso analisiaren ikuspegitik.

Ohikoa da, bereziki saioan aurreratu ahala, orain arte aipatu gisako diskurtso egintzen metaketa. Gorago aipatu dugu, metanarrazio diskurtso egintza batzuek kontestu fisikoan agertzen diren objektu eta indizeak eta diegesia lotzen dutela (*d* funtzioa) aurrekaria atalean. Ondoko adibidean ikus daiteke bi diskurtso egintza metanarratiboen artean sarbide diskurtso egintza bat baliatzen dela kontestu fisikoko gertakari bat semiotizatzeke, eskolako kanpai jotzea, hain zuzen ere:

(27)

RB: hasiko naiz bada lenengo ixtoriarekin! eskola batean gaudenez / kontatu nahi dut / eskolarekin zerikusia duen istorio bat! leno zuek etorri baino leno / zuen e: / andereño maistrak (...) zuek deitzeko / han zinetelako hor nunbait jolaxen / egin du (gero eta bajugo eginez) dilin dilin dilin dilin

EN: (barreak; aztoratu dira entzuleak)

RB: istoria honek hala esaten du! (T9:56-64)

Aipatu den kanpai jotzeak helburu fatiko garbiak dauzka, ludikoak ere bai, baina gainera ziklo narratiboan gerora diegetizatu egingo da: narrazioaren osagai bilakatuko da. Kontakizun izango den eskola inguruko istorioan ere kanpai hots bera txertatuko da, narrazio elementu bilakatuz: “egun batez! Don Serijo / eskolako kanpaiak jo / (kantatuz) *dilin dalan / dilin dalan / dilin dalan / eta herriko neska mutil guztiak! eskolara abiatu ziran*” (T9: 72-74).

Diskurtso egintza metanarratibo metalinguistikoak Rai Buenok Iparraldean burutu bi saioetako irekiera ataletan agertzen dira. Aldiz, bigarrean aurrekaria atalean ere agertzen dira. Lehen saioan (T9) entzuleek hitz batzuk ulertu ez izanak eraginda dirudite T10 saioa aurrekarian ere modu errekurtsiboan agertzea diskurtso egintza metanarratibo mota hauek. Kontalariak, zehazki, kontagaiarekin lotutako argibide linguistikoa baieztatzea eskatzen die entzuleei:

(28)

RB: zuek hemen e Iparraldean eztakit ia / galdetuko dizuet! arratsaldean / guk exaten diogu merienda ordua / zuek nola esaten diozute? askari ordua?

EN: bai!

RB: bai? askaria?

EN: bai

RB: bai!

EN: bai (T10:31-37)

Orain artekoa, aurrekaria atalean narrazio diskurtso egintzek duten egituratze lanaren deskribapenarekin osatuko dugu. Azken hauek, bi eratakoak izaten dira nagusiki, saio osoa besarkatzen duen kontakizun marko edo extradiegesiari narratiboki lotuak dauden edo ez.

Hala denean, marko narratiboarekin edo saioaren maila narratibo nagusiarekin loturak egiteko (T5 eta T3 testuetan egiten den moduan) erabiltzen dira aurrekaria ataleko narrazio diskurtso egintzok, kontakizunen txertaketarako baliabide gisa. T3 saioaren kasuan, irudimenezko geografia batean kokatzen den herri baten aurkezpena egiten da irekiera atalean, eta herri haren istorioaren bilakaera izango da narrazio markoa edo hari narratibo nagusia. Kasu honetan, sarbide metanarrazio diskurtso egintzekin urtuta, pertsonaien bilakaera narratzen da. Hala, ziklo narratibo bakoitzaren kontakizun berriei sarbidea ematen zaie. Aurrekarietan azaltzen da herriko historiaren aitzakiapean sartzen edo txertatzen dira kontakizunak. Beharbada topikalizazioa baliabide gisa ere har litezke narrazio diskurtso egintzok. Esan behar da, narrazio diskurtso egintza hauek ez direla kontakizunak, baizik eta gehienetan narrazio klausula bakar edo gutxi batzuek osatuak direla (Labov & Waletzky, 1967). Ondoren, esandakoaren erakusgarri T3 testuko lehen hiru zikloetan kontakizun marko gisa azaltzen den extradiegesiari lotzen zaizkion narrazio diskurtso egintzak ekarriko ditugu adibide gisa:

7.taula. Diskurtso egintza narratiboak T3 testuko lehen hiru ziklo narratiboetako aurrekarietan:

Lehen zikloaren aurrekaria	Bigarren zikloaren aurrekaria	Hirugarren zikloaren aurrekaria
“oso ederki bizi ginen> egun hortaraino! o: ai zoriontsu! harro harro bizi ginela” (T3:15-19)	“eta bambabam! eta alkate! / Ahoandi alkate! lehen gauza orduan / bere lehen lana izan tzen / otso beltza / hil egin behar zela” (T3:210-226)	“a! horietako bat da badakizu: / i igitai / igitai zaukana / (eztarria garbitu du) igitaiduna e Atzapar / deitzen dugu guk / Atzapar” (T3:281-83)

Hiru adibide hauetan, narratzaile mota ezberdinak erabiltzen dira: autodiegetikoa (lehenean), heterodiegetikoa (bigarreanean), homodiegetikoa (hirugarreanean). Ikuspuntu aldaketak ere badaude, baina oraingoz garrantzitsuena (irudizko) herri baten bilakaera historikoa pertsonaia batzuen kontakizunen bitartez narratzen dela erreparatzea da. Ziklo narratibo bakoitzaren aurrekaria herria osatzen duten hainbat pertsonaien inguruko zehaztasunez josiko da, haien bilakaeraren aitzakiarean txertatuz kontakizunak. Hirugarren zikloaren adibidean, “badakizu” operadore informatiboak (Fuentes: 2009) saioan lehenago (lehen ziklo narratiboan eta lehen artekaketa atalean, zehazki) agertu den informazio baten berreskurapena egiten dela adierazten digu. Maiz ikusi dugu halakorik corpusetik ekarri ditugun hainbat adibideetan. Baditu operadore honek, hala ere, narrazio segmentu hauetan bestelako eginkizunak, interakzioari eta metanarrazioaren alderdiei lotuagoak diren erabilerak ere (Schiffrin, 1987).

T5 testua dugu aurrekaria atalean narrazio diskurtso egintzen erabilera egiten den beste adibideetako bat. Irekiera atalean analepsi bitartez (T2 eta T3 kasuan bezala) narratzaileari txikitik gertatutako ezbeharraren errelatoa egiten da: txikitako zorigaitza sortu zion “koaderno kuttuna” ganbaran gorde izana. Hain justu, lehen ziklo narratiboari ekingo zaio aurrekarian koaderno berreskuratu eta ipuinak idazteari berrekin ziola kontatzean. Adibidea osorik ikusiko dugu, kontaktuzko bi diskurtso egintza metanarratibo ludikoekin nola metatzen den erreparatuz:

(29)

PA: gogoratzen naiz egun hartan / nola ganbaratikan atera nuen nere ku / kuaderno / eta hasi nintzen / idazten / ipui hura / errege batena / kantu zoragarria entzun nahi zuela / eta nik ere bai! eta horregaitikan / zuei / orain / kontatuko dizuet istorioa / (kantatuz) *ipuiak ipuiak* (esku kolpeaz jarraitzen du kantuaren erritmoa)

EN: *ipuiak ipuiak*

PA: *kontuak kontuak*

EN: *kontuak kontuak*

PA: *i::puiak konta ditzagun*
 EN: *ipuiak konta ditzagun*
 PA: *umore onarekin*
 EN: *umore onarekin*
 PA: *denak elkarrekin*
 EN: *denak elkarrekin*
 PA: *ipuiak*
 EN: *ipuiak*
 PA: *kontuak*
 EN: *kontuak*
 PA: *zuek ez baizerate neska mutiko tontuak / ipuiak!*
 EN: *ipuiak*
 PA: *kontuak*
 EN: *kontuak (txalo egiteari utziko)*
 PA: *nik krik eta zuek krak / krik!*
 EN: *krak (T5:70-94)*

Extradiegesi mailarik ez dagoen narrazio diskurtso egintzen kasuan, ez dago kontakizunak sartzeko kontaketa marko nagusirik. Printzipioz, beraz, aurrekari horiek nolabaiteko autonomia dute saioarekiko (ez ordea, zikloarekiko). Hala ere, gehienetan, nola edo halako lotura egiten dela baieztatu dugu, jarraitutasun bat, osotasun bat iradoki edo bilatzen da. Hain zuzen, funtzio hori dute narrazio diskurtso egintza batzuek. Sarbidezko diskurtso egintza metanarratiboekin lankidetzan, analepsia erabiliz, narratzailearen bizitzako pasarteak narratzen dira, esate baterako. Narrazio horiek entzuleen izaera eta ezaugarrietara lerratzen dira, haien neurrira eginda egoten dira. Hona haurren konta-saio bateko adibidea:

(30)

RB: beitu / ni zuen adina nuenean / askari ordua heltzerakoan / **nerre** amak / beti beti / **prestatu** egiten zigun ogi **puxka** bat / ta barrenian / xokolatea / neri txokolatea: asko gustatzen zait / ta txokolatea hartu eta z::ret! aguro jaten nuen / txokolatea jan / eta nahi izaten nuen txokolote gehiago! orain kontatzera ni joana / orain kontatzera ni joan istoriak badu zerikusirik txokolatearekin! baina ez bakarrik txokolatearekin / baizik eta / baita ere / basoko zenbait / animaliekin / istoria honek hala esaten du (T10:37-46)

Analepsi bidezko narrazio honek, narratzaile autodiegetiko baten haurtzarora eramaten gaitu, hain zuzen, entzuleek bizi duten garai bertsua erakusten duena. Modu

horretan edo entzuleekin konpartitzen dira harreman hurbiletako bizipen intimoak. Konta-saiotetan parte hartzaileak ezagutzen ez diren arren, interakzio motaren ezaugarria da “intimitatea”. Ez da familiako edo lagunarteko intimitate mota, bestelakoa. Hau ere, kontalariak entzuleekin bilatzen eta eraikitzen duten harreman (Añorga, 2012) motaren erakusgarri dugu. Koch & Oesterreicher autoreek (2007) komunikazio egoeraren diagraman bereizi egiten dira, bide batez esateko. Kontradikzioa dirudien arren, elkartruke batek izan dezake komunikazio parametrotan distantzia handia parte hartzaileen ez-ezagutzaren aldetik, baina harreman intimoa bilatu. Hitzaldi batean ez zaigu komunikazio parametroen halako konfiguraziorik gertatuko: parte hartzaileak ezezagunak izan ohi dira elkarrekiko, eta gainera elkartrukeak ez du, oro har behintzat, ezer nolako harreman intimorik bilatuko. Bai, ordea, ikusten denez, konta-saiotan. Saioan datorren hurrengo kontakizunaren zentzu ematea, kasu honetan, entzulearen unibertso intimoan kokatzen da. Nahiz eta berez, (30) adibidearen kasuan zehazki, Ingalaterrako kontakizun bat izan jatorriz.

Bukatzeko, aurrekaria atalean iruzkin eta argibide diskurtso egintzak ere badirela esan behar da, nahiz eta ez diren ohikoak. Kasu honetan ere, diskurtso egintza metanarratiboekin edota argibidezkoekin metatzen dira. 5. taulan ikusi dugun saio bereko adibidea da ondokoa, bigarren ziklo narratiboaren aurrekaria, hain justu:

(31)

(eztarria garbituz) eta: istoria honetan / (soinu sabaikaria) ba eztaik neuk nola esplikatu! (soinu sabaikaria) hara! zuek badakizue zer den / ilargia? bai! bueno ilargia / zer esan nahi duen ilargia zeren / hilen argia / bainan badakizue / nondik datorren / izena?// (errieta eginez) *egun santu guztia eskolan / ikasten / unibertsitatea / euskaltegia / la hostia! eta ez dakizute / oraindik / nondik datorren ilargia? izena / zergaitik? jode! eskerrak ni etorri naizela / e? bestela / **bestela!** e? (eztarria garbitz) (T6:139-147)*

Finean, aurrekaria kontakizun jakin bat konta-saioan sartzeko beren beregi egiten den incipit modu bat da, iragarpen, laburpen, aurrerapen gisakoa... berori desiraraztekoa. Funtzio iradokitzailea dauka, entzulearengan espektatibak/aurreikuspenak sortzen ditu, baina ez du asetzen. Zentzu-emate prozeduraren baliabideetako bat ere badugu aurrekaria atala.

11.2.1.2. Muina: ezaugarriak eta egituratzea.

Ziklo narratiboaren atal nagusia da muina, zama handiena duena. Bere barnean hartzen du kontakizuna, eta hura osatzen duen sekuentzia narratibo osoa. Kontakizunek, noski, konta-saioen elementuen hierarkian, leku zentrala hartzen dute, zeren eta horiexek baitira gozamen iturri nagusia konta-saioetan.

Narrazio egintzak berezkoa du narratiboak ez diren denetariko segmentuekin uztartzea (Adam & Lorda, 1998; Bronckart, 1996). Narrazioa berez da anitza, eta narrazioa ez den sekuentzia mota eta segmentu askotarikoak erabiltzen ditu. Gauza jakina da, esate baterako, ebaluaziorik gabeko narrazioak ez dagoela (Adam & Lorda, ib.; Labov & Waletzky, 1967; Labov, 1997). Barne nahiz kanpo ebaluazioak egiturazko baliabideak dira (Bolívar, 2005).

Babcockek dio (1977) folkloreak metanarrazio oro ezabatu duela bere bildumetan. Hala ere, inoiz suertatzen da halakorik aurkitzea. Hor ditugu Mayi Ariztiaren Amattoren Uztan aurki daitezkeen batzuk: “Asko bezala, baziren Urdazurin hiru ama seme. Gure kontuan [gu bezala], jende behartsuak ziren” (Ariztia, 1982:20); “Orduan bazen Frantzian errege bat, eta uain ere hobe litaikela hala balitz” (Ariztia, 1982:64). Iruzkina soziopolitikoak, balorazioak, parte hartzen dutenen egoerarekin konparazioak, eta antzeko segmentu ez narratiboak isuri dira, gutxi izanda ere, kontakizun bildumetan.

Konta-saioei dagokienez, narrazioa bestelako modalitate diskurtsiboekin uztartzea, ez da bide batez egiten diren kontsiderazio edo zehaztapen gisakoa. Ez da ausazko edo kapritxozkoa. Gure azterketaren emaitzak ikusita, esan dezakegu ez dagoela ahozko narrazioa beste diskurtso modalitate gabe ulertzerik, eta areago, haiek gabe jendaurrean nekez kontatu ahalko litzatekeela baieztatu dezakegu. Planifikazio mailan, narratiboak eta narratiboak ez diren segmentuen arteko elkarlan eta mailakatzeak testuen azpiegitura bereizgarria osatzen du.

Kontalariaren estiloak badu zeresana kontakizunaren muina egituratzerakoan ere. Baita entzule motak ere. Ahal den heinean, ordea, testuen azpiegitura sortzeko baliabideetan aurkitu ditugun erregulartasun orokor edo nagusiak deskribatuko ditugu.

Ziklo narratiboak osatzen dituzten kontakizunen generoei dagokionez, esan dugu, bariazioa da nagusi. Baliteke lehen ziklo narratiboa zerrenda ipuin batez osatzea, eta bigarrena, ipuin miragarri batekin; lehena, mito batekin, eta bigarrena, kontakizun barregarri batekin. Kontakizun sailak sor daitezke, gai beraren inguruan bildu, baina

azpigenero ezberdinekoak izango dira. Hau, jakina, helduen saioetan baino ez da gertatzen: sail tematikoak sortzeko ziklo narratibo ugari egon behar dira-eta.

Esandakoaren adibide gisa, T7 saioa aipatuko dugu. Bi sail tematikotan banatzen dira ziklo narratiboak testu horretan: batetik, irekiera atalean iragarri den edo ezarri den maila extradiegetikoari lotuta, kontakizunen markoa den sufrimenduaren gaiari jarraitzen dioten zazpi ziklo narratibo daude; bestetik, entzuleen eskariz saioa luzatzen denez, azken hiru ziklo narratiboak tabakoaren gaia dela-eta txertatzen dira.

Kontutan izan behar da batzuetan zikloen muinean dauden kontakizunen arteko lotura edo motibazio oso sinbolikoa edo estetikoa izan daitekeela, nahiz eta gai beraren inguruan lotuak izan. Entzuleak ez du horretaz ohartzeko modurik edo astirik ordea ahozkoan, besteak beste, ez dago horretara. Hein batean, *ad sensum* lotzen direla ziklo narratiboetako kontakizunak –muinak- ere, geroago ikusiko dugun moduan. Horrekin ez da ulertu behar landugabeak direnik loturak: kontrakoa baino, ahozko komunikazio estetikoaren funtzionamenduaren berri ematen digu.

Muina azpiataleko estrukturatze bertikala aztertu baino lehen egin ditzagun bi ohar. Batetik, komunikazio beharren arabera, kontalariak egokitzen egiten dituzten dudarik ez dugu. Hala ere, egokitzen horiek atzematea ez da hain erraza, ez eta lan honen helburua ere ez. Kontalariari egokitzen egiten laguntzen dion konta-saioaren dinamika orokorra ulertzea da momentu honetan helburu, egokitzen horretan dagoen sorburua dena delakoa izanda ere. Bestetik, kontalariaren estilo edo sorkuntza gustuak badute zer esana diskurtso egintzen txandakatze egituratzean. Konbinazio batzuk nahiago dituztela agerikoa da: haurren konta-saioen muinetan argi ikusten da kontalari batek nahiago dituela narrazio diskurtso egintzak kontaktuzko diskurtso egintzekin konbinatu eta besteak diskurtso egintza ludiko hutsekin. Batak diskurtso egintza metanarratibo gehiago erabiltzen dituela besteak baino, e.a. Helduekin aritzen diren kontalarien artean ere joera ezberdinak daude, eta horrek bigarren mailako erregularitateak markatzen ditu. Ordea, ziklo narratibo batetik bestera ere txandakatzeak eta horien arteko konbinazio sailak ere aldatzen direnez, konta-saioan zikloak okupatzen duen posizio horizontalak badakigu zeresana duela. Horri gaineratzen badiogu generoak ere baduela zerikusia diskurtso egintzen txandakatzeen gauzapenean...testuek erakusten duten aniztasun emari horri muga bat jartzeko helburuarekin egin da ondoko deskribapena.

Espero izatekoa den moduan, narrazio diskurtso egintzak dira diskurtso egintza nagusi eta erregularrenak. Hori horrela izanik ere, beste diskurtso egintza anitz agertzen

da, aintzat hartzeko moduko kopurutan. Taula batean bildu ditugu lau konta-saioetako lehen ziklo narratiboetan agertzen den diskurtso egintza ezberdinen kopurua.

8. Taula. Diskurtso egintza moten kopuruak lau konta-saioetako (T4, T10, T3, T8) lehen ziklo narratiboan

	Haurren konta-saioak		Helduen konta-saioak	
	T4	T10	T3	T8
Corpuseko testua				
Kontakizunaren izenburua	Eskularrua	Kokotxokolatea	Hiru gizonak	Artozko jendea
Testu generoa	Zerrenda erako autore ipuina	Tradiziozko haur kontakizuna	Mittoa	Mittoa
Narrazio diskurtso egintzak	32	14	8	13
Metanarrazio diskurtso egintzak	5	1	0	3
Diskurtso egintza ludikoak	11	12	1	0
Kontaktuzko diskurtso egintzak	30	2	4	0
Iruzkina diskurtso egintzak	1	1	2	7
Argibide diskurtso egintzak	0	0	1	4
GUZTIRA	79	30	16	27

Taula honetako datuek erakusten dute narrazio diskurtso egintzak direla nagusi konta-saioetan. Narrazio diskurtso egintzekin mailakatzen diren bestelako diskurtso egintza motek, eta horien kopuruek, haurren konta-saioen eta helduen konta-saioen arteko ezberdintasun nagusia azalarazten digute: hurrekin diskurtso egintza ludiko eta kontaktuzkoekin agertzen da batez ere narrazioa mailakatua, eta helduekin, aldiz, iruzkin eta argibide diskurtso egintzekin.

Taulako datuak, ordea, bere horretan orientagarriak baino ez dira. Hala ere, aurreko ataletan aipatu ditugun hainbat datuei (ziklo narratiboen kopurua, iraupena, e.a.) testuen planifikazio baliabideen erabileraren araberrako funtzionamendu ezberdina dutela gehitu geniezaieke. Izan ere, tesi lan honen lehen zatian –alderdi soziologikoetan– Hernandezek (2006) konta-saio mota bi bereizten dituela esan dugu: helduenak eta haurrenak. Irizpide hau erabiliz, beraz, emango dugu konta-saioen egituratze bertikalaren erregulartasunaren berri.

Kontuan izan behar da, azkenik, bestelako eragileak ere izango direla. Batetik, sekuentzia narratiboaren azpiatalaren arabeko diskurtso egintzen erabilera eta bestetik, kontagai den generoa. Azken hauen eragina labur deskribatuz ekingo diogu muinaren deskribapenari, ondoren, esan bezala, entzuleen arabeko konta-saioretako garapena osatzen duten muinen nolakotasunari helduko diogu.

Kontakizunaren azpigeneroak eragin ohi dituen erregulartasunak

Zerrenda-ipuina deitzen diren kasuetan, pertsonaiaren ekintzak errepikatzen diren ipuinetan –miragarri izan edo ez- kontaktuzko diskurtso egintza ludiko, fatiko, metanarratibo eta diegetikoen bitartez elkartruke egiturak agertzeko aukera handitzen da, hurren-bikoteak sortuz: *galdera/erantzuna/(ebaluazioa)* erakoak. Nahikoa da kontalariak asmakizun gisa eduki diegetikoen aurreikuspenen gainean jostatzea entzuleekin edo narrazioaren haria galdu duenaren itxura egitea. Haurrek irrikaz hartzen dituzte halakoak. Gainera, badirudi ipuin hauek konta-saioen hasieran kokatzeko joerak funtzio erregulatzailer baten berri ematen digula, elkartruke komunikatiboa arrakastaz gauzatzeko helburuarekin. Entzuleak lotzeko moduko kontakizun egokia izan daiteke (Loup & Ferdinand, 2006), badute joera eta konta-saioen irekieran edota lehen ziklo narratiboan agertzeko. Bada, kontakizunaren kokaleku linealak ere agintzen duela dirudi eta generoarekin lotura estuan dago hau. Hala, lehen ziklo narratiboa eta bigarrena, bigarrena eta hirugarrena eta ondoko garapen guztian zehar azpigenero, luzera, tonu ezberdinetako kontakizunak tartekatzen dira, oro har.

Zentzu honetan, konta-saioa makrogenero bat genuke (Dolz & Gagnon, 2010). Haren barruan, hainbat azpigenero aurkituko ditugu, eta haien arabekoak ere izango dira testu mailako baliabideak. Bada zer sakondu alderdi honetan ere, jakinik gainera, Barandiaranek ohartarazi gintuela generoaren arabera hizkuntz baliabide ezberdinak erabiltzen zituztela kontalari zaharrek (ikus 6.1.1. atala).

Sekuentzia narratiboen atalen arabeko txandakatze erregulartasunak.

Diskurtso egintzen arteko txandakatzea erregularra da, eta transkripzioko lauzpabost lerroren bueltan gertatzeko joera dago; edo gutxienez, hortik gorako diskurtso egintzak nekez gertatzen direla ikusi dugu. Muinean narrazioa da diskurtso egintza erregularrena. Modalitate aldetik, berriz, anitza dugu diskurtso egintza honen gauzapen formala.

Beraz, narrazio diskurtso egintza bat agertu orduko, bestelako diskurtso egintza bat agertzen zaigu maiz. Batzuetan zinez dira laburrak diskurtso egintza narratiboak. Hemen dugu, adibide gisa, T8 testuko garapeneko lehen zikloko muina osatzen duen sekuentzia narratibo baten hasierako egoeraren azpiatalean (Adam, 1992) gertatzen den txandakatzea:

9. Taula. Hasierako egoeran gerta daitezkeen diskurtso egintzen txandakatzearen adibidea.

Sekuentzia narratiboaren atala	Diskurtso egintza mota eta kopurua	Testu segmentua- T8 testua.
Hasierako egoera	1.Narrazio	mundua lotan zegoenean / (T8:43-44)
	2.Iruzkin/ Kontaktu	mundua zegoen lotan / osea zuek imajinatu / mundu bat lotan ez? mundua zegoen lotan! (T8:45-46)
	3.Narrazio	eta orduan / jaingo handiek pentsatu zuten ba gizakiak egin behar zirela (T8:45-46)
	4.Iruzkin	gizakiak oraindik ere / egin gabe zeuden! / (T8:46-47)
	5.Metanarrazio	kontatuko dizuet berriro hasiera / (T8:47)
	6.Narrazioa	mundua lotan zegoen (T8:47)
	7.Argibide	/ ez da: / ja jesu kristo: ez / ez! ez jesukristo ez / kristo bendito! jangoikoa! jangoiko handiak! e? (T8:47-49)
	8.Narrazioa	jaingoiko handiek erabaki zuten / (T8:49)
	9.Argibide	hau da / jaingoiko bat baino gehiago bazeuden eta gainera haundiak ziren / (T8:49-50)
Indar transformatzailea	10Narrazioa	eta erabaki zuten gizakiak egitea (T8:51-52)

Ikusten den moduan, narrazio diskurtso egintzen inguruan azaltzen dira beste mota guztiak; txandakatzearen osagai iraunkorrak dira narrazio diskurtso egintzak. Txandakatze honen beste ezaugarri bat goiko taulan bertan ikus daiteke: erabateko araua ez den arren, txandakatzeak binaka gertatzeko joera dago, [narrazio-iruzkin] sekuentzia bikoitza, esate baterako; tartean metanarrazio diskurtso egintza dugu, eta ondoren berriz ere txandakatze bikoitza, kasu honetan [narrazio-argibide] artekoa.

Txandakatze sail luzeagoak ere sortzen dira, diskurtso bikote berberak hirukoiztu eta lauukoiztuz, baina, oro har, ez dira bikote berberak asko luzatzen. Ez ditugu sail bereko sei bikote segida baino handiagoak aurkitu. Konta-saioak aldaketa mota hau ere eskatzen duela dirudi.

Era berean, esan beharra dago, muinaren hasierako egoeran aurkitzen dugun txandakatze kopurua harremanetan dagoela aurrekaria atalaren presentziarekin, eta honen osaerarekin. Hala, aurrekaria atala mardula izan bada, orduan muinean aurkituko

dugun hasierako egoeran diskurtso egintzen txandakatze kopuru txikiagoa aurkituko dugula baieztatu dugu. Alderantziz, aurrekaria oso labur edo apenas gauzatua izan baldin bada (elementu ez berbazkoak erabiliz, esate baterako), orduan muinaren hasierako egoeran txandakatze gehiago aurkitzeko joera dago. Erregularitasun hau nabarmen betetzen da T8 testuko ziklo guztietan.

Ziklo narratiboen muinaren barruan, eskema narratiboaren edozein momentutan gertatzen dira txandakatzeak. Corpusaren behaketaren ondotik, berriz, muinaren bukaera aldera, bereziki indar orekatzaitetik aurrera, narrazio diskurtso egintza narratiboa ez eteteko joera dagoela baieztatu dugu; alegia, txandakatzerik ez egiteko. Ikus dezagun beheko taulan erabili dugun ziklo narratibo beraren amaierako egoeraren diskurtso egintzen estrukturazioa:

10. Taula. Sekuentzia narratiboaren bukaerako egoeran diskurtso egintza txandakatzerik ez egiteko joera.

Sekuentzia narratiboaren atala	Diskurtso mota	egintza	Testu segmentua- T8 testua.
Indar orekatzailea	Narrazio		eta orduan artozko jendea sortu zen / eta artozko jendea sortu zelarik / (T8:77-78)
	Argibide/ Kontaktua		artoa badakizue baita ere kolore ezberdinetako jendea badagoela n? (zenbaketaren entonazioaz) <i>artoa txuria izaten al da / gorrixka izaten al da / hori: gehiago () /</i> (T8:78-80)
Bukaerako egoera	Narrazioa		eta artozko jendea / artozko jendea izan zen jende ona / jende jatorra / eta / e egurrezko eta urrezko jende horren artean / kalapita guztiak eta arazo guztiak konponduko zituena / urrezko jendeak ziren / aberatsak! egurrezko jendea zen / pobrea! eta artozko jendea zen / ba: itxura onekoa / ez bakarrik itxura onekoa baizik eta jatorrak / eta geroztik / ba kon-ponduko zutenak / arazo guzti hoiek! (T8:80-86)

Corpuseko ziklo narratiboen muinean egiten den diskurtso egintzen txandakatzearen bitartez, kontakizunen eta haien narrazio osagaien berrinterpretazio eta bersemantizazio lana bideratzen da. Kontagaiaren zentzu-emate prozedura gisa baliatzen da. Kontakizunaren amaiera aldera, berriz, bukaerako egoeran, zentzu ematea gobernatuta dagoela eta, azken efektu estetikoa, narrazio diskurtso egintza hutsekin bideratzen dela dirudi.

Haurren konta-saioetan, sekuentzia narratiboaren atalen arabera ere aldakortasuna ageri da. Gero zehaztasun handiagorekin ikusiko dugunez, kontaktu

diskurtso egintza eta narrazio diskurtso egintzen arteko txandakatzea, nahiz narrazio diskurtso egintza eta ludikoaren arteko txandakatzeak dira oso erabiliak hurren saioetako egituratze bertikala gauzatzeko. Hala ere, muinean, sekuentzia narratiboaren garapenean sortzen diren diskurtso egintzen txandakatze sailek aldakortasuna dute lege; beraz, ez dira txandakatze horiek bere horretan mantentzen. Har ditzagun, adibide gisa, T4 testuko lehen bi ziklo narratiboaren muinak.

- a) Lehen ziklo narratiboan, zerrenda ipuin bat aurkitzen dugu. Lehen ekintzatik bertatik, pertsonaia berria agertzen den bakoitzean, entzuleek zein den asmatzera eramaten dituen kontaktuzko diskurtso egintzak darabiltza kontalariak. Horrela, galdera esplizituak ez diren arren gehienetan –asmakizun erakoak dira-, hurren bikoteak sortzen dira. Honela adibidez:

(32)

PA: eta gure sagutxo eskularruaren barnean zegoela / beste animala bat / hurbildu zitzaion

EN: hori zer zan arratoia?

PA: zitzaion saltoka (igelarena eginez)

EN: untxia

..... igela

..... igela

..... (XXX)

.....o txakurra

PA: igela? eta igelak kroak! kroak! bere: hatzamarrak izoztuak zittuen (T4:94-104)

- b) Bitartean, bigarren ziklo narratiboan, heteroiniziatuak (Schegloff et. al., 1977) diren hizketa-egintza asko dago entzuleen partetik, baina hurbileko bikoterik ez da sortzen, kontalariak alboratu egiten ditu eta, ezentzunarena eginez. Eskema narratiboaren hirugarren proba hasten denean, kontalariak kontaktuzko diskurtso egintzen bitartez, berriro ere hurren bikoteak sortzen dira: kontakizuneko heroiak bilatu behar duen objektua asmatzera gonbidatzen/behartzen dituelako entzuleak:

(33a)

PA: baiñon joan zen basora / eta pentsatu zuen *basoan / e ba baiñon ez ei basoan ez!*
basoan kantu zoragarriak ez baizik kantu?

EN: politak

PA: kantu politak! eta ez zoragarriak / ai ai ai! non aurkituko dut? (T4:506-509)

Ordu arte, bigarren ziklo narratiboa oso zalapartatsua izan da: haurrak interbentzioak egiten saiatu dira, kontalariak kontaktuzko diskurtso egintza fatiko-ludiko asko txandakatu ditu, e.a. Berriz, erabat aldatzen da txandakatze mota heroiairen hirugarren proba gaindiezina dirudienean: hain justu heroiairi, bere desiraren objektua lortzeko gaindiezinak diren ekintzak heltzean. Kontaktuzko diskurtso egintza ludiko-diegetikoen bitartez, entzuleek kontalariaren enuntziatu bat osatu behar dute, eta ondorioz entzuleak ko-enuntziatzaile⁷⁵ (Jeanneret, 1999) bihurtzen dira. Entzuleak ez dira aurrerantzean interbentzioak egiten saiatzen, hitzartze heteroiniziatu gehiago ez dugu aurkitzen. Nolabait esateko, kontalari bihurtu ditu entzuleak, beti ere, kontutan izanda kontalariak gidatutako unetan eta moduan bideratzen dela ko-enuntziaketa mota hau.

Bada, T4 testuko bi zikloetan oso ezberdina izan arren planifikazioa, azkenean, bietan lortzen du kontalari bihurtzea entzuleak ko-enuntziaketaren bitartez. Ez da erraza hau lortzea, testu horietan entzule txikiek hizketa-egintza heteroiniziatu asko egiten baitituzte. Haurren parte hartzea erregulatzea lortzen du, ordea, kontalariak. Azkenean, uhin berean doaz kontalaria eta entzuleak. Hainbeste ze, ondoko adibidean bezalakoak gertatzen diren, hau da kontalariak entzuleen proposamenak jaso egiten ditu, garatu eta diegesian integratu:

⁷⁵ Ko-enuntziatioak baditu hainbat adiera diskurtso analisisian. Adiera nagusietako batean (Jacques, 1983 ; Culioli, 1990) honela ulertzen da: elkartruke batean inskribatzen den enuntziatzaile oro aurretik eta ondotik egin diren enuntziatu guztien eraikuntzan parte hartzen duela. Bestela esanda, elkartruke batean parte hartzen duen orok eraikitzen du diskurtsoa. Jeanneret-ek (1999) ordea, modu zehatz eta formalagoan darabil kontzeptu hau: “(...) il désigne la forme de solidarité entre deux unités produites par deux locuteurs différents qui leur donne l’apparence d’avoir été produite par un seul locuteur. (...) un cas particulier de production à deux d’une unité de discours et de construction à deux d’une unité de sens” (Jeanneret, 1999:2). Zehatzago esateko, Jeanneretek, hainbat lokutoreen artean enuntziatu bat sintaktikoki osatzen denean da ko-enuntziatioa. Lehengo adiera erabat onartzen dugun arren –erabat onartzen dugu entzuleak kontalariaren diskurtsoaren ko-enuntziatzaile direla-, bigarren hau darabilgu kontaktu diskurtso egintzen erabilera formala deskribatzeko.

(33b)

PA:eta zuhaitz baten kontra / geratu eserita / pasa zuen / hantxe / gaua!

EN:gaua hotzez

PA: hotzaren hotzez / a! hurrengo: egunean / biharamonean egunxentian / eguzkia atera zenean
urrutiko mendietatik (T4:587-591)

Diskurtso egintzen arteko txandakatzeak gertatzen ez direnean, gerta liteke diskurtso egintza narratiboak luzeak izatea. Hala ere, kasu honetan, bigarren mota bateko txandakatzea gertatzen dela ikusi dugu. Helduen konta-saioretan gertatzen da bereziki. Narrazioa bideratzen duten enuntziario indizeen txandakatzea gertatzen da. Oro har, transkripzioko lauzpabost lerroko diskurtso egintzak ditugunean, narrazioa eraikitzeke enuntziario markak ez dira aldatzen. Ordea, narrazio diskurtso egintza luze samarra denean -lauzpabost lerrotik gora-, eta beraz, beste diskurtso egintza batekin txandakatzerik ez dagoenean, narrazio diskurtso egintzan bertan⁷⁶ enuntziario marken aldaketa identifikatzen da. Beste era batera esanda, badirudi diskurtso egintzen arteko ohiko txandakatze legea betetzen ez denean, narrazio modalitateen aldaketak ordezkatzeko delako dela: a) aditz denboren ainguraketan aldaketak eginez -lehenetik orainera eta alderantziz-; diskurtso ekarriaren modalitateak txandakatuz, esaterako b) narrazio diskurtso egintza berean zehar estiloa eta gero zuzena konbinatuz -hau bereziki haurren konta-saioretan gertatzen da-, c) narrazioaren eta zehar estilo librearen arteko mugak lausotuz, e.a.

Esandakoa argitzeko ikus ditzagun bi adibide. Lehenengo adibidean, orainalditik lehenaldirako jauziak egiten dira. Sekuentzia narratiboaren atalen eta zentzuzko unitateen banaketa jarraituz beti ere:

⁷⁶ Eztabaida bat litzateke ea diskurtso egintza narratibo beraren barruan geundekeen edo beste diskurtso egintza baten aurrean.

11. Taula. Narrazio diskurtso egintza berean aditz denboraren ainguraketaren txandakatzeak eta aldaketak (gris kolorez nabarmenduta).

Narrazio Diskurtso egintza	Aditz denboraren ainguraketa	T7 testuaren segmentuak
Hasierako egoera	Lehena	denda bat zeukan / plazaren herriko plazaren erdi-erdian / eta denda horretan / bileteroak / eta txanpon zorroak saltzen zituen / (...) eta bere denda / eta plazan egotea / ze handik! herri: / herrian gertatzen zen guztia / guzti guztia / ikusten zuen bai? (T7:97-103)
Indar transformatzailea	Oraina	ba: aspaldi honetan / Antonio kezkatuta dabil / batez ere bere negozioa gaizki dabilelako / ia ez du ezer saltzen! bueno! eztu ezer saltzen! (...) Antoniok bueltak ematen dizkio! buruari! (T7:103-111)
Ekintzen garapena	Lehena	eta gau batean! (kriskitin) iasta! okurritu zitzaion! eta:: / bileteroak eta txanpon zorroak diruz / eta txanponez beteta salduko balitu? ba pentsatu eta egin! hurrengo goizean / bere dendako eskaparatean / bileteroak eta txanponzorroak zeuden / biletez eta txanponez beteta / (...) eta:: / aldameneko herri guztietatik ere / bezero bezeroak lortu zituen/ aber! Antonio: / zoriontsua zegoen! (T7:111-121)
Ekintzen garapena: Ebaluazioa	Oraina (Zehar diskurtso librea)	zer eskatu deike gehiago bizitzari? e? bizi zara nahi duzun herrian! egiten duzu / nahi duzun lana! zure bezeroak maite zaituzte! (T7:121-123)
Bukaerako egoera	Lehena	ba handik urtebetera Antoniok bere negozioa itxi behar izan zuen kiebras jota! (T7:123-124)
Ebaluazioa	Oraina	(harriduraz) baina Antonio! oraindikan! eztu ulertzen / nola gerta dakioke berari horrelakorik! (T7: 124-126)

Nahiz eta diskurtso egintza bera den printzipioz taulan ageri den segmentu narratiboa, nabaria da planifikazioaren nolabaiteko aldaketa markatzen dela diskurtsiboki. Aldakortasuna nolabaiteko lege diskurtsibo dugu kontu-saioretan.

Azpiegituraren nabarmentzea oso konplexua izan daitekeela erakusteko, ikus dezagun beheko adibidea. Lehenaldian ainguratutako narrazio diskurtso egintza bati argibide diskurtso egintza bat txandakatzen zaiolarik, azken honek ekarri duen denbora ainguraketa isuriko da hurrengo txandakatzeko diskurtso egintza narratiboan:

12. Taula. Aditz denboraren ainguraketaren aldaketa txandakatzearen ondorioz.

Diskurtso egintza mota	Sekuentziaren atala eta <i>Aditz denbora</i>	T3 testuaren testu segmentuak
Narrazio diskurtso egintza	Hasierako egoera <i>Lehena</i>	egun hortan / sartu ziren gure herrian / hiru gizon! herriz herri ibili zien gizon hauek / gizon horietariko batek bazeukan eskuan igitai bat / (...) hiruak gelditu zien eta / (T3:20-28)
Argibide diskurtso egintza	Hasierako egoera <i>Oraina</i>	i (entzuleei zuzenduz igitai zer den ulertuko ez balute bezala) a igitai! m! igi / igitai da / holako esku tresna bat / ho:lako itxura bat daukana / (keinuz eta onomatopeiez irudikatuko du) <i>ui pin tan!</i> (ingeleseko <i>all right</i>) ol rait? ho:lako ! (T3: 28-32)
Narrazio diskurtso egintza	Ekintzen garapena <i>Oraina</i>	horrekin hurbildu da gizona eta esan dio (solasa) (...) eta horrela egin du / eta horrela ebaki du / garia! (solasa) oh! nekazaria gelditu da harrিতта / (...) (T3: 32-39)
	Ekintzen garapena <i>Lehena</i>	eta gure es gizonak / saldu! saldu egin zion / igitai! garesti / (T3:39-40)

Diskurtso egintzen txandakatzeko legearekin batera badirudi bestelako txandakatzeko legeak daudela, alegia, txandakatzeko modalitate konplexuago eta sutilagoak egon daitezkeela.

Helduen eta haurren konta-saiotako estrukturazio bertikala: zer erregulartasun

Ekin diezaiogun haurren konta-saiotako deskribatzen. Esan dugun bezala, haurrekin egindako konta-saiotetan narrazio diskurtso egintzen eta kontaktu diskurtso egintzen, nahiz diskurtso egintza ludikoen arteko txandakatzeko eta mailakatzeko dira ohikoenak. Askoz gutxiago dira iruzkin diskurtso egintzak eta argibide diskurtso egintzak. Halakorik egotekotan, oro har glosa metadiskurtsibo, metalinguistiko edota parafraasi erakoak dira, aurreko elementu baten argitze modu gisa, ulermen ziurtatzera bideratutako txandakatzeko diskurtsiboa. Adierazgarria da, halaber, digresio diskurtso egintzarik ez agertzea haurren saioetan.

Haurren konta-saiotako muinaren azpiatalean diskurtso egintza metanarratibo soilak ez dira asko, baina agertzen direnek ageria-agerian uzten diote entzuleari narrazioaren momentuaren edo egoeraren berri. Ulermen arazoak saihesteko baliabide ere badira, diskurtso egintza metalinguistikoak. Inoiz, kontakizunaren hasiera eta amaierako egoeraren markatzaile gisa ere erabiltzen dira: T4 eta T5en kasuan, esate baterako, partikula modalen (*esaten dute* erakoak) erabileraren bitartez instantzia

enuntziatiboaren iturria ekartzeko (Maingueneau, 1993) baliabidea bilakatzen dira. Ikus dezagun adibide honetan:

(34)

PA: garai batian esaten dute: / errege bat / bizi zela! erregeak mundu hontako ondasun guztijak / omen zittuen / ondasunak / aberastasunak / gauzak! ukittu zitezkeen gauzak / (T4:409-411)

Halaber, sistematikoki, T4 testuko lehen muina osatzen duen zerrenda ipuinean eta T5 testuko bigarren muinean azken ekintza baino lehen, entzuleei galdetzen zaie kontaktuzko diskurtso egintza metanarratiboaren bitartez ea uste duten bukatu dela ipuina. Kontalari berarengan baino ez dira gertatzen erabilera hauek halako modu esplizituan behintzat.

T9 eta T10 testuetan, ordea, muinean dauden diskurtso egintza metanarratibo gehienak metalinguistikoak dira, euskalki ezberdinen eta bereziki elebitasun modalitate ezberdinek eragindako gaizki ulertuak saihesteko eginak. Badira bestelakoak jakina, funtzio fatiko edo erregulatzaila (De Gaulmyn, 1991) dutenak, interakzio markoaren mantentzearekin lotuta eta generoari lotutako adierazpideekin datozenak: “hi txikito! hik parre eginzak / baiña gauza bat esan behar diat” (T4:297-298). Oro har, ordea, ez dira asko.

Haurren konta-saioetan, erruz erabiltzen dira diskurtso egintza narratiboak metanarratibo kontaktuzkoekin txandakatuta. Txandakatze hauen helburua ulermena mailakatu eta ziurtatzeaz gain, entzule txikien parte hartzea modu kontrolatuan gidatu eta bideratzea da. Beti ere, modu ludiko batean.

13. taulan ikus daitekeenez, diskurtso egintza narratiboen eta iruzkin diskurtso egintzen arteko (glosa metadiskurtsiboa) txandakatzea egiten da lehenik. Ondoren, beste bi kontaktuzko diskurtso egintza ditugu, kasu honetan diegetikoak. Kontaktuzko diskurtso diegetiko azpimota honek, ko-enuntziatioaren bitartez, kontalariak nola edo hala narrazioa aurreratzen duten segmentuak berbalizatzeraz daramatza entzuleak. Konbinazio sail bikoitzak sortzen dira horrela. Bestela esanda, kontakizunaren edukiak “elkarrekin” kontatzen dituzte kontalari eta entzuleek. Segmentu horien enuntziatio modalitatea kantua denez, ludikoak ere badirela gaineratu behar dugu. Irekiera eta aurrekaria atalekin konparatuta, muinean kontaktu diskurtso egintzek bestelako funtzioa izan dezaketela ikusten da, beraz:

13. Taula. Diskurtso egintza narratibo eta ez narratiboen arteko mailakatzea hurrekin gauzatutako muinaren segmentu batean.

DISKURTSO EGINTZA MOTA	BERBAZKO TESTU SEGMENTUA
Narratiboa	gau hartan / gure erregeak egin omen zuen amets (...) eta gure erregeren bihotza poztu zen! (...) ta egun batean / gure erregea deprimututa zegoena (T5: 106-119)
Iruzkina (glosa metadiskurtsiboa)	gaur egunean esaten den bezala / e? (T5:120)
Narratiboa	iritxi zitzaion gizon zahar bat / hola / narrats jantzita! (...) eta txoriketaria (T5: 120-126)
Iruzkina (glosa metadiskurtsiboa)	/ horrela zuen izena / (T5:126)
Narratiboa	joan zen kantu zoragarriaren bila! (T5: 106-119)
Kontaktuzkoa, ludiko- diegetikoa (tartean hizketa-egintza zuzentzailea)	PA: (...) <i>aurrera aurrera aurrera</i> (esku kolpeaz lagundu ditu azken hiru hitzok eta hurrengo hirurak) denak batera! EN: <i>aurrera aurrera aurrera</i> PA: <i>haizea lagun haizea lagun</i> EN: <i>haizea lagun haizea lagun</i> (T5: 127-131)
Narratiboa	PA: eta haizea lagun / joan zen basora! ze basoa ondo ezagutzen baizuen / (T5: 132-133)
Kontaktuzkoa, ludiko-diegetikoa (tartean hizketa-egintza zuzentzailea)	PA: (...) <i>basoa basora basora!</i> EN: <i>basora basora basora</i> (T5: 133-134)
Narratiboa	PA: ta basoan sartu / baso zuloan sartu eta hasi zen begiratzen ia e: / nunbait e aurkituko zuela kanta! (...) sartu zuen kaiolaren barnean / eta gure:: gure txoriketaria poz pozik joan zen atzera! (T5: 135-146)

Hala ere, kontakizun hau gauzatzen den muin berean iruzkin parafrastikoak (*zerri muturra jarri zuen gure erregek / eta mugitu bere lepoa gaur egungo kotxeko parabrisak bezela*; T5:157-159) eta kontaktu egintza soilak (*eze inor ez da beldurtuko orain e?*; T5:191-192) nahiz ludikoak (***dumba::!*** *zerri hau / sardina bakalau / jasionentako ostikua eta utzi omen zuen berriz ere hantxe pitoz gora*; T5:217-218) ere agertuko dira, diskurtso egintzen arteko konbinazioen txandakatze legeak aginduta.

Kontaktuzko diskurtso egintzen erabilerara itzuliz, oso maiztasun handiko elementuak dira txandakatze sailetan, haurren saioetan. Oso fina da hauen erabilera, oso kontrolatua. Kontaktuzko diskurtso egintza segmentuetan gainera hurbileko bikoteak sortzen dira, galdera/erantzun/(ebaluazio) erakoak. Hauetan kontalariak lehenetsitako erantzunak berriaz bilatzen ditu. Galdera erako enuntziatuak izaten dira, galdera itxiak, eta lehenetsitako erantzunak bilatzen dituztenak. Ez dira batere galdera irekiak. Erabat bideratuak dira ko-enuntziatio segmentuak, halatan entzuleek: a) errepikapen hutsa egin

behar dute, b) pertsonaia nor den asmatu, c) pertsonaiaren batek eman duen erantzuna asmatu, d) ekintza baten amaiera asmatu, e) kontakizuna amaitu den asmatu f) kontakizuneko elementuren bat gogoratu behar dute, g) hitzen bat nola esaten duten esan, e.a. *Bai/ez* erako erantzuna edota erantzun posible bakarreko galderak dira. Helduen konta-saioetan, askoz gutxiago gertatzen dira.

Hurrekin egindako beste konta-saio bateko muinaren egituratze bertikaleko adibide bat jarriko dugu ondoren, kasu honetan, diskurtso egintza ludiko eta narratiboan arteko mailakatzea dakusagularik:

14. Taula. muinean diskurtso egintza narratibo eta ludikoen arteko txandakatzea

Diskurtso egintza mota	Berbazko testu segmentua
Narratiboa	baina hori esan orduko / gure Kokotxokolate txikijak bere bi hanka txikiekin / hantxe es: kapo egin zuen! ihes egin zuen! (T10:102-104)
Kontaktuzko diegetikoa	badakizute nola? korrika! ariniketan! lasterka! (T10:104)
Ludikoa	(kantuz ondokoa) <i>ariniketan lasterka ariniketan ketan ketan ariniketan ketan ketan ariniketan ketan ketan</i> () (T10:105-106)
Narratibo-ludikoa	/ hartza! bere atzetikan / bere bi hanka mardul haiekin zirinda / zeraunda! (T10:106-107)
Ludikoa	ta zinda ta ta zinda ta ta zinda ta ta zin! (T10:107-108)

Diskurtso egintzen konbinatzeak funtzio fatikoak dituela dirudi. Azken adibidea horren erakusgarri: estetika ludiko baten presentzia etengabea, diskurtso egituratzailea ere badena. Esan dezagun, finean, kontrasteak berak jolasa sortzen duela. Jakina, kognitiboki ere entzule txikien ulermen gaitasunera eta arreta mailara egiten den egokitzapena dakar berarekin.

Berez dute funtzio fatikoa kontaktuzkoek, baina azpimota ezberdinak ere badirela ikusi dugu. Muina aurreratu ahala, beraz, narrazio eta kontaktuzko diskurtso egintzen azpimotak (fatikoak, metanarratiboak, ludikoak, diegetikoak) txandakatu eta mailakatuz joaten dira. Oro har, kontaktuzko fatiko edo ludiko huts izatetik, kontaktuzko ludiko diegetikorako bilakaera izaten dute. Konta-saioaren arrakasta, muinaren amaiera aldera, entzulea bera kontalari bihurtzeko izan duen eraginean neurtu daiteke. Jakina, ez da mekanikoa diskurtso egintza hauen erabilera edo gauzapena. Finean, entzulea ko-enuntziatzaile bihurtzera daramate: muinaren amaiera aldera kontalari/entzule dikotomia gainditu egiten da paradoxikoki. Atzetik datorren artekaketa

atalean, rolak berriro ezarriko edo gogoratuko dira, eta muin bakoitzean zikloa berrezarriko da.

Badirudi azaldutako hau beharrezkoa dela, haurren joera hitza hartzea baita, elkartruke mota honetan rol gisa tokatzen ez zaion arren. Ikus dezagun entzulea aldagai gisa hartuta hau segidan, geldoago.

Haurren konta-saioetan ederki ikusten da batzuetan oso ezegonkortzaileak direla haurren hitz hartze espontaneoak, izan entzule rola onartzeko zailtasunak dituztelako – gutxienez gure corpusean- edota oharkabean hitz egiteko joera dutelako, oraindik euren berbazko portaeraren kontrol osoa ez dutelako bereganatua. Azken hauen kasuan, oro har, kontalariaren enuntziazioaren errepikapen/oihartzun hutsak diren enuntziatuak ekoizten dituzte. Ziur aski, kontalariak halako parte hartzeek informazioa emango diete, kontalari eta entzule uhin berean doazenaren seinale gutxienez badira eta (T9:265-269). Batzutan zigortu ere egiten dira (T9-n, entzule rola etengabe ezbaian jartzen duen entzuleari “*hi hi hiperelektromoskito!*” mehatxu hizketa-egintza zuzentzen dio) parte hartze desagokiak. Baina, oro har, gure corpusean ez dira problematikoak eta kontalariak nahikoa du hauek alboratu edo saihestearekin, aurrera eginez, besterik gabe. Edozein kasutan, ordea, hitz hartzerik ez dagokie entzuleei eta kontalariak kontrolatu beharreko berbazko portaerak dira.

Hori egin bitartean, ordea, kontalariak kontaktuzko diskurtso egintza ezberdinen mailakatzearekin entzule txikiei leku bat uzten die hitzartzeko aukera emanez -beti ere kontalariak kontrolatuak direnak. Oro har, lehenik zer edo zer errepikaraztera eramaten dira haurrak, ondoren pertsonai berrien sarreraren asmakizunei erantzunez, e.a. Esan dugun moduan, inoiz kontalari bihurtzen dira entzuleak, eta kontalariak maisu dira entzuleen ekarpena jasotzen. Horregatik, hurren bikoteak sortzen dituzten kontaktu diskurtso egintzak garrantzi handikoak dira, haien bitartez entzule txikien parte hartze arrakastatsua ahalbidetzen da-eta. Saio berean bi kontakizunak modu berean mailakatzen ez direnez, oro har, kontakizun batean entzuleen parte hartze gehiago eragiten da.

Ekar ditzagun T4 testuan entzuleen parte hartzeko kontalariak erabiltzen dituen kontaktu diskurtso egintza modalitateak. Ziklo narratiboaren muinean, berehala ematen die pertsonaia berria zein den asmatzeko eginkizuna:

(35)

PA: korr::ika eta hotzaren hotzez zijoalako etzen konturatu / eskularrua / elurraren gainera erori zitzaiola / (eskularruak lurtean datzala irudikatuz *zapa* esango duen aldioro) *zapa:::!!!!!!*!

EN: (barreak)

PA: gizonak / jarraitu zuen / aurrera / ba al dakizute / nor geratu zen bakarrik esku:: ()

EN: larrua!

..... elurra!

PA: nor geratu zen bakarrik?

EN: elurra!

..... eskua!

PA: elurra! ipui hau horregatikan / ezta gezurra! hantxe geratu zen! *zapa::: gure*

EN: (barreak)

PA: *eskularrua* / eta eskularrua bakar bakarrik geratu zenian / une hartan (T4:69-84)

Segmentu honetan ikusten da nola entzule baten erantzun okerra ezeztatzeko, metanarraziozko diskurtso egintza ludikoa erabili den: “elurra! ipui hau horregatikan / ezta gezurra!”. Jokabide hau arrunta da haurren konta-saioetan, diskurtso egintza ludikoak narrazio diskurtso egintzekin edo kontaktuzkoekin urtu edo mailakatzearena. Horrez gain, zalantza izan dezakegu “*zapa:::!!!!!!*!” segmentua ludiko den, edo gutxienez bi ezaugarriak –narratiboa eta ludikoa- urtuta dituela agerikoa da: entzuleek gozamen handia hartzen dute segmentua da eta, barre eragiten die. Badu nolabaiteko autonomia aurreko segmentu narratiboarekiko. Egia da, hala ere, tentuz erabiltzen direla narratiboak ez diren diskurtso egintzak, izan ere, entzule gazteak dira eta gaizki ulertuak ere gertatzen dira. Ez da dirudien bezain erraza, euskara ama hizkuntza izanda ere, konta-saio batean parte hartzea haur batentzat. Ikus dezagun kontakizun amaiera datorrela iragarri T4 testuan erabiltzen den kontaktuzko diskurtso egintza metanarratiboa. Galdera/erantzun/ebaluazio gisa osatzen den hurren-bikotearen lehen eta hirugarren elementuak metanarratiboak dira, baina ebaluazioaren kasuan, ludikoa ere bada (*ba entzuten baldin badezute hau / zu/ etzeate geratuko nahigabez!*). Entzuleek, ordea, ez dute ulertzen, ezta errepikatuta ere:

(36)

PA: eta zazpi animaliak / lotan geratu ziren / elurra kanpoan / mara mara / (haizea eginez) *sx:::!!!!!!* / eta uste dezute bukatu dela hemen ipuia?

EN: ez

PA: ba entzuten baldin badezute hau / zu / etzeate geratuko nahigabez!

EN: e:?

PA: zuk esan duzu ez? ez / ez! ba entzuten baduzu ipui hau / etzea geratuko nahigabez!

EN: (barreak) nik eztot ondo ulertu!

.....nik bez

.....ni re ez

PA: e ba / ez ez! ez geratu nahigabez! besterik gabe!

EN: eske ni gero jun in behar naiz

PA: eta zazpi animaliak hantxe lotan zeudela: / une hartan! gure **hartzaren** / larruaren barnetik / be berotasuna nola somatu zuen (T4:225-239)

Ez dute narrazioarekin mailakatzen den diskurtso egintza ludiko metanarratiboa ulertu. Kontalariak, segmentua birritan errepikatuta entzuleek haren dimentsio ludiko hutsa ulertzen ez dutela ikusita aurrera jarraitzea erabaki du. Adibidearen amaieran ikusten da, behar larria ere sortzen dela aurrera egiteko: saioa ez atzera ez aurrera utzi duen tarte horretan entzule batek interakzio markoa ezegonkortzeko moduko hizketa-egintza egin du (*eske ni gero jun in behar naiz*). Interakzio markoa berez da hauskorra; haurren saioetan, agerikoagoa da hauskortasuna. Maiz, *captatio benevolentiae* bainoago, *captatio malevolentiae* ere egin beharra dago.

Haurrekin ari den kontalariari entzuleen hitzartzeen kudeaketa konplexu bat egitea tokatzen zaiola baieztatu dugu honez gero, entzule txikienen joera baita hitzartzeak berez proposatzea edo saiatzea. Kontalariak gehienetan alboratu egiten ditu entzuleen hitzartze nahi horiek, bestetan zigortu –gutxienetan- eta bestetan integratu egiten ditu, bereziki kontakizunen amaiera aldera, hauen erantzunak birformulatu edota onartuz bere diskurtsoan. Saioa arrakastatsua izanik, ko-enuntziaketa baliabide hau erregulartasun izan daitekeela baieztatzeko moduan gaude. Saioan zehar deskribatu dugun hitzartzeen kudeaketaren bilakaeraren beste adibide bat dugu ondokoa. Kontalariak entzuleek proposatzen dituzten indize narratiboak onartu eta bere kontakizunaren parte bihurtzen ditu, inoiz zuzenketaren bat egin behar izan arren:

(37)

PA: eta / horri esker / negua / nahiz ta / eskularrua puskatua egon / ba / puska harren erdian / pasa zuen negua:

EN: negu osoa

PA: negu osoa

EN: udararte

PA: e m udaberrirarte!

EN: udaberrirarte

PA: eta esaten dute udaberrian eguzki: amandrea atera zenian urrutiko mendietatikan / be::re berotasuna eskeintzen! e eta lehenengo / e / lorak / ziritzen hasi zirenean / norbait pasa zela / norbaitek zeharkatu zuela baso hura

EN: gizonak

PA: gizona! makutxirik / berokirik gabe / eta sartu eta:

EN: kontxo kontxo!

PA: *joño joño!* ikusi zituen animala guztiak / hilda! (T4:308-323)

Negu osoa, udarte/udaberrirarte, gizonak indize narratiboak aurreikusgarriak diren heinean, entzuleek kontakizunaren amaieran kontalariari aurreratuz heteroiniziatuak diren hitzartzeetan proposatzen dituzte. Elkartruke arruntetan ere gertatzen dira noski, solaskidetzaren baliabide gisa (Larringan & Alegria, 2006) aztertuak dira fenomeno horietako batzuk. Hala ere, solasean baino kontrol edo oharren handiagoarekin alboratzen edo integratzen ditu kontalariak parte hartzaileen hitzartze horiek. Oso une berezietan baino ez da onartzen entzuleek hasitakoak –heteroiniziatuak– diren hitz txandak eta haien edukia, beti ere kontalariaren interbentzioa osatzekotan.

Laburtuz, kontalariak kontakizunean zehar entzuleen parte hartzea bideratzen du, kontaktu diskurtso egintza mota ezberdinen bitartez. Ondorioz, lehenetsitako erantzunak dituzten hurren-bikoteak sortzen dira, formalki behintzat, diskurtso monologalarekin apurtzen dutenak. Entzuleak kontalari bihurtzea ematen du horrek emaitza gisa, irekiera atal nagusian ezarritako kontalari/entzule rolen dikotomia paradoxikoki gaindituz. Ziklo narratiboa amaitzean, ordea, kontalari/entzule rola bere horretara itzuliko dira. Muinak dakarren katarsian (Vygotsky, 1968/2005), hain zuzen ere, kontalari eta entzule rola neutralizatu egiten dira une labur baina erabateko batez.

Pasa gaitezen helduekin ohikoak diren txandakatzeak aztertzeraz.

Helduen kontakizunetan, narrazio diskurtso egintzekin batera, iruzkin, argibide eta digresio diskurtso egintzek berebiziko garrantzia dute ziklo narratiboaren muinean egiten diren txandakatzeen bidezko egituratzean. Txandakatze horien helburuak asko dira: ludikotasuna sortzea, ironia eta are sarkasmora ere hel daitekeena -absurdia ahaztu gabe-; baina baita interakzioa erregulatu eta arreta mantendu nahiz kontakizun zentzu-ematea ere, jakina. Helduen arteko komunikazioan ironiaren egitekoa arrazaz aztertua izan da (Escandell, 2000), zer esanik ez literatura idatzian (Hutcheon, 2000) edo humore egintzetan, oro har, helburu ludikoak erdiesteko:

L'ironie, avec le sarcasme, est peut-être l'une des figures les plus centrale de l'acte humoristique. C'est en tout cas celle qui fait le plus parler d'elle. C'est, me semble-t-il, parce que, insérée dans le processus d'énonciation qui dissocie le Je- locuteur du Je-énonciateur elle oblige le récepteur à entrer dans ce jeu de découverte et du même coup l'implique. Pour le récepteur, il n'y a pas d'échappatoire possible, on ne peut rester en marge d'un acte ironique. On est conduit à l'accepter avec jouissance ou hypocrisie, à le contrecarrer en répliquant par le dévoilement du non dit ou par un autre acte ironique. Bref, au sens fort, on est engagé (...) En cela, je rejoindrai Sperber et Wilson pour dire que l'ironie est une stratégie discursive comme une autre au service des relations de persuasion et de séduction entre les êtres communicants. (Charaudeau, 2013)

Definizio horretan esan dena baieztatzen da corpusean, narrazioak konplexutasun enuntziatibo handiagoa baitu helduen konta-saioretan. Horrek, jakina, zaildu egiten du diskurtso egintzen arteko segmentazioa, diskurtso egintzen arteko mugak lausotzen direlako. Anbiguitatea sortu behar da, polifonia enuntziatiboak gauzapan modu anitzak hartzen dituelarik (Pendones de Pedro, 1992). Eguneroko bizikidetasuna ehotzen eta erabiltzen diren kontsiderazioak, usteak, parodia, eta pikareska medio, hankaz gora jartzen dira kontakizunetako osagaiak. Kontakizunak narratzeaz gain, kontakizunaren irakurketa bat egiten da. Beste talaia batetik begiratzen zaio diegesiari eta hark garraiatzen duen errealtateari hainbat ohar, argibide, ñabardura, iruzkin egiten zaizkio. Dena ere ipuinduz, beti ere, ipuinaren jantziipean. Helduen saioetan behinik behin, jolas intertestuala berariaz landua aurkitzen dugu (Hutcheon, ibid.)

Ziklo narratiboetan dauden diskurtso egintza mota hauek ziria sartzeko edo enpatia handiagoa sortzeko ere izaten dira. Txandakatzeak, oro har, ez dira asko izaten, baina une oso jakinetan gertatzen dira. Inoiz oso luzeak ere izaten dira. Ondoko bi adibideotan, iruzkin metanarratiboak ditugu metanarratiboekin tartekatuta, helburu ludiko argiekin eta narrazio diskurtso egintzan eten nabaria dakartenak:

15. Taula. Iruzkín diskurtso egintzen txandakatzea.

Diskurtso egintza mota	T3 testuari dagokion segmentua
Narrazio diskurtso egintza	KA: (...) kandela luze luze luzea! osoki dena bihurtikatu du! dena makurtu! okertu ta / tximinei gainean eman eta (kriskitin) / piztu! kandela horrek erretzean / ederki gaztigatu behar zuen / lapurra! (T3:667-670)
Iruzkín metanarratiboa	KA: bueno! eta hortan daukat holako arazotxo (kriskitin) bat / e ipuinak / ipuinaren (txaloo) ondoan beti ipuinen ondoan / ez dakit ezagutzen dituzuen ipuinak zuen liburuetan edo ()! badaude beti ondoan holako e / e nola: / hitzarmen batzu / hitzarmen hoietan esaten da ipuina kontatu behar dela horrela horrela eta horrela kontuz horrekin detaileak () bueno / kontatzeko:: () eta ipuin horren / a m hi hi hi hitzarmenean / paragrafo bat dago / eta zatitxo hortan / esaten da / (agintera tonuaz) kandela erretzeko denbora guzian ez duzu ipuinik kontatu behar / erretzen utzi behar duzu kandela osoa / bo! beti da momento:: () / ba baina e m e piztua da e? beti erretzen e / ze / hau da piskat txarra mementu txa o oso gaizki pasatzen dut po po gainera / kandela hola bihurtikatuak a askoz denbora gehiago ematen du erretzen kan kandela zuzenak baino / ulertzen? uf! bueno nik ezin dut kontatu / orduan beste toki batzutan egiten dugu e / ba: gela honetan baten batek ipuin bat kontatu nahi balu / hu hurbil dadila () // batzutan badaude ipuin kontalari berriak gazteak badakizu! eta <i>e kontatuko duzu zuk? eta ez ez ez ez ez!</i> e kontalariak esaten dute / <i>ez ez ez!</i> zure zure espektakulua apurtuko dugu / <i>eta ez ez ez ez ez!</i> bueno eskarikasko / bo ta ze aukeratu? zer egin? toki batzutan egiten dugu e txartela:: su su suertatu hola egin / e e m / bostehun da berrogeitamar e e zenbakia daukan txarteladuna altxa dadila eta ipuina kontatzera etor dadila! bueno / hori gaur hemen ezin dugu / bostehun ta berrogeitamar ez gaude! ez? EN:(XXX) KA: edo batenbatek altxa nahi badu ta honera etorri: () / beti berdín! ino inor ezta munitzen! ez! ez egingo dugu gauza bat () / hemen prentsako jenderik ezta / ezta? pren prentsako jend / prentsako jenderik ezta? badakizu / bo tira prentsako jendea ipuinak entzutera ezta etortzen / ez ez ez! ez duzu arrisku / ez da / arriskurik ez da! gure tartean / gu gu gure artean da gauza / egingo dugu e nik / delako: e:: kapitulo hori edo e paragrafo hori / irakurri ez banu bezela! baixu / ttiki ttikia idatzi da fin fina idatzi da / ta:: batzuk ez dute irakurtzen ere baina ni nola gizon txintxo naizen dena xehe xehe xehe / dena irakurtzen! eta (txalo) tun! hori harrapatu dut! (ozen eta agintera doinuz) <i>i:e! kandela erretzen den denboran ezta ipuinik kontatu behar!</i> bueno / nahi duzue / onartzen baduzue! egingo dugu e horren gainetik pit! (panderoan saltotxo bat egin du eskuarekin) salto egin / irakurri ez banu bezela / ta ipuina kontatu / jarraitu kontatzen / (T3:670-709)
Kontaktú diskurtso egintza	KA: bai? onartuko duzue? EN: bai KA: jende onak zarete! milesker! (T3:709-711)
Narrazio diskurtso egintza	kandela / osoki erre da! eta auzoko Margaitari / ez zaio deus gertatu! biharamunean hantxe etorri da / (...)"(T3:711-...)

Goiko adibidean diskurtso egintzen txandakatzeak gutxiago dira, baina mardulagoak eta konplexuagoak.

Hurrengo nerabeekin egin den kontak-saio baten adibidea dugu. Pertsonaia laguntzailea atera behar den unean kontalariak galdetzen die entzuleei ea laguntzaile hori ama birjiña edo amona itxuran agertzea nahi duten. Nerabeek amona aukeratuko dutela aurreikusten du kontalariak, jakina, eta haien aurreiritziekin jostatzen da:

16. Taula. Iruzkin diskurtso egintzen txandakatzea.

Diskurtso egintza mota	T3 testuari dagokion segmentua
Narrazioa	eta Kattaliñek / hartu zuen / eltzea / (T1:255-256)
Metalinguistikoa	eltzea lapikoa: / tupiña (XXX) () / (txalo) (T1:256)
Narratiboa	eta joan zen basotikan / holako bidezior batetik / eta halako batean ()! (T1:256-257)
Metanarratiboa	bi :: bersio daude hemen (txalo) / hemen / hau da (eskuekin kortxeteak irudikatzen ditu) ttang! e / parentesi bat bi bersio <Ø,eta> zuek aukeratu! batean / Errenteriko bersioan / e:: amonatxo bat agertzen da bai? Oñatiko bersioan agertzen da Ama Berjiña / (T1:257-261)
Kontaktuzkoa	zein nahiago duzue? EN: amona JC: e? EN: amona JC: aber ia hasi gera ideolojiakin! utzi bazterrera zer errepresentatzen duen bakoitza! batean amonatxo bat / bestean Ama Birjiña / Ama Birjiña! la hada madrina: () / pentsatu / <non,nola> agertzen den bakoitza / amonatxo bat nola agertzen da? / (erantzunaren zai; eskuak izterretara) ba:! agertzen da! ez? klaro agertu behar da! ez? eta orduan () (esku kolpeekin baieztatuz) gidoian jartzen duelako! baiñan Ama Birjiña nola agertzen da? (Ama Birginaren agerpena irudikatuz eta kantatuz) <i>tzatzatza</i> :: Jolibut! <i>tzatzatza</i> :: <i>larara</i> Arrateko Ama Birjiña (elizako kanten doinuaz) <i>lararara</i> : nola da? <i>lala</i> :: aingerutxoak (aingerutxoak hegan) <i>txup txup txup txup txup txup txup txup txup</i> ! eta horrela / ez? koruak eta:: / zein nahiago duzue? (ahopeka) <i>amonatxoa</i> (aurrekoa baino altuago eta irribarrez) <i>edo ama birjiña</i> ? EN: (barreak) (XXX) amona JC: e? (T1:261-279)
Kontaktuzko diegetikoa	EN: amona JC: (etsipenez) <i>bueno amona</i> : / (T1:280)
Narrazioa	ba orduan Kattalin / Kattalin joaten zen basotikan eta (gogo barik) <i>amona agertu zen</i> / e? (amona deika) <i>e</i> ! ta galdetu zion () (XX) (T1:281-283)
Metanarratiboa	orain ia berdina da / (T1:283)
Narrazioa	galdetu zijon / ea zer zeukan horrela negarrez egoteko eta berak zuek dakizuen guztia kontatu zion eta (berriketa irudikatuz) <i>txa txa txa txa txa</i> ! hori eta berak esan zion / (ahots lasaigarritz) <i>zu zaude lasai</i> ! (T1:283-286)

Agerikoak dira txandakatzea hauen helburu parodikoak, intertestualite joko ludikoetan oinarrituak direnak maiz, entzuleen ezaugarriekin oso lotuak egoteaz gain. Metanarrazio diskurtso egintzak agertzen direnean, inoiz erregulazio funtzioa betetzen dute (norbait berandu sartuz gero edo, baina orduan ere, ziria sartzeko aprobetxatzen da), baina oro har, parodia egiteko elementuak dira, narrazio diskurtso egintzekin txandakatuta. Paradoxikoki kontalariaren irudiaren *deseraikuntza* egiten da, instantzia narratibo nahiz eskema narratiboaren funtzioen (Propp, 1987) aldagarritasuna eta, beraz, funtzionamendua agerian utziz.

Ironia franko eta inoiz sarkasmora ere heltzen diren esapide eta diskurtso egintza metanarratiboak ditugu muinean, kontakizunaren gaineko interpretazio, iruzkin,

ebaluzio eta baita ere narratzailearen ikuspuntu aldaketak adieraziz eta bideratuz. Diskurtso egintza metanarratiboek giza legearen topikoen berrinterpretazioa, kritika eta deseraikuntza bideratzen dituzte:

- Instantzia narratiboa zalantzan jartzen dutenak: “eta hau ta beste ta: / eta eztakigu zergatik egiten zuten hola!” (T8:100-101). Baita pertsonaia baten ahotsa modu zehaztugabea ekarriz eta ardura enuntziatiboa kontalariarengandik –barrik ere- urrun kokatzen dutenak: “eta hau ta beste! beraren e ustetan e: / Ubillo: / Bernadet Ubillo: horren arabera / erraten zuen” (T8:107-108).
- Kontalariaren ganorabakokeria hanpatuz poltsikoan irakurriko duenaren bila dabilela eginez eta bestelako paperak aurkitzen dituzenean halako oharrak eginez: “gaztetxearen zera () / **baina** (...) aterako dut e? aterako dut!” (T8:102-104). T6 testuan kontalariaren irudiaren aurka egiten duten adibideak asko dira: “e:: / nun geunden? a oraindik ez naiz hasi ez? istorioarekin / **bai!**” (T6:271-272); “ze bestela ze interesa dauka ipuinak? ez?” (T6:273-274); “non non gaude? ia galdu naiz / lokalismoetan (...) a! eta **ezkontza** eguna prestatu! ez?” (T6:340-344); “ipuin hortakoak horrelako zerbait egin zuen” (T3: 242-243); “**horregatik** edo” (T8:60); “eta / zer gertatu zen? ba: ongi ongi e?” (T8:62-63); “antza / indiarrek ez dakit zer egingen lieketen e::: zera! e espainolek indiarrei” (T8:179-180).

Kontalariak sortzen duen proiektu diskurtsiboaren (Charaudeau, 1995) arabera dira iruzkin diskurtso egintza metanarratiboen nolakotasuna. Hala ere, helduen kontasaiotetan denek ere narrazio instantzien deseraikuntzarako joera garbia erakusten dute, parodia eta ironia erako hizketa-egintzak. Horrela, narratzailea paradoxikoki bere narratzaile funtzioaz arduragabeki jokatzeko duen ethos bat bezala eraikitzen da maiz.

Inoiz, aipatu beharra dago idatzizko narrazio teknikak izategatik ezagunagoak diren baliabideak ere identifikatzen ditugula, esaterako, ikuspuntu aldaketa (Genette, 1989) garbia dakarren hau: “eztakigu! dakiguna da / begira dezagun hirugarrena / (...)” (T3:251-252). Holakorik ere ez genuen espero guk analisisien hastapenean, nahiz eta Héliasek (1990) hauetako batzuei erreferentzia egiten dien.

Era honetako metanarrazio diskurtso egintzak bideratzeko, zenbait partikula modal eta operadore enuntziatiboen (Fuentes, 2009) agerpena dakusagu testuetan, hala nola: *diote*, *akaso*, *omen*, *ote* eta *demagun* bezalakoak, zehazki esateko. Jakina, hauek narrazio diskurtso egintzekin oso uztartuak ageri dira. Partikula hauen erabilera entzuleen arabera nahiz kontalariaren estetikaren arabera dela dirudien arren,

badute joera agertzekotan, muinaren hasieran edo amaieran agertzeko. Haurren kasuan bestelako baliabide metanarratiboekin ere gauza bera gertatzen da. Beraz, modalizazioa modu ere badiren hauekin, generoaren gauzaterakoan, distantzia hartuz edo era-batean lotuz, euren zehaztasuntxoak gehitzen dizkiotela uste dugu. Narrazio diskurtso egintza luzetxoak direnean, txandakatzean gertatzen den moduan, gainera, birritan agertzeko joera ere badute, narrazio diskurtso egintzekin txandakatze edo mailakatzearen adierazgarri.

Dakargun adibide gisa, T8 testuan egiten den *demagun* operadorearen erabilera parodikoa. Kontalariak, berarengandik espero denaren kontra, kontaktzen denaren arduragabekeri itxura ematen du, behin eta berriz, joko ludiko argia eginez. T8 testuan narrazioaren deseraikuntzarako erabiltzen da etengabe partikula hori, 3. ziklo narratiboaren muinean. T8 saioan, izan ere, hirugarren ziklo narratiboan “demagun” operadorearen erabilera intentsiboa egiten du. Beheko taulan, *demagun* operadorearekin batera, konstelazio bat osatuz bezala, bestelako partikula modalen eta fraseologia andana aurkitzen dugu. Honela laguntzen dituzte narrazio diskurtso egintzen txandakatze sailak:

17.taula. Partikula modalen eta operadoreen erabilera narrazio diskurtso egintzen barruan.

eztakit ze urtetan izan zen baina momentu historiko hortan! (T8:150-151)
“edo auskalo nora! eta ez dakigu ere zenbat denbora egon ziren han (...)” (T8:171-173)
“ez dakit e lehenago ere oroitu zen emaztearekin ” (T8:175-176)
“demagun Sao Paulo garai hortan edo ez! (...) demagun!” (T8:177-178)
“demagun” (T8:180)
“adibidez okindegi baten demagun” (T8:183)

Azkenik, diskurtso egintza metanarratiboak bereziki iruzkin edo argibide diskurtso egintzek suposatzen duten narraziotik aldentzea leuntzeko –edo alderantziz, hanpatzeko- erabiltzen dira: “bueno hori beste istoria bat da” (T6:84-85), “baina hori beste istorio bat da ze:: e?” (T6:179-180); “bueno! beste kontu bat da! **ilargia** atera zen kontua kontu” (T8:161-162).

Metanarrazio metalinguistikoak helduekin gutxi erabiltzen dira, baina orduan ere adhesio eta helburu ludikoekin. Entzuleak euskaldun zaharrak direnean euskalkien lehia sartzen da, erronka botaz entzuleei: kontalariaren aldaeraren alde eginez eta bertakoa irrigarri utziz, esate baterako (T1). Berriz entzule euskaldun berriekin, alderantziz egiten da (T6), enpatia lortzeko bidea hartzen du euskara batua menperatu ezinezko aldaera duenarena eginez: aditzak inoiz edo behin gaizki komunztatuz edo asmatu ezinez, ingelesaren eta alemaniar hizkuntzetan gaitasun eskasa erakutsiz, e.a.. Distantzia dialektal eta soziolektalak, ulermen arazo eta eragozpen izatetik urrun, umore, enpatia eta gerturatzeko baliabide gisa erabiltzen da. Ikus dezagun beste adibide hau:

(38)

JC: badakizue orain / ere borrokak daude zein da Jaingoikoa Jabe: / Ala: / Jaingoikoa Dios / ez? eske karo euskaldunok problema bat dakagu / dena da Jaingoikoa ez? nola esaten da Jabe / nola esaten du judutar batek / Jabe euskeraz / Jaingoikoa! nola esaten du euskaldun musulmal batek Ala euskeraz / Jaingoikoa! nola esaten du kristiano euskaldun batek / Dios euskeraz / Jaingoikoa! nola esaten du e: animista euskaldun batek / e:? Jaingoikoa! ez? bu:!! oso originalak gara / **bueno!** ba garai hartan /”(T6:65-72).

Helduekin kontaktuzko diskurtso egintzak ere ezaugarri bereziak hartzen dituzte. Oro har, kontaktuzko diskurtso egintzek ez dituzte hurren-bikoteak sortzen. Hori baino, arruntagoa da entzuleen irudikapen bat diskurtsoan eraikia aurkitzea, eta keinuzkoak baino ez diren erreakzioak bilatzea. Diskurtso monologalean integratuak daude gehienetan entzule helduen kasuan apelazio mota horiek, hala nola: “ikusten dut zuen aurpegietan / errementariak daudela / zuen tartean / (panderoa jotzeari utziz) bo enfan! badakizue zergaitik egiten duen mailuak e e: / ingudiaren puntan *tintintintin* hori? ba zuek / jakingo duzue!” (T3:143-146); “herri guzia osoa elkartu da / zer egin! zer asmatu! herritarrak zuek bezela (zer egin ez dakitenaren keinua eginez) /” (T3:172-174). Hala ere, kontaktuzko diskurtso egintzak bezala, formalki diskurtso girotuaren (Bronckart, 1996) eta bertatik bertara egiten den solasaren enuntziazio markak (Kerbrat Orecchioni, 1996) erakusten dituzte segmentu hauek.

Horrek egiten du funtzio fatiko eta apelatibo hutsekin erabiltzen direnak aurkitzea corpusean, solas egoeratako partikula diskurtsibo edo konektore diskurtsibo interaktiboak: “em:?” (T3:22), “ez?” (T8:46), “ezta?” (T3:21), “ol rait?” (T3:32), (T6:137), “aizue” (T7:153), “badakizue” (T8:78), “m:.” (T3:301) e.a. Hauek ere ez dira

edonola erabiltzen, oso modu kontrolatuan erabiltzen dira, solas arruntetako erabilerarekin alderatuta. Izan ere, lehenik eta behin, ez dira hainbeste⁷⁷, eta batez ere, oso leku jakinetan agertzen dira. Ez da solas arruntaren erabileraren parekoa.

Nabarmentzekoa da, batzutan espero ez ditugun ahozko arruntaren ezaugarriak dauzkagula instantzia narratiboan ahokatuak, inskrustatuak. Kontaktuzko diskurtso egintza batzuk –txikiak izanik ere- solas egoeratako “pilotaje” lana egiten dituzten partikula diskurtsiboen erakoak dira. Ahozko solasean oso arruntak izan arren, kontalariak egiten duten erabileran, darabilten hizkuntzaren maila elaboratuen ordeztu baino ezin dira kontsideratu. Izan ere, inoiz, diskurtso monologalaren eraikuntzan parte hartzen dute, solasetan ez bezalako erabilera eta funtzioarekin agertzen zaizkigu. “Aja!” (T3:65) bezalako partikulen erabilera bitxiak aurkitzen ditugu, solaskidetza marka gisa funtzionatzen dutenak eta solas arruntetan pilotaje funtzioak dutenak. Ikus dezagun adibidea:

(39)

KA: bai **bom!** (ordaintzeko keinua eginez) **saldu! saldu egin zion!** garesti / aja! eta katuduna: / diru mordo bat (poltsikoan kolpetxoak emanez) poltsikoan urrundu zen besteekin (T3:65-67)

Ez da erraza esaten “aja!” horren enuntziatzailea zein den. Kasu honetan ez dirudi pertsonaiarena denik. Entzute aktiboaren markatzaile gisa funtzionatzen du partikula horrek -eta gorago aipatutako beste batzuek- ahozko solasean; beste era batera esanda, esandakoari jarraipena egiten ari zaiola adierazten zaio horrekin narratzaileari, entzulearen markak esatariarenera lerratzen direla adieraziz, haren narrazioa jarraitzen dela adieraziz (Laforest M., 1996; Morel & Danon-Boileau, 2001). Istorioaren entzule balizko bat irudika litekeen arren marka horren ekoizle gisa, azpimarragarriena zera litzateke gure ustez: ahozko solasean lokutore eta interlokutoreek egin ohi dituzten pilotaje lanak (Charaudeau, 1985) narratzaileak berak egiten dituela.

Badira ziklo narratiboetan berariaz egindako kontaktu diskurtso egintzak, narrazio diskurtso egintzekiko eten adierazkorrak suposatzen dutenak eta joko ludiko argiak direnak. Gradazio eta era guztietakoak aurki ditzakegu. Kontaktuzko diskurtso egintzen adibideak lirateke hauek:

⁷⁷ Gogora ez ditugula pertsonaien arteko solasetako solaskidetza markak orain hizpide, kontalariarenak, edo nahiago bada instantzia narratiboan baino. Horien analisisa apartakoa da.

-“e:::!” ikusten dut zuen aurpegietan / errementariak daudela / zuen tartean (...)
ba zuek / jakingo duzue!” (T3:143-146)

-“herritarrak zuek bezala” (T3:173-174)

-“zuei etzaizue holakorik gertatzen e?” (T3:186-187)

-“hiru lagunak / gogoratzen zarete / he: rri inguruan e e:txeak erosi ta: / bai!
katuduna ta / jo! ze memoria daukazuen zuek! **hiru hoiek ere** / gomitatuak izen zien /”
(T3:229-231).

Esaterako, solas arruntetako ezaugarri diren hetero-erreparazioen (Schegloff et al., 1977) erabilera berezia egiten dela baieztatu dugu. Kontalariak zer edo zer ahaztu edo amaituko ezin duela adieraziz gero, entzuleak diskurtsoa erreparatzera gonbidatzen dira, iturburuan benetako ahaztura edo okerrak baino asmo ludikoak, fatikoak daudelarik. Funtzio fatikoak ditu, baina parodia ere indartzen du. Hau ere tradiziozko kontalari bretoiek egiten zutela aipatzen du Héliasek (1990): guk identifikatu ditugun modukoak, arreta baieztatzeke eginiko galderak eta baita narrazioa bideratzeko aukerak eskaintzen dituzten galderak ere bai.

Amaitzeko esan dezagun helduen konta-saioretan txandakatzearen elementu irregularrenak diskurtso egintza ludiko hutsak edo hurren-bikoteak sortzen dituzten kontaktuzko diskurtso egintzak direla. Bada, hurren saioretan gertatzen diren txandakatzeez oso bestelako ardazketa aurkitzen dugu. Aldakortasun horren eragile nagusiak, beraz, ardatz bertikala osatzen duten diskurtso egintzen arteko txandakatze moten erabileran aurkitzen ditugu. Eta azken lerroetan ikusi dugun bezala, horrek bestelako ondorio linguistiko-diskurtsiboak ekartzen ditu.

11.2.1.3. Irtetzea: ezaugarriak eta egituratzea

Irtetzea deitzen diogu ziklo narratiboaren hirugarren osagaiari. Ez da kontakizunaren amaierarekin nahastu behar. Berau da azpiataletan laburrena (salbuespenak badira) eta beharbada formalki erregularrena ere bai. Sekuentzia narratiboko bukaerako egoeraren ondoren dagoen berbazkoak osatzen du irtetzea. Amaiera bat ematen dio zikloaren barruan kontakizuna izan denari eta behin betiko amaitu dela adierazteko funtzioa du. Bestelako ahozko genero narratiboetan deskribatu izan den kodarekin (Labov & Wallezky, 1967; Labov, 1997; Goodwin, 1997; Schegloff, 1997) antzekotasunak badituen arren, konta-saiorearen generoak bestelako izaera eta funtzioak esleitzen dizkiola ulertu behar da.

Besteak beste, ziklo narratiboaren aurrekaria atalean agertu diren zentzu emate prozedurak berrartu daitezke irtetzea azpiatalean, han esandakoak gogoratzuz edo borobilduz. Bere trantsizio izaeragatik, artekaketa atalarekin urtzen da inoiz. Modu honetan, garapenaren atalen artikulazioa ahalbidetzen du eta horien arteko mugak leuntzen, bereziki helduen konta-saioetan.

Aurrekariarekin gertatzen zen antzera, badugu atal honen arrastorik tradiziozko kontalaritzan (Kaltzakortak, 1998). Gutxi bildu badira ere -eta beti formula eran- Mayi Ariztiak badarabil adibidez:

Nik azkenik ikusi nituenian, bazituzten hiru seme alaba, xarmantak.

Ni ere, denbora hartan, gazte eta alegera zaldi ederrarekin, promenatzen nintzen.

Orai, zahartu eta tristatu, orai eskalapoinekin, ezin segituz plantatu. (Ariztia, 1982:36)

Zikloan egin den kontakizunarekiko enuntziazio indizeen aldaketak dakartza irtetzeak, testuinguruko parametro fisikoen eta sozio subjektiboen errepresentazioen arteko pasaera irudikatuz. Oro har, tradiziotik gorde diren formula hauetan kontalaria kontakizun izan den istorioaren testigu gisa agertzen da. Irtetzeak, ordea, ez du saioa amaitu dela adierazten, kontakizun jakin baten narrazioa amaitu dela baino.

Irtetzean agertzen diren segmentuen helburua ez da konta-saioarekin amaitzea: ziklo narratiboa ixtea baino; konta-saioaren marko orokorrera itzultzeko zubia dugu.

Azpiatal honetan erabiltzen diren diskurtso egintzen txandakatzeari dagokionez, entzuleen araberako erregulartasun nabariak aurkitu ditugu. Haurrekin egindako saioetan diskurtso egintza metanarratiboak eta ludikoak erabiltzen dira. Helduekin berriz, anitzagoa da aukera: diskurtso egintza metanarratiboan ondoan, narratiboak, edota iruzkin eta digresio diskurtso egintzak ere aurkitzen ditugu.

Diskurtso egintza metanarratiboan dagokienez, maiz tradiziotik hartutakoak izaten dira, aldaera edo moldaketekin izanda ere. Badira, sortaileagoak direnak ere.

Haurren konta-saioetan, diskurtso egintza metanarratiboak kontaktuzko bilakatzen dira. Oro har, interakzio markoari erreferentzia egiten diote. Honela:

(40)

PA: (...) / (musika eten) ta / zoriontsu / hua zoriontsu / gu re / bizi gaitezela (erdi kantatuz)
berdintsu::

EN: tsu (T4:638-640)

Ondoko adibidean, erreferentzi berri dugunari, helburu perlokutibo garbia gehitzen zaio, umeei txalo eginaraziz:

(41)

RB: eta orduan gu han izan ginen / eta orain hemen / **Miarritzen!** eta ipuia bukatu denez / nahi badezute / esku honekin eta honekin / posible dezute / txalo egin (txaloak 9''; 7'' isiltasunean) eskerrik asko // (T10: 169-172)

Azken adibide honek komunikazio rolen eta egoeraren erregulatzailer izatea du funtzio argia. Entzule txiki hauei zein baino argiago adierazten zaie zein jokabide espero den beraiengandik, nahiz eta konta-saioretan ez den batere ohikoa txalo egitea kontakizunen artean. Helduen konta-saioretan ez dugu inoiz halakorik ikusi, baina haurren saioretan baliteke arruntagoa izatea. Ez horregatik, arrunta. Ez da bertso saioretako enuntziario eskema kontalaritzarena. Kasu honetan, kontalariak txalo egin arazten die, ordea, bi saioretan. Aukerak ere hor dira, jakina, entzule motei egokitu beharrak agintzen du eta. Lehen ziklo narratiboaren irtetzean agertzen den diskurtso egintza txandakatzeko bera bigarren ziklo narratiboan irtetzean ere erabiliko du kontalariak, baina moldaketa txiki batekin. Izan ere, dagoeneko entzuleak *hezi* edo *iniziatu* ditu eta, beraz, baldintzaren bigarren osagaia ez da gauzatu beharrik. Entzuleek txalo egiten dute formula entzun orduko:

(42)

RB: eta orduan gu han izan ginen / eta orain hemen / Miarritzen / eta ipuia bukatu denez / nahi badezute (XX) () (txaloak) eskerrikasko milesker! (T10:422-424)

Erantzun lehenetsia bilatzen duen kontaktuzko diskurtso egintza metanarratiboak ere erabiltzen dira haurrekin, rol komunikatiboen berrezarpena edo gogoratzea eginez:

(43)

PA: (...) gure gizonak etzekien baso hartan ze gertatu zen / baiñon beste batek bai! edo hobeto esanda / beste batzuk bai! badakizute nortzuk?

EN: iñurria

.....animaliak

PA: zuek / ipui hau / entzun duzutelako:!

EN: ... (XXX) (T4: 328-334)

Haurren konta-saioretan etengabe lantzen da testuinguruko parametroen irudikapena. Konta-saiorearen edozein unetan gerta daiteke, edo hobe esan, gure azterketaren emaitzak ikusita: etengabe egin beharrekoa da. Azken adibide honetan, asmakizun erako jolasa egin du kontalariak, eta beraz, beti ulertuko dugu modu ludikoan egin beharra dagoela, entzuleari sorpresa eraginez, ezustean harrapatuz eta maiz zirikatzetik gertu dagoen jolasaren bitartez gozamina eraginez.

Helduen saioetan, ohi bezala aniztasun handia dago, laburrak nahiz luzeak izan. Maiz diskurtso egintzen arteko urtzeak gertatzen dira.

Diskurtso egintza metanarratiboen kasuan, badira formula erakoak ere, haurren konta-saioretako antzekoak. Kontaketa egintzaren sinesgarritasuna ezbaian jartzen duen baliabidea da⁷⁸:

(44)

JC: eta / pozik bizi izan bazen / pozik hilko zen! (T6:361-362)

(45)

JC: eta haiek **han** ta gu **hemen** / gure ipuia **Flandisen** / gure txepetxa bizkarren hezurra / eta ipuin guzija / gezurra! (barrez) (T1:349-351)

(46)

JC: eta halaxe zen / halaxe da eta halaxe izango omen da aurrerantzean ere / (txalo eta irri) ai!!!
ba eskerrikasko! (eskuak bilduz) (T6:251-253)

Azken adibide honetan bezala, hizketa-egintza adierazkorrekin ager daitezke. Baina hau ez da ohikoena ere.

Helduen saioetan, badira beraz, tradiziozkoak edo haien aldagai edo erara egindako formulak. Badira, ordea, estetikoki formula erako irtetzeekin apurtzen dutenak ere: kontakizunen amaiera dohakabeak laguntzen dituzte oro har, eta beraz, heldu edo nerabeekin baino ez dira erabiltzen. Bi kasutan, pertsonaia nagusiak zorigaitzoko patua erdietsi ezin duenean erabiltzen dira, efektu estetikoa indartuz: “ta iasta!” (T8:207); “eta kitto!” (T1:634-635).

Iruzkin, digresio eta argibide diskurtso egintzak eurak ere izan daitezke irtetzearen osagai bakar, ebaluazio modura:

⁷⁸ Labov (1997) eta Baumanek (1986) berariaz aztertu dute dena delako kontakizun edo errelato bat entzuleari sinesgarri egin beharrek zein moldaketa ekartzen dituen narrazio genero mota ezberdinetan.

(47)

BA: ta eztizuet kontatuko nola bukatu zuen Atueik baina / baina (errukiz) *gaizki gaizki gaizki oso gaizki* (T8:133-134)

(48)

JC: eta halaxe amaitu zen / apaizak ezkontzeko hori / orduzkeoztikan / munduan / apaizik / ez da ezkontzen / euskaldunei esker! (XXX) (T6:555-557).

Irtetzeak oro har laburrenak dira, baina ikus ditzagun luzeagoak. Ikus dezagun, kasu honetan, entzule nerabeekin egindako diskurtso egintzen txandakatze bat, metanarraziozko diskurtso egintza bat kontaktuzko iruzkin diskurtso egintza batekin:

17. Taula. Irtetzean diskurtso egintzen txandakatze mota bat nerabeen konta-saioan.

Diskurtso egintza mota	T1 testuko testu segmentuak
Metanarratibo ludikoa	“eta haiek han ta gu hemen / gure ipuia Flandisen / gure txepetxa bizkarren hezurra / eta ipuin guzija / gezurra! (barrez)” (T1:349-351)
Kontaktuzko iruzkin metanarratiboa	ja! ia zeundeten horrela e:?: (beldur keinuak egiten ditu; 4’ igaroko barre eta keinu artean) / kakati halakoak! (T1:251-252)

Zenbait konta-saioetako irtetzeak luzeak eta konplexuak dira, zinez, narrazio diskurtso egintzak tarteko direnean. Kasu hauetan, diskurtso egintza metanarratiboak txandakatzen dira, edo narrazio diskurtso egintza modalitate ezberdinak ere bai, muinean gertatzen den moduan. Hona esandako irtetze atal baten adibide laburra, egiantzekotasunaren gaineko formula metanarratiboa txandakatzen duena, urtuta, kasu honetan:

(49)

KA: *e::ta Bilintxek* gauza bera egin du / bueltatu ta / etxerako bidean / kaia kaleari **gora** / gogoan dauka / Ttoniori esandakoa / (sendo) *eh! munstroak? bai munstroak daude / itsasoan! kontalarien mingain eta gogoetan dauden bezain bat!* a! / ba hori esan dio (T2:656-660)

Oro har, ordea, formula bidezko diskurtso egintza metanarratibo hauek bestelako diskurtso egintzekin osatzen dira helduen konta-saioetan. Ikus dezagun ondoko adibidean:

18. Taula. Irtetzea osatzen duten diskurtso egintzen txandakatzeak.

Diskurtso egintza mota	T6 testuko testu segmentuak
Metanarratibo ludikoa	“eta / pozik bizi izan bazen / pozik hilko zen!” (T6:361-362)
Iruzkina	“beraz / ezin fiatu ezta?” (T6:362)
Digresioa	“bueno / ni fiatzen naiz! berdin zait / e? (...)” (T6:362-363)

Kasu honetan, aurrekaria atalean kontakizunaren protagonistak izango duen sexuaren inguruko problematika aipatu da eta kontakizunak arazo hori baieztatu baino ez duenez egin, irtetzea azpiatalean protagonistak bizi duen frustrazioa azpimarratzen da iruzkinaren bidez. Ondoren, digresio diskurtso egintza baten bitartez kontalariak kontakizuneko pertsonaiaren kontrakoa den jarrera erakusten du (fideltasuna ez da eragozpena).

Bada, ziklo narratiboaren aurrekaria eta irtetzea elkarri begira daude, osotasun maila bat suposatzen dute. Ikus dezagun adibide honetan nola aurrekarian esan dena irtetzeak jasotzen duen:

19. Taula. Irtetzea aurrekariaren indizeak berrartu eta osotzen.

Aurrekaria atalean sarbide eta iruzkin diskurtso egintzen txandakatzea	eta istorio honetan esplikatzeko mundua nola banatuta dagoen / gero bakoitzak aukeratuko du non kokatzen den / (T6:63-65)
MUINA	
Irtetzea atalean iruzkin, kontaktuzko eta digresio diskurtso egintzen txandakatzea	orain gauza da zuek jakin behar duzue / nun kokatzen zareten / banaketa horretan / eta ez du balio tranparik egitea! bueno badakizue ez? orain / zuek nun kokatu / bueno uste dut imajinatzen dut baina (eztarria garbituz) ez dizuet esango (T6:121-125)

Aurrekarian argibide diskurtso egintza baten ondoren entzuleei iruzkin ebaluatibo bat egitera gonbidatu zaie, entzute-planoa iradokiz. Irtetzean, kontakizuna entzun ondotik, gizartean duten lekua hartzera gonbidatzen dira entzuleak. Horrela, zikloari osotasuna ematen zaio semantikoki. Ondoko adibidean berdin, 7. taulan erakutsi dugun T3 testuko bigarren ziklo narratiboaren aurrekarian azaldu den egoera berrartzen da, efektu ludikoa nagusitzen delarik:

(50)

KA: hiruak altxatu dia ta hiruak joan dira / alkatearen ikustera / Ahoandiren ikustera / eta esan diote kontatu diote dena! ta esan diote / *aizu! otsoa gu baino argiagoa da / eta gu baino lu:*zaz *iraungo du oain segur / lur gain honetan! aha:!* ba ba (ahopeka) // (T3:273-276)

Lotura hauek oro har konta-saioan extradiegesi maila dagoenean gertatzen dira, hari narratiboari eutsi edo justifikatu beharrez; horixe da zentzu-emate prozedura nagusia, izan ere. Orduan, aurrekariak bezala, irtetzek zikloen kontakizunaren eta konta-saioaren diegesi maila nagusiaren arteko zubi lana egiten dute. Kasu horietan agertzen dira diskurtso egintza narratiboak metanarratiboekin eta iruzkinekin batera.

Bada, horrela, irekierako atarikoak azpiatalean ezarri diren indize makronarratiboak aurrekari eta irtetze guztietan landuak eta garatuak aurkituko ditugu. Ikus ditzagun T3 testuko bi adibide. Lehenengo honetan, ziklo narratiboko pertsonai soil zirenak, extradiegesiaren pertsonai nagusi bilakatzeko bidean, herri imaginarioaren historian hartu duten lekuaren kontaketa egiten da irtetzea azpiatalean:

(51)

KA: esaten da: / hiru hauek / diru horrekin / **gure** herrian / **lur**rak erosi zituztela / lur horietan etxeak eraiki eta hortxe daudela geroztik! hiru lagun hoiek / igitaia zukana / katua zukana / eta oilarra (sorbalda seinalatuz) hementxe / (T3:96-99)

Ondoko adibidean, berriazko lana egiten du kontalariak irtetzean. Ikusten denez, kontagai izan den istorioaren sinesgarritasunaren eztabaida pertsonaien arteko solasera eta pentsamenduetara hedatzen da, narrazio operazio konplexuak erabiliz:

(52)

KA: ahoa zabal zabalik dao Bilintx / a amak / be behin da berriro kontatzen dio be bere istorioa / ahoa zabal zabalik entzuten / entzuten / o:: ez du Annak kontatzen herritarrei ez eta auzokoei! familiar bakarrak / bere senarrai / eta semeai! da semeak entzuten entzuten / ta senarrak / bere emazteak esandako guziak baieztatzen / e! hau ezta ametsa izan! Anari gertatutakoa / ez ote da / urrezko m erramu batekin etxera bueltatu? bai! Tomasek buruan dauka gogoan dauka **entzuna** du behin be baino gehiagotan herritarrek esaten / o:::! Anari gertatutakoa eztela egiazkoa! e:ztela sinetsi behar haur gertatu denik! bainan / Tomasek **dio** ez dela esan behar **hau** hala izan **ez denik!** a! ez ote da geroztik / barkua / mugittu gabe / hortxe gelditu! gau osoan! m::? h:!
(T2:252-263)

Ikus dezagun, gure segmentazio metodologia ondo justifikatzen duelakoan, “halaxe” biren erabilerak nola sekuentzia narratiboaren amaiera egoera eta irtetzearen artean bereizteko bidea ematen digun. Lehen “halaxe” testu antolatzaile edo konektore ejenplifikatzailea dugu eta bigarrena, kontsekutiboa, irtetze azpiatalaren argibide diskurtso egintzaren sarrera markatuz:

(53)

JC: eta halaxe amaitu <zuen,zen> meza / eta halaxe amaitu zen / apaizak ezkontzeko hori / orduzkeoztikan / munduan / apaizik / ez da ezkontzen / euskaldunei esker! (XXX) (T6:555-557)

Beraz, laburbilduz esan dezagun, koda (Labov & Waletzky, 1967) izeneko nozioarekin antzekotasun batzuk badituela irtetzeak, interakzio egoeraren parametroekin lotzen delako kontakizuna. Ikusi dugunez, ordea, interesgarriak diren eta anitzak diren bestelako funtzioak eta ezaugarriak badauzka konta-saioretan, eta hala, koda gisa deskribatu izan denetik aldentzen diren erabilerak baieztatzerik izan dugu. Gainera, nolabaiteko koherentzia ematen zaio kontakizunari, zikloaren aurreneko azpiatalean esandakoa berretsi, borobildu eta osatuz. Funtzio horiei guztiei gaineratu behar zaie, extradiegesia dagoen kasuetan, ziklo narratiboaren muinaren eta artekaketa atalaren artikulazioa ahalbidetzeko funtzioa.

11.2.2. Artekaketa: ezaugarriak eta egituratzea

Garapeneko ziklo narratiboen arteko segmentuek osatzen dituzten artekaketa atalak dira, eta lotura funtzio nagusia dute. Bestelako funtzioak ere badituzte: lasai uneak ekartzea, interakzio markoaren erregulazioa egitea, e.a. Planifikazioaren aldetik bi eratarata bideratu ohi dira: a) Justaposizio erara: kontakizunek (zikloek) ez diote hari narratibo komun bati jarraitzen; b) Extradiegesi baten arabera: kontakizunak hari narratibo makro edo nagusi bati begira justifikatuak daude. Lotura hauek, inoiz *ad sensum* eginak dira, eta ez diote narrazio logika arrazional bati jarraitzen. Hala, hil diren pertsonaiak berragertzea gerta daiteke, edo denbora progresioaren aldetik *consecutio temporun* ilogikoak garatzea. Entzuleak ez ditu sumatu ere egingo; entzulea ez dago horretara eta beharrik ere ez da.

Oro har, artekaketa atalak zikloen arteko harremanak irekiera atalarekiko duten harremanarekin garatzen ditu. Irekiera atalean, extradiegesia abiatu bada, artekaketa

atalek extradiegesi horrek suposatzen duen marko narratiboarekin koherentzia testual eta diskurtsiboa bideratuko dute. Kontakizun ziklo bakoitzaren ondoren, eta hurrengo ziklo narratiboaren artean, beti egon ohi da segmentu bat, artekaritza lana egiten duena. Inoiz ez dira bi kontakizun bata bestearen atzean besterik gabe kateatuta aurkitzen gure corpusean. Nahiz eta, ziklo narratiboetako aurrekaria eta irtetzeak nolabaiteko zubi lana egin. Konta-saioetan besterik ere behar dela agerian uzten du corpusak.

Hainbat maila diegetikoren edo metalepsiaren (Genette, 1989; 2004) erabilerak ez dirudi gauza berria ahozko kontalaritzan. Héliasek (1990) metalepsia kontalari tradizionalak erabiltzen zuten baliabide gisa aipatzen du. Bereziki saioa luzatu nahi zenean erabiltzen omen ziren: “mutilak galdetu zion bidean zaldiei tiraka ari zen gizon bati nondik joan behar zuen Ingalaterrara eta honek erantzun. *Beharbada ez duzue jakingo zein zen Yanni lagundu zion gizagaixo hau. Ondo da, kontatuko dizuet* ” (Hélias, 1990:255).

Haurren konta-saioetan nagusiki, rol eta funtzio komunikatiboen erregulazio indizeak lantzen dituzten diskurtso egintza metanarratibo kontaktuzkoak dira erregularrenak. Maiz, irekiera atalekoen oso antzekoak edo berdintsuak dira, saioaren garapenaren araberako aldagaiak sartzen direlarik. Hona zenbait adibide:

(54)

RB: (txaloak bukatzean ekingo dio berriro kontalariak baina zenbait segundu pasatzen dira zalaparta artean) nahiko zenukete entzun beste ixtoria bat?

EN: ba:::i!

RB: a:: / (T9:158-162)

Kontaktuzko diskurtso egintza metanarratibo ludikoak ere bai:

(55)

PA: *ipuiak ipuiak*

EN: *ipuiak ipuiak*

PA: *kontuak kontuak*

EN: *kontuak kontuak*

..... *ez kontuak kontuak*

PA: *ipuiak konta ditzagun*

EN:*ipuiak entzun ditzagun*

....*ipuiak konta ditzagun*

PA: *ipuiak **konta** ditzagun*

EN: *ipuiak entzun ditzagun*
 PA: *umore onarekin*
 EN: *umore onarekin*
 *umore txarrarekin*
 PA: *denak elkarrekin*
 EN: *denak elkarrekin*
 PA: *ipuiak*
 EN: *ipuiak*
 PA: *kontuak*
 EN: *kontuak (T3:335-353)*

Azken adibide honetan entzule gehienak euren rolera lotuak daudela ikusten da, bat ezik. (11) eta (25) adibideetako entzule bera da, eta ikusten denez, elkarrekintzan espero denaren kontrako jarrera erakusten du. Saioan zehar leit-motiv erara erabiltzen den kontaktuzko kantu metanarratibo ludiko honetan ere bere jarreraren arrasto diskurtsiboak uzten ditu. Esana dugu, konta-saioan rol komunikatiboen eta interakzio markoaren berrestea behin eta berriz egin beharrekoak dira, unean uneko baliabide pertinenteeekin. Bide honetatik, entzuleen parte hartzea baieztatzea eta ebaluatzea helburu duten “krik krak” erako formulek ere badute presentzia artekaketa ataletan.

Helduen konta-saioetan dira, berriz ere, artekaketa segmentu txandakatze era anitzenak.

Ondoko adibidean, batetik amaitu berri den ziklo narratiboarekin lotura eginez iruzkin metanarratibo bat aurkitzen dugu. Bestetik, -eta entzuketaren erregulazioa bideratzeko hizketa-egintzaren ondoren- hurrengo ziklo narratiboaren kontaketa laguntzeko erabiliko den musika tresna aurkezten da. Tresnaren izenaren gaineko argibideak ematen ditu – arduragabearen estetika erabiliz- eta kontalari ofizioaren gaineko digresio argibide diskurtso egintza metanarratibo batekin amaitzen du:

(56)

JC: hau da / hau normalean / hau ez esan / e? haurrei esaten diet gurasoei kontatu behar dietela / ez? (haurrarena eginez) *aizu zu aita! aizu zu aita! ipuin bat kontatuko dizut* (aitaren keinua, ezer jakin gura ez balu moduan) // (musika tresna afrikar bat hartzen du eta jotzen hasten da; 12'') entzuten duzue han?

EN: bai

JC: (tresna jotzen arituko da kontrakoa adierazi artean) horrela ez? (6'') bueno hau da () / ez galdetu izena nik katxarroa deitzen det ze beti ahaztutzen zait izena / izen <arraro bat, arraroa> dauka eta (XX) (etsipenez) *katxarroa!* (4'') kontalariok daukagun gauza **on** bat / ezta? ne nere

ustez! kopiatzen degula beti / eta ez digutela suspenditzen / ez? hori da / ja:! horregatik naiz ipuin kontalaria <berez,ere> / eta orduan ikusi nion behin tipo bati halako katxarro batekin jotzen / ta esan (kokolo ahotsez) *ni ere! ni ere! ni ere!* ez? eta kopiatu nion (T1:353-366)

Modalitate semiotiko ezberdinen erabilerarako une bereziak dira artekaketa atalak: a) T7 testuan, kontakizun zikloen artean musika erabiltzen da ziklo narratiboen arteko lotura egiteko; b) T8 saioan, kontalariak ziklo narratiboen artean poltsikotik ateratzen duen paperean duen zerrenda bati jarraituz kontatzen duenarena egiten du. Azken kasu honetan, kontalari rolaz espero denaren aurka jokatzeko du. Artekaketa egiteko moduan ironiaren, paradoxaren eta absurduaren estetika aurkitzen dugu: memoriarik gabeko kontalaria, zerrenda baten laguntza behar duena. Kontalari urbanoa ez da liburutegi bat, kontalari afrikarretaz esaten denaren kontra, esate baterako (Ormières, 2003:127). Antzera jokatzeko du T6ko kontalariak une batzutan. Azken honek, bingo jokoan bezala, poltsikotik ateratzen duen papereko zenbakiak entzuleei asmarazten die, absurduaren eta utzikeriaren artean dagoen estetika jarraituz. Generoaren transgresio modu bat da, helduekin eta nerabeekin egiten dena baina ez besteetan. Kontalariaren ofizioaren beraren parodia dugu. Edonola ere, berbazkoak ez diren elementu semiotikoek planifikazio mailan bete ditzaketen funtzioen erakusgarri ere badira adibideok.

Zikloen arteko lotura eta motibazioak diskurtso egintza narratiboekin gauzatzen dira, nagusiki, extradiegesia dagoen konta-saioetan. Hauek, irekiera atalean kontatzeari ekin zaion extradiegesian txertatzen dituzte hurrengo ziklo narratiboak. Artekaketan zikloen amaiera eta zikloen hasieran agertzen diren indizeen jarraipen eta aurrerapentxo erara joka dezakete artekaketa atalek. Egia esan, bietarik ere izan dezakete. Extradiegesi horrek irekiera ataleko indize narratiboen garapena dakar.

T2 eta T3 testuetan musika eta diskurtso egintza narratiboak erabateko elkarlanean aritzen dira. Musika artekaketa baliabidea da (bai eta T7 testuan ere, baina diskurtso egintzekin uztartu gabe). T3 testuan, artekaketa atalak gehien bat berbazkoak dira, baina kontalariak panderoarekin jotzen duen doinua eta kantua erruz darabiltza artekaketan. T2 testuan narratzaile heterodiegetikoa aurkitzen dugu artekaketa ataletan eta T3 testuaren kasuan, homodiegetikoa edota heterodiegetikoa txandakatuko da. Extradiegetikoak diren indize eta instantzia narratiboak erreperatzen dira behin ziklo narratiboa amaituta.

Artekaketa ataletan aurkitzen ditugun makrodiegesi edo extradiegesi segmentu hauek diskurtso egintza metanarratiboz, iruzkinez eta bestelako diskurtso egintzez ere osatuak daude, baina batez ere diskurtso egintza narratiboz. Ondorioz, eta horizontalitatean dauden planifikazio elementuen mugak lausotuz, maiz mosaikoa sortzen da, kontakizun txatalez, bitxikeri eta jazoera, pertsonaien pertsamendu eta hausnarketa eta askotariko gertakariak biltzen dituzten segmentuak osatuz. Artekaketa eta ziklo narratiboen mugak maiz urtuta agertzen dira, lausoak dira batetik besterako pasabideak. Ziklo narratiboetako gertakariak berrekari eta osatzen dira artekaketa ataletan, kontaketa zikloan gertatu denaren haritik galdera berriak sartuz eta erantzuna emanez: “eta oilarrarekin nekazari hauek zer egite ute ba?” erako galderek, esate baterako, kontakizun zikloan agertu den toposa berbabide berri bilakatuko dute. Ziklo narratiboan bertan egin ez den parodia ere egin daiteke bide honetatik, artekaketa ataletan (T3 testuan etengabea da hau), ahotsen bidegurutze konplexu bat sortuz. Kontatzen diren gertakarien gaineko iritzi eta esanak bata bestearen atzean datoz, garbi jakin ezinik nork esanak diren, eta zikloan gertatutakoak ebaluatzen eta iruzkintzen dituzte. Adibide bat jarriko dugu.

Hurrengo artekaketa segmentuaren aurretik dagoen ziklo narratiboan, herriko hiru gizonen heriotza gertatu da. Artekaketa segmentu hau behean erakusten den baino luzeagoa da, hau bukaera baino ez litzateke. Ahotsen polifoniaren ikuspegitik anitza da. Herrian berri txarra nola jaso eta gainditzen den narratzen du. Garapeneko hainbat zikloetako hiru pertsonaia –hiru gizon- hil dira eta garapenaren hurrengo hiru zikloetako protagonista izango diren hiru emakumeak aurkezten dira, kantu bidezko diskurtso egintza ludikoarekin amaitzeko artekaketa atal hau:

(57)

KA: eta nere gogoan / u jum! zer egingo du ba: lur azpiko: deabru gorriak / hainbeste gauzakin!
 tunel eta kamioi eta gizon eta () / aukeraketa bat / aukeratu beharko du zerbait ezta? eta nire
 gogoan ari nintzen / ja! beharbada: deabruak ba berarentzat gordeko ditu:: tunela ta: / gizonak!
 bai! hantxe / e hotela ere bai! je! gizon horiek sartzeko hortxe lur azpian e infernuan / bueno! ta
 zeruak ze? zeruakin nola konponduko da? a zeruak nahi luke beharbada e lau pistatako autopista!
 m kamioia ere bai! noski gainean ibiltzeko! a kamioia e / txuri ta urdinez pintatu beharko da e?
 zeruan ibiltzeko gorri ta beltza hori ezta! ezta! ura ere: hartu lezake u zeruak! ur pittin bat gure
 buru gainera botatzeko eta beste guzia pbt! infernuko / sua **itzaltzeko!** ba:i! zeruak hartuko luke
 ura! gizonak? ez ez ez! egon ditezela infernuan / m! bueno / ta guri zer gelditzen zaigu ba? m!
 ezpadugu gizonik / guk ezpadaukagu: gure herrian e / ez e promotorerik ez e ez alkaterik ez e /
 ez bankulari eta () // e? ze eingo dugu ba! lau horiek gabe? ze egingo dugu autopistarik gabe?


kamioirik gabe? eta golf eta hotelik gabe eta zer? zer egingo dugu ba? ai ai ai! o o itxura hori naukan herrian sartu nintzelarik / triste ilun / gu bum! oi hori guziak / zeru ta e e lurrak eta zeruak hartuko di di dituela gauza horiek guziak eta gu fixik gabe hortxe i txi t / itxura naukan **dena / kontatzeko gauza esateko berriz txarra kontatzeko herrian / denetan!** herriz herri etxez etxe ibili naiz kontatzen gertatu den gauza! lau gizon desagertu direla! o entzun ditut hor / negar eta garraxik eta hainbat gauza! hainbat ()! noski! herria gelditu da xu::::! harri bilakatua bezela / holako berri txarra! egun batean / egun berean herriko lau gizon desagertu direla hantxe nunbait mendiaren beste aldean / **ia::::!** berri txarra! m:! lau gizon desagertu / a! garai hortan izan zen ere hiru <andrek, andreak> izan tzutela: / nahiko:: / bizi hortan / gure herriko bizian parte handia hartu zutela / lau / hiru andre / hiru **ma** ziren / m:! (abestuz) *maitiak galdegin zautan premu nintzanez / maitiak galdegin zautan premu nintzanez / premu premu nintzela bainan etxerik ez etxerik ez / maitiak galdegin zautan / polita nintzanez / maitiak galdegin zautan polita nintzanez / polit polita nintzela bainan / jum! larrua beltz larrua beltz / (T3:581-616)*

Ondoren, banan bana eta tartean dagozkien artekaketa atalak gehituko zaizkielarik, garapeneko azken hiru ziklo narratiboak aurkitzen dira testuan aipatu hiru andreak hizpide hartuta. Bakoitza, bere hiru azpiatalez osotua.

12. Emaitzak III: itxiera atalaren azpiegitura ardatza

Itxiera fasea konta-saioaren planifikazioaren azken atala da: azken ziklo narratiboarekin amaitu eta elkartruke komunikatiboa behin betiko eteten den momentu arte jazotzen diren berbazko ekoizpenek osatzen dute. Konta-saioaren hiru atal nagusietan atzena da, berez, beheko eskema orokorrean gogoratuko dugun moduan:

20. Taula. Itxiera atala konta-saioetan.



Eskeman errepara daitekeenez, itxiera atala bi azpiataletan banatzen da: itxitura eta saio-ixtea. Konta-saioari amaiera ematen zaion modua eta unea dugu.

Erantzun beharreko galdera zehatzak honakoak dira: zein berbazko ekoizpen aurkitzen dugu itxiera atalean? Zein da azpiatal bakoitzaren egitekoa? Erregularitasunik zedarritzerik ba al dago diskurtso egintzei dagokienez?

Oraingoan ere, azpiatalez azpiatal egingo dugu deskribapena, lehenik, itxiera atalaren izaera eta ezaugarriak deskribatuz eta ondoren, haren bi azpiatalak deskribatuz banan bana: itxitura eta saio-ixtea.

12.1. Itxiera azpiatala: ezaugarriak

Itxiera atalaren izaera ere estrukturala da, posiziozkoa. Azken kontakizunaren amaierako egoeraren ondotik konta-saioa amaitutzat ematen den arte gertatzen den ekoizpenak osatzen du fase hau. Programa diskurtsibo enuntziatiboaren planifikazioaren hirugarren kategoriatzat hartzen dugu, bereizgarriak diren ezaugarri eta funtzio bereziekin:

a) Estrukturalki eta linealki aldakaitza da. Azken ziklo narratiboaren amaieratik konta-saioari jendaurreko elkartruke komunikatibo gisa amaiera ematen zaion momentua bitarteko berbazko tarte hartzen du itxierak. Programa diskurtsibo-enuntziatiboak (Chauradeau, 1985) duen egituraren azken atala da, beronen une espezifiko bat ordezkatzeko du.

b) Konta-saioak suposatzen duen egintza komunikatiboaren beraren eta bertan hedatu diren indize eta instantzien -aldakorrak eta zirkunstantzien araberakoak-gogoratze, bilketa eta haien jasotzea prestatu eta burutzen da. Orobat, diskurtsiboki eraiki diren instantzia enuntziatiboen uztea prestatzen da. Narrazio indizeak uzteko momentua heldu da edo berehala heltzekoa da. Horregatik, irekiera atalean egiten den gisara, kontalariaren eta entzulearen rola figuraren lanketa berariazkoa egiten da, berezitasun batekin: oro har, entzulea gonbida daiteke konta-saioaren alderdiren baten narrazioaren osatze, zabaltze, iruzkintze eta hedatzea egitera. Ez da inola ere helburu pedagogiko edo didaktikoekin nahasi behar. Beraz, konta-saio osoan jarraitu den kontalari/entzulearen dikotomia paradoxikoki gainditzen da, bereziki haurren konta-saioetan.

c) Programa diskurtsiboak, era berean, saioaren diegesia ainguratu den indize historiko-narratiboak gogora ditzake. Esaterako: biografia bat kontatu delarik, saioan

hari nolabaiteko amaiera ematen zaio, saioaren hasieran kontakizunen motibazioa izan den egitasmoa gogorarazi eta borobilduz, e.a. Diskurtsoa espazializatu eta tenporalizatu (zirkunstantzializatu) dituzten funtzio narratiboak erabakitzen dituzten aspektu-indizeak gogoratzen dira eta amaiera eman. Extradiegesia egon denetan amaiera bat bilatzen zaio itxituran. Besterik da saioari, elkartruke komunikatibo gisa, amaiera ematea.

d) Enuntziazio eskema bertan behera uztea: entzuleak entzule izateari utziko dioten unea izendatzea da. Erritualizaziotik asko duen momentua da honako hau ere. Elkartruke komunikatiboan parte hartzea eta haien jarrera eskertu egiten da, antolatzaileak barne. Kontakizuneko enuntziazio eskema berriak eta ausazkoak ere iradokitzen dira, a) puntuari esan dugun moduan, entzulea-->kontalari bihurtzen duena (beste norbaiti kontatzera gonbidatuz entzuleak, e.a.).

Beraz, itxieran izaera ezberdineko errekursoak erregulartasunez erabiltzen dira, batetik, konta-saioaren sintesi edo hartan gertatutakoen bilketa eta gogoratze gisakoa egiteko, eta bestetik, elkarregintza komunikatiboa eteteko. Bi operazio nagusi horiek dakarte itxitura eta saio-ixtea bereiztea. Indize enuntziatiboak jaso eta ohiko komunikazio modu arruntagoetara pasabidea da.

Ahozko konta-saio tradiziozkoetan, itxiera gisako osagai diskurtsiboak ere bazirela dirudi, eta ez zirela *hau hala bazan edo ez bazan* erako formuletara mugatzen:

Ces conclusions sur tous les tons servaient surtout à faire revenir les auditeurs sur terre après s'être égarés pendant quelques heures (...). Et pour en terminer avec les merveilles, le conteur se laissait aller à déraisonner sans mesure en déboulonnant des râtales de paroles qui mettaient fin à sa prestation par une dernière et courte phrase après laquelle on était sûr qu'il n'ouvrirait plus la bouche sinon pour demander à boire, avec sa voix des jours ordinaires. (Hélias, 1990:261-262).

Euskarazko tradizioaren itxiera-eredu edo formez harago, Héliasek esandakoaren arrasto handirik ez dugu ezagutzen gurean, formula batzuk gora behera (Kaltzakorta, 1989). Halakorik tradizioan lehen gertatzen zela erakusten duen ipuin-formula baten berri behintzat badugu, hona Kaltzakortak Barandiarani jasotakoa:

Cuando se le pide un cuento largo, contesta así:

Bela'atek emen zeuken ego'at oso motxa

eta bestea oso luzea.

Oixe dek kuntu luzea. (Barandiaran aipatuz, In Kaltzakorta 1989:15)

Izan ere, lan berezirik egin ez den arren maila honetako elementuak bildu dira tradizioan, kontatzen jarraitzeari uko egitearen gaineko antzeko sasi-ipuinak erruz egiaztatzen dira (Petitat & Pahud, 2004).

Garai batean itxieraren gauzapena ere anitza izan bide zen. Héliasek dioenez, sarrera formula joko baten bitartez egiten den moduan, itxi ere berdin egiten da saioa, nahiz eta esaldi sinple batekin ere amaitu zitekeen (Hélias, 1990: 258). Hala eta guztiz ere, landuagoak ziren bukaerak ere baziren Héliasen arabera, saioan kontatutako guztiarekin amaiera egoki bat bilatzeko gurariaz.

Héliasek deskribatzen duen amaiera atala errimarekin egiten zen maiz, askotan ezteien buruz jardunez edota elkarregintza gertatzen den garaiko ohitura edota jazoeraren bati erreferentzia eginez. Héliasek jasotako adibideok erakusgarri: “par-dessus les cuisines, par-dessus le château, par-dessus les champs et les bois, par-dessus les villages, par-dessus les clochers des villages, par-dessus les coqs qui son tau sommet des clochers des villages et par-dessus le temps lui-même...”, “Si j’avais pu m’y trouver aussi, j’aurais mieux soupé, je pense, que je ne le fais à la maison où j’ai pour régal ordinaire des patates frites avec des pommes de terre”, “Il y eut alors de belles fêtes et de grands festins où les pauvres ne furent pas oubliés non plus comme cela arrive ordinairement aujourd’hui.” (Hélias, 1990: 261). Formula hutsak ez zirela agerikoa da, azken honetan egiten den iruzkinaren ondotik. Héliasek berak dio, formula horiek guztiak erabili eta gero beste formula batekin amaiera ematen zitzaiola kontaketa, argi utziz gehiago ez zuela kontalariak ahorik irekiko. Hortik guk ere itxitura eta saio ixtea ezberdintzea, egitura horizontalean hartzen duten posizioaren arabera. Izan ere, gure corpusean agertzen diren formulak, funtzio ezberdinak betetzen dituzte osatzen duten azpiatalaren arabera. Esate baterako, oro har, formula metanarratiboak itxituren aurkituko ditugu.

Gure corpusean, Héliasek deskribatutako itxiera atalaren funtzio eta gauzape moduak badaude, eta itxiera atalak berariazko garrantzia hartzen duten adibideak ere badira. Kontrara, beste batzuetan, oso soilak eta laburrak diren itxierak aurkitzen ditugu, amaitzeko formula soilen bidezkoa: estiloak estilo, komunikazio egoeraren zirkunstantzien arabera kontalariak saioari amaiera azkar bat emateko har dezakeen unean uneko erabakien eraginez.

Gure behaketak Héliasek deskribatutakoa baieztatzen du. Dela kontalariaren estiloaren dela komunikazio egoeraren arabera, itxiera atala azkartu edo luzatu daiteke.

Egia esan, malgutasun handia erakusten duen azpiatala da itxiera: amaitzea premiazkoa izanik amaiera zinez laburrak daude baina bestetan lanketa berariazkoa erakusten duten itxiera atalak ere bai. Kontalariak errefusatu ere egin diezaioke kontatzen jarraitzeari, entzuleek erregutu arren. Oro har ez da gertatzen, kontalariak ondo asmatzen baitute saioaren neurria. Hala ere, gure corpusean esate baterako T8, T9 eta T10 testuetan, kontalariak komunikazio elkartrukea behin betiko eteten lana dute. Ukoa adierazteko negoziazio latzak (T9 eta T10) edota erabakia irmoa dela erakusten duen enuntziatu metanarratiboak erabiltzen dituzte (T8) behar izanez gero. Entzulea gogoz uztea nahiago da.

Ludikotasunak ere badu leku nabarmena. Kontu izan behar du ordea kontalariak, amaiera arte tentsioari eta gozamenari eusten. Entzuleen murmurioen artean edo hauek altxatzen hasten direla amaituko balu kontalariak bere berbaldia, saioari hala-hola eutsi zaionaren seinale izango litzateke. Bestela esanda, azken hitza arte eutsi behar zaio eta erabatekoa izan ohi da amaiera.

12.2. Itxiera atalaren azpiatalak: itxitura eta saio-ixtea.

Konta-saioaren bi azpiatal hauek ere elkar osatu eta elikatzen dute. Oro har, graduala da itxiera atalaren egituratzea eta egitura hori bi azpiataletan zehar mailaz maila egiten da, unean uneko beharrei lotuta, progresiboki. Esan dugun moduan, ordea, izaten da eteteko modu erabatekorik ere.

Konta-saioetan, entzuleek eskatu eta kontalariak onartuz gero, bi itxiera gerta daitezkeenez (corpusean birritan gertatzen da T1 eta T6-n; T9 eta T10-en, berriz, ez da luzatzen saioa kontalariak errefusatu egiten duelako) bigarren hori joko dugu itxieratzat, saioa behin betiko ixten duen horri hain zuzen ere.

Itxitura deitzeko erabakia hartu dugu saioaren elkartruke izaerari nahiz berau gidatu duen maila makrodiegetikoari nolabaiteko aterabidea, amaiera ematen dion segmentuari. Itxieraren berbazko ekoizpen horren zati handiena, irekiera atalean aurkeztu eta landu diren indize narratiboen lanketa, proiektu diskurtsiboan planteatzen diren gaiak jasotzera eta biltzera bideratuak daude. Badu bere “narratibitatea”: berariazko elementu eta osagaiez hornitua da alde horretatik itxiera atala. Bestetik, rol enuntziatibo eta diskurtsiboak uztera bideratua dagoelarik, elkartrukeari behin betiko amaiera ematen dioten berbazko egintzak daude. Irekiera atalaren osagarri, beraz, batzuetan berariaz landua da atal hau, diskurtso egintza hainbatek gobernatua eta

moldatua, eta beste batzuetan nahikoa zurruna, laburra. Oro har, esaterako, irekiera atalean atarikoak atala landua badago, itxiera atalean ere berariazko lanketa izaten da bere osagarria litzatekeen itxitura azpiatalean. Inoiz, irekiera atalean indize narratiboek izan dutena baino lanketa handiagoa ere gertatzen da itxituran. Anitza da beraz, itxituraren estrukturatze bertikala.

Saio-ixteak behin betiko etetea dakar, eta saioan egiten den ekoizpen berbazkoaren aldetik azken hitzak dira. Oro har eskertzez eta saioaren ebaluazio esplizituz ere osatzen da, izan alde aurretik antolatzaileekin adostua edo espontaneo. Inoiz, itxitura azpiatalean maiztasun handiagoa duten bestelako elementuak ere ager daitezke. Saio-itxierak kontalari eta entzuleak berehala kontestu enuntziatibo bera banatzeari utziko diotela adierazten du, eta, diskurtsiboki, hori prestatzen da.

Ikus ditzagun, orain, azpiatalok banan bana.

12.2.1. Itxitura: egituratze bertikala.

Elkartrukea jasotzeak, ekar dezake maila diegetikoan agertu diren indize narratiboen nolabaiteko lanketa. Hala, Kunzek (1997) nobelaren askaera eta bukaeraren artean egiten duen ezberdintzeak badu konta-saioetako itxieretan gertatzen denarekin paralelotasunik:

(...) [askaerarekin hasita] conjunto de sucesos últimos de la historia narrada (y más específicas de la trama) (...) mientras que el cierre se caracteriza por su localización fija, pero en general relativamente cercano al punto final: el cierre se define como último segmento en la linealidad del texto considerado como discurso formulado, el desenlace depende de la sucesión cronológica de los acontecimientos narrados. (Kunz, 1997:125)

Ezberdintze honetan oinarrituta eraiki dugu itxitura kategoria konta-saioetara egokituta, beti ere. Ahozko estetikaren ikuspegi eta funtzionamendu moduetatik begiratuta ulertu behar da.

Ekin diezaiogun diskurtso egintzen bidezko itxituraren ezaugarritze xeheari. Itxitura azpiatalean nagusiki metanarrazio diskurtso egintzen erabilera gailentzen da, nahiz eta maiz narrazio diskurtso egintzekin ere uztartzen den. Bi eratakoak izaten dira diskurtso egintza metanarratiboak:

a) Formula bidezko esapide formulistiko metanarratibo soilak. Hauek, entzuleek saioan jarrai dezan nahi duten adieraziz gero birritan ere esaten dira (edota saio-ixtean

berriaz azaltzen) kontalariak garbi utziz amaitu dela saioa. Formula hauek, jakina, generoa ezaugarritzen dute, ezagunak dira eta oso erabilgarriak beraz kontalarietara entzuleei saioaren amaieraren berri emateko. Badute, berez jite ludikoa, baina indartu daiteke ludikotasun hori musika, errepikapena, aldaera berriak ekarriz, e.a. Formula hauek baino ez badira itxituren erabiltzen, orduan, oro har, itxitura hedapenez laburra da. Zikloen amaierako formula antzekoak izan daitezke, baina funtzio ezberdina betetzen dute horizontalitatean duten kokalekuetatik. Hona bi adibide:

(58)

JC: eta **guzti hau** gertatu zenean ni orduan / han nintzen! eta ziztu biz:ian etorri naiz zuei guztia kontatzen / (T6:742-744)

(59)

BA: *hala bazan hala ez bazan / sar nazatela / kalabazan / eta atera nazatela / San Kristobal de las Kasaseko / plazan!*

EN: (txaloak) (T8:728-730)

Goiko bi formula erako bi diskurtso egintza metanarratibo hauek, moldaketak moldaketa, tradizioetik jasotakoak dira. Bigarrenak, konta-saioan berbabide izan den zapatismorekin zerikusia duen lekuzko indize batez hornitu eta egokitzen du formula, Txiapaseko hiriburu baten aipamena eginez, hain zuzen. Asoziazio bidezko anafora egiteko erabiltzen den formula honek erakusten du, nolabait, zein loturak ezartzen diren konta-saioaren atal ezberdinen artean kohesio baliabide konplexuen bitartez (Garcia Azkoaga & Diaz de Gereñu, 2009).

b) Metanarrazioa, ordea, narrazio diskurtso egintzekin urtuta agertzen da maiz, eta baita, bestelako baliabide semiotikoekin ere. Ikus dezagun kontalari batek egiten duen saioaren beraren eta saioaren edukien sintesi lana magia joko baten bitartez. Magia joko horretan, narrazio diskurtso egintzak metanarrazioekin uztartzen dira, saioaren zenbait gora behera hautatu eta berbaldira ekarriz. Magia jokoaren antolaketa-logika izanik oinarri –ludikotasuna emanaz- eta haren arabera egituratu eta diskurtsibizatzen diren diskurtso egintza narratiboek saioaren metanarrazioa bideratzen da, saioan gertatutakoa errelatatuz. Ikus dezagun adibide bat:

(60)

PA: ...**bueno**!!// egun hartan / etorri ginen / egun hartan etorri ginen / ta badakizue ze ipuiak kontaktu genittuen?/ (soka zuri bat hartu du) soka hantxen zegoen! ze **ipuiak** () / e: sartu ta / lehendabizi / Pozoko Etxeko / han kultur etxean sartuta / lehendabiziko istorioa zein zen?

EN: erregearena

PA: kantu zoragarriarena! ta kantu zoragarriaren ixtorioa / (korapilo bat egin dio sokari, magia joko bat egiteko) hantxe bildu! baño geo etorri zen beste istorioa ()

EN: Matrioska

PA: (ahots apal-apalez) *Matrioska Trioska Oska ta Gizontxo Bizardunarena* / eta ipui hura ere / hantxe bildu / hantxe jaso / hantxe / **ehundu!** baño (ahots xumez) gero *etorri zen bextea!* (harrotasunez) *Alberto ta Anbrosiorena!* eta *Alberto ta Anbrosioren ixtorioa* (azkar esanez) *baita ere* / (korapiloa egingo dio sokari) **hantxe** jaso / eta jaso / eta gero kantuak! (kantatuz) *ipuiak ipuiak*

EN: ...*ipuiak / ipuiak ipuiak*

PA: *kontuak kontuak*

EN: *kontuak kontuak*

PA: eta ipui guzti haiek / **hantxe** / harildu ziren / **hantxe** / ehundu! hantxe / josi! baño / etorri zen hantxe / beste laguna / zein da zure izena?

EN: Imanol

PA: Imanol zatoz hona! (barreak) / e? ta **Imanolek** / Imanolek esan zuen (muturra estutu eta indartsu esanez) *neretzat dira ipuiak!*

EN: neretzat dira ipuiak

PA: (XXX) eta / kendu zian / lapurtu zian / lehenengo istorioa / kantu zoragarriarena / (sokaren alde bietatik tiratuz korapiloa askatuko du hurrengo oihua botatzen duen bakoitzean) *i:..... u!* Imanol masaileko bat emango diat! (T5:700-729)

Adibidean ikusten denez, magia jokoaren bitartez elkartruke komunikatiboaren indize zirkunstantzialekin batera indize narratiboak biltzen dira, narrazio diskurtso egintzen bitartez. Saioaren sintesi antzeko bat egiten da, baina ez da sintesi bat zentzu hertsian, baizik eta collage bat, mosaikoa, elementu konklusibo berrien gaineratzeaz josia.

Diskurtso egintza narratiboek berebiziko lekua daukate, jakina, makrodiegesia egon den konta-saioetan. Indize narratiboen tratamendua berariazkoa egiten da askaera batera heltzeko, amaitzeko. Beti, ordea, atzera begira jartzen den askaera bat da, bilketa edo sintesi elementuak dituen, konta-saioan zehar agertu diren topos narratiboak ekarriz, kontakizun laburrekin osatuz, kankak e.a. Ezaugarri metanarratiboak hartzen dituzte maiz diskurtso egintza narratibo horiek. Gehienetan askaerak semiotika narratiboaren ereduak partzialki betetzen ditu, baina *askaera* gisa formalizatzen dira.

Finean, saioa narratiboki borobildu egiten da, atarikoak azpiatalean agertu diren indize narratiboekin lotzen da, borobiltzen da, itxi egiten ditu.

Ondoko itxitura adibidean, azken ziklo narratiboaren gaia izan den zubia – Ligiko zubiaren bertsioa- indizearen bersemantizazioa eginez hasten da, oraingoan ere kontakizunaren barneko kohesio moduak gaindituz, eta saioko indize eta topoi narratiboak errekuperatu eta narratiboki garatuz. Hala, denbora mitiko batean kontestualizatutako zubiak extradiegesiaren barruan berrartuz eta garatuz, denbora garaikideetara ekartzen da. Ikus dezagun adibidea.

Ondoko itxitura segmentuan zubia, Ahoandi eta Manu aitona dira saioaren momentu ezberdinetan erabili diren indize narratibo ezagunak. Kontuan izan behar da ondoko diskurtso egintza narratiboa kontaktuzko elementu anitzez osatua dagoela. Narrazio diskurtso egintza bezala identifikatzen dugu, baina solasean egindako errelatibitate baten formalitateak jarraitzen ditu, interjekzioak, hesitazioak, markatzaile diskurtsiboak, eta abarrez osatua baita. Bestelako indize narratiboak berriak dira:

(61)

KA: bueno! eta ni zubi horren gainetik pasa naiz **behin** baino gehiagotan! badakizue nik e ikasketak egin nahi nituen / **errementari** izateko! **errementari**:: delako gure:: / Ahoandi: alkatea bezela! o! ez / nik errementari ikasi nahi nuen ofizioa ongi ikasi nahi nuen / ez:: / alkate izateko e! (ezezko gisa) *tt tt tt tt tt!* ez ! ez eta: Ahoandi bezela barra barra barra barra barra denetan gauzak kontatzen ibiltzeko ez / tt tt tt tt! horrelakorik ez! **errementari** lana egiteko! **ongi!** ez e burniak lehiotik pasa eta deabruak sor e:: m: / otsoak sortzeko! holakorik ez! **ongi!** lanak / estudioak **egin!** e:: / lau burniak landu **ondo!** ta hortarako ikasketak egin behar nituen / eta joaten nintzen / a aitona: Batittarekin / a! aitona Batitta bi hitzez esateko / ai aitona Batitta nire amaren a aita / aitaren aitona Batittarentzat beti entzun dut nik esaten / (hasperena) *ai!* (abestuz) *e Batitta! ba ote ditu ipurdian lau tita? ala bat bakarrik buruan beti dantzian bira buelta ta biribilketa? e!* *e Batitta! ba ote dituk ipurdian lau tita?* bo! ipurdiko lau tita hori dia lau mantxa / ipurdian! nire **aitonak** ba ote zituen ipurdian lau mantxa! (purrustada) / aitona a ala amonataz egiten ote zuen gauza horrek? (silabak markatuz) *ba ote ditu ipurdian lau ti* / bueno badakizu guk / aitona eta amonaren ipurdirik eztugu ikuxi! ez dakigula lau mantxa bazituen: () / betitik izan dut nik e:: **hori!** aitona / *e Batitta! ba ote dituk ipurdian lau tita? ala bat bakarrik buruan beti dantzian bira buelta ta biribilketa?* bo! ba hori eztakigu! / (XXX) dakidana da e o / gogoratzen dau / daukadan gauza da / aitona:: / Batittarekin / o! kotxez joaten ginela / ikasketak egitera / a eramaiten gintuen astelehen goizean eta gero bueltatu / ba / eta gero gure bila etortzen zen larunbatean / larunbat eguerdian / eta larunbata eguerdian zubi gainetik dela:ko: a:itona: Manuk egin zubi gainetik hortxe pasa / hortxe gelditu zubi gainean / pum! eta guzik jautsi behar ginuen! eta hortxe esaten zigun / bota frantsesa itsasora / errekarra! ta hartu euskara! ta hori egiten

ginuen / frantsesa (txistua botaz bezala) *pf!* botatzen ginuen errekarra / ta hartu euskara (irentsiz bezala) (T3:841-872)

Tartean, besteak beste, diskurtso egintza ludiko bat sartu da: aitona Battitari egindako kantua, hain zuzen. Kanta horrek eta kantari egiten zaizkion iruzkinak helburu ludiko garbiak daukate; jolasa da. Goian esan dugu, mosaikoak sortzen direla, askotariko formaltasunek bat egin dezakete itxitura atalean ere.

Egia esateko, goikoa bezalako adibideak bukaera formula metanarratiboan hedapen bat direla uste dugu, narrazioaren denboraren eta kontaketa egintzaren denboraren artean loturak egin nahi baitituzte⁷⁹.

Oraintxe ikusitako segmentuaren jarraipena, makrodiegesia borobiltzen duen konklusio erako iruzkin diskurtso egintza batekin egiten da gainera:

21.taula. Irtetzea azpiataleko txandakatze motak,

Diskurtso egintza	T3 testuko testu segmentua
Metanarratiboa	bueno! bueno! hori guzia! esateko ba: / ta hortik aurrera ibili naizela eta ibiltzen naizela: e:: bi hizkuntza hauekin (T3:889-890)
Iruzkin-konklusioa	eta / ba / hori! hori guzia etzen gertatuko gure herrira ezpalira etorri hiru gizon! batek bazuen eskuan e: / igitai bat / ps:! bigarrenak bere besoetan holako katu bat / hirugarrenak e sorbalda gainean / o oilar bat / m:! hori guziak / hiru guzi hiru gizon horiek ez balira ibili herriz herri gure herrira etorri arte ba o hori guzia etzen gertatuko hiru gizon horiek ez balira etorri sartu gure / hori da (T3:890-897)

Iruzkin diskurtso egintzek ere badute, bai, lekua itxitura atalean. Honako bigarren adibidea T7 irekieran agertutakoa osatzera dator. Konta-saioa gizakiak sufritzeko egiten duen hautuaz hausnartzeko une gisa irudikatu denez itxituren gai horri buruzko iruzkin diskurtso egintza gailentzen da, deklamazio traza duena, tesi itxura:

(62)

IR: a::! ba:: / gogora! **bizi al dala:** / bizi oso bat ezer ikasi gabe! **al dala** egon lurraren gainean paisaiari / ezer gehitu edo aldatu gabe! **posiblea** dala ere / hilda egon barik bizirik ere ez egotea! horretarako nahiko dugulakon / maitasunari! inolako aukera / ez ematea! ez maitatzea dalakon / mundu honetan / **ez sufritzeko** dagoen erremediorik / **bakarra!** (T7:264-270)

Ondoren, honakoa galdetzen zaie entzuleei, goiko indize tematikoen hedatze gisa, kontaktuzko diskurtso egintza zuzentzaileak zuzenduz:

⁷⁹ Orain esandakoak ez du kentzen, gainera, formula erako diskurtso egintza metanarratiboak ere gaineratzea.

(63)

IR: eta honenbestez:: / a eztaikit e:: / m: ikasi duzuen ala ez? edo gehigo nahi duzuen!

EN: apurtxo bat gehixau (barreak) (T7:270-272)

Entzuleek “apurtxo bat gehixau” eskatzen diotenez, jarraitu egiten du, eta itxitura hau, behin behinekoa gertatzen da, sarbide diskurtso egintzen bidez gai berriak sartu eta erretzearen inguruko ziklo narratibo sail bat gauzatzen delarik ondoren. T7 saio honen behin betiko –edo bigarren, nahiago bada- itxiturak ez du gauzaperen berbazkorik, eta saio ixtera pasatzen da zuzenean.

Batzuetan, eskertze hizketa-egintzak agertzen dira azpiatal honetan. Bestetan, hizketa-egintza zuzentzaileek zeresan handia dute interakzio egoeraren erregulazioan, eta maiz agertzen dira irekiera atalean bezala, itxiera atalean ere, bereziki itxituran.

Kontakizunak gorde eta beste inori kontatzeko, edo konta-saioan zehar aurkitu dituzten erantzunak jakinarazteko hizketa-egintza zuzentzaileak asko daude itxitura atalean. Adibide bi ematearren, lehena formula metanarratibo baten ondoren egindako iruzkin metanarratiboa dugu eta bigarrena, magia jokoaren barruan egindako hizketa-egintza zuzentzaile bat:

(64)

JC: eta erantzuna topatzen baduzue / ba: / esaidazue / eta (XXX) dut / ez? zertan den guztia / (T6:746-747)

(65)

PA:bakoitzak hartu duen istorioa / ba gorde dezala / baiño geo! etxera joaterakoan edo zuen lagunarekin egoterakoan eskeñi e? ez ze istorioak leku batetikan bestera / ibiltzen baitira! ibili behar dute! (T5:751-753)

Kontalari/entzule rola bereizten dituen hitz banaketa bereziaren dikotomiaren gainditzea gertatu da saioa garatu ahala kontalariaren kontrolpean, eta haurren kasuan oso modu agerian, itxitura atalean kontalari izatera animatzen dira.

Gogora dezagun amaitzeko, itxitura azpiatal hau kokapen aldetik azkenaurrekoa, entzuleekin kontaktu uzten hasteko momentua dela batetik, eta bestetik, mintzaira egintzaren instituzionalizazio fasearekiko haren izaera eta funtzioak, eta batzuetan motibazioa gogoratzeko unea. Antolatzaileei eskerrak emateko unea ere izan daiteke,

nahiz eta saio-ixtea gehiago ezaugarritzen duen eskertze hizketa-egintzak. Gogoratzekoa da, saio antolatzaileen egitekoa ezinbestekoa dela konta-saioen soziologia ulertzeko (Hernandez, 2006).

Komunikazio egoeraren parametroen lanketa berezitua egiten du itxiturak, uanean uneko baldintza fisiko eta sozio-subjektiboen arabera. Konta-saioak suposatzen duen komunikazio moduaren izaera eta helburuak gogoratzen dira maiz, bereziki kontalariaren rola eginkizuna gogoratuz eta nabarmenduz.

12.2.2. Saio-ixtea: egituratze bertikala.

Itxituraren osagarri gisa, beste azpiatal bat agertzen zaigu: *saio-ixtea* deitu duguna. Posiziozkoa eta testuala da saio-ixtea azpiatalaren agerpena ere. Itxiera atalaren hondarrak dira saio-ixtean aurkitzen ditugunak, funtzio bakarra behin betiko komunikazio elkartrukea etetea izanik.

Oro har, eskertzea, agurra, opor onak opatzeko hizketa-egintzak aurkitzen ditugu, behin baino gehiagotan errepikatuak, ahozkoan espero izatekoa den moduan. Hala ere, badago saioaren ezaugarrien eta itxituraren azpiatalen konfigurazioaren arabera, bestelako ezaugarri eta berezitasunak erakustea. Horietan sinpleena, azken diskurtso egintza metanarratibo bat agertzen den kasua da. Bi saiotan gertatzen da hau. T3 saioaren kasuan, itxituran makrodiegesiaren borobiltzea mardula izan denez, diskurtso egintza metanarratibo ludiko batek osatzen du, agurtze eta eskertze hizketa ekintzekin batera, saio-ixtea. Hona adibidea:

(66)

KA: (panderoarekin lagunduz) *hori!* hori hala ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila zure bihotzaren erdiko enparantzan! bai / hori da! hori guzia hala bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila zure bihotzaren erdiko enparantzan! (panderoari kolpe) eskerrikasko! (txaloak) milesker! / milesker! // milesker! eta gabon on! eta opor on! gabon! (T3:897-902)

Argi ikusten da formula berak leku kokaleku ezberdinak har ditzakeela saioaren ardatz horizontalean. Inoiz, agurtze hizketa-egintza bestelako baliabide ludiko batzuekin laguntzen da: kontakizun bateko pertsonaia baten dirdira imitatzeko brillantina emanaz haurrei, dagokion ziklo narratiboan agertutako indize narratiboak berrekarriz, e.a. Esan genezake, hala, metanarratiboa den kontaktuzko diskurtso egintzaren aurrean gaudela:

(67)

PA: arrain Ortzadarraz gogorazteko / **nik heman** ekarri dut gauza bat / bakoitzari (txalo)

EN:(XXX)

PA:bakoitzari / oparitzeko (...) bueno / bakoitzari emango iot / piskatxo bat! ze mundu hontan denok baigera arrain Ortzadarrak / badakizute?

EN: ez

.....brillantnak!

PA:bakoitzari emango iot / **hauts** majikoak

EN: (XXX)

PA: eta bakoitzak / nahi dunak / ba: / (azkarrago esanez eta ondoren zerrendatze doinuz) *nahi dunak masailen / masailen / eskumuturrean / eskumuturrean / nahi duenak hemen belarri puntan / puntan / bueno / (etengabe ari zaio haur bati errieta egiten) hiri / hiri emango iat nahi baduk zilborrean (...) bueno / orduan jarri zaitezte hileran / eta bakoitzari emango iot (zalaparta; entzuleak ilaran jartzen dira brillantina jasotzeko) (T4: 849-879)*

Badira saio-ixteak espontaneoki, edota antolatzaileekin ados jarrita, entzule eta kontalarien artean solasa sortzen dutenak. Solas hauek, metanarratiboak dira, kontasaiorearen eta kontakizunen gaineko edozein gai izan dezakete mintzagai. Oro har, hala ere, beti dago elkartruke bat kontalari eta entzuleren batzuen artean, kontasaiorearen ondoren, saioaren ebaluazio informal bat. Hala ere, eta esandakoaren haritik, saio-ixtea osatzen dute inoiz eztabaida mardulek. Hau berdin gerta daiteke haurren kontasaioretan (T9 eta T10) nahiz helduenetan (T2).

Haurren kontasaiota bitan entzuleek eurek jasotzen dutenez eskua saio-ixtean, eztabaida metanarratiboa espontaneoki sortzen da. Entzuleek kontatutakoen gaineko galderak daukate, erantzunak nahi dituzte baina kontalariak entzuleek eurek istorio berriak abiarazteko une bihurtuko ditu galderok. Kontalari/entzule dikotomia gainditzearen paradoxaren garrantzia dakusagu kontalariaren berbaldian berriz ere: eskolan egingo litzatekeen moduetatik urruntzen da kontagaiei buruzko eztabaida erantzun bakarra arbuiatuz eta norberak hausnartu eta eman beharrekoa dela ulertaraziz. Hortik, bertsio berriak egin eta kontatzera gonbidatzen da entzulea. Adibidez:

(68)

RB: asmatzen badezute beste istoria bat b eguzkiaren aita eta amarentzat / ba bidali / edo kontatu! bai! (T10:551-553)

Alde horretatik, goiko azken adibide honen antzekoa aurkitzen dugu helduen konta-saio batean, hizketa-egintza zuzentzaile gisa eta konta-saioaren motibazio izan den berbabideari lotuta, euskalduna izatea zertan den:

(69)

JC: eta erantzuna topatzen baduzue / ba: / esaidazue / eta (XXX) dut / ez? zertan den guztia (T6:746-747)

T6 testuaren kasuan kontalariak azken adibide honi gaineratzen dio, digresio erara -irekiera atalean erakutsitako inplikazio politikoa berreskuratuz- hizketa-egintza zuzentzaile bat: “// eta erosi egunkaria!” (T6:747-748).

Ikusten dugu, oro har, hurrekin eskola jardueratik urruntzea erakusten duten gozameneko jokabideak bultzatzen dituztela kontalariak, eta inplikazio politikoak helduekin (eta euskaldun berrien kasuan, baita euskaltegiko kontuekin).

Garrantzitsua da eskertzea. Berau da nagusitzen den hizkuntz egintza (T1, T3, T5, T6, T7, T9, T10) corpus osoko saio-itxieran. Eskertzeak garrantzizkoa dirudi, eta elkarregintza mota hau ezaugarritzen laguntzen digu. Handia da entzuleak egiten duen esfortzua kontalaria entzuteko eta jarraitzeko. Ez da solas arruntean parte hartzea, ia nahigabe egiten dena. Berariazko arreta eskatzen dio, eta kontalarian horren jakitun da, horren eskertzea jendaurreari jakinarazten diolarik.

Agur esplizituak (T3, T9, T10) oso gutxi dira. Agur espliziturik ez agertzeak iradokitzen du ez dela elkartruke arrunta, solas arruntaren baliokidea. Ez dute ziurrena epe motzean kontalari-entzuleek berriz ikusteko aukerarik izango; ez dago “gero arte”, “laster arte”, “hurren arte” halako markarik. *Aio!* (T10), *beste bat arte!* (T9), *eta gabon on! eta opor on! gabon!* (T3) dira aurkitu ditugun bakarrak.

Eztabaidak ere gerta litezke inoiz itxiera atalean, saio-ixte ondotik, gehigarri gisa, beti ere. Kontalariak (edo antolatzaileak) proposatuta badago saio batean (T2); beste batean, etxerako hausnarketa bezala agintzen die entzuleei egitea kontalariak (T6) eta birritan entzuleak proposatuta abiatzen da eztabaida saioaren amaieran (T9, T10). T6 testuan izan ezik –nahikoa ezberdina da zentzu honetan-, beste eztabaida guzti hauek eskola giroan egindako saioetan gertatzen dira.

Interakzioaren erregulazioa eta kontrolak era askotako hizketa-egintza zuzentzaileak sorrarazten ditu itxituran, eta baita hedapenez saio-ixtean ere. Kontalariak du hitzaren eta elkartrukearen kontrola, amaiera arte. Inoiz gainera, esan dugun moduan,

entzuleak tematzen dira jarrai dezan saioak. Argudioak ematen ditu orduan kontalariak etetearen alde (T9 eta T10) edota diskurtso egintza metanarratibo batekin irmoki amaitzen du. Kasu honetan ikus dezakegunez eta bigarren diskurtso egintza metanarratibo ludikoa sortuz:

(70)

BA: *amaitu dela! amaitu dela! amai-tudela tudela!* (T8:733-734)

Héliasek (1990) dioen moduan, ahoa gehiago zabalduko ez dela adierazten da honela.

13. Tarteko ondorioak eta sintesia

Konta-saioetako testualitatearen aldetik, honako emaitzak nahi ditugu nabarmendu. Konta-saioetako berbaldia testualitateetik begiratuta berbazko egintza itxia da, konklusoa da. Haren azpiegitura konplexuak osotasun eta itxitasun horren berri ematen digu. Egitasmo globala da konta-saioa, ez da zatikatua, eta gozamen helburuak dominatzen du praktika guztia. Gozamina mantentzen da guztiaren gainetik, dauden osagaiak egonda ere.

Hiru atal nagusi identifikatu ditugu: irekiera, garapena eta itxiera. Izan ere, gure azterketan emaitza nagusi horixe izan dugu: metodologian proposatutako konta-saioaren azpiegitura jakina, oro har, bete egiten da. Saioren baten edo saioaren segmenturen baten atal edo azpiatalen bat inoiz betetzen ez bada ere.

Irekiera atalean bereizi ditugun bi azpiatalen -saio-irekitze eta atarikoak-gauzatzea aldakorra da, hedaduraz eta intentsitatez. Gogora ditzagun ezaugarri eta osagai nagusiak.

Irekiera atalean, helduen konta-saioetan, orekatuago agertzen dira bi azpiatalak; gutxienez biak agertzeko joera dago. Ordea, haur eta nerabeen konta-saioetan, bata bestea baino mardulagoa izateko joera dago. Are gehiago, corpusean baieztatzen denez, haurrekin egindako konta-saioetan behin baino ez da agertzen atarikoak azpiatala (T5 testuan).

Hala ere, oro har, badago elkar elikatze bat azpiatalen artean: bata laburra denean bestea luzeagoa izateko joera: kontalari berberak eginiko saioetan baieztatzen da hau (T4 vs. T5; T2 vs. T3). Horregatik diogu elkar elikatu eta osatzen duten azpiatalak direla. Gainera, inoiz edo behin, atal batean ohikoagoak diren baliabideak ondoko atalean agertzen dira. Adibide bat gogoratzeko, saio-irekitze azpiatalaren berezko ezaugarriak diren interakzio markoaren lanketa atarikoak azpiatalean ager daiteke, aukera estetikoak edo komunikazio beharrak medio.

Deskribatu dugun azpiegitura nagusi horretan, interakzio markoaren ezarketari lotuta agertzen dira diskurtso egintza guztiak ere. Zertara bildu diren elkarretaratuak eta bakoitzaren egitekoa zein den lantzerantz bideratuak. Entzulearen arabera egokitzen da diskurtso egintzen izaera eta konbinazioa. Captatio moduko honetan, helburu ludikoekin entzulearekin jostatzen da. Ludikotasuna kortesia arauen haustean egiaztatzen da hau

ere, rolen banaketarekin lotua egiten dena beti ere. Corpora osatzen duten hainbat testutan gertatzen dela ikusi dugu.

Konta-saioak suposatzen duen interakzio markoaren ezartzea graduala da, etengabe negoziatu beharrekoa eta horregatik agertzen zaizkigu corpuseko testuetan agurrak bikoiztuta, bakoitzarengandik espero dena zehatz nahiz zeharbidez emana (izan prosaikoa edo formula bidezkoa), e.a. Agerpen horiek aldi oro funtzio bat betetzen dute. Horrela, T7 testuan, esate baterako, *eguerdion* bidezko agurtze bi agertzeak bi urrats ezberdinen berri ematen digu planifikazio mailan: lehenak, lehen kontaktu fisiko bat ixten du, fisikoagoa, espazioaren eta jendearen elkarretaratzeari begira dagoena; Bigarrenak, ordea, parametro sozio-subjektiboen lanketa berariazkoagoetarako pasaera markatzen du (nor bezala ari gara eta zertara gaude?).

Azpimarra dezagun irekiera atalean ezartzen den interakzio markoa konta-saio osoan ere etengabe eutsi eta negoziatzen den elementua dela baieztatu dugula. Elkarrekintzaren parametro fisiko nahiz sozio-subjektiboen irudikapenek instantzia narratibo baten agerpena bideratzen dutela ikusi dugu. Oinarri eta errail gisa jokatzeko dute lehenek, komunikazio ludiko-estetikoaren elkarrekintza ahalbidetuz.

Konta-saioen bigarren atalean, garapena atala deitu dugun horretan, ziklo narratiboak elkarri begira gauzatzen eta antolatzen direla erakutsi dugu. Antolaketa modu organikoan, modu lokalean gertatzen da, beti ere, artekaketa atalek artikulatuta. Zikloen barruan, diskurtso egintzen txandakatzeak entzuleekin interakzio garbian egiten dira. Etorri ahala, behin betiko erabakitzen da gauzatze diskurtsiboa: ardatz horizontala osatzen duten atal eta gorpuzte bertikalaren arteko osagaiena. Beraz, diskurtso egintzen mailakatzeak eta txandakatzeak ez dira mekanikoki gertatzen, ez dira aurreikusgarriak zentzu horretan. Hori erakusten duten adibideak ikusi ditugu.

Bada, konta-saioak badu hutsik egin gabe betetzen den progresioa ziklo narratiboaren barruan ere: aurrekaria, muina eta irtetzea azpiataletan banatua. Halaber, zikloen artean dagoen progresio linealari etengabe artekaketa atalena gehitu behar zaio: lotura eta zentzu-emateko helburuekin batera, erritmo aldaketak eta narrazioari intentsitate ezberdinak emateko erabiltzen dira.

Konta-saioko garapenean, diskurtso egintzen bidezko egituratze bertikala ahozko komunikazioaren eta zehazki kontakizunen behar komunikatibo eta elkarreraginezkoak kudeatzeko baliabideak dira. Kontutan izan behar da ahozkoan denbora pertzeptzioa bestelakoa dela. Balorazio subjektiboei oso lotua dago. Entzuleak konta-saioari guztiz emanda egonda ere, ezin zaio eutsi luzaro erabateko arretari.

Katarsi momentuak egon behar dutelarik ere, tentsio goreneko momentuen intentsitatearekin kontu izan behar da. Tentsioa jeitsi eta berriz ekiteko (izan kontalari edo entzule), indarrak berreskuratzeko, lasai uneak behar dira. Minutu gutxi batzuk luzatzea edo ipuin bakar baten alde nahikoa dira entzuleak ernegatzeko.

Haurren konta-saioetan garapen atala narrazio diskurtso egintza eta diskurtso metanarratibo kontaktuzkoak nahiz ludikoen txandakatzeekin osatzen dira hein handi batean. Garapeneko une jakin batzutan, ziklo narratiboen amaiera aldera gainera, entzulea kontalari izatera eramaten da, rolak neutralizatuz. Hau berezitasun nabarmena da, helduen saioetako garapenaren ezaugarriekin alderatuz.

Helduen konta-saioak, berriz, iruzkin, digresio diskurtso egintzak narratiboekin mailakatuz egituratzen dira, kontalariaren –instantzia narratibo(ar)en- diskurtsoaren deseraikuntza eginez. Kontakizunen bitartez, oro har, bizimodua gobernatzen duten errukirik gabeko giza legeak agerian uzten dira (Bruner, 2002).

Narrazio oro ezaugarritzen duen printzipioak dio ez dela hainbeste zer kontatzen den, ez bada nola kontatzen den. Aukeratzen den istorioa garrantzitsua izanik ere –kontalariak denbora asko ematen dute kontagai orijinalen bila- garrantzitsuagoa da jendaurrean asmatzea. Ez da nahikoa ere izaera formulistikoa duen segmentu bat inoiz edo behin kontakizunean txertatzea. Entzuleen araberrako eta interakzio egoeraren beharren araberrako kontagaien planifikazio diskurtsiboa egin beharra dago: aldeztu aurretiko prestaketan, lehenengo eta behin, eta ondoren berehalako komunikazio egoeran entzuleekin aurrez aurre. Le Goffek (2003) dioen moduan, ahozko kontaketa irudikapena egitura formulistikoen aplikazioekin lotuegi egon da. Eta ikusi dugun moduan, irudikapen horrek muga handiak aurkitzen ditu testu enpirikoen deskribapenean.

Beraz, diskurtso egintzen txandakatzeak sorkuntza iturri eta berritasun iturri dirudi kontakizunak eguneratzeko orduan. Zentzu-emate prozedura garrantzitsuak dira.

Konta-saioaren horizontalitateari begira, istorio bakoitza era batera antolatua egonda ere, diskurtso egintzen bidezko planifikazioak erakusten du garapenak aldakorra izan behar duela egituratze bertikalari dagokionean ere. Ikusi dugu, esate baterako, lehenengo muinaren eta bigarren muinaren artean kontraste handia izaten dela. Lehenengo ziklo narratiboaren muinean, kontaktu diskurtso egintza diegetiko eta narratiboaren arteko mailakatzea gailendu bada, bigarrean diskurtso egintza ludiko eta narratiboaren arteko mailakatzea nagusituko da, e.a. Horregatik esango dugu, konta-saioaren unea bera ere erabakigarria dela diskurtso egintzen aukeraketarako, entzuleen

izaera, arreta, eta sortzen diren ezustekoekin batera. Konta-saiorako zedarritu ardatz horizontaleko eta bertikaleko osagaien emaitza dugu, azken finean, azpiegituraren ardazketa konplexua.

Azkenik, itxiera ataleko ezaugarri nagusiak gogora ditzagun. Behin betiko elkartruke komunikatiboa etengo da azpiatal honen amaieran. Bada besterik, ordea. Bi dira azken atal hau osatzen duten azpiatalak: itxitura eta saio-ixtea. Itxituran, konta-saioak suposatuta duen elkartruke komunikatibo berezitua azpimarratu eta gogoratzen da, eta baita haren zenbait eduki eta alderdi formalak. Saio-ixteak, elkartrukea behin betiko eteten du.

Hala ere, esan beharra dago, saioaren baten saio-irekitzea musikarekin egin bada (T2), itxiera atalean ere berdin egiten dela, eta hala, esan dezakegu, musikak ordezkatzeko duela saio ixte/jasotze azpiatala. Badago korrespondentzia saio irekiera eta itxiera atalen artean. Aipatu beharra dago, beraz, musikak berak osa dezakeela itxiera atala bere osotasunean.

Konta-saioaren makro egituraren gauzatzea zenbait eragileren arabera gertatzen da. Kontestu komunikatiboaren araberrako egokitzapenak bideratzen dira, baina kontalariaren estiloak ere badu zeresana: adibidez, T8 saioan ez dago apenas berbazko ekoizpenik saio irekitzean, ez atariko azpiatalik, ez eta aurrekaririk lehenengo ziklo narratiboan. T2 testuan ere berdin gertatzen da, ez da gauzatzen ez saio-irekitzerik ez eta lehenengo ziklo narratiboan aurrekaririk eta irtetzerik berba bidez. Musikak ordezkatuak dira.

Badirudi berbazko atal eta azpiatalen ordezkatzek, ohikoagoak direla helduekin egindako kontaktetan, baina beti ere baldintza hau betez: oro har, musika da ordezkatzeko duen elementua edota beharbada keinuzko ekintza bat. Ordezko elementurik ez dagoenean saioaren hurrengo ataletan konpentsatuko da, oro har, kendutako osagai hori. Kontalariak bilatzen dituen efektu-ludikoek agintzen dutela dirudi, aukera estetikoek.

Kontalariak bere berbaldia (eta besteean) bete-betean kontrolatzen du eta konta-saioaren horizontalitatean aurkitzen ditugun elementuei bestelako egituratze bertikaleko elementuak batuta lortzen du bere berbaldia berehalakoan gertatzen ari den komunikazio egoerara egokitzea.

14. Konklusio orokorrak

Konklusioak eman bidean gogora ekarri nahi dugu tesi lan hau bi zati nagusitan banatu dela. Lehenbizikoan (1-7 kapituluak), euskarazko kontalaritzaren zenbait alderdi sozio-kultural aztertu dira, kontalaritza berria deitzen den mugimenduaren testuinguru orokorrean kokatuz. Euskarazko kontalaritza berria Europa mailan gertatu diren aldaketa eta behar sozio-kulturalen emaitza gisa aurkeztu dugu, eta mugimenduaren kronologian aro ezberdinak identifikatu dira. Ikusi da ez dela mugimendu isolatu, ez eta jaiotze berria. Ikusi da, halaber, historian zehar egokitzen eta berriztatzen joan dela. Justifikatu dugu kontalaritza berria deitura zertan datzan.

Tesiaren bigarren zati nagusian, lanerako aukeratutako marko teorikoaren eta metodologikoaren berri emanez ekin diogu (8. kapitulua). ISD Genevako eskolaren ikuspegia hartu dugu gidari eta aukera epistemologiko honek bi ondorio izan ditu: a) azter objektuaren definizioan, eta b) hortik sortutako azpi-egitura kontzeptualean. Esan zaigu -eta onartu dugu- mintzaira giza ekintza dela, eta ekintza hori testu bidez datorkigula. Eta testua, produktu soziala den heinean- ezinbesteko dela genero bateko edo besteko izatea. Bidezko iruditu zaigu, bada, konta-saioen osaera generikoa planteatzea. Halaber, corpusari buruzko oharak, lan-prozedura eta lanerako baliatuko diren hipotesiak formulatu ditugu.


Tesiaren bigarren zati nagusian analisia eta emaitzak eskaini dira (10-13 kapituluak). Ondoko lerrook, aldiz, azken kapitulua osatzen dute, eta bertan, lanaren konklusio orokorrak biltzen dira.

Azterketa hastearekin batera, ohartu gara konta-saioa gertaera multimodala dela: zeinu modu ezberdinez sortua dagoela. Tesiaren lehen zati nagusian esana genuen, jendaurreko konta-saioa beste arte eszeniko batzuen ikuskizun dimentsioa bereganatu zuela, nahiz eta gerora apenas aitortzarik lortu duen mugimendu honek. Izan ere, hortxe ditugu elkarlanean, elementu berbalak edo zeinu linguistikoak, zeinu ez-berbalak (ikonikoak) eta para-berbalak. Ikuspegi honen azpian ulertu behar dira konta-saioetako: hotsak, musika, gorputz-keinuak, mimika, aparailuak, askotariko objektuak... Ohar hauek agerian jarri dute gure lanak suposatzen duen murrizpena, beti ere konta-saioaren alderdi berbalera mugatu baikara. Horregatik, konta-saioarentzat deitura zabalago bat, estaldura zabalago batekoa, asmatu nahi izan dugu, zuriztapen gisa edo: hoberik ezean,

makro-ekintza deitura eman diogu ekitaldi multimodalari bere osotasunean. Horren barruan legoke, besteak beste, konta-saioa. Eta, aitortu beharra daukagu, zenbaitetan ezina izan zaigula alderdi ikonikoei (ez-berbalei eta para-berbalei) ezikasiarena egitea. Behin baino gehiagotan, zeinu ez-berbal batek diskurtso egintzen funtzioa betetzen duela ikusi dugu.

Hipotesietan formulatu dugu mintzagai ditugun konta-saioak genero jakin bateko emaitzak direla. Mintza molde jakinera errenditzen direla. Azterketa egiteko konta-saioaren praktika irudikatzen laguntzen digun errepresentazio bikoitza egin dugu, edo beste hitzetan esanik, bi erregimen bereizi ditugu haren azpiegituraren funtzionamenduan: horizontala edo lineala, eta bertikala edo ekuiraturatze modua. Horizontalitateak konta-saioaren planifikazio linealari egiten dio erreferentzia. Hona, berriz ere, konta-saioaren errepresentazio horizontala:

0. taula. Konta-saioa ardatz horizontalean ezaugarritzen duten atal nagusiak eta azpiatalak.



Hipotesiak baieztatuz, planifikazio atal hauek, atal finakoak dira, hau da, atal konbentzionalak edo kanonikoak. Corpuseko testu guztietara hedatzen dira. Ikuspuntu honetatik aurreikuspen handia erakusten dute. Erakutsi uste dugu bitarteko egokiak direla generoaren adierazle eta eragile gisa. Esan dezakegu, konta-saioetako testuek badutela holako planifikazio edo azpiegitura bat, konta-saio diren seinale eta komunikazio moduaren erakusgarri. Edozein kasutan, planifikazio-eskema honetatik at badago beste barietaziorik.

Baditugu atalen eta azpiatalen arteko desplazamendu kasuak, badira baita ere ordezkatzek (esaterako, atal edo azpiatal jakin bat zeinu ez-berbalez ordezkaturia). Bada atal jakinen ezabatze kasurik edota badira baita ere eskema lausoagoak edo permisiboagoak. Hala ere, ordezkatzek eta ezabatzeak ez dira hala hola egiten, badira erregulartasunak: haurren konta-saioren kasuan atarikoak atalak ezabatzeko duen joera; helduen konta-saioren kasuan artekaketa eta ziklo narratiboaren lehen elementua ordezkatzek dituzten saioren kasuan, e.a. Horri gaineratu behar zaizkio ezabatze edo ordezkatzek ekartzen dituzten bestelako konpentsazioak. Izan ere, horizontalitatea osatzen duten atal eta azpiatalek beraien arteko harreman estua erakusten dute: elkarlanean arituz egokitzapenak ahalbidetzen dituzte.

Daitekeena da, bestalde, emandako eskemaren urraketak eta transgresioak aurkitzea. Berezi esperimendazio garaian, bai baitira saio edo ahalegin esperimentalistak. Nolanahi ere, transgresio horiek ez dute gure hipotesia -erregulartasun hipotesia- baliogabetzen, transgresioetarako abiapuntua, beti ere, eredu kanonikoa baita. Testuen artean badira muga klasikoak hautsi eta transgresioa bilatzen dutenak. Maiz, portaera horrek zera nahi du: generoari berari kalitate edota literaturtasun handiagoa eman nahi zaio. Abangoardismo estetiko eta ideologikoak eraginda edo, gertatzen dira.

Beraz, bi sorburu aipa daitezke konta-saiorako deskribatu dugun ardatz horizontalaren eskema orokorra betetzen ez denean. Bata, transgresioak joera klasikoarekiko aldea markatzea. Bestea, berehalako komunikazioaren beharrak direla eta egokitzapenak egitea.

Bigarren ardatzak konta-saiorearen azpiegituraren erregimen bertikala irudikatzen du. Erregimen honetako osagai edota entitateak diskurtso egintza deitu ditugu eta hauek estrukturatze funtzioa dute. Gure lanean honako hauexek identifikatu ditugu: narratiboak (soila, sarbidezkoa, artekaketa), ludikoak, metanarratiboak (kontaktuzkoa, soila, sarbidezkoa), iruzkinak, azalpen eta argibide diskurtso egintzak.

Diskurtso egintza hauek horizontalitatean dauden osagaien kontrara ez dira entitate finkoak, aukerakoak baizik. Zentzu honetan, diferentzia eta dibergentzia adierazle eta eragile dira. Halere, uste dugu badutela nolabaiteko homogeneotasuna eragiteko indarra, hau da, konta-saioren izaera generikoa ezaugarritzeko balio dutela. Erakutsi dugu uste hori ez dela ustela izan.

Baina justifikazio horretara etorri aurretik, galdera bat egin nahi da: nola liteke dibergentzia eta diferentzia markatzeko elementuak era berean estabilitate edo

homogenotasun iturri izatea? Lehen begiratu batean, zerbait padoxikoa dirudi. Argituko dugu badela irteera edo korapiloa askatzeko modurik.

Zedarritu diren diskurtso egintzak, berez, ez dira finkoak eta alderdi horretatik homogeneotasun bainoago dibertsifikazio iturri dira, aukerazkoak izanik. Baina, azterketa sakonago batek erakutsi digu, zenbait parametro tarteko, *joerak* markatzen dituztela. Esaterako, saioan hartzen duten kokalekuaren arabera, hartzailea zein den (heldua, nerabea, haurra), e.a. Diskurtso egintza hauen maiztasuna, dentsitatea edo kopurua eta banaketak erakutsi digu halakorik. Halaber, diskurtso egintzen arteko elkartzeak eta konbinazioak ere adierazgarri dira estrukturatze bertikaleko joerak identifikatzerakoan.

Gatozen erregimen edo ardatz bertikaleko emaitzak zertan diren zehatzago ikustera.

Diskurtso egintzen eta eskema horizontalaren edo orokorraren atalen -eta azpiatalen- arteko erlazioa aztertu da. Gure lanean erakusten da badirela erlazio gertagarriagoak zenbait parametroren arabera. Ikusi dira zeintzuk diren elkartzeak, zeintzuk diren joerak eta jokabideak, zein asoziazio den gertagarriago, zein den urraketa, zein transgresio, zein berritze-saio, zein estilo propio, zein joera edo jokabide agertzen den hartzaileen arabera, zein saioaren bide berriak irekitzean, zein esperimentazio ahaleginetan. Diskurtso egintzak ez dira besterik gabe banatzen. Ilustrazio gisa, adibide batzuk ekarriko dira irakurlea ohartarazteko, baina ugariak dira:

a) Ziklo narratiboaren aurrekariak, adibidez, funtzionalki sintesi edo laburpen gisa, aurrerapen modura jokatzeko du: konta-saioan aurrera egin ahala, aurrekariaren behar handiagoa izaten da. Izan ere, bigarren ziklo narratibotik aurrera, aurrekaria atala mardulagoa eta konplexuagoa izateko joera ikusi dugu corpusetik abiatuta. Honek konta-saioko atalen arteko lotura eta koerlazioa baieztatzen digu, eta interakzio markoaren etengabeko negoziazio eta kontagaien zentzu-ematea etengabea den arren, kokalekuaren arabera aldakorra ere izango da. Ardatz horizontalean egiten diren egokitzapen hauek diskurtso egintzek ahalbidetzen dituzte hein handi batean.

b) Lehen ziklo narratiboaren aurrekariak dakarren estrukturatzeari dagokionez, esate baterako, aurretik izan ohi duen irekiera atal nagusiaren lagun hurkoa da. Batetik bestera pasatzen dira diskurtso egintzak. Mugen arteko lausotasuna handiagoa da helduen artean: argiago haurren kasuan. Aipa genezake, diskurtso egintza metanarratiboek presentzia handia dutela aurrekari lanetan.

c) Ikusi dugu, garapen atalari dagokionez, kontaktu diskurtso egintza eta narrazio diskurtso egintzen arteko txandakatzea, nahiz narrazio diskurtso egintza eta ludikoaren arteko txandakatzeak oso erabiliak direla haurren konta-saioretan.

d) Helduen saioretako garapen atalean, oro har, kontaktuzko diskurtso egintzak eta ludikoak agertzen diren arren, maiztasun hori ausazkoagoa da txandakatze sailetan eta txandakatze erregularrenak diskurtso egintza narratibo, metanarratibo, digresibo, iruzkin eta argibidezkoen artean izan ohi dira. Hala ere, esan bezala, ardatz horizontalaren kokalekuak badu zeresan handia diskurtso egintzen arteko txandakatzean sortzen diren sail erregularretan.

Honek guztiak, era berean, baieztatzen du diskurtso egintzen txandakatze legea betetzen dela, eta haren faltan, txandakatze modalitate konplexuago eta sutilagoa azaltzen dela narrazio diskurtso egintzen modalitate ezberdinak azaleraziz. Haurren eta helduen konta-saioen estrukturatze bertikalak, ondorioz, bi azpi-generoz hitz egiteko bidea ere irekitzen digu.

Corpusa osatzen duten testuen segmentazioa egiteko lagungarri izan zaigu diskurtso egintzen kategoria. Horixe izan dugu erronka nagusia: gure corpusean azterketa linguistiko-diskurtsibo bat egitekotan, lehenik oinarrizkoa iruditzen zitzaigun testu hauen azpiegituraren funtzionamendua argitzea. Proposamena da eta ohartzen gara kategorizazio honen eztabaidagarritasunaz. Baina, hain zuzen, horixe izan da tesiaren bigarren zatiaren helburua bera ere: jaso den corpusaren metodologia bat eraiki eta eztabaidagai jartzea. Zalantzarik gabe ikerketa jarraitzea beharrezkoa da, kategoria hau zehaztasun handiagoekin zedarritzeko.

Konklusioetarik dugu hau ere: kontalaria ez da inolaz ere, izaki librea, libreki ibili ahal duena. Moldea du aurrez aurre. Bide sozializatuak ditu alde zurretik eginak, “aurre-konstruktoak”. Mintzaira-moldeez baliatu ohi da bere ekintza bideratzeko hiztuna, edozein delarik komunikazio egoera. Erakutsi dugu komunikazio erlazio jakin baten instituzionalizatzeko berarekin dakarrela, ondorio gisa, eskema, egitura edo plan igualtsuak izatea. Erabilera edo praktika soziala (sozializatuak) izatea. Hortik abiatuta identifikatu dugu enuntziario instantzia bereizgarri baten jardute modua.

Horren guzti horren azterketa ahalbidetu duen corpusa bildu eta eraiki dugu. Hain zuzen, corpusaren balioa ere gogoratu gura genuke. Izan ere, tesiaren lehen zatian egin den arokatzeari jarraiki, sendotze garaiari dagokion euskarazko kontalaritzaren erakusgarri izan daitekeen corpusa osatu dugu. Guk dakigula ez dago euskarazko kontalaritza berriaren halako jarraipen kontrolatu eta sistematikoarekin bildu den beste

corpusik gurean. Grabaketak badira, baina gureak ez bestelako irizpide eta helburuekin eginak. Badu corpusak, beraz, berezko balioa euskarazko ahozkoaren azterketarako, oro har, eta zehazki kontalaritza berriaren azterketarako.

Amaitze aldera, gogora dezagun arlo akademikoak ez dio jarraipen handiegirik egin kontalari trebeen mintza jardunen deskribapenari (Bauman, 1986; Carruthers & McCusker, 2010; Caudal, 2010), gutxienez egungo kontalarienari. Kontalari trebeen ahozko narrazio arruntaren konparaziorako arretagune gisa seinalatu zuten lehenak, guk dakigula, Labov eta Waletzky izan ziren (1967). Soziolinguista hauek eragin handia izan dute ahozko kontaktaren azterketa hizkuntzalaritzan integratzeko bidean. Jakinaenez, euren ahozko narrazioaren gaineko teorizazioa diziplina askotan aplikatu da, hizkuntzalaritzaz gain: soziolinguistikan, psikologia terapeutikoan, psikolinguistikan, etnolinguistikan, solasaren analisisan, e.a. Ordea, eta Labov eta Waletzkyren 1967ko lan aintzidari hartako sarreran bertan hiztun arruntaren narrazioak komunitatean adituak ziren kontalarienekin konparatzeko egitasmoa adierazi bazen ere, ez da askorik garatu arlo honen ikerketa. Izan ere, autoreek eurek aukera hau aintzat hartu bai, baina, alboratu ere egin zuten hiztun arruntaren ekoizpen narratiboaren azterketaren alde eginez:

We suggest that such fundamental structures are to be found in oral versions of personal experiences: not the products of expert story tellers that have been re-told many times, but the original productions of a representative sample of population. By examining the actual narratives of large numbers of unsophisticated speakers, it will be possible to relate the formal properties of narrative to their functions (Labov & Waletzky, 1967:12).

Badira kontalarien jardunak azterketa akademikoetatik urrundu dituzten bestelako arrazoi asko. Ikusi ditugu tesiaren lehen kapituluaren haietako batzuk. Hala ere, Labov eta Waletzkyrengan gure aztergaiaren interesa justifikatua ikusten dugu. Lan aintzidari hartako oin ohar batean, gainera, autoreek corpusetik alboratu behar izan zuten testu baten berri ematen dute. Arrazoa? Konturatu ziren bildutako testuetariko batek narrazio egitura bereziak erakusten zituela. Testu haren sortzailea komunitatean kontalari ospea zuen subjektua zela baieztatuta, baztertuta geratu zen testu hura. Gerora asko izan dira autoreek proposatutako ahozko narrazioaren eskema oinarrizko haren aplikazio guneak (Watson, 1973; Seck, 2009; Laforest, o.c., Roulet et al., 1991; Bauman, 1987; Goodwin, 1997, e.a.). Berriz, oso gutxi ditugu kontalari trebeen

mintzajardunei aplikatu izan zaizkienak. Gure corpusean, ikusten dugu ikerketa mota hauek baliatu eta osatzeko aitzakiarik.

Azkenik, ez dugu bazter utzi nahi begirada didaktikoa. Gure lanak, hala uste dugu, testutik generorako bidea ez ezik, alderantzizkoa, hots, generotik testurakoa ere argitzen duela. Edota errazten duela. Generoaren berri izatea testuaren plataforma bilakatzen da, testua sortzeko abiaburu eta lanabes gidatzailea. Testuaren eta generoaren arteko norabide bikoitza antzeman daiteke. Alde batetik, hizkuntzen irakasleari kontasaiorearen genero-dimentsioa argitzen zaio, hau da, testu bat identifikatzeko irizpideak, baina, era berean, baita kontasaiore bat sortzeko erreferentzia bat ere, alegia, laguntza bat. Horrela, narrazioaren eskema narratiboari eta idatziaren ikuspegiari lotuegi agertzen den kontaktaren didaktikari (Brès, 1994; Dezutter, 1996/7; Delamotte eta Akinçi, 2012; Diaz de Gereñu, 2005; Beloki & Manterola, 2007) berori garatzeko baliabide eta eredu zehatzagoak eskaini izana espero dugu, kontaktaren dimentsio sozio kultural, elkarerraginezko eta berbazko zenbait ezaugarritu ditugularik. Amaitzeko, azpimarratu nahi dugu, lan hau ez datorrela soilik ahozko narrazioaren dimentsioari buruzko ezagutzak zabaltzera, narrazioaren beraren izaera eta funtzionamendua osatzera baino (Nonnon, 2000).

Asmo onenaz eginda ere, lan honek izango ditu akatsak eta ahuldadeak, baina oraingoz ekarpen txiki bat izan nahi du.

15. Bibliografia

- Adam, J.-M. (1984). *Le récit*. Paris: P.U.F.
- Adam, J. M. (1992). *Les textes: types et prototypes. Récit, description, argumentation, explication et dialogue*. Nathan: Paris.
- Adam, J. M. (2011). *La linguistique textuelle. Introduction à l'analyse textuelle des discours*. Armand Colin: Paris.
- Agiria (2008). *Ahozko narrazioaren aldeko agiria*. Euskal Herriko Kontalariak elkartearen adierazpena.
- Aldekoa, I. (2008). *Euskal Literaturaren historia*. Donostia: Erein.
- Alegria, A. (2009). Errepikapen lexikoak ahozko modalitatearen koherentzia sintaktikoaren ikuspegitik aztergai. *Euskera*, 54, 2-1 zatia, 771-809.
- Alvarez-Pereyre, F. (1976). *Contes et tradition orale en Roumanie*. Paris: SELAF.
- Amestoy, K. (1994). *Dena dela...Baxenabarreko*. Baiona: Maiatz.
- Amestoy, K. (2012). Zubi gaineko trukaketak (ipuina). *Ahoa Bete hots Jardunaldiak 2012*, 66-67. Andoain: Lanku.
- Añorga, P. (2012). *Ipuina Kontatzearen didaktikaz*. Ikusentzunezkoa. Sarean, <https://ehutb.ehu.es/eu/video/index/uuid/50bc5fe51bf7e.html>.
- Añorga, P. (1999): Haurrentzako ipuin kontaketa. In HABE, *Solasean eta jolasean. Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa indartzeko modulua. Ipuinen kontaketa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Añorga, P. (2012). Kontalarien jarrera eta hizkuntz egokitzapena haurrei kontatzerakoan. *Ahoa Bete hots Jardunaldiak 2012*, 43-57. Andoain: Lanku.
- Añorga, P. (2013). Kontaketaren erritmoan: jolasean elkarrekin. *Ahoa Bete hots Jardunaldiak 2013*. Sarean: <http://www.mintzola.eus/elkargunea/ahoa-bete-hots-jardunaldiak/artikuluak/2013-ahoa-bete-hots-kontaktetaren-erritmoan-jolasean-elkarrekin-pello-mari-anorga>
- Apalategi, J. (1987). *Introducción a la historia oral*. Barcelona: Anthropos.
- Arano R. M., Idiazabal, I., Kaifer, A., Larringan, L.M., Ocio, B. (1991). Testu azterketarako ezaugarri galbahea. Euskal testuen tipologia eta bere azterketarako metodologia, In Idiazabal, I. (ed.), *Hizkuntzaren psikopedagogia. testu motak, funtzionamendua eta didaktika*. Bilbo: Labayru, 155-210.

- Arbilla, J.K. & Kaifer, A. (1988). Gainegitura narratiboa eta aditz-kategoriaren unitateak hurrek idatzitako ipuinetan. In *II Euskal Mundu Biltzarra, Euskara Biltzarra, III Alea*, Bilbao: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, 323-332.
- Aristoteles (1994). *Poetica*. Barcelona: Icaria.
- Ariztia, Mayi (1982). *Amattoaren uzta*. Donostia: Elkar.
- Arratibel, J. (1995). *Kontu zaharrak*. Donostia: Erein.
- Arrieta, Y. (2005). *Marixor, Gatzaren atzetik*. Emakundek lagundutako autoedizioa.
- Atxaga, B. (1992). Herri-narratibagintza eta literatura. In Euskaltzaindia, *Herri literaturari buruzko bigarren jardunaldiak. Euskera, 37-1*, zatia, Bilbo: Euskaltzaindia, 531-539.
- Austin, J.L. (1970). *Quand dire c'est faire*. Paris: Seuil.
- Azkue, R. M. (1989). *Euskalerraren Yakintza. Literatura popular del País Vasco, II liburukia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Babcock, B. (1977). The story in the story: metanarration in Folk Narrative. In Bauman, R., *Verbal art as performance*. Massachusetts: Newbury House Publishers, 61-79.
- Bakthine, M. (1992). *Estética de la accion verbal*. Madrid: Siglo XXI.
- Bauman, R. (1977). *Verbal art as performance*. Massachusetts: Newbury House Publishers.
- Bauman, R. (1986). *Story, performance, and event : contextual studies of oral narrative*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Bauman, R., & Briggs, C. (1990). Poetics and performance as critical perspectives on language and social life. *Annual Revue of. Anthropology, 19*, 59-88.
- *Behinola* (2010), 22, 2010eko azaroa.
- Belmont, N. (2002). *Poétique du conte. Essai sur le conte de tradition orale*. Paris: Gallimard.
- Beloki, L.& Manterola, I. (2007). Ahozko ipuina haur-hezkuntzan: ikerketa esperimentaletik didaktikara. In I. Idiazabal & I. Garcia-Azkoaga (ed.), *Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza*. Bilbo: EHU. Sarean: www.testubiltegia.ehu.es
- Bérubé, J. (2002). Le renouveau du conte. *Mnemo, 7-1*. Kontsulta, 2012-07-16, sarean: <http://www.mnemo.qc.ca/spip/bulletin-mnemo/article/le-renouveau-du-conte>
- Blanche-Benveniste, C. (1997). *Approches de la langue parlée en français*. Ophrys, Paris.

- Blanche-Benveniste, C. (1998). *Estudios lingüísticos sobre la relación entre oralidad y la escritura*. Barcelona: Gedisa.
- Blanche-Benveniste, C & Colette, J (1987). *Le français parlé: transcription et édition*. Paris: Didier Érudition.
- Bolivar, A. (2005). *Discurso e interacción en el texto escrito*. Caracas: UCV.
- Bordieu, P. (2003). *Campo de poder, campo intelectual*. Quadrata : Argentina.
- Bouvier, J.C. (1995). L'explicite et l'implicite dans la transcription des documents oraux. *La Transcription des documents oraux : problèmes et solutions Actes de / la Conférence annuelle sur l'activité scientifique du Centre d'études francoprovençales*, Espace du Langage, PUP, 260-270.
- Brès, J. (1994). *Le récit oral*. Praxiling: Montpellier III.
- Briot, V. (2005). Être conteuse aujourd'hui. In Chaulet Achour, C. (ed.), *Conte et narration au féminin*. Paris: Broché, 159-178.
- Briz, A. (1998). *El español coloquial en la conversación: esbozo de pragmatización*. Barcelona: Ariel Lingüística.
- Bronckart, J.P. (1985). *Le fonctionnement du discours: Un modèle psychologique et une méthode d'analyse*. Neuchâtel: Delachaux & Niestlé.
- Bronckart, J.-P. (1996). *Activité langagière, textes et discours*. Paris: Delachaux et Niestlé.
- Bronckart, J.-P. (2002). La culture, sémantique du social formatrice de la personne. In Rastier, F. et Bouquet, S. (ed.). *Une introduction aux sciences de la culture*. Paris, PUF, 175-201.
- Bronckart, J.-P. (2005). *Une introduction aux théories de l'action*. Genève, Carnets de la Section des Sciences de l'Éducation.
- Brown, P., & Levinson, S. C. (1978). Universals in language usage: Politeness phenomena. In Goody, E. N. (ed.). *Questions and politeness: strategies in social interaction*. Cambridge: Cambridge University Press, 56-311.
- Bruner, J. (2002). *Pourquoi nous racontons-nous des histoires?* Paris: Éditions Retz.
- Bruno, P. (2011). La narración oral en España Una brevísima historia de la profesionalización del oficio de contar. *CLIJ, Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 244, 58-64.
- Caleme-Griaule, G. (1980). Le Temps des contes. *Critique*, 394, 278-286.

- Calame-Griaule G. (1981). Pour une étude ethnolinguistique des littératures orales africaines. *Langages*, 5, 18, 22-47.
- Calame-Griaule, G. (ed.) (1991). *Le renouveau du conte*. Paris: CNRS.
- Calsamiglia, H. & Tusón, A. (1999). *Las cosas del decir*. Ariel. Madrid.
- Carrere, J. (2007). Literatura, kontalaritza eta irakurketaren bultzatzea. *Hegats*, 29, 2001, 40-44.
- Carrere, J. (2010). Erotika eta ahozko literatura tradizionala. Euskal Idazleen Elkarteko *Hegats*, 44. zenb, aldizkarian argitaratua.
- Carrere, J. (2012). Hizkuntza egokitasunaz eta zuzentasunaz ipuin kontaketa. *Ahoa bete hots Jardunaldiak-7*. 58-65. Sarean: <http://www.mintzola.eus/elkargunea/ahoa-bete-hots-jardunaldiak/artikuluak/2012-ahoa-bete-hots-7-hizkuntza-egokitasunaz-eta-zuzentasunaz-joxemari-carrere.pdf>
- Carrere, J. (2014). Zer gara gu? *Gara*, 2014-10-05.
- Carruthers, J. (2005). *Oral Narration in Modern French. A Linguistic Analysis of Temporal Patterns*. Oxford: Legenda Monographs in French.
- Carruthers, J. & McCusker, M. (2010). *The Conte. Oral and written dynamics*, Berna, Peter Lang.
- Caudal, P. (2010). Tense switching in French oral narratives. In Carruthers, J. & McCusker, M. (ed.), *The Conte. Oral and written dynamics*. Berna, Peter Lang. 235-257.
- Cerquand, J. F. (1985). *Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak. Ipuina, fabulak, parabolak*. Donostia: Txertoa.
- Charaudeau, P. (1985). Analyse du discours et pratique de l'interculturel. *Dialogues et Cultures*, 27. Kontsulta, 2015-05-04, sarean: <http://www.patrick-charaudeau.com/Analyse-du-discours-et-pratique-de.html>
- Chauradeau, P. (1995). Un análisis semiolingüístico del discurso. *Revista Polifonía*, 5 - 6, 9-28.
- Charaudeau, P. (2013). De l'ironie à l'absurde et des catégories aux effets. In Vivero García, M. D. (ed.). *Frontières de l'humour*. Paris: L'Harmattan, 12-27.
- Cone-Bryant, S. (1991). *Comment raconter des histoires à nos enfants*. Paris: Nathan.
- Cosnier, C. & Kerbrat-Orecchioni, C. (1991). *Décrire la conversation*. Lyon: Presses Universitaires de Lyon.
- Culioli, A. (1990). *Pour une linguistique de l'énonciation*. Paris: Ophrys.

- Defrance, A. & Perrin, J.-F. (ed) (2007). *Le conte en ses paroles. La figuration de l'oralité dans le conte merveilleux du Classicisme aux Lumières*. Paris: Desjonquères.
- De Gaulmyn, M.-M. (1991). Les regulateurs verbaux: le controle des recepteurs. In Cosnier, J. & Kerbrat-Orecchioni, C., (ed.). *D'écrire la conversation*, 203-224.
- Delamotte, R. & Mehmet-Ali A. (2012). *Récits d'enfants. Développement, genre, contexte*. Presses universitaires de Rouen et du Havre.
- De La Salle, B., Fauliot, P., Hindenoch, M. & Gougis, E. (1984). *Pratique et enjeu de l'oralité contemporaine*. Vendôme (Loir-et-Cher): CLiO.
- De La Salle, B. (2007). *Bruno de La Salle: Le conteur amoureux*. Paris: Rocher.
- Dezutter, O. (1997/96). Redécouvrir le conte par les oreilles et par la bouche. *Enjeux*, 39/40, 159-168.
- Diaz de Gereñu, Leire (2005). Ahozko kontaketa eta eskolako jarduera. In Idiazabal, I. & Garcia Azkoaga, I. (ed.), *Euskal testuen azterketa eta euskararen irakaskuntza. Ikerketak eta gogoetak. Ikastaria 14*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 31-42.
- Diaz de Gereñu, L. (2009). La dinámica en el análisis discursivo de las prácticas verbales de los narradores contemporáneos en lengua vasca. *Estudios lingüísticos. Linguistic Studies*, 3, 2009- uztaila, 303-318.
- Diaz de Gereñu, L. (2012). Ahozkoaren eta idatziaren arteko interfazeak mintza jardun jakinen eraberritzean: adibide bat. Ahoa bete hots jardunaldiak-6. Andoain: Villabona, 77-108.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral*, Paris: ESF.
- Dolz, J. & Gagnon, R. (2010). El género textual, una herramienta didáctica para desarrollar el lenguaje oral y escrito. *Lenguaje*, 2010, 38 (2), 497-527.
- Du Berger, J. (2006). Un musée du conte: une muséologie des pratiques orales. *Rabaska: revue d'ethnologie de l'Amérique française*, 4, 7-14.
- Eco, U. (1999). *Lector in fabula. La cooperación interpretativa en el texto narrativo*. Barcelona: Lumen.
- *El Aedo* (2012). *Contar en tiempos de crisis*, 2., monografikoa. Sarean: [2http://narracionoral.es/index.php/es/biblioteca/revista-el-aedo](http://narracionoral.es/index.php/es/biblioteca/revista-el-aedo)
- *El Aedo* (2013). *Itinerarios de formación*, 3., monografikoa. Sarean: [2http://narracionoral.es/index.php/es/biblioteca/revista-el-aedo](http://narracionoral.es/index.php/es/biblioteca/revista-el-aedo)
- *El Aedo* (2014). *Un diccionario de narración oral*, 4., monografikoa. Sarean: [2http://narracionoral.es/index.php/es/biblioteca/revista-el-aedo](http://narracionoral.es/index.php/es/biblioteca/revista-el-aedo)
- Escandell, M. V. (2000). *Introducción a la pragmática*. Ariel. Barcelona

- Estornés, B. (1952). *Estética Vasca*. Buenos Aires: Ekin.
- Etxaniz, X. (1997). *Haur eta Gazte Literatura*. Pamiela: Iruña.
- Etxebarria Ayesta, Juan Manuel (1992). Etno-ipuin-esaundak bildu beharra. In *Euskera- XXXVII*, Separata, 385-393.
- Etxebarria Zamalloa, Igone (1992). Herri ipuin baten azterketak eta aldaerak. In *Euskera- XXXVII*, Separata, 507-530.
- Etxebarria Zuloaga, M. (1992). Euskal ipuin harrigarriak. In *Euskera- XXXVII*, Separata.
- Etxebarria Zuloaga, M. (2007). *Ipuin Magikoak*. Donostia: Ostoa.
- Fabre, D. & Lacroix, J. (1974). *La tradition du conte Occitan*. Paris: PUF.
- Fabre, D., Lacroix, J., Lanneau, G. (1980). Des lieux où l'on « cause »...système institutionnel de l'oralité rituelle occitane, *Ethnologie française, X (I)*, 7-26.
- Filliettaz, L. & Revaz, F. (2006). Actualités du récit dans le champ de la linguistique des discours oraux. Le cas des narrations en situation d'entretien. In *Protée, "Actualités du récit : pratiques, théories, modèles"*, 32, 2-3, 53-66.
- Fillol, F. & Mouchon, J. (1977). Alors cet événement s'est passé... Les éléments organisateurs du récit oral. *Pratiques, 17: L'oral*, 100-126.
- Finnegan, R. (1969). Attitudes to the Study of Oral Literature in British Social Anthropology, *Man, New Series, 4, 1*. (1969ko Martxoa), 59-69.
- Finnegan, R. (1974). How Oral Is Oral Literature? *Bulletin of the School of Oriental and African Studies, University of London, 37, 1*, in *Memory of W. H. Whiteley*, 52-64.
- Fuentes, C. (2009). *Diccionario de conectores y operadores del español*. Madrid: Arco Libros.
- Gadet, F. (1989). *Le français ordinaire*. Paris: Colin.
- Gadet, F. (2003). *La variation sociale en français*, Paris: Ophrys.
- Garcia, I. & Diaz de Gereñu, L. (2010): Ahozko narratibotasuna interakzionismoaren argitara: kohesio mekanismoek esaten digutena, *Euskera. 2009, 54, 2-1. zatia*, 723-770.
- Garcia Azkoaga, I. & Idiazabal, I. (2015). *Para una ingeniería didáctica de la enseñanza plurilingüe*. EHU.
- Garzón Cespedes, F. (1995). *Teoría y técnica de la narración oral escénica*. Madrid: Laura Avilés.

- Garro, E. (2007). *Jendaurreko debateak euskaraz. Diskurtso erreferituaren azterketa*. EHU. Sarean: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Eneritz_Garro_TESI.pdf
- Genette, G. (1989). *Figuras III*. Barcelona: Lumen.
- Genette, G. (2004). *Métalepse: de la figure à la fiction*. Paris: Seuil.
- Gibeault, S. (2003). Le renouveau du conte : entre popularité et pop-oralité. *Spirale*, iraila-urria, 192, 2003, 23-24. Kontsulta, 2015-08-24, sarean: <http://id.erudit.org/iderudit/18317ac>
- Goffman, E. (1974). *Les rites d'interaction*. Paris: Minuit.
- Goffman, E. (1991). *Les cadres de l'expérience*. Paris:Éditions de Minuit.
- Goodwin M. H. (1997). Byplay: Negotiating Evaluation in Storytelling. In Guy, G. et al. *Towards a social science of language papers in honor of William Labov, volume 2, social interaction and discourse structures*. Amsterdam: JOHN BENJAMINS.
- Göröd-Karady, V. (1982). Qui conte en France aujourd'hui? Les nouveaux conteurs. CNRS: Paris. *Cahiers de Littérature orale. Les conteurs, 11*. Paris: Publications Langues'O.
- Göröd-Karady, V. (1990). *D'un conte...à l'autre*. CNRS: Paris.
- Gougaud, H. (2006). *Henri Gougaud raconte*. Ikusentzunezko materiala. Paris: Editions du Panama.
- Gougaud, H. (1996). *Le livre des amours*. Paris, Seuil
- HABE (1999). *Solasean eta jolasean. Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa indartzeko modulua. Ipuinen kontaketa*. Gasteiz: Eusko Jauriaritza.
- Heiniger, P. (1997). "Néo-conteurs"... puisqu'il faut une étiquette. In Belmont & Gossiaux (zuz.). *De la voix au texte. L'ethnologie contemporaine entre l'oral et l'écrit*. Paris, Éditions du CTHS, 153-165.
- Heiniger-Casteret, P. (2013). Les "communautés" de conteurs. *ethnographiques.org*, 26 – 2013ko uztaila. *Sur les chemins du conte*. Sarean: <http://www.ethnographiques.org/2013/Heiniger-Casteret>
- Hélias, P.-J. (1990). *Le quêteur de mémoire*. Paris: Plon.
- Hernandez, S. (2006). *Le monde du conte, contribution à une sociologie de l'oralité*. Paris : L'harmattan.
- Hutcheon, L. (2000). *A theory of parody : the teachings of twentieth-century art forms*. Illinois: University of Illinois Press

- Idiazabal I. & Larringan, L.M. (ed.) (1999). *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: Testuratzte baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*. Vitoria-Gasteiz: UPV-EHU-Arabako Foru Aldundia.
- Idiazabal, I. & Larringan, L. M. (2008). Ahozkoari antza hartzeko hiru gogoeta. *In Euskaltzaindiaren XV. biltzarra (Euskalgintza XXI. Mendeari buruz)*. Euskaltzaindia, Bilbo, 29-38.
- Idiazabal, I., Garcia-Azkoaga I.M. (ed.) (2007). *Ahozko hizkuntza. Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lanak*. Bilbao: UPV-EHU. Sarean: <http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza>
- Imaz, Virginia (2010). Sobre el sexismo de los cuentos tradicionales (I). *Artez, 15*, apirila.
- Ingram Brian, J. (1914). Japanese Story-Telling, *The Lotus Magazine, 5, 6* zbkia, 407-412. Sarean: <http://www.jstor.org/stable/20543548>
- Irusta, A. (2001). Autu-mautuan, Gero-Mensajero.
- Irusta, A. (2004). Ipuingintzaren bidean euskalkiak eta erregistroak urratzen hasi. *2004ko Jardunaldietako Argitalpenak, Mendebaldea Kultura Alkartea*, 141-167.
- Jacques, F. (1983). La mise en communauté de l'énonciation, *Langages, 52*, 47-70.
- Jeanneret, T. (1999). *La coénonciation en français : approches discursive, conversationnelle et syntaxique*. Bruxelles: Peter Lang.
- Kaltzakorta, X. (1989). Herri ipuinen hasiera eta amaiera formulak. In Kaltzakorta, X, Larringan L.M. & Etxebarria, J.M. (ed.), *Tradiziozko ipuingintza*. Bilbao: Labayru, 11-32.
- Kerbrat-Orecchioni, C. (1996). *La conversation*. Seuil, Paris,.
- Kerbrat-Orecchioni, C. (2005). *Le discours en interaction*. Paris : Armand Colin.
- Kvideland, R. (1990). Storytelling in Modern Society. In Rörich & Wienker-Piepho, (ed.). *Storytelling in Contemporary Societies*. Tubinga: Gunter Narr: 15-21.
- Koch, P. & Oesterreicher, W. (2007). *Lengua hablada en la romanía*. Madrid: Gredos.
- Kortazar, J. (1985). *Altxorak eta Bidaiak. Haur kontabideen azterketak*. Bilbao: Desclée De Brouwer.
- Kortazar, J. (1993). Literatura de tradición en el País Vasco, *Cuenta y Razón, 84*, (separata).
- Kortazar, J. (1997). *Euskal Literaturaren historia txikia. Ahozkoa eta era klasikoa (XVI-XIX)*. Erein, Donostia.

- Kunz, M. (1997) El final de la novela : teoría, técnica y análisis del cierre en la literatura moderna en lengua española. Madrid: Gredos.
- Kwenzi-Mikala, J. (1993). La gestualite et les interactions dans la narration d'une epepee : l'exemple de mumbwanga, *Pholia* 8, 109-120. Kontsulta, 2012-07-06, sarean: http://www.ddl.ish-lyon.cnrs.fr/fulltext/Gabon/pholiapdf/pholia8/Kwenzi-Mikala_1993.pdf
- Labov, W. & Waletzky, J. (1967). Narrative analysis: oral versions of personal experiences. In Helm, J. (ed.), *Essays on the verbal and visual arts*. Seattle: University of Washington Press, 14-44.
- Labov, W. (1997). Some Further Steps in Narrative Analysis. Sarean: <http://www.ling.upenn.edu/~wlabov/sfs.html>
- Lafitte, P. (1973). Euskal ipuinak. *Euskera*, XVIII, 160-166.
- Laforest, M. (1996). *Autour de la narration*. Québec: Nuit Blanche Éditeur.
- Larringan, L.M. (1992). Ipuingintza: Komunikazioa eta praktika linguistikoa. *Euskera- XXXVII*, Separata, 497-505.
- Larringan, L. M. & Idiazabal, I. (2005). Euskararen kalitatea aztertze marko teorikoa eta metodologia. *Ikastaria*, 14, 9-29.
- Larringan, L.M. (2009). Testua, Testu-Generoa eta Hizkuntzaren Ikas/Irakaskuntza. *EUSKARA* 2009: 54,2-1 zatia, 505-539.
- Larringan, L.M. & Alegria, A. (2006). Lagunarteko ahozko euskara: deskripzioak, azalpenak eta didaktikarako proposamenak habeko ikastaroa. *XXV. Donostiako uda ikastaroak*. UPV / EHU. Eskuizkribua.
- Larringan, L. M., Idiazabal, I. & Diaz de Gereñu, L. (2008). Ipuin kontalaritzaren eredu berria?, *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarra*: Hizkuntza gaiak, 47-57.
- Larringan, L. M. & Idiazabal, I. (2008). Ahozkoari antza hartzeko hiru gogoeta. *In Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Larringan, L. M. & Ozaeta, A. (2012). Ahozkoa eta idatzia, bi kultura-Zertan elkarren oztopo, zertan elkarren aberasbide. *Ahoa bete hots jardunaldiak*. Lanku: Andoain, 11-22.
- Lavoie, S. (2005). Où en est le renouveau du conte? *Lettres québécoises : la revue de l'actualité littéraire*, 120, 15-16.
- Le Goff, J. (2003). *Diccionario Renovado del occidente medieval*. Akal: Madrid.
- Lekuona, J. M. (1982). *Ahozko euskal Literatura*. Erein: Donostia.

- Lekuona, M. (1923-1978). *Aozko literatura. In Idazlan guztiak*. Kardaberaz bilduma, 22-A, Gasteiz: Gráficas Eset.
- Lord, A. B. (2001). *The singer of Tales*. Cambridge (Massachusetts): Harvard University.
- Lopez Gaseni, M. (2006). *Literaturak umeei begiratu zienean*. Pamiela: Iruña.
- Loup, H. & Ferdinand, C. (2005). *Conter aux adolescents*. Paris: Edisud.
- Luzzati, D. (1998). Rhétorique et description de l'oral, *Verba*, 25, 7-30,
- Luzzati, D. (2004). Le fenêtrage syntaxique: une méthode d'analyse et d'évaluation de l'oral spontané. *MIDL*, Paris, 29-30. Sarean: http://www.limsi.fr/MIDL/actes/session%20I/luzzati_MIDL2004.pdf
- Maingueneau, D. (2007). Analyse du discours et archive, *Semen*, 8 | 1993. Sarean: <http://semen.revues.org/4069>
- Marguerat, D. & Bourquin, Y (2000). *Cómo leer los relatos bíblicos*. Santander: Sal terrae.
- McDowell, J. H. (1974). Some aspects of verbal art in Bolivian Quechua. *Folklore Annual*, 6: 68-81.
- Mariotti, M. (1990). *Marie Nicolas, conteuse en Champsaur*, Aix-en-Provence: Édisud.
- Mato, D. (1991). Problemas epistemológicos en las investigaciones sobre América Latina y El caribe: oralidad, escritura y la noción de literatura oral. *Boletín americanista*, 41, 101-111.
- Mondada, L. (2012). Les effets théoriques des pratiques de transcription. *LINX*, 42, Université de Paris X-Nanterre, 131-150.
- Montelle, E. (1996). Histoire du métier de conteur. Sarean: <http://www.euroconte.org/fr-fr/cmlo/editions/bulletin/anciensnum%C3%A9rosde1%C3%A07/bulletino/lecontedanstousses%C3%A9tats.aspx>
- Morel, M. A. & Danon-Boileau, L. (2001). Les productions sonores de l'écouteur du récit : coopération ou subversion? *Revue québécoise de linguistique*, 29, 1, 71-95.
- Nonnon, E. (2000). Ce que le récit oral peut nous dire sur le récit, *Repères*, 21, 23-52.
- Ochs, E. (1979). Transcription as theory. In Ochs E., Schieffelin, B.B. (ed.), *Developmental Pragmatics*. New York : Academic Press.

- Ong, Walter J. (1987). *Oralidad y escritura : tecnologías de la palabra*. México: Fondo de Cultura Económica.
- Ormières, Jean-Louis (2003). Las fuentes orales: ¿instrumentos de comprensión del pasado o de lo vivido? In *Historia, antropología y fuentes orales*, 119-132.
- Ozaeta, A. (2010). *Agirre Asteasukoaren "eracusaldia. Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan. IKER-24*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Ozaeta, A. & Arriolabengoa, D. (2013). *Bazan behin Aramaixon*. Aramaio: Aramaio Udal.
- Patrix, A. (2011). Conter et transmettre... pléonasme?. In *Pourquoi faut-il raconter des histoires ? Transmettre, Rencontres Mondoral*, Paris: Cassandre/Horschamp.
- Plazaola, I. & Alonso, M. (2007). *Testuak, diskurtsoak eta generoak Euskal testuen azterketa korrantea*. Donostia: Erein.
- Payrató, L. (1995). Transcripción del discurso coloquial. In Cortés Rodríguez, L. M. (Koord.) *El español coloquial : actas del I Simposio sobre análisis del discurso oral: Almería, 1994ko azaroak 23-25*, 43-70.
- Pelegrin, A. (2004). *La aventura de oír*. Anaya: Madrid.
- Pelen, J.-N. (1991). Du conte traditionnel au neocontage Etapes d'une evolution (exemples méridionaux). In Calame-Griaule, G. (ed.). *Le renouveau du conte*, CNRS, Paris, 123-139.
- Pendones de Pedro, C. (1992). La heterogeneidad enunciativa: algunas manifestaciones de la heterogeneidad mostrada. *ELUA*, 8, 1992, 9-24.
- Petitat, A. & Pahud, S. (2004). L'interaction narrative et ses surprises contes-atrapes. Contes-atrapes et autres curiosités de la littérature orale. *Poétique*, 138, 159-181.
- Pittet-Blanchard, C. et al. (1990). *Que sont les conteurs devenus?* Genève: Institut d'études sociales.
- Pozuelo Yvancos, J.M. (1995). Pragmática y Literatura. In González Calvo, J. M. & Terrón González, J. (ed.), *Actas de las III Jornadas de Metodología y Didáctica de la Lengua y la Literatura Españolas: Lingüística del texto y Pragmática*. Cáceres: Universidad de Extremadura, 53-76.
- Prat Ferrer, J. J. (2013). *Historia del cuento tradicional*. Edizio digitala: Fundación Joaquín Díaz. Sarean: http://www.funjdiaz.net/folklore/pdf/prat_ferrer_historia_cuento_tradicional.pdf
- Propp, V. (1987). *Morfología del cuento*. Madril: Fundamentos.
- Rastier, F. (2001). *Arts et sciences du texte*. Paris: PUF.

- Rekalde, I. (2009). La narración oral en Euskalherria. *Donostiako EHUko uda ikastaroak* (2009-7-1). Aurkeztutako hitzaldiaren eskuizkribua.
- Rekalde, I. (2010). Zertaz ari gara ipuinez ari garenean?”, *Ahoa bete hots jardunaldiak*, 1. edizioa. Andoain: Lanku, 37-46.
- Revaz, F. & Filliettaz, L. (2006). Actualités du récit dans le champ de la linguistique des discours oraux: Le cas des narrations en situation d’entretien. *Protée*, 34, 2-3, 2006ko udazken-negua, 53-66. Sarean: <http://id.erudit.org/iderudit/014265ar>
- Rispaill, M. (1995). Vers un métalangage de l’oral: qu’en disent les élèves?. In R. Bouchard & J.-C. Meyer (Eds.). *Les Métalangages de la classe de français. Colloque DFLM*, Lyon : Editions DFLM.
- Röhrich L. & W.-P., S. (eds.) (1990). *Storytelling in Contemporary Societies*. Tubinga: Gunter Narr.
- Roulet, E. eta al. (1991). *L’articulation du discours en français contemporain*. Berna: Peter Lang.
- Roulet, E. et al.(2001). *Un modèle et un instrument d’analyse de l’organisation du discours*. Peter Lang: Bern.
- Sacks, H., Schegloff, E. A. et al. (1974). A Simplest Systematic for the Organization of Turn-Taking for Conversation. *Language*, 50, 696-735.
- Sacks, H.; Schegloff, E. & Jefferson, G. (1978). A simplest systematics for the organization of turn taking for conversation. In Schenkein, J. (ed.). *Studies in the Organization of Conversational Interaction*, 7-56. New York: Academic Press.
- Sacks, H. (2000). *Lectures in conversation: volumen I & II*. Oxford: Blackwell.
- Sanfilippo, M. (2007a). *El renacimiento de la narración oral en Italia y España (1985-2005)*. Madrid: Fundación Universitaria Española.
- Sanfilippo, M. (2007b): El narrador oral y su repertorio: tradición y actualidad, *Revista Signa 16*, 73-95.
- Sanfilippo, M. (2007c). Si cunta e s’arriccunta: las fórmulas de apertura y cierre en la narración oral. *Revista de dialectología y tradiciones populares LXII*, 2 (uztaila-abendua), 135-163.
- Sanfilippo, M. (ed.) (2007d). Sección monográfica: la narrativa oral entre literatura, folklore y teatro. *Signa 16*, 11-150.
- Scot Miller, J. (1996). Early Voice Recordings of Japanese Storytelling. *Oral Tradition*, 11/2, 301-319.
- Schegloff, E., Jefferson, G., Sacks, H. (1977). The preference for self-correction in the organization of repair in conversation. *Language*, 53, 361-82.

- Schegloff, E. A. (1997). Narrative Analysis' Thirty Years Later. *Journal of Narrative and Life History* 7:1-4, 97-106.
- Schiffrin, D. (1987). *Discours markers*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Searle, J. (1969). *Speech Acts: an essay in philosophy of language*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Seck, M. (2009). *The structure of wolof sufi oral narratives: expanding the labovian and longacrean models to accommodate wolof oral tradition*. Sarean: http://www.researchgate.net/publication/266407347_THE_STRUCTURE_OF_WOLOF_SUFI_ORAL_NARRATIVES_EXPANDING_THE_LABOVIAN_AND_LONGACREAN_MODELS_TO_ACCOMMODATE_WOLOF_ORAL_TRADITION.
- Sweeney, A. (1979). Rakugo: Professional Japanese Storytelling. In *Asian Folklore Studies*, 38, 1., 25-80.
- Tauveron, C. (2002). *Lire la littérature à l'école*. Paris : Hatier.
- Teberosky, A. (1998). Introducción. In Blanche-Benveniste, C. B., *Estudios lingüísticos sobre la relación entre oralidad y la escritura*, Barcelona: Gedisa, 5-9.
- TK (2014). Nafarroako Liburuzainen Elkarteak (ASNABI) (ed.), 26., 2014ko abendua.
- Touati H. (2000). *L'Art du récit en France : problématique, état des lieux 2000*. Sarean: <http://www.conte-quebec.com/images/artdurecitfrance.pdf>
- Touati, H. (2004). La place du conte au milieu scolaire. *Lire écrire à l'école* , 22, 15-16.
- Urkizu, P. (1994). Artazuriketak eta kontagintza, *Euskera XL* (2. aldia), Bilbo, 153-160.
- Vernus, M. (2004). *La veillée. Découverte d'une tradition*. Divonne-les Bains: Cabédita.
- Viana, L. (2007). Reflexiones antropológicas sobre el arte de la palabra: folklore, literatura y oralidad UNED. *Revista Signa*, 16, 17-33
- Voigt, V. (1990). Modern Storytelling-Stricto Senso. In Rörich, L. & Wienker-Piepho, S. (eds.), *Storytelling in Contemporary Societies*. Tübinga: Gunter Narr, 23-31.
- Vygotski, L. (1968/2005 ; 33-34). *Psychologie de l'art*. Paris: La Dispute/Snédit.
- Watson, K. (1973). A rhetorical and sociolinguistic model for the analysis of narrative, *American Anthropologist*, 75, 243-264. Sarean: <http://onlinelibrary.wiley.com/doi/10.1525/aa.1973.75.1.02a00150/pdf>

- Wittig, F. (2004). Estructura narrativa en el discurso oral de adultos mayores. *Revista signos*, 37., 91-101. Sarean: http://www.scielo.cl/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0718-09342004005600007&lng=es&nrm=iso.
- Zaïka, N. (2011). La réception des contes basques au fil du temps. *ASJU, XLV-1*, 221-234.
- Zaïka, N. (2015). *Approche textologique et comparative du conte traditionnel basque dans les versions bilingues de 1873 à 1942, Iker 31*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zarcate, C. 1991. Conte et spiritualité. In CALAME-GRIAULE, Geneviève (ed.) (1991). *Le renouveau du conte*, Paris: CNRS, 389-392.
- Zumthor, P. (1990). *Performance, réception, lecture*. Paris: Le Préambule.
- Zumthor, P. (1991). *Introducción a la poesía oral*. Madrid: Taurus.

1. ERANSKINA: Corpusaren transkripziorako irizpideak eta azterketarako Corpora

Eranskin honetan, *Jendaurreko konta saioa: gertakari sozio-diskurtsiboa eta testu-genero berezitu*a tesi lanean erabili den corpora aurkezten da. Corpora guk geuk sortua da, geuk grabatua eta traskribatua. Beraz, lehen urrats batean, corpusaren bilketa transkribatze lanaren izaeraz jardungo gara, horrekin batera, transkripzio irizpide zehatzak aditzera emanaz.

Bigarren urrats batean, tesi lanaren oinarrian dagoen corpora ekarriko da, bertatik jasoak direlarik tesian agertzen diren adibideak.

Corpusaren transkripziorako irizpideak

HIJE ikertaldeak 1998-2004 bitarte garatu zuen ikerketa proiektuaren barruan euskarazko kontalarien jardunak biltzeari ekin genion 1998ean. Proiektu hartan debateak, jendaurreko ahozko azalpenak eta bestelako ahozko testu formalak bildu eta deskribatzea zen helburua. Ondoko lerroetan corpusaren bilket metodologiaren azalpena eskaintzen da.

Kontalari adituekin kontaktuan jarri eta azterketa enpirikoa egite aldera grabaketak beharrezkoak zirela azaldu zitzairen. Saio bat izango zuten hurrengoan, ondo iritziz gero, haiek esandako lekuan azalduko ginen grabaketa egitera. Grabatzeko baimena ez-ezik, grabaketa ikerketarako erabili ahal izatea ahalbidetzen zuen baimena sinatzea eskatzen zitzairen behin grabaketa eginda.

Kontalariak behin saioa amaituta baino ezin diote oniritzia eman halako eskaera bati. Konta saioek gora behera handiak izan ditzakete antolaketa eta entzuleen ezaugarrien arabera. Kontalaria ez bazen konforme geratu saioarekin, gutxieneko maila bat ez izateagatik, orduan hurrengo baterako egiten genuen hitzordua. Esan behar da kontalariak ez zutela bikainak ziren saioak bilatzen ikerketaren esku uzteko. Beraien arteko lehiarik ere ez zegoen. Duintasun kontua baino ez zen, gutxieneko komunikazio baldintzetan gauzatzen ziren saioak eskuragarri uztea zen haien kezka. Saioa gauzatzeko gertatu diren baldintza anitzengatik kontalaria disgustura gera daiteke burutu den saioarekin. Beraz, saioa amaitzean kontalariaren erabakia onartu dugu aldi bakoitzean.

Horrela, hemezortzi saio grabatu behar izan ziren kontalariak hamar saioaren oniritzia emateko. Zenbaki hauek kontalariak haien saioak burutzeko dituzten baldintzen erakusgarri bezala har daitezke.

Saioaren eta ekoizten zen ahozko testuaren dibertimendu eta estetika helburuen alde egin zen eta guretzat testu genero gisa har zitzakeen gorpuzte eta ezaugarriak ziren berariaz zaindu beharrekoak. Horrek grabaketa momentuan jarrera jakin bat izatera bultzatu gintuen, grabatzera gindoazela ezkutatu gabe ere, entzulearena jokatzera, hain zuzen.

Saio guztiak kontalarien ohiko jardueraren barruan grabatu ziren. Behaketa egitera mugatu ginenez, grabaketetarako inolako prestakuntza edo gertakari berezirik ez zen adostu ikertzaile eta kontalariaren artean. Kontaketa saioak hasieratik bukaerara daude grabatuta. Saioak gauzatu ziren komunikazio egoeraren deskribapen orokorrak jasoak gelditu ziren, geroago fitxetan erakutsiko dugun moduan.

Bildutako corpusean hurrekin eta nagusiekin egindako konta saioak daude, baita eremu euskaldunetan eta baita eremu erdaldunetan jasotakoak ere. Iraupenaren aldetik zenbait erregulartasun atzematen dira. Kontalariak diotenez, hurrekin egindako saioek nekez gainditzen dituzte 45 minutuak, eta ia inoiz ez ordubetea. Helduekin, ordea, ordubete inguru edo hortik gora. Beraz, corpusean bildutako testuetan xehetasun horiek baieztazen dira, hiru iraupen tarte edo begiztatuz: hurrekin egindako saioek 54-57 minutu inguru irauten dute; helduekin 67-69 minutu inguru; eta nerabeekin 82 minutu inguru. Nerabeen saioak izan ohi dira irregularrenak eta berariazko ezaugarriak dituzte (Loup & Ferdinand, 2005). Hala erakusten du corpusak. Izan ere, azpimarragarria da nerabeekin egindako saioaren iraupen luzea. Transkripzioak erakusten duenez, entzuleek kontalariari eskatu zioten behin eta berriz saioa luzatzea.

Euskarriari dagokionez, grabaketok minidisc formatoan eta bideokamaraz ere egin ziren zenbait kasutan. Bideoa saio batzuetarako baino ez zen erabili. Hainbat arrazoiengatik minidiscaren formatoa ziurtatzea erabaki zen. Arrazoia bikoitza zen: berbazkoaren azterketari lehentasuna eman zitzaion ikerketaren hastapenetik batetik eta bestetik, ez berbazkoaren azterketarik ez zen aurreikusten. Bideo kameraz grabatutako saioak, gainera, bestelako aukeraketa irizpideak tarteko baztertuak geratu ziren.

Hona egin ziren grabaketetatik abiatuta osatu den hamar konta saioetako corpusaren xehetasunak:

1. fitxa: T1 konta saioa	
Corpusean duen izendapena	T1
Konta saioaren izenburua	<i>Bibir del Kuento</i>
Grabaketaren data	1998/12/09
Lekua	Eibarko <i>Ignacio Zuloaga</i> institutua
Ordua	11:00
Iraupena	82'29''
Kontalaria	Joxemari Carrere
Antolatzailea	Irakasleak
Entzule kopurua	125 bat ikasle
Entzule mota	LOGSE 2. mailako ikasleak (17-18 urte bitarte)
Parte hartze mota	Itxia/halabeharrezkoa
<p>Oharrak</p> <p>Deialdia itxia zen, institutoko ikasle jakin batzuentzat baino ez zen. Irakasleek antolatu zuten saioa eta aretoko atzeko aldean eseri ziren.</p> <p>Ikasleak erabateko arretarekin egon ziren arren, hainbeste izanik eta kontalariak hainbeste barre eraginda, transkripzioa zailago egiten duten hotsak eta barreak sarritan azaltzen dira. Batzutan kontalariak ezin du aurrera egin, barreak baretu artean inoiz segunduren batzuk itxaron behar izaten du berbetan jarraitzeko.</p> <p>Saioa areto nagusian egin zenez eta gainezka zegoenez, kontalaria oso ozen hitzegitera behartua zegoen. Zabala baino luzea zen aretoa.</p> <p>Joxemari Carrere kontalariak oholtza gainean igota egin zuen konta saio. Bertatik ezker eskubi mugitu arren, ez zen behin ere oholtza gainetik jeitsi.</p> <p>Objektu gisa Maliko musika tresna bat, kaxa bat eta kondoi bi erabili zituen konta saioa bi tartetan. Grabagailua oholtza gainean jarri zen, lurrean. Behatzailea lehenengo lerroan, grabagailutik gertu.</p>	

2. fitxa: T2 konta saioa	
Corpusean duen izendapena	T2
Konta saioaren izenburua	<i>Bilintx</i>
Grabaketaren data	1998/12/09
Lekua	Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Ordua	18:00
Iraupena	69'64''
Kontalaria	Koldo Amestoy
Antolatzailea	Nafarroako Unibertsitate Publikoa (irakasle talde bat)
Entzule kopurua	30 bat lagun
Entzule mota	Bertako ikasleak gehienak (20-26 urte bitarte)
Parte hartze mota	Librea/irekia
<p>Oharrak</p> <p>Pascal Gagne musikariarekin batera egindako konta saioa. Konta saio honen berezitasuna kontalaria eta musikariaren arteko elkarreraginean datza.</p> <p>Unibertsitatean bertan burutu zen konta saioa, areto nagusian. Entzuleak sartzeko argi nagusiak itzalita zeuden eta argi leunek giro gozoa sortzen zuten.</p> <p>Koldo Amestoy eta Pascal Gagne aurkezleak aurkezpena egin ondoren irten ziren jendaurrera. Oholtzara atera eta bertan igaro zuten biek ikuskizun osoa.</p> <p>Koldo Amestoyk zutik egin zuen saio osoa, eszenatokiaren aurrealdearen erdi aldean kokatuta. Noizbehinka, berba egiteari uzten zionetan, atzera egiten zuen apur bat, baina bestelako lekualdatzerik ez zuen egin.</p> <p>Musikaria, berriz, batetik bestera ibili zen barreiatuta zeuden musika tresnek eszenatoki guztia hartzen baitzuten: organo elektrikoa, akordeoia, gitarra... Lekualdatzeak entzuleentzat ia oharkabeak ziren.</p> <p>Musikarekin zabaldu eta itxi zen ikuskizuna.</p> <p>Saioari buruzko eztabaida bat egon zen amaieran, baina arazo teknikoengatik ez zen grabatzerik izan.</p>	

3. fitxa: T3 konta saioa	
Corpusean duen izendapena	T3
Konta saioaren izenburua	<i>Makilargi</i>
Grabaketaren data	1998/12/10

Lekua	Basauriko Kultur Etxea
Ordua	19:00
Iraupena	67'68''
Kontalaria	Koldo Amestoy
Antolatzailea	<i>Euskararen Bila</i> elkarte
Entzule kopurua	50 bat lagun
Entzule mota	Euskaltegiko ikasleak batez ere (25 urte ingurukoak)
Parte hartze mota	Librea/irekia
<p>Oharrak</p> <p><i>Euskararen bila</i> euskararen aldeko elkarteak antolatu zuen ikuskizuna, Basauriko kultur etxeko antzeztokian.</p> <p>Entzuleak aretoaren atzealdean jarri ziren. Kontalariak aurreratzea eskatu zien kontak saioa hasi aurretik. Deialdia irekia zen arren, entzule gehienak euskaltegiko ikasleak ziren.</p> <p>Eszenatokiaren erdian eta aurrealdean aulki bat besterik ez zegoen. Aretoan sartzeko argi nagusiak itzalita zeuden eta argi apalek giro goxoa sortzen zuten.</p> <p>Kultur elkarteko partaide batek Koldo Amestoy kontalariaren aurkezpena egin zuen eta ondoren atera zen eszenatokira kontalaria, eskuartean pandero bat zuela. Ikuskizunak iraun zuen denbora guztia aulkian eserita egin zuen. Azken agurra egiteko besterik ez zen zutitu.</p>	

4. fitxa: T4 kontak saioa	
Corpusean duen izendapena	T4
Kontak saioaren izenburua	---
Grabaketaren data	1998/12/14
Lekua	Zumaiako <i>Foronda</i> Kultur Etxea
Ordua	17:00
Iraupena	Iraupena: 54'28''
Kontalaria	Pello Añorga
Antolatzailea	<i>Foronda</i> Kultur Etxea (liburutegia)
Entzule kopurua	25 bat lagun
Entzule mota	9-10 urte bitarteko haurrak
Parte hartze mota	Librea/irekia
<p>Oharrak</p> <p>Kultur etxeko ganbaran egin zen, lekuak giro goxoa eskaintzen zuelarik. Liburutegiko bi arduradun bertan zeuden. Argi nagusiak piztuta egon ziren ikuskizun guztian zehar. Haur batzuk aulkietan, eta beste batzuk lurtean eseri ziren zain zeukatzen kontalariaren parean. Haurrak kokatzen lagundu eta gero kontalaria berriz aulkian eseri zen eta ez zen kontak saio guztian jaiki.</p> <p>Saioan zehar haur batek eragozpenak sortu zizkion kontalariari.</p> <p>Saioaren erdialdera haur batzuk solfeora joan behar zutela eta saioa eten egin zen, egoera kudeatze aldera.</p>	

5. fitxa: T5 kontak saioa	
Corpusean duen izendapena	T5
Kontak saioaren izenburua	---
Grabaketaren data	1998/12/16
Lekua	Basauriko <i>Pozokoetxe</i> Kultur Etxea
Ordua	11:00
Iraupena	Iraupena: 55'09''
Kontalaria	Pello Añorga
Antolatzailea	Basauriko <i>Pozokoetxe</i> Kultur Etxea
Entzule kopurua	80 bat lagun
Entzule mota	7-9 urte bitarteko haurrak
Parte hartze mota	Itxia/halabeharrezkoa
<p>Oharrak</p> <p>Gela arrunt baina handia erabili zen. Alfonbra handi batek kontalariak erabiliko zuen espazioa eta entzuleena bereizten zuen.</p> <p>Laurogei bat haur bertaratu ziren irakasleekin batera eta haurrak sartu orduko lurtean alfonbraren gainean edo haren atzean eseri ziren. Ordurako, kontalaria, aulki baten eserita zegoen. Hala ere, kokatzen</p>	

ere lagundu zien. Haur guztiak eseri eta gero, argi nagusiak itzali ziren eta kontalariari zuzendutako argi xume bat utzi zen.
Kontalariak kaxa handi bat eta danbor bat erabili zituen saioaren une ezberdinetan.
Azken kontakizuna burutzeko antzeppen bat egin zen, eta bi haur boluntario aterako dira antzeztera.

6. fitxa: T6 konta saioa	
Corpusean duen izendapena	T6
Konta saioaren izenburua	<i>Ipuin beroak</i>
Grabaketaren data	2004/03/20
Lekua	Gasteizko <i>Aldabe</i> Kultur etxeko liburutegia
Ordua	19:00
Iraupena	57'
Kontalaria	Joxemari Carrere
Antolatzailea	Gasteizko liburutegien sarea
Entzule kopurua	40 bat lagun
Entzule mota	Batez ere euskaldun berriak: euskaltegietako ikasleak, helduak.
Parte hartze mota	Irekia/librea
<p>Oharrak</p> <p><i>Aldabe</i> gizarte etxeko liburutegian egindako konta saio hau, 2003/2004 ikasturtean Gasteizko liburutegietan irakurketa sustatze aldera antolatutako hainbat konta saioetako bat izan zen.</p> <p>Liburutegiko sarreraren pareko paretaren kontra aulki ilarak jarrita, eszenatoki gisakoa sortua zen entzuleak sartu orduko. Behin entzule guztiak eserita zeudenean baino ez zen azaldu kontalaria jendaurrean, apalategien artetik. Aulkietan kontalariaren saioaren eskuorriak zeuden.</p>	

7. fitxa: T7 konta saioa	
Corpusean duen izendapena	T7
Konta saioaren izenburua	---
Grabaketaren data	2004-06-20
Lekua	<i>Armentia</i> ikastola
Ordua	12:00
Iraupena	60'
Kontalaria	Itziar Rekalde
Antolatzailea	<i>Armentia</i> ikastola
Entzule kopurua	30 inguru
Entzule mota	Helduak (baina haur batzuk ere sartu ziren gurasoekin)
Parte hartze mota	Librea/itxia (ikastolako gurasoek baino ezin zezaketen parte hartu).
<p>Oharrak</p> <p>Gasteizko <i>Armentia</i> ikastolan urte bukaerako ospakizunak tarteko, gurasoentzat konta saioa antolatu zen. Kontaketa areto nagusian egin zen. Kontalariak solas egiten du entzuleekin kontaktarekin hasi aurretik, jendeak lekua hartzen duen artean.</p> <p>Nagusientzat antolatua zen arren haur batzuk egon ziren, kontalariak saio hasieran ohartarazi arren hura ez zela haurrentzako. Espero izatekoa denez, eta haurrak izateko nahikoa lasai egon ziren arren, haurrek eragozpenak sortu zizkieten kontalariari saioan zehar. Hala ere, gurasoek ez zituzten haurrak aretotik atera.</p> <p>Lehenengo zazpi kontakizunen artean Tonino Carotoneren <i>Me Cago En El Amor</i> abestia darabil kontalariak; horretarako musika tresna bat dauka eszenatokiaren atzealdean. Aldiro, entzuleei bizkarra emanez musika tresna pizten du. Kanta zati bat entzunarazi eta gero berriz musika kendu eta jendaurrera aurreratzen da.</p>	

8. fitxa: T8 konta saioa	
Corpusean duen izendapena	T8
Konta saioaren izenburua	<i>Emiliano, tzolilak eta gu</i>
Grabaketaren data	2004/06/08
Lekua	Zabaldi Elkartea
Ordua	19:00
Iraupena	63'

Kontalaria	<i>Baltziskueta</i> (Aitor Txarterina)
Antolatzailea	Zapatisten aldeko astea; <i>Zabaldi</i> elkarte
Entzule kopurua	50 bat lagun; helduak.
Entzule mota	Militante internazionalistak edo sentsibilitate horren gertukoak
Parte hartze mota	Librea/irekia
<p>Oharrak</p> <p>Iruñeako <i>Zabaldi</i> Elkartean, EZLN-aren alde antolatutako hainbat ekintzen artean konta saioa antolatu zen, astearren irekiera ekintza bezala. Zabaldi elkarteko gela batean tarima txiki bat egonik, kontalariak argiak -foko bi- prestatu zituen eta atzeko horman zapi handi bat jarri zuen zintzilik. Beraz, eszenatokia bere erara antolatu zuen.</p> <p>Saioaren hasieran antolatzaileetako batek aurkeztu zituen bai aste osoko egitaraua eta bai kontalariaren saioa bera. Azpimarratzekoa da konta saio hau enkarguz egin zela, aste osoko jardunaldiaren tematika jasota.</p>	

9. fitxa: T9 konta saioa	
Corpusean duen izendapena	T9
Konta saioaren izenburua	---
Grabaketaren data	2004-06-25
Lekua	Miarritzeko <i>Itsas Argi</i> ikastola
Ordua	11:00
Iraupena	38'
Kontalaria	Rai Bueno
Antolatzailea	Iparraldeko hiru irrati (<i>Gure Irratia</i> , <i>Xiberoko Botza</i> eta <i>Irulegiko Irratia</i>)
Entzule kopurua	30 bat haur
Entzule mota	8-10 urte bitarteko haurrak
Parte hartze mota	Beharrezkoa/itxia
<p>Oharrak</p> <p>Iparraldeko hiru irratiaren ekimenez (<i>Gure Irratia</i>, <i>Xiberoko Botza</i> eta <i>Irulegiko Irratia</i>) konta saio bi antolatu zituzten Miarritzeko <i>Itsas Argi</i> ikastolan. Saioak irrati ere emitituko zirenez, irratiako kazetari bat zegoen tartean grabaketa lanak egiten. Kazetariak saioak amaitzean hurrei galderak egiten zizkien haien erantzunak grabatuz gerora emitituak izateko.</p> <p>Ikastolako jangelan izan ziren kontaktak. Kontalariak eszenatoki edo areto antzeko bat moldatu zuen aulkiekin. Bi saioetan lehena 8-10 urte bitarteko haurrekin burutu zen eta bigarrena, 5-7 urtekoekin. Lehenengo saioari dagokio fitxa hau.</p>	

10. fitxa: T10 konta saioa	
Corpusean duen izendapena	T10
Konta saioaren izenburua	---
Grabaketaren data	2004-06-25
Lekua	Miarritzeko <i>Itsas Argi</i> ikastola
Ordua	12:00
Iraupena	44'
Kontalaria	Rai Bueno
Antolatzailea	Iparraldeko hiru irrati (<i>Gure Irratia</i> , <i>Xiberoko Botza</i> eta <i>Irulegiko Irratia</i>)
Entzule kopurua	30 bat haur
Entzule mota	5-7 urte bitarteko haurrak
Parte hartze mota	Beharrezkoa/itxia
<p>Oharrak</p> <p>Iparraldeko hiru irratiaren ekimenez (<i>Gure Irratia</i>, <i>Xiberoko Botza</i> eta <i>Irulegiko Irratia</i>) konta saio bi antolatu zituzten Miarritzeko <i>Itsas Argi</i> ikastolan. Saioak irrati ere emitituko zirenez, irratiako kazetari bat zegoen tartean grabaketa lanak egiten. Kazetariak saioak amaitzean hurrei galderak egiten zizkien haien erantzunak grabatuz gerora emitituak izateko.</p> <p>Ikastolako jangelan izan ziren kontaktak. Kontalariak eszenatoki edo areto antzeko bat moldatu zuen aulkiekin. Bi saioetan lehena 8-10 urte bitarteko haurrekin burutu zen eta bigarrena, 5-7 urtekoekin. Bigarren saioari dagokio fitxa hau.</p>	

Fitxa hauek, berriz ere saio bakoitzaren transkribaketaren aurretik gehituko dira.

Gure azterketaren oinarria den corpora osatze aldera erabili ditugun transkripzio irizpideak zertan diren azalduko dugu ondoren, ahozkoaren azterketa eta behaketan oinarritzkoa da eta.

Ondorengo lerroetan, transkripziorako irizpide zehatzak zehaztu aurretik, corpus enpirikoen transkripzio lanaren berezitasunak hizpide izango ditugu.

Izan ere, ezinbestekoa da transkripzioak dakarren lanaz hausnartzea eta hartu diren erabakiak argi adieraztea. Transkripzio irizpideek izan dute gure aldetik hausnarketa eta tratamendu sakona, testuen analisisan eragin kaltegarriak sahiesteko bestekoak bai behintzat (Blanche-Benveniste & Colette, 1987). Gauza jakina da, erabakiok ezinbestean azter objektuari eta beraz, azterketari berari eragiten diotela.

Ahozko mintzairaren ikertzaileak behaketa/azterketa bideratu ahal izateko transkripzioak egin behar ditu, grabaketetatik abiatuta. Zientzien filosofian behatzen den horretan behatzaileak duen eraginaren gaineko kezka klasikoa areagotu egiten da ahozko mintzairaren behaketan: teknologi aurrerapenak gora behera, behatzaileak transkripzioaren bitartez azterketa objektua bera eraiki beharra du (Ochs, 1979). Berbazko mintza jarduera enpirikoak manipulatu daitezkeen idatzizko testuetan ezarri eta irudikatu beharra dago, ikertzailearen datuak horiexek izango dira eta.

Transkripzioa baina, lan mekaniko hutsa izatetik urrun, deskripzioa eta analisi maila bat suposatzen duela erakutsi da. Zehazki, Ochsek (ibid.) transkribaketa helburu eta aurreiritzi teorikoak islatzen dituen aukeraketa prozesua dela erakutsi zuenetik, transkripzioaren gaineko gora beherak –erabiltzen den metadiskurtsoa barne- mintzagai sahietzekin dira ikerlariarentzat (Payrató, 1995; Mondada, 2000/2014; Calsamiglia & Tusón, 1999). Hala, transkripzio bat berbazko elkartrukearen isla fidela bihurtu nahi izatea irudipen hutsa dela onartu beharra dugu (Ochs, ibid.; Mondada, ibid.). Halaber, transkripzio erabilgarriena transkripziorik aukeratuena edo selektiboena izango da (Ochs, 1979:44). Hots, dena delako elkartruke komunikatiboaren transkribaketan ahalik eta zehaztasun gehien eman nahi izateak transkribatutako testua aztertzerako orduan ulertezin edo gutxienez erabiltzeko zaila bihur dezake. Izaeraz eta funtzionamenduz gauzapean modu ezberdinak dira ahozkoa eta idatzizkoa eta bakoitzak bere baliabideak gauzaten ditu, ordezkazekin zenbaitetan. Beraz, egokiena, transkribaketa ikerketa helburuen arabera egokitzea litzateke. Aukeraketa edo selekzioa sustatzekoa da transkripzioa egiteko orduan, berau hausnartutakoa eta alde aurretik finkatu eta

erabakia den baldintzapean. Transkripzioak ikerlariaren ikerketa interesak islatuko ditu, modu agerian:

Selectivity then, is to be encouraged. But selectivity should not be random and implicit. Rather, the transcriber should be conscious of the filtering process. The basis for the selective transcription should be clear. It should reflect what is known about children's communicative behavior. For example, it should draw on existing studies of children's cognitive, linguistic, and social development. Furthermore, the transcript should reflect the particular interest –the hypotheses to be examined- of the researcher. (Ochs, 1979:44)

Laburbilduz, ikertzailearen egitekoa transkribaketa prozesuaren berezitasunez ohartu, transkripzio irizpideak gogotik hausnartu, finkatu eta ahozkoari eta oro har mintzairari berari buruzko aurreritziez jabetu eta horiek gainditzen eta saiatzea da (Mondada, 2000/2014). Guzti honengatik, lehenik, transkripziorako aukeratu diren irizpideak zein helburuen arabera egokitu diren azalduko dugu eta ondoren irizpide zehatzak emango ditugu. Esan dugunetik eratortzen da, irizpideok eurok gure testuen lehen azterketa baten emaitzatzat ditugula, gure azterketaren helburuak eta arloan egin diren orain arteko ikerketak barne hartzen dituzte eta.

Aipatu berri dugu irizpide jakin batzuk aukeratzekoan, aukera mugagabeen aurrean ikerketaren helburuak eta arloan egin diren ikerketek ere eragin beharko luketela. Hala ere, gure ustez testu generoak ere badu zeresana. Lagunarteko solasa izan, debate formala edo ahozko hitzaldi baten transkribaketa, transkribatzaileak berbazko jardun horiek irudikatzeko behar ezberdinak izango ditu eta ondorioz baliabide ezberdinetara joko du. Adibide bat jartzearren: oro har, behintzat, hitzartzeen gainjartzea irudikatzeko zeinuen garrantzia eta hitzartzeen antolaketa moduaren berri ematea debatean, hitzaldi batean, edo eta solasean aldakorra izango da, azken honetan oinarritzkoa delarik (Sacks, H., E. A. Schegloff, et al., 1974). Konta saioetan, hitzaldi formaletan bezala, apenas agertuko da gainjartzerik, eta hitzartzea/gainjartzea zein entzulek egiten duen ez da solasean edo debatean bezain garrantzitsua izango. Zehaztasun horiek lortzea metodologikoki neketsua izango litzateke, baina egin liteke azter helburua izanez gero, jakina. Gauza da, generoa gehiago ezaugarritzen dela entzule taldeak bere osotasunean aportatzen duenagatik norbanakoak dakarkionetik baino.

Aukeratu diren testu generoak gauzatzean hartzen duen luzerak ere ezartzen ditu bere mugak zehaztasunari begira. Gure kasuan, hasierako helburutan ez zegoen

berbazkoa ez denaren azterketa egitea, nahiz eta konta saioetan berebiziko garrantzia hartzen dutela badakigun. Gure azterketa konta saioen berbazko alderdiari begira jarri zen hasieratik eta haren arabera ezarri ditugun transkripzio irizpideak. Erabilera dialektologikoak eta aldaera fonetikoak elkartrukean gerta bezala jasotzea garrantzitsua zen, baina kontalariak esandakoa jasotzearen, ez bere horretan helburu bezala.

HIJE Ikertaldeak 2000. urtetik aurrera garatu dituen transkripzio irizpideak hartuko dira oinarri moduan, hainbat ahozko testu generoren behaketa ahalbidetu dutenak (Garro, 2007; Alegria, 2009). Transkripzio irizpide orokor horiek aztergai izan diren testu generoei egokitu izan zaie, testu genero horien azterketen aurrekariak dena delako arloan jaso izan dituzten tratamenduen eta testuek eurek erakusten zituzten ezaugarriak aintzat hartuta. Datuen eta analisi helburu eta metodoen arteko joan-etorria etengabe egin da gure lanean (Calsamiglia & Tusón, 1999).

Kontalari garaikideen corpusari dagokionez, kontutan hartu behar dira transkripzioan eragingo duten hainbat eragile. Batetik, aurrekari gutxi dago kontalari garaikideen testu enpirikoen transkripzioei dagokienez (Bauman, 1986; Carruthers & Caudal, 2010; Seck, 2009) eta erabiltzen diren transkripzio irizpideak soilak dira, ia ia idatzi arruntaren adierazpideen parekoak. Bestetik, kontalarien mintzairaren berbazko testualite orokorra deskribagai dagoelarik, erabili ditugun transkripzio irizpideek grabatu diren testuen berbazko elementuak biltzea dute helburu nagusia. Horrek esan nahi du oraingoz, elementu kontestualak edo paraberbalak (entonazioa, kinesika...) eta beste baliabide garrantzitsuak ez direla aintzat hartuko burutu nahi den deskribapenean. Zenbaitetan jasoko dira, adibiderako: musika tresnak erabiltzen badira; pertsonaien arteko elkarrizketen mimesia oso nabarmena egiten denean; kotestuan intonazio edo indar aldaketa oso nabarmenak direnean; eszenatokian leku aldaketak egiten direnean... hauen agerpena ordea, ez da modu sistematikoan egingo. Grabazioek luzera handia dute eta kontalarien estiloak ere asko eragiten du. Beraz, ahoskatze indarra, esaterako, konta saioa irudikatuko duen kotestuaren barruan baloratuko du transkribatzaileak. Ez da kategoria erabatekoa izango. Eskura ditugun baliabide teknologikoen eragin handia dutela transkribatzerakoan, nola ez. Prosodiari dagokien alderdiek, intonazioa eta azentua bezalakoak esate baterako, adituen esku utzi beharrekoak dira (Blanche Benveniste, 1998), eta testu segmentu laburrak tratatuz egiten dira. Beraz, oso nabaria izan ezean –beti ere kotestuari begira– batetik transkripzioak irakurtezinak ez bihurtzearen eta bestetik ez berbazkoaren transkribapenean subjektibotasuna sahiestearren, alderdi horiek ez dira jaso. Izango da aurrerago eta behin berbazkoaren

gaineko azterketa abiatuta, ez-berbazkoaren alderdiei heltzea. Oraingoz, baliatuko ditugun transkripzioetan hiru helburu lortu nahi izan ditugu:

-Konta saioen izaera testual eta diskurtsiborako lehen hurbilketa deskriptibo bat ahalbidetzea. Ahozko konta saioak suposatzen duen mintzaira egintzaren berri emango luketen datu esanguratsuenak biltzea, horien analisi kuantitatibo eta kualitatiboa egite aldera.

-Ahozko konta saioen transkripzioarekin ahalik eta corpus ulergarri eta irakurterrazena lortzea.

-Irakurgarritasuna edo ulergarritasunaren ondorioz komunikazio elkartrukean gertatu dena ez ezabatzea edo moldatzea. Transkripzioa erabiliko duenak ez du hala beti, ataza erraza izango corpora irakurtzerakoan. Jakinik ere transkripzioa ez dela grabatu denaren isla izango, eta ikerlariaren eskuhartzea sahiestezina, kontalarien berbaldia bere horretan jaso nahi izatea da xede nagusia.

Azken irizpidea hau, hedatua da komunitate zientifikoan. Bouvierrek (1995) dioen moduan, ordea, oso irizpide zorrotzak bihurtzen dira elkarrekin aplikatzeko orduan, etengabeko aukeraketak egitera bultzatzen du eta transkribatzailea, bataren edo bestearen alde.

Goazen orain, transkripziorako erabili ditugun irizpide zehatzak azaltzera.

Lehenengo eta behin transkripziorako irizpide zehatzak aurkeztuko ditugu eta ondoren zenbait ohar egin.

Gogora irizpideok bi ardatzen arteko oreka lortzera bideratuak daudela: irakurgarritasuna eta fideltasuna. Testuen luzera kontutan hartuta eta helburu fonologikorik ez ditugunez, idazkera ortografikoa erabiliko da, arloan oro har egiten den bezala (Blanche-Benveniste & Colette, 1987), zenbait puntutan euskarazko ezaugarri fonetiko jasoko ditugun arren.

Hona transkripzio irizpide zehatzak:

- Kontalaria izenaren eta abizenaren lehen hizkiez identifikatuko da: adibidez PA=Pello Añorga.

- Entzuleek erantzun edo parte hartzen dutenean EN izango da parte hartzailearen izena. Ez dira banakoak ezberdinduko.

- Kontalaria eta entzuleek ahobatez zer edo zer esaten dutelarik DENAK zeinua erabiliko da.

- Lerroak zenbatu egingo dira testuaren ezkerretara.

- Etenak. (/) zeinuaren bitartez belarriaren perzepzioaren bitartez hautematen diren etenak adieraziko dira, talde erritmikoak markatuz. Etenak bi segundukuak direnean (//) erabiliko da. Bi segundutik gorako etenen luzera parentesi artean adieraziko da, hala nola: (3''), (9''), e.a.. Galdera edo harridura ikurrak agertzen direnean aurretik, galdera edo harridura zeiniek eten bat adieraziko dute. Hala, *ez zion erantzun!* / eta *ez zion erantzun!*(5'') segmentuetan bi eta sei segunduko etenak daudela ulertuko da, hurrenez hurren.

- Izen berezietan baino ez dira letra larriak erabiliko. Idatzirako erabili ohi diren puntuazio adierazpide arruntik ere ez da erabiliko.

- Berbazkoak ez diren ekintza adierazgarriak (keinu, leku aldaketa, musika jotzea...) edo eta erabilera prosodiko bereziak eta kantatutako segmentuak parentesi artean adieraziko dira. Ekintza horiek testuaren ondorenean datorren segmentuan eraginik badu, kurtsibaz adieraziko da eragina noraino heltzen den, hala nola: “itxarongo zuela / itxaron () / (panderoa hartuta kantatzen du) *itsasoa laino dago:: Baionako barraraino::/ nik zu zaitu::t maitiago::/ txoriak bere habia bai_ / arratsaldero portura jaisten zen irrikaz / holako irriño batekin / **pozik!**”. Ekintzak segmentu luzeak hartzen baditu, parentesi artean adieraziko da iraupena, adibidez:: “(ondorengo kontakizunak musika lagun izango du) / udazkeneko osto bat bezela poliki poliki / hondarrean / Annak belarriak tente entzun ditu abotsak urruntzen / izpirituak aldegiten / orduan bere gordalekutik atera da eta / gaua da / a:! gauean holako ilargi zerbait dago zeruan / ingurua begiratu ta / ez du ezagutzen kontxo hau zer da? a! kos kostaldea ondo ezagutzen du Annak baiña hau (...)”*

- Kontalariaren jardunean (barreak) zeinuak adierazten da entzuleek barre egin izana, ez da aparteko lerroan. (barre egin du) edo eta (barrea) zeinuak testuan kontalariari dagokio, aditzaren pertsona marka singularrean erabilita. Adibidez, ondoko segmentuan adierazten diren barreak entzuleenak izango direla ulertuko da: “PA: konturatu / eta sarea zabaldu / eta hantxe harrapatu zu **iaug:::!** (barreak) / sartu zuen! sartu zuen kaiolaren barnean! eta gure:: txoriketaria pozik / hurbildu zen hantxe atzeraka! ekin zion *atzera atzera atzera*.

- Adieraziko diren intonazio motak hauexek izango dira: harridura “!”; galdera “?” eta amaitu gabeko esaldiak “()”.

- Ahotsaren modalizazioa oso markatua den segmentuetan parentesia artean adieraziko da zein intonazio mota den. Halaber, iintonazio horrek hartzen duen

segmentua letra etzanez markatuko da: “gizona etorri zitzaion eta / eta (haserre bizian) *baina zu nor zara!*”

- Silaba apurtzeak (-) zeinuarekin irudikatuko dira: “Barandiarra:.-ek”

- Letra lodiz adieraziko dira silaba batzuetan jarritako indarra: “harek **etzeukala!**”

- Ulertzen ez diren hitzak edo interbentzio ulergaitzak parentesien artean eta silaba bakoitzeko X bat markatuz adieraziko dira. Adibidez, bi silaba ulergaitz dagoenean horrela adieraziko da: (XX). Hiru silabatik gora ez bada ulertzen (XXX) zeinuarekin adieraziko da.

- Segmenturen biren artean aukeratzeko zalantzak izanez gero, gezien artean adieraziko da eta bietan lehena hobesten dela ulertuko da. Hurrengo adibidean, esaterako, ulertuko da bi aukeren artean *arraro bat* dela transkribatzaileak hobesten duena: “ez galdetu izena nik katxarroa deitzen det ze beti ahaztutzen zait izena / izen <arraro bat, arraroa> dauka eta (XX)”.

- Oro har entzuleen erreakzioak ez dira jasotzen, ez bada eragozpenen bat jartzen diotelako kontalariari. Baina testualitatean eragin argia duten entzuleen interbentzioak bereziki markatuko dira, adibidez ondokoa modukoak: “eta otsoa lo:tan zegoela ikuxterakoan / orduan laxai / baina pozik / jarraitu zuen basoan! ariniketan / *ariniketan ketan ketan ariniketan ketan ketan* / (haur batek eztul egin du) eztulik etzuen / baina eztul bat sentitu zuen / bazan beste animaliren bat / zuhaitz baten atzetikan azaldu zitzaion /” (T10:135-139)

- Entzuleen interbentzioen aldiberekotasuna lerroen bidez adieraziko da grafikoki:

“PA: **entzun** ditzagun!

EN: **nungua** zia?

.....bai / baino esan dezu errepikau ein behar deula!

.....(haur askok batera) *a::::::::::! orduan!* () (XXX)”

- Onomatopeiak entzuten diren bezala adieraziko dira: “*tirri tirri*”, e.a.

- Errepikapenak, amaitu gabeko hitzak eta enuntziatuak...entzuten diren bezala jasoko dira transkripzioan.

-Transkripzioak ahozkatze modua jaso behar du ahal dela, erregistroaren araberrako aldagaiak, nahiz pertsonalak nahiz dialektalak jasoz: *ikuttu; egin tzuen; makiña; nunbeit*; e.a.

- Ulergarritasunaren mesedetan, inoiz, forma estandarra adieraziko da parentesi artean atzean: *eantzi* (erantzi).

- Erderazko berbak entzuten diren bezala: *ol rait* (ingelesezko *all righ*), *me* (frantsesez *mais*), *ombre* (gazteleraz).

- Solasak oso konplexuak direnean ez da ñabardurarik emango eta “(solasa)” adieraziz nahikoa izango da irakurleak pertsonaien arteko solasa irudikatzeko. Pertsonai bataren eta bestearen berbaldiaren hasiera eta amaierak ez dira adieraziko, oro har.

Amaitzeko argi ditzagun fonetikaren gainean hartu ditugun zenbait erabaki, ahozkatze moduak bere horretan jasotzeko nahiari koherentzia emanaz:

1. Asimilazioak eta disimilazioak bere horretan jasoko dira: *goizian, juaten...* Esan beharra dago bokal bilkurak kontalari bakoitzarengan ere ez direla beti egonkorak.
2. Sabaikaritzeak bereziki adierazkorak direnak jasoko dira: *harrittuta, ikuxten, dixut...*
3. Kontsonante elkarketak eta morfosintaxi mailako kontrakzioak bere horretan jasoko dira: *etzen, ezta, uztazu, biozu.*
4. Hasperenketa marka euskara batuaren arau ortografikoen arabera adieraziko da. Bai eta txistukariak, bai afrikatu eta bai eta frikariak ere.
5. *Ja* baieztapena marka edo partikula diskurtsiboa *ia* silaba hiatoa ahalera partikula modalarengatik bereiztuko dira.
6. Prosodiari dagokionez, maiz kontrastez jasotzen dira aldaketa nabarmenak. Modalizazioa hain intensoa izanda kontakettetan, oso aproximatiboa izango da fenomeno hauen presentzia transkripzioan. Pertsonaien arteko solasetan edo barne pentsamenduaren adierazpideetan, esaterako, ez da beti garbia narratzailearen eta pertsonaien arteko muga. Adibide ugari dauzkagu testuetan: T6 testuan-->isopoa+ donostiarra ezkondu. T5en (439-440.1.) narratzailea (edo pertsonai nagusia-gizon zaharra?) darabilen ahotsa panpinetzako erabili duen ahots bera da.

Azkenik esan, transkripziorako *courrier new* letra tipoa aukeratu dela, irakurterrezagoa delakoan. Letratik letrara (zeinutik zeinura) espazio handiagoa izateak laguntzen duela iruditzen zaigu, bereziki testu luze eta lerro mardulez osatutako corpora daukagularik.

Orain bai, tesi lana egiteko erabili dugun corpora aurkezteko moduan gaude.
Corpusa osatzen duten fitxetan erabili den orden bera erabiliko dugu ondoren.